BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2017

Antolatzailea: Euskal Herriko Bertsozale Elkartea

Koordinazioa, kronikak eta bertso hautaketa: Euskal Herriko Bertsozale Elkartea

Bertsoen transkripzioa: Xan Alkhat Duhart, Rosita Anakabe Solabarrieta, Irati Bravo Bereinkua, Jon Gurrutxaga Urbieta, Izar Mendiguren Cosgaya

Audioen bilketa eta edizioa: Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Doinuen azterketa: Martin Aramendi Arana, Joanito Dorronsoro Goikoetxea

Partituren prestaketa: Miren Izagirre Etxebeste

Argazkiak: Alberto Elosegi Erdozia, Gari Garaialde Etxaburu, Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Zuzenketak: Martin Aramendi Arana, Euskal Herriko Bertsozale Elkartea

Azaleko irudia, diseinua eta maketazioa: Lanku Kultur Zerbitzuak

© EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA
© LANKU BERTSO ZERBITZUAK, S.L.

.....

Argitaratzailea:

EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA
Kale Nagusia 70
20150 Amasa-Villabona

e-maila: bertsozale@bertsozale.eus
www.bertsozale.eus

LANKU BERTSO ZERBITZUAK, S.L.
Martin Ugalde Kultur Parkea z/g
20140 Andoain

e-maila: lanku@lanku.eus
www.lanku.eus

.....

I.S.B.N.: 978-84-946981-2-5
L.G.:

.....

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetzea intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa, jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke (Kode Penaleko 270 eta hurengo artikuluak). CEDRO erakundeak (www.cedro.org) babesten ditu aipatu eskubide horiek.

....

Bertsolari Txapelketa Nagusia 2017

....

bertsozale elkartea

Aurkibidea

Atarikoa 9

KRONIKAK ETA BERTSO HAUTATUAK

Final laurdenak
Baigorri 12
Segura 28
Leitza 44
Zalla 64
Zumaia 78
Tolosa 94

Finalaurrekoak
Bastida 114
Irun 132
Maule-Lextarre 150
Durango 166
Amurrio 182
Donibane Lohizune 202
Iruñea 222

Finala
Barakaldo 246

IRITZIAK 363

DOINUTEGIA
Erabilitako doinuen zerrenda 432
Doinuen azterketa 439
Bertso doinu berriak 447

ERANSKINAK
Bertsolari Txapelketa Nagusiaren historia 478
Txapelketaren antolaketa eta egitura 480
Ariketak 481
Egutegia 483
Bertsolari parte hartzaileak 484
Sailkapena 489

ARGIBIDEAK

Liburu honetako bertsoak Bertsozale Elkarteak kaleratutako *Bat-bateko bertsoak idatziz emateko irizpideak* izeneko irizpideetan oinarrituta transkribatu dira.

Bi zutabetan daude bertso lanak idatzita. Lehenik, ezkerreko zutabea irakurtzen da goitik behera, eta ondoren, eskuinekoa.

Erantsita doan CDan bertsoaldi guztien audioak aurkituko dituzu.

Udazkena hasi berritan Baigorrin abiatu genuen Bertsolari Txapelketa Nagusia, eta neguaren atarian amaiera eman, Barakaldon. Bitartean Euskal Herrian barna ibili da txapelketa eta harekin batera parte-hartzaileak, bertsozaleak, antolatzaileak, kazetariak... Askotariko jendea bertsoari kateatuta.

Txapelketa berean lehen aldiz Euskal Herriko herrialde guztietan izan dira saioak. Aurkezpenean esan genuen moduan ez zen asmo sinbolikoa, ezta erakustaldirik egin nahia ere. Bertsolaritzaren egunerokoaren isla da Bertsolari Txapelketa Nagusia eta hori izan da 2017ko edizioa.

Bere handitasunean proiektu askoren erakusleiho aproposa bihurtzen da txapelketa: Bertso Eskolen Eguna egin dugu Seguran, material didaktikoa jarri dugu euskalduntzen ari direnen eskura, bertso udalekuen 20. urteurrena ospatu dugu Amurrion, *Aulki-Jokoa* telebista saioa astelehenetako ezinbesteko hitzordua bihurtu da, adituen artikuluak izan dira astero webgunean, Mintzola Ahozko Lantegiaren eskutik atzerriko inprobisatzaileek eta ikertzaileek bertsolaritzaren berri zuzena izan dute...

Nolanahi ere, handiak txikia behar du; makroarekin batera, mikroaren beharra du txapelketak, bi norabidetako fluxua baita. Herriko dinamika askoren hauspoa izan ohi da txapelketa eta, era berean, herrietako sare eskuzabala behar du gisa honetako ekimen handi batek. Horregatik, beste behin ere alboan izan ditugu bertso eskolak, horiek dira icebergak behar duen oinarria, eta haiengandik ezinbesteko laguntza jaso dugu. Eskerrik asko guztiei emandako laguntzagatik.

Era berean, Bertsozale Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie gure urteroko jarduera babesten duten erakunde, elkarte eta enpresei. Horiez gain, txapelketan zehar izan ditugun iragarleei, gugan konfiantza jartzeagatik. Txapelketaren berri eman duten mota guztietako hedabideei. Azkenik, baina ez azkenak, eskuzabalik hartu gaituzten herriei ere asko diegu eskertzeko. Elkarlanean sinesten dugu eta elkarlanean egiten dugu aurrera.

Beste txapelketa bat joan da eta gauza eder asko utzi dizkigu. Liburu hau lagin bat baino ez da; batetik, horientzako guztientzako tokirik ez dagoelako eta, bestetik, asko ezin direlako hitzez jaso, zirraren eremu zehazgaitzean iltzatuta gelditu dira. Zorionez, txapelketa ez da ezeren amaiera eta, lurralde berrien bila, bertsolaritzak herriz herriko bere bidea segituko du.

FINAL LAURDENAK

Aimar Karrika Iribarren

Alaia Martin Etxebeste

Ander Lizarralde Jimeno

Beñat Ugartetxea Ostolaza

Mikel Artola Izagirre

Xabi Maia Etxeberria

BAIGORRI

2017/09/23, LARUNBATA, 17:00
EZKER PARETA
FINAL LAURDENAK. LEHEN SAIOA

Bertsolariak:
Aimar Karrika Iribarren
Alaia Martin Etxebeste
Ander Lizarralde Jimeno
Beñat Ugartetxea Ostolaza
Mikel Artola Izagirre
Xabi Maia Etxeberria

Gai emailea: **Joana Itzaina Malharin**

Epaileak: **Aitor Jimenez Tolosana, Eneko Bidegain Aire, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa, Jon Abril Olaetxea, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Karlos Ibarguren Olalde eta Maite Sukia Olano**

Udazken hasi berrian agurtu du Baigorrik Txapelketa Nagusiko lehen saioa. Giro ederrarekin agurtu ere. Eguzkitan eta hain paraje ederretan ez dirudi jendeak barrurako gogo gehiegi izango duenik. Neska-mutilak entrenatzen ari diren errugbi zelaia eta bainua hartzen ari diren igerilekuaren tartean geratzen da ezker pareta. Kanpoaldeko beroaren aldean -27 gradu inguru-, zertxobait freskoago dago barruan -20 graduren bueltan-.

Hala ere, saioa hastearekin batera ezker pareta bete duten seiehunetik gora lagunek ederki berotu dute lekua. Zentzu guztietan. Txalo zaparrada ikaragarriaz hartu dituzte oholtzan zazpi protagonistak. Eta berotasun horrekin jarraitu du saioak bukaerara arte. Bertsolariak suelto eta ale ederrak utziaz aritu dira, osotasunezko bertsoaldiak tantakago iritsi badira ere. Bukaeran, alde dezentez Alaia Martin nagusitu da eta zuzenean sailkatu da finalerdietarako. Irunen kantatuko du oiartzuarrak. Besteek hurrengo saioek eta puntuazioek ematen dutenaren zain egon beharko dute.

HASIERAKO AGURRA

A. Karrika
Neurria: Hamaseiko txikia
Doinua: *Eperrak badititzu*

Zure belardi berde
eta mahats gorri
Iparla dena harri
Munoa elorri
iparra lotura ta
Nafarroa jatorri
holako lekura nor
ez gogoz etorri?
Gainera Xalbadorrek
iduzkia igorri
txapelketak baditu
horrenbeste orri
guk heldu nahi diogu
lehenengo horri
bertso saioarekin
gozatu Baigorri!

ZORTZIKO HANDIA

M. Artola – A. Karrika

Gaia: Gurasoak zarete. Zuen alabak orain bost urte amaitu zituen ikasketak. Geroztik, han eta hemen ari izan da lanean, baina erraten du ez daukala etxetik joateko diru nahikorik.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

M. Artola:
Zer gertatuko zen atzemana
zegon bera aspalditik
etorkizunik ez omen dago
eta ingenieritzatik
beti etxean bueltaka dabil
nahiz esplikatu zergatik
diru nahikorik ez dauka eta
gogoa ere ez dakit. (bis)

A. Karrika:
Gogoa nik ba sumatzen diot
eta nabil egiazki
Mac Donald's baten ibili zen lehen
egun, arrats ta arrasti
supermerkatu batean gero
Championean zehazki
diru guztiak batuta ere
oraindik ez luke aski. (bis)

M. Artola:
Nahikoa duen edo ez duen
ez da hain gauza normala
nahiz gurasotan nik hartu dudan
orain hain papel zitala
gerora ere igual gertatu
behar zaio Aimar hala
guk emana're gastatzen baitu
asko baleuka bezala. (bis)

A. Karrika:
Ene kartera zabaltzen badu
gure alabak indarrik
pila bat maite dudala nola
ez dagon erran beharrik
gure etxean bueltan badabil
horrek ez du ezer txarrik
bestela guk zer egingo dugu
etxean biak bakarrik? (bis)

M. Artola:
Zuk badakizu hau gertatzea
normal da bihar nahiz etzi
ze ingo degu ba biok bakarrik?
Maitasun betean etsi
asteburua ta asteguna
ia ezin ditu bereizi
nik ez dakit zer gertatu zaion
guk ez gendun hola hezi. (bis)

A. Karrika:
Gauean berant oheratuta
berantegi da jaikia
bere izaera bere kabuz du
gure alabak eraikia
hogeita hamar ai urte jadanik
ta etxean atxikia
baina neretzat beti izango da
gure etxeko txikia. (bis)

X. Maia – A. Lizarralde

Gaia: Zuen herriko kultur elkartearen sortzaileak zarete. Elkartearen jardunari eusteko, ezinbestekoak izan zarete urteetan. Azkenaldian, ordea, jende berria hurbildu da ardurak hartzeko prest.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Manuel Narruk atzo esan dit C*

X. Maia:
Baigorri aldean hasiera baten
langintza hotz ta garratza
ilusioaz bertze aldera
iraulia da balantza
jende gaztea gure artera
hurbiltzen ari da antza
Basaizearen artean behintzat
haize berriak dakartza.

A. Lizarralde:
Bizi guztia jardunak gara
beti "dale" eta "dale"
gu izan gera atzeko hoien
zintzarri eta juale
gaztiekin nun nik konfidantza
ta ez digute egin kale
orain artian gauza ederki
egin dugunan seinale.

X. Maia:
Nafarroaren Egunarekin
muga genun lehen traba
baina aurrera segitu genun
eta gainditu ikara
jende gaztea esku zabalik
erakusten dun zirrara
xaharren aldean gazteagoez
askoz errexagoa da.

A. Lizarralde:
Baina zaharrak kritika ere
egiten du noski bela
"gaztiak dula fudamentoik ez
gaztia dela epela"
iruditzen zait nahi duna egiten
utzi beharra zaiela
azken batian gure garaian
guk egin genun bezela.

X. Maia:
Guk ere hala egin genuen
baikenuen gazte garra
bainan orain dugu adinarekin
gure gazteen beharra
elkarlan hori urte askotan
ez dugu izango txarra.
Esperientzia jarriko dugu
eta gazteek indarra.

A. Lizarralde:
Gaztia utzi nahi dut lanian
gauza ondo irten dedin
bere indarra gure norantza
daukagulako atsegin
guk nahiko muga badugu Xabi
han neke eta hemen min
lan asko egiten ez badugu're
trabarik ez zagun egin!

ZORTZIKO TXIKIA

A. Karrika – B. Ugartetxea

Gaia: Zuk, Aimar, arropa denda bat duzu. Beñat zure dendara etorri den bakoitzean, arropa andana probatu eta deus erosi gabe atera da. Oraintxe dator berriro.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Igaran egun batez*

A. Karrika:
Dendara zu sarritan
zarenez aurkeztu
gero dena biltzeko
larri eta estu
zerbait erosi zazu
dago zure esku
edo bestela zu behar
zaitut nik tolestu.

B. Ugartetxea:
Oso haserre zaude
zenbat ika-mika
ea aldatzen dizuten
medikuek botika
etxera joango naiz
bai lagun korrika
baina joan al neike
zapatak jantzita?

B. Ugartetxea:
Harria bezain gogorra
naiz ni eta keba!
Baina ikusten dut bada
denda hontan aukera
zapatila politak
dituzu gainera
ai etxean ahaztu zait
berriro kartera!

A. Karrika:
Horrelakoak ez dira
denda hontan bakan
begia jartzen dute
kamisetan, prakan
berriz ere bazatoz
hona diru faltan
korrika joango zara
bai, baina lau hankan!

A. Karrika:
Ordenatua naiz ni
eta oso fina
ta zuk uzten didazu
guzia zikina
karteraren bila joan
etxera jakina
ez baduzu probatu
nahi nere espartina.

B. Ugartetxea:
Maiteminduta nago
zapata hoiekin
ta erosi bitarte
ekin eta ekin
bihar etorriko naiz
nere andrarekin
ea konpontzen zaren
Aimar berarekin.

LEHEN PUNTUA EMANDA

A. Martin
Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orain hasi bihagu*

Irailak dakarkigu
kurtso hasiera
ez dago hain urruti
kurtso amaiera
aro oro sentitzen dut
nik neuk gauza bera
berriz hasteko berriz
dugula aukera.

Futbola, ingelesa
musika eskola
futbolarenak bero
jartzen dit odola
askori axola arren
ez baitzait axola
eta ez dut izan nahi
partidan kontrola.

Onenak izateko
presio galanta
baina guztiok sartu
behar dugu hanka
hanka sartzea baita
geroko palanka
onena geure baitan
maiz egoten da ta!

HAMARREKO TXIKIA

M. Artola - A. Martin

Gaia: Zu, Mikel, irrati euskaldun bateko zuzendaria zara, eta Alaia, bertako esataria da. Mikel, Alaiak gazteendako musika saio bat gidatzen du. Entzuleek euskal musikarik eskatzen ez dutela eta, kezkatuta etorri zaizu gaur Alaia.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Espainian behera*

M. Artola:
Hainbeste musika ta
hainbat euskal gazte
nahiz eta euren ustez
diren horren aske
kulturalki kanpotik
hainbeste atake
nahiz ez eskatzea izan
leiken gure kalte
ez eskatuta ere
jarri genezake. (bis)

M. Artola:
Ez da helburua ta
ez naiz joango bela
horretan soilik ez da
neurtzen nibela
gutxi dira euskaldun
lehenago bezela
eta jakin behar dezu
ezin da bestela
minoria batentzat
aritzen garela. (bis)

A. Martin:
Gazteak ta euskara
direnez bi mundu
euskal musikak egin
ohi ditu urrundu
nahiz nik hau indartzea
eduki helburu
nigana etorriko
zara zu seguru
gero entzule batzuk
galtzen baditugu. (bis)

A. Martin:
Batzutan izaten dut
mingaina lodia
kontatuz ta kantatuz
mila istoria
irratia, kultura
da ta ez “lobby”a
bale ba jarriko dut
Laboan txoria
minorizatu dadin
gure minoria. (bis)

M. Artola:
Badakit gutxi dira
batekoz besteko
audientzian ez gabiltz
aspaldi perfekto
badaukagu aukera
hori zuzentzeko
Laboan txoriakin
bazabiltz hasteko
garaia badaukazu
modernizatzeko. (bis)

A. Martin:
Beldurra neukan baina
ez dakit zergatik.
Bidea egingo dugu
berriz euskaratik
Izaro, Esne Beltza
ta bi kuña zatik
betetzen nau Laboan
hainbeste esaldik.
Mila esker hegoak
ez mozteagatik! (bis)

KARTZELAKO LANA

A. Martin

Gaia: Komisaldegitik deitu dizute, agertu dela esanez.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Norbere mundu intimo*

Beldurra nagusi bada
beltzagoa denez gaba
zenbat minutuz begira
ordulari honetara.
Haserre bat izan gendun
ta bost egun dira jada
falta zaizkidala bere
mimo, bere besarkada
bere irripar ta erantzun
eta bere begirada.
Kiribilduaz joan naiz
luzaro nire baitara
tik, tak, ordulari batek
dio taupadaz taupada
baina antza komisarian
zain daukat nire alaba. (bis)

Komisariak esan dit
lasai xuabe xuabe:
"Hemen dago bai benetan
hemen daukat parez pare".
Negarrari eusteko ez
dut nahikoa abildade
bare behar nuke baina
oraindik ez nago bare
nahiz ta alaba Eider beti
hain izan den burujabe
beldur askotara egin
izan dit buruak alde
bortxatu ta hil dutela
pentsatu izan dut hala´re.
Neskok beti beldurrera
kondenatuta al gaude? (bis)

Gauak bere baitan zenbat
drakula, zenbat marrazo
zenbat igual, zenbat edo
zenbat bueno ta akaso
baina alabak badaki
minetaz egiten paso
ta haunditzen ta haunditzen
hasia da mantso-mantso.
Komisarian sartu naiz
barruko geletara so
eta hor dago Eidertxo
nire sorgin ta iratxo.
Esan dit “Damutu nintzen
ez gaur baizik eta atzo
hemezortzi bete arte
ez naiz joango amatxo”. (bis)

A. Lizarralde
Gaia: Komisaldegitik deitu dizute, agertu dela esanez.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Laurogeita hamar urte*

Haizian kontra ari zen
bizimoduan borrokan
ta azkenik haize guzia
juan zitzaion errotan
bizia neurtzen zuen
tragotan eta lerrotan
ta bukaera azkarra
izaten da holakotan. (bis)
Berari laguntza eskeini
izan genion askotan
zegon zulo horretatik
ateratzeko asmotan
konzientzia oso lasai
daukat behintzat gauza hortan
bakoitzak bere bidia
hautatzen du bizi hontan. (bis)

Aspaldi pasa zitzaion
bere azkeneko trena
eta ez zun berak jakin
nola sartzen zen barrena
zulo bakoitza haunditzen
juan zelako hurrena
ta gero ta haundiagua
zen zebilkien herrena. (bis)
Bere buruaz beste're
zen egin nahiko zuena
norbait aurkitu ote dun
hori da ez dakitena
lasai egin´zala behingoz
arnasa ta hasperena
heriotzak eman dio
bizitzak ezin duena. (bis)

Lehengo astean ikusi nun
ez zeukan itxura finik
bere bisaian ez baitzun
begirada atseginik
ez nion bronkarik bota
ta gutxio hitz gordinik
besarkada eman nion
beste gauzarik ezinik. (bis)
Bizitzeko zertan egin
behar du ba ahaleginik
ez duenak aurkituko
ez dena samin ta minik?
Kontsuelo asko ez dut
baino bat behintzat badut nik
mundutikan juan dela
maite dudala jakinik. (bis)

BUKAERAKO AGURRA

A. Martin
Neurria: Hamabiko handia
Doinua: *Ez nau izutzen negu hurbilak III*

Babes osoa Etxauziari
amets haundi ta euskaldun
Katalunian gisan guztia
posible dela demagun.
Lagunei mila eta bat esker
nire bihotzaren garun
zuentzat ere eskerrik asko
musu bana ezezagun
izan dadila busti ta heze
hain zabal ta hain xarmadun
belarra moztu berria dago
bidean jarrai dezagun!

Ander Fuentes Mujika “Itturri”

Beñat Iguaran Amondarain

Felix Zubia Olaskoaga

Jon Martin Etxebeste

Nerea Elustondo Plazaola

Unai Gaztelumendi Arandia

SEGURA

2017/09/30, LARUNBATA, 17:00
BARATZE PILOTALEKUA
FINAL LAURDENAK. BIGARREN SAIOA

Bertsolariak:
Ander Fuentes Mujika "Itturri"
Beñat Iguaran Amondarain
Felix Zubia Olaskoaga
Jon Martin Etxebeste
Nerea Elustondo Plazaola
Unai Gaztelumendi Arandia

Aurkezlea: **Oier Suarez Hernando**

Epaileak: **Aitor Jimenez Tolosana, Eneko Bidegain Aire, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa, Jon Abril Olaetxea, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Karlos Ibarguren Olalde eta Maite Sukia Olano**

Seguran zegoen iragarrita bigarren final laurdena, aurretik Bertso Eskolen Eguna ere bai, eta iragarpenek zioten eguraldia ontzen joango zela arratsalderako. Hirugarren hau ez da bete. Zirimiria ari du. Lanbroak ezkutatzen ditu maite ditugun gure bazterrak.

Bertsolaritzaren topagune bihurtuta dago goizetik Segura. Bertso Eskolen Eguna ospatu da bertan. 12:30etik hasita festan daude bertso eskoletako kideak. Gero Iparra-Hegoa taldeak prestatutako bazkaria gozatu ahal izan dute. Eta bertsorik ez bada falta izan ere, Baratze pilotalekura inguratu dira txintxo saioa hasterako.

Lauretan zabaldu dira ateak, eta esan bezala kanpoan giro ona ez zegoenez -18 gradu inguru-, berehala hasi dira eserlekuak betetzen. Zazpiehun bat izango dira saioaz gozatuko dutenak. Saioa hasterako eserita daudenen arteko solasaldietan Katalunia nagusituko da ziurrenik. Ez da alferrik bozketa bezpera!

Bertsolariak ere gogoratu dira horretaz: Jon Martinek “l’Estacaren” doinuan kantatu dio agurra herri arrebari eta Felix Zubiak Puigdemonten papera hartu du bakarkakoan, katalanez hitz eta esaldiak tartekatuz. Maila onekoa izan da saioa. Puntu erantzunetan zertxobait jaitsi bada ere, ofizioetan eta kartzelakoan bertsoaldi politak entzun ahal izan dira. Jon Martinek ziurtatu du final laurdenetarako postua. Nerea Elustondok eta Beñat Iguaranek aukerak izango dituzte.

Saioaren ostean, egunak aurrera segitu du, triki poteoa eta amaitzeko, kontzertua.

HASIERAKO AGURRA

J. Martin
Neurria: Hamabiko ertaina
Doinua: *Agure zahar batek zion*

Arratsalde on Segura
txapelketa aitzaki
gaur kantatu nahi nioke
herri arreba bati
nahiz ta etsaiak askotan
bi hegalak ebaki
txoriak hegan ta hegan
jarraitzen du temati
gaur zenbakiak zenbaki
seikoak bertsotan daki
ta haien bidez nahi genuke
nor garen erabaki. (bis)

ZORTZIKO HANDIA

U. Gaztelumendi - N. Elustondo

Gaia: Eskolako jangelako langileak zarete. Harrituta zaudete ikasle askok bertan duten jarrera lotsagabearekin.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Uso zuri bat inguratu zait A*

U. Gaztelumendi:
Gu lantokira etortzen gera
lana egiteko asmoz
umeengana hurbiltzen gera
horren asmo ta hitz goxoz.
Nahiz eta hauek ekarri behar
luketen horrenbeste poz
gosea eta errespetua
etxean utzita datoz.

U. Gaztelumendi:
Erremediorik ba ote dago
ume bihurri hauekin?
Nahi duten dena egiten dute
gukin, begiraleekin
edozer gauza esaten dute
eta hauei berdin-berdin
eta guk berriz ezin diegu
hitz txar bat bera ere egin.

N. Elustondo:
Hemen guztiak dira hain guaiak
ta denak horren makarra
jangelan sartu ta animalien
gisa dabiltz tirri-tarra.
Egia esan ez ote degu
benetan triste xamarra
etxean hartzen ez den ardura
gu biok hartu beharra?

N. Elustondo:
Ez da errexa zuk eta biok
gurekin degun afera
guztia txarra lehen platera
edo bigarren platera
baina ez dakit guk ezer onik
genezakeen hor atera
etxean ohitu baldin badira
pizza bakarrik jatera.

U. Gaztelumendi:
Auzolagunek kontratatuak
gatoz umeen ondora.
Begira Aitor, ze bihurria!
Hemen dagonaren froga.
Nik ere zerbait egin behar det
mendeku pixka't gustora:
lenteja denak bukatu arte
mahaiean geratuko da.

N. Elustondo:
Esan bezela lentejen partez
jaten baitituzte pizzak
ta ondoriozko borondateak
ta errespetu murritzak
orain haizeak eraman arren
biok egindako hitzak
lasaitu Unai bere lekuan
jarriko ditu bizitzak!

J. Martin - B. Iguaran

Gaia: Asteburu oro irteten zarete elkarrekin bizikletaz ibiltzera. Joan den asteburuan txirrindulari bat harrapatu zuten bihurgunetik pasatu berri zarete.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Beste bateko inularretan*

J. Martin:
Bihurgunetan bihurgunea
dagoen bihurriena
lore sorta bat gogoratzeko
pertsona baten azkena.
Nahiz egun hartan askok ipini
titularretan gorena
zeinen aguro ximeltzen diren
loreak ta oroimena! (bis)

B. Iguaran:
Tranpolinetik neronek ere
askotan egin det salto
mendira igo irrista egin
ai ene zenbat zartako!
Istripu hauxe istripua da
ta hola hartu beharko
bestela askotan gure etxetik
ez ginake aterako! (bis)

B. Iguaran:
Lehenago ere egin ditugu
honelako mila saio
loreak utzi atzean eta
esana diegu aio.
Hain poetiko ez zaitez jarri
oraingoan Jon arraio!
Toki askotan gertatzen dira
istripua deitzen zaio. (bis)

J. Martin:
Bulegoraino goiz iristera
bultzatzen gaitu enpresak
gure *hobby*ak azkarrak dira
ta desioak *express*ak.
Zenbat pertsona hiltzen dituen
ezin iritsi estresak!
Presak jendea hiltzen du baina
gu beti besteren presak. (bis)

J. Martin:
Barkatu pixka't dramatizatu
egin bada nere hitza
baina sentitzen dudan beldurra
ez da batere murritza.
Istripu deitzen diozu baina
igual nahastuta zabiltza
deskuido batek akabatzen du
pertsona baten bizitza. (bis)

B. Iguaran:
Besteen presak, presa bihurtu
hara hor zure izena
baino gu biok barruan degu
kirolariaren sena.
Larunbatean ohean egon
horixe litzake pena
guk gure martxa jarraitzea da
omenaldirik onena. (bis)

ZORTZIKO TXIKIA

A. Fuentes "Iturri" - J. Martin

Gaia: Itturri langilea eta Jon nagusia zarete. Iturri, ostirala da, eta lan-jarduna amaitzear zaudela, hor etorri zaizu Jon nagusia esanez azken orduko lan bat sartu dela eta bukatu arte geratu beharko duzula.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

A. Fuentes "Itturri":
Gogo handia nuen
astebururako
eta hurbildu zera
ni joaterako
gelditu behar naizela
lana badelako
eta zu nora zoaz
jantzita hain guapo? (bis)

J. Martin:
Nagusiak ez dauka
nahikoa azalpen
oroitu kontratatu
zaitugula aurten
ze harrapatu zaitut
etxera joaten...
Etortzeko ez duzu
presarik izaten! (bis)

A. Fuentes "Itturri":
Presarik inoiz ez dut
hori da egia
baina ateratzen dut
nahiko izerdia.
Geratu behar dudala
hemen alegia
esklabutza ote da
zure estrategia? (bis)

J. Martin:
Lan gehio izatea
ez da hain arraro
zure asteburuko plan
guztiak akabo!
Karpeta hau oraintxe
itxi beharra dago
ta bukatzen baduzu
badauzkat gehiago. (bis)

A. Fuentes "Itturri":
Beraz lan pila bat dut
mahai gainean zai
bueno nagusia hobe
ez izanda etsai.
Ostirala da ta hemen
geldituko naiz bai
baina eman zaidazu
astelehena jai. (bis)

Jon Martin:
Ez, ez astelehenean
bulegora buelta
ta lehenbailehen bukatu
hiru-lau karpeta
Benga! Aupa! Animo!
Alaitu kopeta!
A, portzierto banoa
jai hartu dut eta! (bis)

LEHEN PUNTUA EMANDA

J. Martin
Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

Dantzan egitea da
gauza atsegina
ordun ez duzu egin
Martinek adina
hanka zapalduz gero
ematen dut mina
ta gero ez ligatzeko
badu eragina.

Fandango, arin-arin
reeaggetoi ta rocka
aukeratu dunantzat
mila estilo mota
nik hanketan egurra
gerrian arroka
dantzatzeko planikan
ez zaidazu bota.

Erritmoari eusten
saiatu beharko
baina talentutikan
ni hain nabil plako
baina egoskorkeri
pixka´t dudalako
gogoa jartzea behintzat
ez zaigu faltako

HAMARREKO TXIKIA

N. Elustondo - J. Martin

Gaia: Anai-arrebak zarete. Gurasoak zaintzeko, txandak egiten dituzue. Nerea, joan den asteburuan Jonek ezin zuela-eta, zu joan zinen gurasoak zaintzera haren ordez. Asteburu honetan ere, utzi ezineko zerbait suertatu zaio Joni.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Hamalau heriotzena I*

N. Elustondo:
Nahiz ta nik ez daukadan
ia-ia indarrik
ezin dezaket izan
inoiz egun txarrik
ta zuri esatea
da alper-alperrik
uste nuen ez zela
aipatu beharrik
zaintza ez dela neskon
kontua bakarrik.

N. Elustondo:
Malgutasuna ez da
gure arerioa
baina guztiok dugu
gure balioa.
Gaur kontzertua, bihar
da amodioa
ta etzi auskalo zer
ez da serioa
nik ere badut nere
bizi propioa.

J. Martin:
Gizon-emakumeak
batzutan bi mundu
hurbiltzen doazenak
segunduz segundu
nere arduratik ez
nuke nahi urrundu
hau luzerako doa
hori da seguru
malgutasun pixka bat
euki behar dugu.

J. Martin:
Esan dut ama ez da
sendatuko arin
gaur ordezkatu nauzu
ta bihar nik berdin
elkarrekiko egin
behar da ahalegin
ni lanpetuta nago
ta ezin dut, ezin
ondo ez egiteko
nahio dut ez egin.

N. Elustondo:
Egiak esatea
zer-nolako drama!
Orainak irudika
leike iragana
ta batzuen kasuan
aitzakia dana
ez hipotekatzeko
inoiz gure plana
zaintzaile bat hartuko
degu erdibana.

J. Martin:
Baina ze dirutatik
dugu ordainduko?
Nahi baina horri egin
behar diot uko.
Ez nekin horrenbeste
zenik muturtuko
egin behar bada egin
dezaket nik, punto!
Batuta egon ezik
ez dugu lortuko.

F. Zubia - B. Iguaran

Gaia: Lagunak zarete. Biok duzue diabetesa, eta ezin duzue gozorik jan. Felix, izozkidenda baten aurretik pasatu zaretenean, Beñatek barrura sartzea proposatu dizu.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Antton eta Maria I*

F. Zubia:
Diabetesak badu
nahiko enbarazu
nork bere buruari
egin behar kasu
eta hartu behar da
nahiko konpromezu
izozki baten bila
ai gaizki zaude zu!
Ospitalian gaixo
bukatuko dezu. (bis)

F. Zubia:
Diabetesa zer den
badakizu zuk´e
buru gainean bueltan
dauzkagu bi putre
eta dieta degu
guztion arkupe
pixka bat kaso eitea
hobea zenuke
edo ez dituzu hartuko
hirurogei urte. (bis)

B. Iguaran:
Gaixo buka nezake
zure arabera
hori ezezkua da
itxuraz kolpera.
Beti azukriakin
gora eta behera
beti gaude begira
gaixotasunera
hogei urtekin hola
noiz biziko gera? (bis)

B. Iguaran:
Belaxe pasa zera
Felix atakera
ta urteen kontua
berriro atera.
Beldurrak egotia
normala ote da?
Lasai iritsiko naiz
laurogei urtera
beti nere onduan
egoten bazera! (bis)

F. Zubia:
Besteen gainean jarri
dezu zure zama
ta nik izan behar det
kontzientzian arma.
Barka buka liteke
harremanen xarma
axolagabeziak
nekera narama
barka zaidazu baina
ez naiz zure ama. (bis)

B. Iguaran:
Errespetu gutxiyo
diot nere amai
helatua jango det
ez naiz egongo zai.
Mingaina pasa diot
azkar izozkiai
ta oraindik txuriago
ipintzen banaiz ai!
Ahoz ahokoa Felix
egidazu lasai. (bis)

KARTZELAKO LANA

N. Elustondo

Gaia: Prentsaurrekoa ematen ari zara. Galderen tartean, azken galdera bat egin dizute. Erantzun gabe alde egin duzu.

Neurria: Hamabiko handia
Doinua: *Bazkaltzean gogoa neukan*

Jendarte hontan kirol kontuak
badu zeresan ugari
neronek ere ume-umetatik
izatea nahi nun handi
eta hargatik behinola baietz
esana Athelticari
asko ez dira baina hurbiltzen
dira zenbait kazetari
ta haietako batek horrela
galdera egin dit adi:
neska izanik nola demontre
ote naizen futbolari. (bis)

Erantzuteko nahiz ta haseran
nuen nahiko borondate
horrelakoen esan txoroek
sarri egiten dute kalte
eta nik ere neuretzat nahi ba
fama ta eskaparate
horretarako ahaleginak
ezin dira utzi aparte
ta nik horrela jarraituko dut
ta entrenatzen jo ta ke
anekdotiko dirudiena
normala bihurtu arte. (bis)

Amorrazioz bete naiz eta
han utzi det prentsa-gela
tipoa zer zen matxiruloa
tipoa zer zen ergela?
Neska batentzat baloia zerbait
raroa balitz bezela
pentsatuko zun nik hormonetan
zerbait raroa detela
ta esateko gogoa sartu
handik atera ta bela
nahiz ta soldata milarena den
esfortzu doblea dela. (bis)

B. Iguaran

Gaia: Prentsaurrekoa ematen ari zara. Galderen tartean, azken galdera bat egin dizute. Erantzun gabe alde egin duzu.

Neurria: Hamabiko handia
Doinua: *Oso polita zara izatez*

Artista nintzan txuriz jantzita
pelotai fuerte ematen
artista nintzan patxaran katxi
bat minutuan edaten
artista nintzan arrastuaren
gainetik oker joaten
droga kontu bat dala medio
ezagun berriro aurten
telebistetan irratietan
latzak ai dira esaten.
Behin deskuido bat izango eta
ze fama jarri didaten! (bis)

Asko dabiltza hartu nahiean
Mikel Goñiren mendeku
dena kontatu det, ez baitaukat
askok adina sekretu
galdera asko erantzun ditut
ze une ta ze momentu!
Baino azkena entzun det eta
sutan barru denak lehertu
"Mikel kartzela joango al haiz?"
juxtu-juxtuan ulertu.
Nik ez det horren erantzunik ta
epaileari galdetu. (bis)

"Zer egingo det?" pentsatu nahian
etxean lasai egona
prentsaurreko bat eman behar det
nahiz ta iruditu broma.
Ordua jarri, lekua jarri
aurrean zenbat pertsona!
Neregatikan etorri dira
hemengo guztiak hona.
Istori dena kontatuko det
gizona baita, gizona!
Ta ea hola garbitzen dedan
lehen nuen fama ona! (bis)

Agin Laburu Rezola

Iñaki Apalategi Astigarraga

Julio Soto Ezkurdia

Oihana Bartra Arenas

Oihana Iguaran Barandiaran

Unai Agirre Goia

LEITZA

2017/10/01, IGANDEA, 17:00
UDAL KIROLDEGIA
FINAL LAURDENAK. HIRUGARREN SAIOA

Bertsolariak:
Agin Laburu Rezola
Iñaki Apalategi Astigarraga
Julio Soto Ezkurdia
Oihana Bartra Arenas
Oihana Iguaran Barandiaran
Unai Agirre Goia

Gai emailea: **Maider Ansa Zugarramurdi**

Epaileak: **Aitor Jimenez Tolosana, Eneko Bidegain Aire, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa, Jon Abril Olaetxea, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Karlos Ibarguren Olalde eta Maite Sukia Olano**

Asteburuko bigarren saioa da Leitzakoa, baina aurrez jakina da jendeak erantzungo duela. Hiruretatik aurrera salduko dira azken sarrrerak, eta ordu bi eta erdietatik aurrera jendea zain dago. Azkenean 1.200 lagunetik gora izango dira udal kiroldegia berotuko dutenak. Ondo berotu ere.

Kanpoan hamasei gradu baino ez daude eta zirimiria bizi-bizi ari du. Lauretarako ateak ireki eta jendea barrura sartu da. Ez dago giro kanpoan. Ezta Katalunian ere. Bozketa eguna da bertan eta jende guztia sakeleko telefonoarekin bueltaka dabil. Hango argazkia, bideoa, whatsappa, mezua edo txioa.

Sei bertsolariek izan dute Kataluniara begirako aipamen edo keinuren bat lehen agurrean. Gero, giroa berotzen joan da. Oholtzan, sartutako jendetzaren, bertako hezetasunaren eta fokoen indarraren eraginez, tenperaturak gora egin du eta izerditan bukatu dute bertakoek. Saioa ederra izan da. Maila altua eman dute bertsolariek ariketa guztietan, batez ere binakako bete-beteak osatu dituzte. Doinuetan ere

ahalegin berezia sumatu da. Ezohikoak erabili dituzte ofizioetan eta bakarkakoetarako lau doinu berri ekarri dituzte Iguaranek, Sotok, Laburuk eta Apalategik.

Epaimahaiaren arabera, Oihana Iguaranek merezi izan du lehen postua eta Durangoko finalaurrekoan kantatzeko tokia ziurtatu du Amasakoak. Berarekin batera beste lau bertsolarik ere pausu handia eman dute aurrera.

HASIERAKO AGURRA

O. Iguaran
Neurria: Hamabiko berdina, 6 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Gaur udaberri bat dabil*

Gaur udaberri bat dabil
udazkeneko haizean
hitza erabakimen da
urnatan ta lehen fasean.
Nik zuentzat ta zuekin
jardun nahi det jolasean
hanka hutsik ta bide bila
gaur Leitza dan belazean
Katalunian eta hemen
deskubrituz arratsean
ea zer ezkutatzen den
ortzimugaren atzean. (bis)

ZORTZIKO HANDIA

U. Agirre – I. Apalategi

Gaia: Bikotea zarete. Egunero bezala, lanetik etorri, etxeko lanak egin, umeak oheratu... eta sofan zaudete bata bestearen ondoan leher eginda.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Menditarra naiz eta gogoan*

U. Agirre:
Gure bizitzan izan genduen
nahiko asmo eta fede
baina denbora pasatu ahala
lana bihurtu da lege.
Hauzkaldexio joan zaite arren
egin zaidazu mesede
barka maitea indarrik ez det
muxu emateko ere!

I. Apalategi:
Garai batean etxeratu ta
"Kuttun asko zaitut maite"
ta gaur gaueko hitz hoiek nere
bihotza mindu didate
ez haserretu baina joateko
sofaren ixkina arte
egun osoan ez al naiz egon
zugandik nahiko aparte?

U. Agirre:
Orduan nere aldamenean
jarri zintezke gustora
nik begirada luzatu nahi det
baina orain ez dakit nora.
Noizbait umeak haziko dira
gabiltza behera ta gora
lasai umeak hazitakoan
beste zerbait izango da.

I. Apalategi:
Zati batzuek sofan zuriak
besteak urratu beltzak
berri-berriak erdi partean
eta gastatuta ertzak.
Ez det esango nik lehoitzar bat
nahiko nukeenik neretzat
baina muxu ta besarkada bat
hartuko nituzke behintzat.

U. Agirre:
Ze maitasuna dadukaten bik
ikuste omen da obretan
ta badirudi nik Iñakiri
hau diodala zorretan.
Muxu ta laztan izango dira
lasaitu zaite horretan
jolas pixka bat egingo degu
Gabonetan, oporretan.

I. Apalategi:
Gabonetako oporretako
oraindik gabiltza garaiz
bitartean zer izango gara
zu monja eta ni apaiz?
Rutina hori bihurtu denez
gure bizimoduko gaitz
nahi badezu zu joan ohera
ni sofan geratuko naiz.

ZORTZIKO TXIKIA

J. Soto – A. Laburu

Gaia: Erizainak zarete. Julio, gaur Aginek zuri atera behar zizun odola. Zortzi aldiz ziztatu zaitu, baina ez du lortzen zainak aurkitzea.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Azienda bat dago*

J. Soto:
Zizta ta zizta zabiltz
orain bat orain bi
ta ni disimuluan
ondoan kantari.
Punta ez harrapatzeko
zuk nire zainari
ez bota kulpik nire
argaltasunari.

A. Laburu:
Zuk ere badakizu
nahiz tripak irakin
ez bazaude konforme
daukadan erakin
nola egin leiken ba
nahiko nuke jakin
besuak baino orratz
lodiyaguakin.

J. Soto:
Odola gorri daukat
kolorea urdin
besoak baino orratz
lodiagoekin.
Nik uste arrakastaz
ahal dela ekin
baina egin behar duzu
maitasunarekin.

A. Laburu:
Eskerrak esan dezun
jakin dedan garaiz
bestela hola segi
behar genuen maiz.
Maitasunaz orduan
ez jarri fiakaitz
ba ekarri eskubia
eta hasiko naiz.

J. Soto:
Jada odolbildu bat
ari zait eratzen
propio ari al zara
zainak minberatzen?
Pixka't amorratuta
banaiz ni geratzen
utziko al didazu
zuri ateratzen?

A. Laburu:
Ez, ez dizut emango
holako aukera
zer egin nahi didazun
hartu det tankera.
Zuk behar dezuna da
betea platera
hemendik odolkirik
ezin da atera.

I. Apalategi – O. Iguaran

Gaia: Oporretara elkarrekin joateko plana egiten ari zarete. Zu, Iñaki, wifia eta Internetera konektatzeko modurik ez dagoen toki baten bila zabiltza. Oihanak, berriz, esan dizu konektatzeko modurik ez badago, bera ez doala.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orioko balearena*

I. Apalategi:
Oporretara goaz
biok elkarrekin
kontsultatu ostean
Atrapalo, Booking
behar dituzu wifi
kobertura ta pin
pixka bat konektatu
ezazu nerekin. (bis)

O. Iguaran:
Gure konexioa
da justu problema
arazo bat dalako
aspertzearena
retransmitu nahi det
Instagramez dena.
Besten inbiria da
oporren onena. (bis)

I. Apalategi:
Ba aukerak ematen
ditu udazkenak
baloratu itzazu
Himalaiarenak
guazen mendi puntara
ta kitto problemak
han juntatuko gera
satelite denak. (bis)

O. Iguaran:
Ba bai joan gaitezke
mendi puntetara
hango sateliteak
ez dira ta traba
baino gora igota
mobilakin hara
tontorrikan ez dago
selfirik ez bada. (bis)

I. Apalategi:
Baino aldea dago
selfitik selfira
egin zazu bat eta
han idatzi di-da:
“Oihana ta Iñaki
pozik joan dira
inork argazkik jarri
ezin dun tokira”. (bis)

O. Iguaran:
Baino nik ez zaitut nahi
hain urrun bidali
mesedez estaldura
ez zazu estali!
Wifirik ez dala ta
ez zaite kiskali
nerea hartuko det
zurea itzali. (bis)

O. Bartra – U. Agirre

Gaia: Zu, Oihana, maizter bizi zara Unairen etxean. Harrituta zeunden aspaldian postontzian ezer jasotzen ez zenuela eta. Gaur Unai etxejabea harrapatu duzu postontzia irekitzen.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Sarasua da gure*

O. Bartra:
Postontzian barruan
ze kontu ilunak!
Zer egingo omen zuen
nagusi kuttunak!
Ai, klaro hartu ditu
gaur Unai lagunak
nire bikotearen
maitasun gutunak.

U. Agirre:
Esplikatuko dizut
kararikan kara
zure isunentzako
neukan nik ikara
aspaldi kotxe hortan
gaizki ibiltzen zara.
A, zure nobiyua
hortero hutsa da.

O. Bartra:
Nire postontzitara
horrenbeste pausu
eta horteroari
gero egin kasu.
Gutunak irakurtzen
ibili zara zu
zer erantzun diozun
kontatu eidazu.

U. Agirre:
Ni behin erantzutera
atrebitu nintzen
jakin bihar dezunik
ez zait iruditzen
bankuko batzuk´e bai
tokatu ohi baitzen
jakin nahi nuen zeatik
ez dezun ordaintzen.

O. Bartra:
Bale, ibili zara
zu horren kontura
nahiz eta fisgatzerik
ez zenuen gura.
Normalean badaukat
ordaintzen ohitura
baina oraingoan zen
mutilan ardura.

U. Agirre:
Ya que zabaldu dezun
etxeko atea
orain izango dezu
zeuretzat kaltea
berak ordaindu dizu
ohartu zaitea
azken kartan zioen
“Adio maitea”.

LEHEN PUNTUA EMANDA

O. Iguaran
Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

Parekidetasuna
lortzea helburu
bertsotan ere hortan
luze dihardugu
emakume zein gizon
denok buruz buru
ta berandu baino lehen
hau lortuko dugu.

Mutilak futbolari
ta neskak printzesa
ba ni neskatzat hartzen
ez dago erreza!
Ze soinekoarenak
sortzen dit pereza
askoz hobea ez al da
sailkapenik eza?

Hezkidetza lantzeak
hainbeste onura
baino funtsean dago
guztion eskura
etxetik hasi behar
hortan ez det duda
gure ardurak hartzeko
unea heldu da.

2017
Orona

U. Agirre
Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

Obra besterik ez da
errepideetan
korri ezin eginda
nabil ni penetan
asko ikusi ditut
aspaldi honetan
hainbeste behar al da
gaur hemen benetan?

Bidesaria ez da
batere merkea
ibiltzen geranontzat
guretzat kaltea
poltsikuai egiten
zaio atakea
ni pentsatzen hasi naiz
astuan juatea.

Garraio publikoa
eraginkorrena
sarri erabiltzen det
Hernanin barrena
jendea eraman ta
bueltan dakarrena
danera ez da iristen
hori da txarrena.

HAMARREKO TXIKIA

A. Laburu – I. Apalategi

Gaia: Igeltseroak zarete. Urte asko daramatzazue lanbide honetan. Gaur, Agin, Iñakik esan dizu bizimodua aldatzeko ikasten hasi nahi duela.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Lagundurikan danoi II*

A. Laburu:
Andamiyotik gora
ta behera karraxi
hemen buzo urdina
egiten da jantzi
bizitza eraikiaz
ta zenbat garrantzi
orain ikasten hasi
egin didak grazi
bizitza teilatutik
ezingo dek hasi.

I. Apalategi:
Ez lehenbizi porlana
eta eskaiola
ta ikustean dena
egonkor dagola
jarriko ditut teilak
baldosak ta kola
bukatu arte ez zait
besterik ajola
egunez lana eta
gauetan eskola.

A. Laburu:
Konfidantza bikaina
ez haiz hain apala
bazekiat bizitzak
helmugak dauzkala
baino egiten badek
meritu makala!
Halere jakin behar
hukek hik Apala
gauza bakoitzak bere
garaia daukala.

I. Apalategi:
Ba ikasi beharko det
garaia pasean
ikusiz ikasi det
denbora luzean
bizi garela oso
modu traketsean
ta zuk ere zeozer
ikasi ezean
segi beharko dezu
kobratuz beltzean.

A. Laburu:
Baino ze faktura beltz
ta interes tipo
nik pareta egiten
diat belauniko
eta ez dit nahi baso
txiki baten ito
lanean segi eta
ez banauk utziko
nik behintzat oztoporik
ez diat jarriko.

I. Apalategi:
Badakit belauniko
bizi ohi zerana
ta hola bizitzea
ere bada zama.
Zu ez baldin bazatoz
irakasleengana
eta nik noizbait banu
besteentzat lana
Agin etorri zaitez
lasai neregana.

KARTZELAKO LANA

O. Iguaran
Gaia: Zure giltza sortatik giltza ateratzen ari zara.

Neurria: Hamabiko berdina, 6 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Gaur udaberri bat dabil*

Militantzia dagonez
euskaldunaren kulturan
nik guztia eman nuen
markatutako ohituran
ta alkatetza zerrenda
bete nuen nik liluran
nahiz irabaziko nuen
gehienak zebiltzan dudan
lau urte pasatu ditut
sarri ezinaren mugan
ze urduri hartu eta
ze lasai utzi ditudan. (bis)

Giltza askatu ta mahaian
utzi diet berehala
ta hustu det alkatetza
bulegoan zen apala.
Zenbateraino den pisu
holako giltza txapala
eta orain geratzen zait
lan esperantza argala.
Esaten duten moduan
beteko balitz ojala
ate bat ixten denean
leiho bat zabaltzen dala! (bis)

Ona da agintaldia
lau urtera mugatzea
aurreak agertu arren
nola dantzatu atzea
askok desio baitzuen
nere lana zapaltzea
ta askok desio zuen
nere postua galtzea
neretzat ez zen nahikoa
agintean azaltzea
behintzat lortu det ateak
herriari zabaltzea. (bis)

J. Soto
Gaia: Zure giltza sortatik giltza ateratzen ari zara.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Ze ederra ta ze polita*

Ze ederra ta ze polita
den batzuetan atzea
bai parez pare aurkitzen
baduzu erromantzea
frutu agorrezina da
Kupidoren baratzea
baina sarri loreetan
irteten da iratzea.
Bizitza da berrituz joan
ohi den zure suspentsea
nik neraman kopia bat
berak zeraman bertzea
baina jadanik onena
da *llabero*tik kentzea
batera galdu baititut
bikotea ta etxea. (bis)

Ai maitasun harremanak
betiereko balira!
Agian gure begiek
falta lukete distira.
Nahiz bide bat egonkorra
den pertsonaren desira
bidean aurkitzen dira
sasi, lokatza, aintzira.
Esan zidan "Bukatu da"
ta bukatzean harira
bere etxean nengoenez
ze egin behar den argi da.
Adio etxe maitea
noa amaren kabira
baino nere oroitzapenak
hementxe gelditzen dira. (bis)

Zailtasun batzuk ekartzen
ohi ditu elkarbizitzak
ta gero bere ardurak
hartu behar ditu bakoitzak.
Noizbait bukatuko dira
bide hontako oroitzak
noizbait eguzki ederrik
ere ekarriko dit goizak.
Nik bihotzez maitatu dut
hala iruditzen zait behintzat
bihotzez errespetatzen
diren eran bere hitzak
nahiz orain aldatu behar
ditudan sakelan giltzak
seguru zerrail berriak
dakarzkidala bizitzak. (bis)

Eneko Abasolo Txabarri "Abarkas"

Jone Uria Albizuri

Miren Amuriza Plaza

Odei Barroso Gomila

Oihane Perea Perez de Mendiola

Onintza Enbeita Maguregi

ZALLA

2017/10/07, LARUNBATA, 17:00
MIMETIZ PILOTALEKUA
FINAL LAURDENAK. LAUGARREN SAIOA

Bertsolariak:
Eneko Abasolo Txabarri "Abarkas"
Jone Uria Albizuri
Miren Amuriza Plaza
Odei Barroso Gomila
Oihane Perea Perez de Mendiola
Onintza Enbeita Maguregi

Gai emailea: **Idoia Anzorandia Kareaga**

Epaileak: **Aitor Jimenez Tolosana, Eneko Bidegain Aire, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa, Jon Abril Olaetxea, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Karlos Ibarguren Olalde eta Maite Sukia Olano**

Bero egiten du gaur ere. Zallako Mimetiz pilotaleku ingurura jendea goiz samar iristen ari da hala ere. Sarrerak goiz hartzen ditu jendeak, hasita dago-eta zabaltzen lekuak betetzen joango diren kezka. Kantatu behar duten bertsolariak ere tantaka, baina goiz sartzen dira aretora. Beste saioetan ere errepikatzen den protokoloa dute. Banan-banan igotzen dira oholtzara, mikrofonora inguratu, harmailetara begiratu eta lekuari neurria hartu nahian edo, hura betetzen denean nola egongo den imajinatzen dute.

Hortik ordubete ingurura bai, beteta dago aretoa. Seiehun lagun harmailetan eserita, saioa hasi aurretik asko bertan dagoen tabernara gerturatu badira ere. Gerora kontuz ibili beharko dute saioan zehar zarata handirik ez sortzeko. Hala adierazi du aurkezleak saio hasieran emandako ohar bereziaren bidez.

Saioa gustagarria izan da entzuleentzat, oso bizi, arin, joan da eta tarteka bertsoaldi ederrak entzun ahal izan dira. Miren Amurizak pilatu ditu puntu gehien eta besteek zain egon beharko dute.

HASIERAKO AGURRA

O. Barroso
Neurria: Hamabiko txikia
Doinua: *Urzapal bat badugu*

Muga aldeko herri
gutti dut ikusi
euskara duna bere
elean nagusi
baina hizkuntzak ez dio
beldurrikan deusi
berria hartu eta
zaharrari eutsi
eta aurten Zallak berriz
digu erakutsi
bazterra ezin dugula
bazterrean utzi.

ZORTZIKO HANDIA

M. Amuriza – E. Abasolo "Abarkas"

Gaia: Zuen bikotekideen enpresa gaizki joan da azken urteotan, eta ixtear dela jakin duzue. Zuen etxeetan ez da giro.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Ludi bizitza abesti gozoz*

M. Amuriza:
Nire bikotelaguna ikusten
dut aspaldi hontan deslai
beharra galdu dezake baina
ez du hori onartzerik nahi
eta berekin harremantzea
orain zeinen zaila den, ai!
Bizkarra emanda lokartzen gara
eta esnatu ere bai.

E. Abasolo "Abarkas"
Zuk badakizu moralik eza
izaten da euren lagun
nahiz ta mahai bueltan gauzak esaten
berari sarritan jardun
esaten diot "Irten kalera
bota hiru curriculum"
baina begiak zabalik ere
dena ikusten du ilun.

E. Abasolo "Abarkas"
Gure etxean berdin gabiltza
ta ez da horren arraro
La Naval itxi behar zutela
bere gogoa akabo
nik ere lana egiten baitut
zortzi ordu ta gehiago
bere malkoak xukatzen jada
oso nazkatuta nago.

M. Amuriza:
Nireak ere zulo beltzera
luzatzen du begirada
ohe ertzetik eman ohi diot
xamur aholku ilara.
Esaten diot "Lasai guztia
ondo joango da, hara!
Ta ondo joaten ez bada ere
batera egongo gara".

M. Amuriza:
Nire senarrak listoia dauka
jarrita akaso altu
eta ez du nahi bere lekua
etxean denik onartu.
Esan nion "Nik eingo dut lana"
berak erantzun: "Geratu!
Zure kontura bizi naizenik
ez dezala inork pentsatu!".

E. Abasolo "Abarkas"
Nirea berriz han egoten da
gainean ja dauka hautsa
sentitzen baita bera ezerez
pertsona bat total hutsa.
Orain etxera joan behar dut
ta egin behar diot bultza
eskerrik asko lagungarri da
eman didazun laguntza.

On. Enbeita - Jone Uria

Gaia: Irratiko kazetariak zarete. Elkarrekin, goizeko albistegi nagusia egiten duzue. Goizeko bostak dira, eta, kafe makinaren ondoan zaudete, lanean hasi aurretik.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Manuel Narruk atzo esan dit C*

On. Enbeita:
Goizean goizez zabaldu eta
albistegiko ateak
munduan dira gauza on gutxi
gehienak disparateak
ez dakit diren inbidiaren
ondoriozko kalteak
baina amorrua ere ematen dit
Katalunia esateak.

J. Uria:
Donostiako zinemaldiak
nahiz ta baduen osperik
ia hori ere ezin aipatu
ta nola ez egon tristerik.
Arrazoi duzu nahiz lehen geneukan
bestelako albisterik
azken asteetan ez dugu aipatu
Katalunia besterik.

On. Enbeita:
Gidoia eginda kafe makinan
gaude bikote formala
beste andra bat hil omen dute
zerrenda ez da normala.
Editoreen kontra goazen
oraingoan nola hala
guk biok behintzat ez dugu esango
ustezko hilketa dala.

J. Uria:
Nahiz eta hori esaten duten
hamaika egunkaritan
holako gaiak ere atera
zaizkigu mila alditan.
Ez dela ustezko esango dugu
eta gainera egitan
zerbaiterako esnatzen gara
goizeko hiru t´erditan.

On. Enbeita:
Egia esan albistegian
badago berez zer aipa
eta hor goaz teletipoen
atzetik biok jarraika
baina lanpostua aldatzeko edo
eskatu behar dut nahita
kirol tartean gure iritzia
ematea libre baita.

J. Uria:
Kirol munduan iritziarena
gerta liteke arraro
horretarako nahiz ta baduzun
berez nahikoa *descaro*
nahiz eta beti ibiltzen garen
futbol kontuen esklabo
lasai Onintza aste honetan
jardunaldirik ez dago.

LEHEN PUNTUA EMANDA

O. Perea
Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

Hamaika buruhauste
hipotekarekin
jendea ibiltzen da
ekin eta ekin
gero saldu nahi ta zer
egin berarekin?
Hobeto bizi naiz ni
alkiler batekin.

Bankuekin borrokan
horrenbeste urte
ta gehio pasa behar
ditugu nik uste
etxe txiki bat edo
izatearen truke
gure arima ere
salduko genuke.

Okupazioa da
batzuen aukera
nik hori ikusi dut
Gasteizen ostera
eta argirik gabe
geratu arren bera
itxaropena dator
Errekaleorrera.

NAGUSIA
2017
MINTZA
LAGUNA

HAMARREKO TXIKIA

M. Amuriza - J. Uria
Gaia: Zortzi urteko haur baten gurasoak zarete. Zuen haurrak zuekin lo egiten jarraitzen du. Miren, Jonek esan dizu badela garaia ohitura hori alde batera uzteko.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Antton eta Maria I*

M. Amuriza:
Umetxoak joan nahi du
a ze metafora!
Nigatik atzeratu
dezagun aproba
gustora eukitzen dut
ondoan ta hoba
lehenengo alde egingo du
ohetik kanpora
eta ohartzerako
etxetik joango da. (bis)

J. Uria:
Gustora etortzen da
maiz gure artera
baina behar genuke
hemendik atera.
Horren goiz ez zazula
bidali kalera!
Nahiz ta gustora zauden
zeure arabera
kontua ez zara zu
baizik eta bera. (bis)

M. Amuriza:
Kontu hontan sartuta
maitea gaude gu
ta zuri eman arren
hainbeste ernegu
nik umea nahi nuke
gurekin mantendu
zeren joaten bada
gu nola epeldu?
Ja ez nuke jakingo
zuri nondik heldu. (bis)

J. Uria:
Lehen ibiltzen ginen
gozo ta amultsu
elkarri arinduaz
taupada ta pultsu
orain bota duzunak
ai, ze beldur kutsu!
Lehenik heldu eskua
joan pausuz pausu
lasai, ze berehala
oroituko duzu. (bis)

M. Amuriza:
Gustatu zait nola irten
zaren zu frontera
antza niretzat duzu
gogoa sobera.
Ados, asumitzen dut
gure egoera
haurra bere ohera
joatea hobe da
ta ohitu arte joango naiz
neu bere ohera. (bis)

J. Uria:
Hala izango zinake
beretzat pozoia
utzi dezagun hazten
gure etxeko *joya*
afaritan botako
diogu sermoia
nik neuk esango diot
bada ta sasoia
baina zuk emaidazu
gero arrazoia. (bis)

On. Enbeita - O. Barroso

Gaia: Duela urtebete amaitu zenituzten irakasle ikasketak. Onintza, Odei urduri etorri zaizu esanez ospe txarra duen ikastetxe batetik deitu diotela lanerako.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Agur sagar beltzeran*

On. Enbeita:
Ez dakit nola zauden
gaur nerbioz lepo
karrera ein genuen
lana egiteko.
Ikastetxea txarra
bada askoz hobeto
soldata, soldata da
batekoz besteko
ta ondo etorriko zaizu
beldurra kentzeko.

On. Enbeita:
Esaten duzun ezer
ez da nobedade
nerabeak edonun
direnez nerabe
ez ikusi guztia
negatibo, grabe
zuk egizu zeurea
suabe-suabe
ta zuk aldatu eurek
zeu aldatu gabe.

O. Barroso:
Zuri aditu eta
dudak zaizkit hazi
baietz lan asko egin
ta gutti irabazi!
Klasera sartu eta
umeek garrasi
beste irakasleak
gero oihuka hasi
lanbide hau ez nuen
hortako ikasi.

O. Barroso:
Beraz ahantzirik sos
iturri, lansari
ikusten dizkiozu
alde on ugari
baina ni nola lotu
eskolan gudari
kasu egiten ere
ez bazaizkit ari
ezin zaio eman jaso
nahi ez duenari.

On. Enbeita:
Baina zeuk manejatzen
duzunez arbela
aldatu dezakezu
jarrera ustela
zuk egin zeure lana
ikasi bezela
ta inoiz badaukazu
eguna goibela
pentsa zazu besteok
langabe gaudela.

O. Barroso:
Erraten duzun horrek
pena ematen dit
ordea ez dut hori
hala den usterik.
Zuk lana nahi baduzu
handik zein hemendik
aukera ona zenuen
baitzaude askerik
hortako ez zenuen
aurkeztu besterik.

KARTZELAKO LANA

M. Amuriza

Gaia: Jendea harri eta zur utziko lukeen argazkia atera berri duzu. Zalantzan zaude gorde ala zabaldu.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Goizean altxatu eta*

Laurogei eta bi urte
gorputz honetan nabari
ditudan arren nahi nuke
askatasunean ari
eta joan zen astean
gure etxeko bilobari
eskatu nion mobil bat
ekar zezala opari.
Neure gelara sartu naiz
agur esan munduari
ta ohe gainean utzi
ditut arropa ugari (bis)
ta argazki bat atera
diot neure buruari.

Nabaritzen da azala
nola aldatu zaidan aldez
nola dauzkadan bularrak
tinkotasunaren galdez
aluan ez dut ilerik
besapeetan bi trabes
ta izterretan barizeek
xume hartzen dute babes.
Neure muga bat hautsi dut
erretratu hau eginez
ta gorputzari begira
liluratua naiz zinez (bis)
niretzat ederra bada
besteentzat zergatik ez?

Orain zalantzan jarri naiz
mobila eskuan dudala
bidali edo ez bidali
lotu ala ez uhala.
Tira, erakuts dezadan
ez baita izan makala
nahiz ta gure familian
sortuko den arrakala
noz edo noz hil egingo naiz
noski tokatzen da hala
ta ez dut nahi esan dezaten
nintzela andre legala (bis)
baizik oroitu nazaten
amona ausart bezala.

Arkaitz Oiartzabal Agirre "Xamoa"

Asier Otamendi Alkorta

Ibon Ajuriagojeaskoa Garmendia

Miren Artetxe Sarasola

Nahikari Gabilondo Mendizabal

Nerea Ibarzabal Salegi

ZUMAIA

2017/10/08, IGANDEA, 17:00
AITZURI PILOTALEKUA
FINAL LAURDENA. BOSGARREN SAIOA

Bertsolariak:
Arkaitz Oiartzabal Agirre "Xamoa"
Asier Otamendi Alkorta
Ibon Ajuriagojeaskoa Garmendia
Miren Artetxe Sarasola
Nahikari Gabilondo Mendizabal
Nerea Ibarzabal Salegi

Gai emailea: **Marta Ugarte Abasolo**

Epaileak: **Aitor Jimenez Tolosana, Eneko Bidegain Aire, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa, Jon Abril Olaetxea, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Karlos Ibarguren Olalde eta Maite Sukia Olano**

Pilotaleku handi, berri eta dotoreak hartu du txapelketako igandeko saioa. Kanpoaldean, tabernako terrazan, jende asko ikus daiteke. Eguraldiak, eta Zumaian egoteak, bestelako plan batzuentzat gonbitea egiten badute ere, poliki-poliki jendea barrurako bidea hartzen doa. Despistaturen bat ere bai sarrera bila, baina dagoeneko guztiak bukatuta daude.

Zazpiehun lagunetik gora izango dira bertsolariak txalotzen. Txapelketako partaideetan zaharrena, Asier Otamendi, eta gazteena, Nerea Ibarzabal, tokatu dira saio berean. Bakoitzak bere ahalegina egin du eta epaimahaiak gazteena jarri du lehen postuan.

Denek utzi dute bertsoaldi batean ez bada bestean beren arrastoa, eta batzuek oso saio betea egin dute. Nerearen atzetik saioko beste bi emakumeak sailkatu dira eta atzeraxeago utzi dituzte hiru gizonak. Aurrerako lehenengo hirurak izango direla dirudi.

HASIERAKO AGURRA

I. Ajuriagojeaskoa
Neurria: Hamabiko berezia, 8 puntuz
Doinua: *Dozena bat bertso berri B*

Kaixo Zumaia, kantura nator
hona estrainekoz
errodajea hasiko dugu
kameraz ta fokoz
ocho apellidos vascos
geure hobea askoz
kastinerako aukeztu gara
seikotea apropos
tronurik ez dugu gaurkoz
bertsoen jolas ta jokoz
barruan dugun bertsio onena
ematera gatoz. (bis)

ZORTZIKO HANDIA

M. Artetxe - N. Gabilondo

Gaia: Hotel bateko garbitzaileak zarete. Hamar minutu dituzue gela bakoitza garbitzeko. Egun osoa daramazue gelaz gela lanean.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Ilun ikarak azken argia*

M. Artetxe:
Maindireetan perfekzioa
ispiluetan dizdira
denak egoki egon behar du
lanpara ederren argira
gero milesker xume triste bat
helduko balitz sikira!
Ile txiki bat aurkituz gero
ederki kexatzen dira.

N. Gabilondo:
Ile ta zimur guztiak ondo
uzteko zenbat apuru
"azkar ta ondo egin zazue!"
jarri digute helburu
hamar minutuz ahal bezain ondo
dena txukun uzten dugu
beren etxeko logelak baino
askoz hobeto seguru.

N. Gabilondo:
Nagusiak maiz esaten digu
ez garela portatzen fin
gelarik gela minutu orori
ateraz mila etekin
guztia ezin egin ta hautatzen
beharko genuke jakin
kuadroei hautsak ondo astindu
edo ta oheak egin.

M. Artetxe:
Besteen poza bilakatzen da
gu biontzako desgrazi
egoeari buelta ematen
oraindik ez dut ikasi
Artrosian ta lunbareetan
hobe ez pentsatu kasi
hotelekoak bukatzen dira
eta etxekoak hasi.

M. Artetxe:
Egunez egun aurkitu behar
zalantzari erantzuna
soldatak baino handiagoa
dugu erantzukizuna
gu biontzako matematikak
krudelak dira laguna:
hamar minutu gela bakoitza
ta hamar euro eguna.

N. Gabilondo:
Artrosia ta gerriko mina
ez dira xamurrak klaro
baina honetan ditugu jada
urte gehiegi igaro
etxeko lana ez da hobea
hori oso argi dago
hemen gutxitxo kobratzen degu
ta han askoz gutxiago.

N. Gabilondo - N. Ibarzabal

Gaia: Zu, Nahikari, gozoki-denda bateko langilea zara. Nerea bezeroak denbora luzea darama dendan bueltaka. Laguntza eskaintzera joan zarenean, ahoa beteta daukala harrapatu duzu.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Kantatzera nijoa*

N. Gabilondo:
Ondo kudeatzea
ez da hain erreza
bezero lotsagabe
eta aldrebesa
ahoa hemen husterik
ez zazula pentsa
baina utzi patrikan
dezun *palotesa.* (bis)

N. Ibarzabal:
Palotes hori gero
probatu nahi nuke
bakarrik dauzkat eta
bederatzi urte
ta ipuinek horrenbeste
fantasia dute
sorginek gozokiak
pozointzen dituzte. (bis)

N. Gabilondo:
Nik ez det aterako
erraz etekina
hala begi itxirik
jardungo bagina
bederatzi urterekin
bizkorra jakina!
Ta zu zera pozoirik
ez duen sorgina. (bis)

N. Ibarzabal:
Baina apurka-apurka
banoa handitzen
nahiz eta lehen neskato
hain formala nintzen.
Harrapatu egin nauzu
gozokiak biltzen
ikusten ez bazaitut
ez zara existitzen! (bis)

N. Gabilondo:
Ez sartu begi itxi
hoien babesean
nahiko azukre bada
zeneukan gosean.
Hona ez zaitez sartu
denbora luzean
zure gurasoekin
etorri ezean. (bis)

N. Ibarzabal:
Baina ez zaitez ipini
orain hain erreta
amakin etorriko
naiz berriz tarteka
ta umore txar horri
emaiozu buelta
pika-pika gehiegi
jan dituzu eta! (bis)

LEHEN PUNTUA EMANDA

I. Ajuriagojeaskoa
Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

Mila argazki dantzan
sare sozialetan
hori zabaldua da
azken urteetan
edozer ikusten da
egia esan ba bertan
ta ze igotzen dan ba
al dakigu benetan?

Selfiak egitea
gaur egungo moda
askorentzat bihurtu
baita hori droga
irudiak igoaz
jendea gustora
hala ere damutu
liteke gerora.

Dena sartu nahi dugu
pantaila batean
dana sartu nahi dugu
guk internetean
errez sartzen baikara
holako atean
baina gehiegi ere
guk dugu kaltean.

M. Artetxe
Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

Zein da parrandarako
planik ederrena?
Edozein larunbatez
egin daitekeena
poteoa lehenengo
Gintonik hurrena
hortarako sekula
ez dut nik problema.

Gauez egindakoaz
damutu goizean
bezperako ibilerez
ongi oroitzean
ridikulo galanta
batzutan motzean
tabernako barrara
dantzara igotzean.

Nola pasatzen duzu
zuk biharamuna?
Horretan milagrorik
ez dago laguna:
hartu *Ibuprofeno*
ta gela iluna
eta ahal den bezala
pasatu eguna.

N. Ibarzabal
Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

Nora bidaiatuko
zenuke gustura?
Abioia eskainita
niri ez dit ardura
Chicago, Massachusetts
ta agian Kuba
mundua repasatzen
pasatu dut uda.

Zergatik da polita
beti kanpokoa?
Etxekoa da asko
ikusitakoa
hori da modernook
daukagun jokoa
baina buelta izaten da
beti gustokoa.

Bisitatzeko toki
asko dago hemen
ta hori ikusten da
bertan nahiko garden
begira ze paisaia
hain dotore dauden
kanpoan nik ez dakit
zertan ari garen.

HAMARREKO TXIKIA

A. Oiartzabal "Xamoa" - N. Ibarzabal

Gaia: Argazkilaritza-estudio bat duzue elkarrekin. Xamoa, orain arte ez duzue jaunartze eta ezkontzetako erreportajerik egin. Gaur, Nereak horrelako lanak ere egiten hastea proposatu dizu.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Hamalau heriotzena I*

A. Oiartzabal "Xamoa":
Adiskidetzat daukat
argazki kamera
nahiz ta pobrea izan
gure ibilera
Nerea nola joan
jaunartze batera?
Sortzaile izan nahi nuen
zerorren antzera
ta ez naiz ausartzen nire
sorkuntza saltzera.

A. Oiartzabal "Xamoa":
Baina ez da zertan eman
halako saltoa
bada erdibide bat
hori da gakoa.
Egigun gogoeta
behar bezelakoa
irrribarre bat nahi dut
nik benetakoa
ta ez haur bati derrigor
ateratakoa.

N. Ibarzabal:
Ta sentitzen al zara
nolabait poeta?
Orain bi argazki eskas
ta orain karneta
orain bertsolariak
eta txapelketa
kontraesanak zilegi
ditugu tarteka
hemendik ez daukagu
bizitzerik eta.

N. Ibarzabal:
Baina ikusten dira
beti ta edonun
nahiz gai hortan *hortera*
duten denek jardun
guk teknika berriak
ditugu ezagun
eta irri berriak
ere noski lagun
jaunartzeko argazkiak
berrasma ditzagun

A. Oiartzabal "Xamoa":
Jaunartzekoak dira
kontu sensibleak
zuk zureak dauzkazu
eta nik nireak
nahiz ta biak sentitu
sortzaile libreak
desberdindu behar dira
gu bion ideak:
bidegurutzeak ta
gurutze bideak.

N. Ibarzabal:
Beraz honarte eman du
gure eguzkiak
ta desberdindu dira
geneuzkan astiak
nik pozik hartuko dut
umea, piztiak
ta flashez bete orain
jaunartze guztiak
nik ogia nahi baitut
eta ez ostiak!

M. Artetxe - A. Otamendi

Gaia: Miren ama eta Asier semea zarete. Miren, orain arte zuk zaindu duzu Asierren haurra. Gaur esan dizu zaintzaile bat kontratatzekotan dabilela haurra zaintzeko.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Espainian behera*

M. Artetxe:
Bi urte da etxean
zaindu ohi dugula
ezezkorik ez dizut
erantzun sekula
baina seme ez duzu
soldata mardula
ezinean zabiltza
ta ez disimula
hori da oso gaizki
ikusten nauzula. (bis)

M. Artetxe:
Nik ere nahi dut baina
ez zure kaltean
goizero dut ate joz
krisia atean
ez zabiltza hobeto
zu zure partean
ta jarraitu nahi nuke
zaintzaren katean
nire hezurrek uzten
didaten artean. (bis)

A. Otamendi:
Jubilatzeko noizbait
zuk okasioa
laurogei urterekin
justu juizioa
nire haurra zaintzea
zure desioa
zahartzen ari zara
hori da zioa
nik ere eman nahi dizut
jubilazioa. (bis)

A. Otamendi:
Hezurren kontu hori
hain dugu txepela
gorputza bihurtzen da
noizbaite ustela
jakin laguntzailea
datorrela bela
bainan jakizu zeu´re
etor zaitezkeela
disfrutatu dezazun
haur batek bezela! (bis)

M. Artetxe:
Nola gozatu ikusiz
zure panorama?
Nola ez partekatu
zuk daukazun zama?
Badakit nik ez dela
berez nire lana
baina oraindik ni naiz
amona ta ama
semea zaintzea da
egiten dudana. (bis)

A. Otamendi:
Zaintzen duzu semea
ta bere anaia
baina erretiratzeko
baduzu garaia!
Nik opa dizut zuri
zahartzaro lasaia
nire haurrarentzako
hau da nire nahia
beti oroitu dezala
amona alaia! (bis)

KARTZELAKO LANA

N. Gabilondo
Gaia: Zaborretara botatzera joan zara, baina gorde egin duzu azkenean.

Neurria: Hamalauko handia
Doinua: *Apirilaren hamalaua zen*

Apirilaren hamalaua zen
gau euritsu ta iluna
istripu batek gure semea
ondotik kendu ziguna
eta geroztik negar hotsa det
eguneroko jarduna
madarikatuz Jokin bidetik
atera zuen laguna
nahiz ta askori gertatu zaion
guri gertatu zaiguna
minez sofatik altxatu gabe
igarotzen det eguna. (bis)

Sofak irentsi ninduenetik
pasa da nahiko denbora
eta geroztik galduak ditut
hamasei kilotik gora
nahiz eta nere malko artean
ni ez nagoen gustora
kanpora irten nahi dut hemendik
kanpora bai, baina nora?
Ta ohartu naiz inola ere
ez naiz helduko inora
lehenengo urratsa egin ezean
nere minetik kanpora. (bis)

Erabaki det hartu behar det
erosi nion maleta
ta ipini det haren arropaz
ta oroitzapenez beteta
edukiontzira heldu naiz eta
laster galdu det oreka
begiak malkoz ipini diot
maleta horri arreta.
Etxera itzuli ta utzi det berriz
armarioan gordeta
ahaztu gabe aurrera egiten
ikasi behar det eta. (bis)

BERTSOLARI
TXAPELKETA
NAGUSIA
2017

Beñat Lizaso Alberdi

Eneko Lazkoz Martinez

Etxahun Lekue Etxebarria

Jon Maia Soria

Maddalen Arzallus Antia

Xabat Galletebeitia Abaroa

TOLOSA

2017/10/14, LARUNBATA, 17:00
BEOTIBAR PILOTALEKUA
FINAL LAURDENAK. SEIGARREN SAIOA

Bertsolariak:
Beñat Lizaso Alberdi
Eneko Lazkoz Martinez
Etxahun Lekue Etxebarria
Jon Maia Soria
Maddalen Arzallus Antia
Xabat Galletebeitia Abaroa

Gai emailea: **Ion Zaldua Brit**

Epaileak: **Aitor Jimenez Tolosana, Eneko Bidegain Aire, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa, Jon Abril Olaetxea, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Karlos Ibarguren Olalde eta Maite Sukia Olano**

"Tolosan behar dala gauza erabaki" kantatu zuen Iparragirrek eta idatziko du gerora Xabier Sukiak final laurdenetako kronikan. Eta halaxe da. Hemen erabakiko da hemezortzi bertsolari aurrera doazela eta beste horrenbesterentzat bukatu dela txapelketa honetan kantatzeko aukera.

Ikusteko dago horrek saioari tentsio puntu bat emango dion. Jendearen ikusmina behintzat piztu du. Astebete lehenago sarrerak salduta daude. 1.250 lagun egongo dira Beotibar pilotalekuan eta ateak irekitzerako, lauretarako, ilara luzea dago kanpoaldean. Entzule gehien sartuko den final laurdena izango da -beharbada fase honetan historiako jendetsuena-. Hego haizea dago gaur ere eta bero egiten du. Juxtu hasi baino bost minutu lehenago megafoniak susto txiki bat eman du. Gero ondo portatuko da saio osoan zehar.

Bertsotan asko egin du seikoteak. Beharbada ofizioetan erabat bete gabe edo goia jo gabe, baina denak lana ondo eginez. Txapelketako saioa, akaso horretan antzeman

da tentsioa. Bukaeran, puntuak ematerakoan, final laurdenetako bataz bestekoa bete da. Hogeita hamaseitik erdiek egin behar dute aurrera eta Tolosan seitik hiru pasako dira finalaurrekoetara. Lehen lau finalaurrekoen kartela ere osatuta geratu da egunaren amaieran.

ZORTZIKO HANDIA

M. Arzallus - J. Maia

Gaia: Betidanik nahi izan duzue enpresaburu izan. Azkenean lortu duzue zuen ametsa. Ez da espero zenuten pagotxa.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Beti penetan beti penetan*

M. Arzallus:
Aspertu nintzen ni gerturatzen
fabrika beltz hoien kera
eta besteei agindu ahala
bete nahi nuen kartera
baina goizik goiz lanera eta
ongi ilunduz etxera
enpresa ondo dijoa baina
familia ahazten da.

J. Maia:
Protesta asko ikusten ditut
ta ulertzen ditut kostata
ni bezela zu izana zera
borrokalari pirata
lehen buzoakin ibiltzen nintzen
ta lasai hartu soldata
orain arnasa itotzeraino
estutu ohi zait korbata.

J. Maia:
Langile nintzen garai haietan
noiznahi banuen kritika
sirena jota etxe aldera
irtetzen nintzen korrika
sindikatuan, asanbladetan
ta manifetan harrika
ta orain ez dakit nola uztartu
agintea ta etika.

M. Arzallus:
Eta korbata estutu ahala
erdi itoan gaude gu
gure eskutan dauzkagulako
besteen lan ta enplegu.
Hala ta guztiz izan gaitezke
beste askoren eredu
ez gara bizi baina batzuei
jana ematen diegu.

M. Arzallus:
Nik ere nere etikarekin
badaukat hamaika kezka
agintzea ta besteei lana
ematen errexa ez da.
Lehen guztia genuen diru
nahia, ta dena zen festa
ta orain berriz gu bion aurka
egiten dute protesta.

J. Maia:
Krisia pasa eta gurekin
hasi da udaberria
biak ematen badizkiegu
zer jana eta irria.
Gainera eraiki liteke hola
enpresa eredu berria
barrikadaren bestaldera´re
eraikitzen da herria.

ZORTZIKO TXIKIA

E. Lekue - M. Arzallus

Gaia: Zinemagintza ikasi zenuten elkarrekin. Zu, Etxahun, zine zuzendaria zara, eta Maddalen zine kritikaria. Etxahun, zure azken filmari buruz kritika zorrotza egin dizu Maddalenek.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orioko balearena*

E. Lekue:
Nire ustez egin dot
filme bat itzela
ta zuri irakurri
hau dala ustela
karreran zuk kontatzen
zenduan horrela:
kritikoak zuzendari
frustratuak zirela. (bis)

M. Arzallus:
Aktoreak pagatu
dituzu kario
baina ez du ez trama
ta ez argudio
frustratu bati entzun
zaiozu serio
porno txar baterako
ere ez du balio! (bis)

E. Lekue:
Zureak irakurri
ta ene dilemak
pentsatu dot "Akabo
Etxahunen problemak!"
izan be deukiezanak
kritika txarrenak
dira audientzi gehien
eukiten dabenak. (bis)

M. Arzallus:
Baina audientzia
izan duzu gutxi
nola paisaia ere
zegoen itsusi
askoz pertsona gehiok
zezakeen ikusi
hartu izan baninduzu
aktore nagusi. (bis)

E. Lekue:
Orain emon dostezu
beste zenbait datu
kontua apurka-apurka
argitu ein jaku
izan be zu Maialen
zaitugu parkatu
zuzendari frustratu
ta aktore frustratu. (bis)

M. Arzallus:
Baina kritikan badut
hamaika bertute
hortarako ikasi
ditut hiru urte.
Sari hau zuri edo
emango nizuke
pelikula txarrenek
Oskarrik balute. (bis)

HASIERAKO PUNTUA EMANDA

E. Lekue
Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orain hasi bihagu*

Kutsatu ta kutsatu
noiz arte horrela?
Munduak dinoe amaia
hor bertan duela
hasi gaitezan denok
behar dan bezela
geuk ikusiko dogu
azkena bestela.

Itsasoa daukagu
plastikoz beteta
jendeak errezegi
botaten dauz eta
egoerari eman
behar jako buelta
hondakinak norbere
patrikan gordeta.

Protokolo ugari
daude sinatuta
Parisekoa antza
batzuek ahaztuta
nahiz ta dana dagoen
ondo orraztuta
adi eskuetan geuk
guztia dogu ta.

HAMARREKO TXIKIA

M. Arzallus - B. Lizaso

Gaia: Bikotea zarete. Hogei urtez, okupa moduan bizi izan zarete. Maddalen, Beñatek esan dizu ez duela jarraitu nahi bizimodu horrekin.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Espainian behera*

M. Arzallus:
Haseran sartu ginen
dudaz eta izu
bizimodu honek badu
hainbat konpromizu
aurrera jarraitzeko
ordea beti zu
gertu egon zera ta
gaur aldatu aizu!
Diruak idealak
kendu al dizkizu? (bis)

M. Arzallus:
Beldurrik ez zazula
eduki horretan
eta pentsa ezazu
dauzkagun haurretan.
Ia urtero joaten
gara oporretan
lanik gabe geratuz
garai gogorretan
nik ez nuke egon nahi
besteekin zorretan. (bis)

B. Lizaso:
Badakizu dauzkagu
horrenbeste etsai
denak ez dira gure
martxa ulertzeko gai
bizi nahiko nukeena
patxadan ta lasai
orain ni estu nabil
ta bihar ere bai
beti ez dut bizi nahi
noiz bidaliko zai. (bis)

B. Lizaso:
Baina beti badago
bigarren aukera
ez du zertan izanik
guretzat kaltera.
Bidaltzen bagaituzte
hemendik kalera
denok noraezean
batetik bestera
ta zorretan haurrekin
geldituko gera. (bis)

M. Arzallus:
Baina hezkuntzak badu
horrenbeste lege
eta ongi heztea
daukadanez xede
ez ditut bihurtu nahi
bankuen titere
hemen gera gaitezen
egizu mesede
jabeak ez baitaki
daukanikan ere. (bis)

B. Lizaso:
Ez al da hainbestekoa
gure miseria?
Baina noiznahi etorri
leike komeria
urrutira zergatik
ipini begia?
Ez dakiela eta
da zure egia
baina dakinean zeuk
eman aurpegia. (bis)

J. Maia - X. Galletebeitia

Gaia: Adineko pertsonak zarete. Egunero herriko jatetxe berean bazkaltzen duzue mahai banatan eta bakarrik. Jon, gaur Xabat hurbildu zaizu zurekin eser daitekeen galdezka.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Antton eta Maria I*

J. Maia:
Orain artekoa ere
ez zenez normala
eskertzen dizut Xabat
eta berehala
zerbitzariak zerbait
ekarri dezala.
Eguneko menua
bihurtu da hala
astean behingoagatik
menu espeziala. (bis)

J. Maia:
Ni bezelaxe zera
agure bat zaharra
aspaldi zuritua
daramat bizarra.
Espagetientzako
falta dut indarra
ta beraz konpainia
ez da gauza txarra
bi bakardade baino
hobe bat bakarra. (bis)

X. Galletebeitia:
Baina ez itzazu bota
hainbeste konfeti
espagetia baita
beti espageti!
Zer moduz zabiltza Jon?
Ni nago ederki!
Halere nekatu naiz
Jainkoak baleki
babak neure eltzetik
ateratzen beti. (bis)

X. Galletebeitia:
Bakardadea ez da
gauza oparoa
horregatik berotu
nahi dizut alboa.
Bata ilezuria
beste kalboa
baina bakoitza bere
bidetik badoa
eta lasai ni ez naiz
horren arraroa! (bis)

J. Maia:
Batera egiten degu
kutxilloaz dar-dar
eta batera egin
garbantzutan indar
batera egin degu
gainera irripar
eta batera egin
dezakegu negar
baina gazta tarta ez det
konpartitu behar. (bis)

X. Galletebeitia:
Lasai biok mantendu
gaitezke orekan
hara zerbitzaria
dago hemen bertan!
Amaitu dugu lana
ta oraindik berbetan
zertarako nentorren
diotsut benetan:
gaurkoa ordaintzeko
dirurik ez neukan. (bis)

KARTZELAKO LANA

M. Arzallus
Gaia: Inoiz ez bezalako besarkada eman dizu aitak.

Neurria: Hamabiko handia
Doinua: *Albizturtikan Bidaniraino*

Borroka hau noiz hasi genuen
ia ez dut gogoratzen
baina epaileek dioten hortaz
ez naiz gehiegi fidatzen.
Euskal Herri bat nahi zenuela
esaten zenuen ozen
nahiz justiziak askotan esan
ez zebiltzala hain zuzen
legeak lege asmatu duzu
herritxo hau defendatzen
herriarentzat ona zen baina
guretzat kalte izan zen. (bis)

Zure borroka egin zenuen
eta legeen harira
etorri ziren eta eraman
lehenik komisaldegira
eta ondoren hartu zintuzten
ta eraman urrutira.
Orduz geroztik gaua pasa dut
ziegetara begira
baina azkenik etorri zara
berriro gure herrira
ta aspaldi partez gure herrian
kanpaiak entzuten dira. (bis)

Gogoratzen dut nola jo zuten
gure etxeko aldaba
gogoratzen dut nola eraman
zintuzten ai kartzelara!
Triste geratu ginen ama ta
nola ez seme-alaba
baina azkenik itzuli zara
azkenik hementxe zara.
Aita etorri ta emaidazu
aspaldiko besarkada
gaurtik aurrera etxean denok
libre sentituko gara. (bis)

E. Lazkoz
Gaia: Inoiz ez bezalako besarkada eman dizu aitak.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Badaukat neska-lagun bat*

Nerabezaroko hainbat
desadostasun tarteko
ni beretzat errebelde
bera neretzat sarjento
denbora luzez ez gara
jarri elkarren pareko
ta nik banuen gogoa
momentu hau iristeko.
Aulkitik altxatu da ta
bi beso arbol antzeko
estutu dizkit guztiak
bizkar, beso eta lepo.
Hori da bere modua
maite zaitut esateko. (bis)

Gorputzean sentitu dut
nire aitaren indarra
burniaren parekoa
delako bere giharra.
Elkarri begiratuta
irten zaigu irrifarra
ta gero hizketaldi bat
hasi dugu ttirri-ttarra
elkarrekin egin dugu
barre ta gero negarra
eta elkarri aitortu
ez al da triste xamarra
une hau iritsi zedin
ama gaixotu beharra? (bis)

Gaixotasun larria da
gure amatxok duena
gure ondotik gaur, bihar
etzi eraman dezakeena
ta justu hori izan da
gu elkartu gaituena
batzutan poz ttantta batez
bustita etortzen da pena
elkarri hitz egin gabe
urte luzeetan barrena
ta besarkada batekin
argitu egin dugu dena.
Maiz ekintzaz esaten da
hitzarekin ezin dena. (bis)

B. Lizaso
Gaia: Inoiz ez bezalako besarkada eman dizu aitak.

Neurria: Hamabiko handia
Doinua: *Bazkaltzean gogoa neukan*

Bertso munduan nahiz pasa ditun
une gogorrak hamaika
nire bizitzan zer sentitzen dan
inoiz ez nion nahi aipa.
Saion bat hasi aurretik beti
daukat atzetik jarraika
azken batean bera ere nire
gisan bertsolari baita.
Hemen balantza nahiz ta daukan
aurrera sailka edo ez sailka
mundua ez da hemen bukatzen
beraz lasai zaite aita. (bis)

Esaten diot “Nire saiotan
ahal bada ezkutuan gorde
nik ez bazaitut ikusten nola
den gu biontzako hobe”
baina igota laiste egin naiz
zure begiradan jabe
ni bakarrik ez aita zu ere
pixka bat urduri zaude.
Aita beti da aita ta hori
da Jaungoikoaren lege
hemen ederki sufritzen dula
entzuten dagonak ere. (bis)

Gaurko saioa irabazi det
ta oholtzatik jaistean
ze estutua eman didazun
neregana iristean!
Zenbat aholku eman zenidan
bertso kantari hastean!
Ze begirazun, ze errieta
bertso baten nahastean!
Baina gaurkoa merezi nuen
hala da nire ustean
ze besarkada ote datorkit
txapela irabaztean! (bis)

FINALAURREKOAK

Agin Laburu Rezola

Igor Elortza Aranoa

Nahikari Gabilondo Mendizabal

Jon Martin Etxebeste

Jone Uria Albizuri

Sustrai Colina Acordarrementeria

BASTIDA

2017/10/28, LARUNBATA, 17:00
UDAL KIROLDEGIA
FINALAURREKOAK. LEHEN SAIOA

Bertsolariak:
Agin Laburu Rezola
Igor Elortza Aranoa
Nahikari Gabilondo Mendizabal
Jon Martin Etxebeste
Jone Uria Albizuri
Sustrai Colina Acordarrementeria

Gai emailea: **Inazio Usarralde Arantzadi**

Epaileak: **Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa, Joakin Arregi Goenaga, Mikel Beaumont Arizaleta, Mikel Fernandez de Arroiabe Idigoras, Mikel Lersundi Ayestaran, Mirari Azula Aurrekoetxea eta Zigor Leunda Eizmendi**

Arabako Errioxan, Bastidan, da finalaurrekoetako lehen saioa. Txapelketako beste fase batean sartu gara eta hasi dira aldaketak nabaritzen. Bertsolari berriak datoz —duela lau urte finalean egondakoak—. Epaimahaia ia osorik aldatu da —zazpikote bat arduratuko da puntuak banatzeaz, eta bakarra da aurreko fasean aritu dena—. Eta hedabideen presentzia ugaritzen doa. Nabarmenena telebista emanaldia lagunduko duten esatariena da, bertan baitaude oholtzaren aldamenean. Gaurkoan Aitzol Barandiaran eta Manex Agirre ariko dira, ETB4k zuzenean emango duen saioan. Irrati zenbaitek ere, INFO7k esaterako, eskaintza bera egingo dute. Zuzenekoa. Astelehenetarako programa berria, *Aulki-Jokoa*, prestatzen ere badabiltza, hara eta hona kamera, Edurne Azkarate aurkezlea eta Lander Garro zuzendaria.

Eguzkitsu dago eguraldia, baina haizea dabil lautada honetan. Kiroldegian kokatuta dagoen pilotalekuko ateak besteetan baino goizago zabaldu dira, laurak laurden gutxiagotarako sartu dira lehen bertsozaleak. Poliki-poliki harmailak bete

dira eta arratsaldeko bostetan 980 lagunen txaloak hartu dituzte sei protagonistek oholtzara bidean.

Saioa dotore joan da. Bertso on askorekin. Eta lehengo bi postuak txapelketan sartu berri diren bi bertsolariek, Sustrai Colinak eta Igor Elortzak, eskuratu dituzte.

HASIERAKO AGURRA

J. Martin
Neurria: Hamaseiko txikia
Doinua: *Egunsenti batean*

Bastidako lurretan
mahastiak ileran
mordoak jaso ditut
nere ibileran
ea zuku guztia
atera diedan
haritzezko barrikan
ontzeko primeran.
Gaurkoan sei botila
dituzue aukeran
urtekoan, kriantzan
edo erreserban
deskortxa gaitzazue
ta gugandik edan
ea kantatzen dugun
mozkortzeko eran!

ZORTZIKO HANDIA

J. Martin - I. Elortza

Gaia: Kazetariak zarete. Zuen ideologiarekin bat ez datorren komunikabide batean lan egiten duzue. Gero eta gogorragoa egiten zaizue lanera etortzea.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Goizian goizik jeiki ninduzun I*

J. Martin:
Nahiz eta sarri estimatzen den
soldata baten epela
mila presio jasaten dugu
nola kejatu bestela?
Iruditzen zait kazetari ez
gidoilariak garela
ta eguneroko albistegia
zientzia fikzioa dela.

I. Elortza:
Bai egia da egunkaria
dut gizarterako zubi
baina hau ez da ez informazio
ezta ere jakinduri.
Aurre egin nahi nioke baina
laster gelditzen naiz zuri
hari esan nahi nizkiokeenak
esaten dizkizut zuri.

I. Elortza:
Errealitate gordina da hau
eta hobe dugu adi
nahiz ta esaten dugun fatxa bat
daukagula zuzendari
gu bere joko berbera egiten
ez al gara biok ari?
Hark *Vocento*ri zerbitzen dio
eta guk berriz berari.

J. Martin:
Albistegitan bideratu nahi
da jendearen botoa
esaten dena beti izango da
nagusian gustokoa
baina publiko kritiko bat da
ulertzen duna jokoa
gezurra esaten diegu baina
jendea ez da tontoa.

J. Martin:
Ideologiak ta hedabideak
egin dezakete talka
aurre egin nahi zenioke zuk
oso indartsua zera ta
baina orduan egongo zera
laster kalera botata
eta ahotsa izango duzu
baina altaboza falta.

I. Elortza:
Baina apurka-apurka egia
da gauza bat lurrundua
ordenagailu parean dugu
guk iritzi segurua
hemen gabiltza elkarrizketan
salbatu nahirik mundua
baina badator jefea eta
makur dezagun burua!

ZORTZIKO TXIKIA

S. Colina - N. Gabilondo

Gaia: Biltegi batean lan egiten duzue kamioiak kargatzen. Sustrai, gaur goizean Nahikarik, hamargarren aldiz esan dizu zigarroa erretzera kanpora doala.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orioko balearena*

S. Colina:
Lehen ere bronka bota
dizut ta beharrik
nik ez daukat fibrarik
ez daukat giharrik.
Kamioi horrek ez al du
irteera txarrik
kargatu behar badut
nik bakar-bakarrik? (bis)

N. Gabilondo:
Eskuartean hartuz
zenbait zigarrokin
lanari behar diot
nik gogotik ekin
baina aizu, zu ere
ez al zaude berdin?
Gorputz horrekin ezin
lana ondo egin! (bis)

N. Gabilondo:
Ez, hemen egoten naiz
ni ere tarteka
jada eginak ditut
bederatzi buelta
agudo jarraitzeko
lanari kolpeka
zigarroak erdizka
uzten ditut eta! (bis)

S. Colina:
Lehen ere esan dizut:
ni ez naiz atleta
falta zait pektorala
falta zait tableta.
Baina ez ote gara
gu bi zigarreta?
Zu beti txinpartatsu
ni beti erreta! (bis)

S. Colina:
Kamioi bat etortzen da
ta Nahikarik alde!
Hori bai den-dena du
osasunan alde
zuk egiten duzula
diotsut bazpa're
zigarroa erdizka
ta lana egin gabe! (bis)

N. Gabilondo:
Baina lanean badet
nahiko erantzukizun
ta zure haserretik
zenbat ikaskizun
zugatik egiten det
ez dakit dakizun
ea muskulurikan
ateratzen zaizun! (bis)

A. Laburu - J. Martin

Gaia: Zu, Agin, pintorea zara. Jonek bere etxea margotzeko kontratatu zaitu. Kolorearekin asmatu ezinik, hiru aldiz margotu behar izan duzu etxea. Jon, oraindik, ez dago konforme.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

A. Laburu:
Hemen daude jarririk
pareta handiak
eta *Titanlux*enak
poto ugariak.
Kolore asko dizkik
Jon hire kabiak
fakturaren kolorez
pintatuko diat! (bis)

A. Laburu:
Hori gogoratzeko
diat panorama
beti eduki dek hik
sibarita fama.
Ez dezadan egin nik
alperreko lana
pintatuko al diat
bakoitzetik bana? (bis)

J. Martin:
Lehenik berdearekin
a ze adorea!
Ondoren granatea
ondoren morea.
Aldatu izanakin
damutu, ordea…
Berriz jarri zaidazu
lehengo kolorea! (bis)

J. Martin:
Radio Olé jarrita
ibiltzen zera maiz
beti txistuka hortxe
ta umore alaiz.
Zu joaterik ez dut
nik desio garaiz
egia da: zurekin
enamoratu naiz! (bis)

A. Laburu:
Horregatik etxean
nahi du mila paisai
hoi nola esaten dek
zer dek *gay* edo gai?
Ez zekiat Jon baino
nik hoi ez diat nahi.
Kamiseta horrekin
pentsatzen nian bai! (bis)

J. Martin:
Lastima joateko
zure ariketa!
Ez al zaizu gustatu
nere kamiseta?
Pintatu dena txuriz
ta etxera buelta
baina hor utzi zazu
zure silueta! (bis)

LEHEN PUNTUA EMANDA

I. Elortza
Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orain hasi bihagu*

Edertasun kanona
bat eta bakarra
eta askorentzako
oso kontu txarra.
Besteek esaten dute
zarela zatarra
barrutik egin behar
kanpora indarra.

Guztiok gara eder
guztiok desberdin
horren kontra ezin dut
noski ezer egin
eta esango dizut
garbi gera dedin:
oso guapo zaudela
bufanda horrekin!

Onartu ta maitatu
bakoitzak garena
horixe da lehenago
esaten nuena
eta zuentzat ere
bada hori dena
ispilu aurrean bat
beti guapoena!



SEI PUNTUKO MOTZA

J. Uria - A. Laburu

Gaia: Zaharren egoitza batean bizi zarete, eta maitemindu egin zarete bertan. Jone, orain arte bakoitza zuen gelan egon zarete, baina hemendik aurrera gela berean egoteko proposamena egin dizu Aginek.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Dozena bat bertso berri A*

J. Uria:
Lehen ginenak bi mundu
batu segunduz segundu
eta diozu ezin dugula
gehiago urrundu.
Azkar bihotz eta buru
ze beldur ta ze apuru
baietza eman nahi dizut baina
ez nago seguru! (bis)

J. Uria:
Denbora ez dugu alde
ta egingo digu alde
hortan arrazoi ematen dizut
Agin, zuzen zaude!
Ohartu zaitez hala're
esnatzean parez pare
goizero ikusi beharko nauzu
makillaje gabe! (bis)

A. Laburu:
Ba ni prest nago jartzeko
dena aurrekoz atzeko
markapasoak ez baitu asko
falta geratzeko.
Maiteminduta trantzeko
Jone zu ere antzeko
ez zait iruitzen denborarikan
degunik galtzeko! (bis)

A. Laburu:
Horixe da nere plana
aspalditikan neukana
ehun zimurretik ehun ta hogeira
ze alde, ai ama!
Maitasunak daukan fama
muxua eta laztana
ta hortza postizoentzat berriz
mesanotxe bana! (bis)

J. Uria:
Beldur nintzen baina keba!
Irudi horrek topera
jarri nau eta onartzen dizut
goazen aurrera.
Joan gaitezen eskatzera
gure zaintzaileen artera
eta onartzen ez badute guk
eingo dugu greba! (bis)

A. Laburu:
Orain muxu eta lora
poesi ta metafora
arrazoi dezu zabaldua da
zahar etxeko moda.
Zatoz eskaileran gora
grebarekin egin proba
prebentziorik haundina ere
gutxi izango da! (bis)

S. Colina - J. Martin

Gaia: Erizainak zarete. Egunero ordaintzen ez dizkizueten ordu gehigarriak egiten dituzue lanean. Sustrai, Jonek esan dizu gaur ez dela gehiago geratuko zuen txanda amaitzen denean.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Aresoarren bandera*

S. *Colina:*
Gelaz gela, atez ate
ibiltzen gara jo ta ke
beti korrika herren dabilen
sistemaren parte.
Ni ez naiz joango aparte
azkena artatu arte
hori gaixoek maitasunakin
ordaintzen didate! (bis)

S. Colina:
Ez al dizut esan jada?
Zer irabazten den hara
zauria jarri baino lehenago
jarrita pomada!
Greba, huelga, asanblada
ta ordu estren gaia laga
erizaintza ez da lanbide bat
bokazio bat da! (bis)

J. Martin:
Hor gabiltza gelaz gela
lan ordu estra itzela
pazientzia infinitua
bagenu bezela!
Orain arteko epela
bukatu da dena dela.
Gaurtik aurrera gure zauriak
ikus ditzatela! (bis)

J. Martin:
Krisia hasi zen usaintzen
aurretik dena bikain zen
baina aspaldi lanean ari
gaituzte iraintzen.
Zauririk ez da orbaintzen
ez badigute ordaintzen
gizarte honek jakin behar du
zaintzaileak zaintzen! (bis)

S. Colina:
Zaurian jarrita benda
neure gaixoei ofrenda
egiten diet soilik laneko
murriztuz agenda.
Zu zure txandan irtenda
ta harremanak etenda
hobeto bizi zintezke baina
jendea hiltzen da! (bis)

J. Martin:
Nere hainbeste bertute
erakutsiz urtez urte
jakina norbait hiltzen balego
artatuko nuke!
Gure indarraren truke
elkartu behar genuke
bestela kaka burutik behera
egingo digute! (bis)

KARTZELAKO LANA

S. Colina
Gaia: Ez duzu gonbidapenik jaso, baina joatea erabaki duzu.

Neurria: Hamalauko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Tabuak min direnean*

Tabuak min direnean
minak ote dira tabu?
Maitasunean jokatu
behar al da beti ondradu?
Bide berean joan arren
azkenerako banandu
berriz hutsetik hasteko
inoiz ez baita berandu.
Gaur urte bat bete duen
seme txiki bat daukagu
merendola egin duzu
txokolate ta mokadu.
Gugan daukagun zornea
familira al dakargu?
Pelikulako gaiztoa
norbaitek izan behar du!

Nahiz ta ez nukeen nahi zure
atsaldea zapuztea
nik ere ez al dut merezi
globo batzuek puztea?
Guraso dibortziatuon
betiko buruhaustea
ez al da minak gordeta
irrifarrak biluztea?
Tokatzen zaigu *rutina*
berezko bati eustea
eta elkarren aurrean
muturrik ez itsustea.
Nahiz ulertu nahi zendula
ni bazter baten uztea
haurrak ez al du merezi
bere aita ikustea?

Tinbrea jo dut dardarka
inurrituta sabela
ta eskerrak gaur huts-hutsik
ekarri dudan sakela
ni gabe ongi apainduta
baitaukazu egongela.
Kantatuta putz egin du
semeak lehen kandela.
Ziur nago egun batez
konprenituko duela
pelikulako gaiztoa
maitatu litekeela.
Nahiz bizitzan dena ez den
ateratzen nahi bezela
inportanteena jaustean
berriz zutitzea dela.

I. Elortza
Gaia: Ez duzu gonbidapenik jaso, baina joatea erabaki duzu.

Neurria: Hamalauko handia
Doinua: *Egunkarian ikusi nuen*

Egunkarian ikusi nuen
gure nausi aberatsa
humanismoaz, elkartasunaz
bere diskurtso zehatza
egia baina ez da argazki
hura zen bezain aratza
azkenerako nire aukera
ailegatuko da antza!
Garai batean lantegi hori
nuen bizitza ardatza.
Orain kalean egonagatik
berriz banoa harantza
hotz zerbitzean izaten ei da
eta onena bengantza.(bis)

Langabeziak bat ipintzen du
ia urkatzeko sokan
nirea lako zenbat famili
utzi dituzten kolokan!
Ta ez genuen ezertxo lortu
nahiz eta egin borrokan.
Egun honekin amets egin dut
lotan zein esna askotan.
Azkenerako nago ametsa
egia bihurtzekotan.
Ze aurpegiak izango diren
gaurko ospakizun hortan!
Mikroa hartu ta hau guztia
kontatuko dut bertsotan.(bis)

Nik zintzo-zintzo bete nituen
han jasotako ordenak
nik eraginak ez ziren izan
krisiak eta problemak
baina kalera bota ninduten
hor nire egun txarrenak.
Badakit orain hantxe bilduko
direla horiek denak
kamara aurrean erakutsiaz
euren irririk onenak
baina sorpresa bat izango du
ehungarren urteurrenak
lotsagorritu egin behar ditut
kaleratu nindutenak! (bis)

Aimar Karrika Iribarren

Aitor Sarriegi Galparsoro

Alaia Martin Etxebeste

Maddalen Arzallus Antia

Maialen Lujanbio Zugasti

Unai Agirre Goia

IRUN

2017-11-01, ASTEAZKENA, 17:00
ARTALEKU KIROLDEGIA
FINALAURREKOAK. BIGARREN SAIOA

Bertsolariak:
Aimar Karrika Iribarren
Aitor Sarriegi Galparsoro
Alaia Martin Etxebeste
Maddalen Arzallus Antia
Maialen Lujanbio Zugasti
Unai Agirre Goia

Gai emailea: **Maite Berriozabal Berrizbeitia**

Epaileak: **Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa, Joakin Arregi Goenaga, Mikel Beaumont Arizaleta, Mikel Fernandez de Arroiabe Idigoras, Mikel Lersundi Ayestaran, Mirari Azula Aurrekoetxea eta Zigor Leunda Eizmendi**

Ordu aldaketa egin denetik lehen saioa da hau eta egunak lehenago ilunduko du gaurkoan. Kanpoan bero dago eta aretoa beteko duten bi milatik gora lagunek are gehiago berotuko dute giroa. Sarrerak salduta daude astebete lehenagotik eta jende ilara luzea jarri da zain hiru eta erdietan ateak ireki direnerako.

Ireki eta presaka sartu da jendea lekurik onena topatze aldera edo. Etortzerik izan ez dutenek zuzenean jarraitzeko aukera izango dute internet zein telebistatik. Gaur telebistako zuzenekoan Uxue Alberdi du aldamenean Aitzol Barandiaran aurkezleak. Bostak eta lau minutu dira sintonia entzuten hasi denean eta Maite Berriozabalen atzetik laster azaldu da bertsolarien ilara, txalo zaparrada ikusgarri baten artean. Giro aparta egon da, eta saioak goia jo du zenbaitetan, ofizioetan eta batez ere bakarkakoetan. Maialen Lujanbio izan da irabazle koxka dezentearekin, eta bigarren geratu den Aitor Sarriegik ere finalaren bidean pauso handia eman du.

HASIERAKO AGURRA

M. Arzallus
Neurria: Dozena bat bertso berri A
Doinua: *Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz*

Kaixo gazte, aupa zaharra
emeena, grisa, arra
irakaslea, abokatua
zein baserritarra
berdin-berdin zait nundarra
hipsterra, punka, makarra
guztiengana iristea da
nahi dudan bakarra. (bis)

ZORTZIKO HANDIA

U. Agirre - M. Lujanbio

Gaia: Petrolio ontzi bateko langileak zarete. Hilabeteetan itsasoan lanean ibili eta gero, oraintxe ari zarete porturatzen. Etxekoak zain dituzuela ikusi duzue.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Ama Birjina Erkudengoa I*

U. Agirre:
Gogoratzen naiz egun gris baten
etxetik ginan atera
orain kaiean ikus nezake
nere semetxua bera
telefonotik jardun gera lehen
orain aurrez aurre gera.
Aizu Maialen barruan ditut
poza ta kezka batera.

M. Lujanbio:
Ba nik nahi nuke baino halere
pozik ezin nezake har
itsas handian galduta gabiltz
sei hilabetean zehar
ia etxekoak arroztu arte
lokarriak dira mehar
ta orain pixka bat ohitutakoan
berriz alde egin behar.

U. Agirre:
Andreari bai baina txikiei
esplikatzen ez da errez
hiru eta sei urte dituzte
eta badakite aurrez
ongi etorriya nahiz eta egin
ospakizun eta urrez
hamabost egun egoten dira
noiz joango geran beldurrez.

M. Lujanbio:
Diferentzia galanta beraz
jasotzeko moduetan
gu ezin ohituz ibiltzen gera
lehenbiziko orduetan
gero sendia elikatu nahiz
lur ia agortuetan
ta bitartean desioa ta
pasioa portuetan.

U. Agirre:
Petrolioak mugitzen ditu
enpresak eta autoa
nik itsasoa egiz maite det
ez det horren gorrotoa.
Lehen esan degu joatea dela
familian oztopoa
besarkatzera noa korrika
eta gero gerokoa.

M. Lujanbio:
Joan zaite ta goza ezazu
aukeran dezun apurra
guk ere ardo zuri batekin
bustiko degu zintzurra.
Hamabost egun ta berriz bueltan
jartzerik ez da ziurra
joateko ez det gogorik baina
geratzeko ere beldurra.

A. Sarriegi - A. Martin

Gaia: Basozainak zarete. Zuek zaintzen dituzuen lur eremuetan, suteak izan dira berriro aurten. Nahita piztu zituztela jakin duzue.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Beste bateko inularretan*

A. Sarriegi:
Piromanoak ta basozainak
sortu zaizkigu bi bando
baina horrez gain bulegoetan
bada nahiko kontrabando.
Hemen errua legeek dute
ez al du inork esango?
Martxa honetan laster ez dugu
zer zaindu ere izango. (bis)

A. Martin:
Ez zait komeni ez eufemismo
ez aitzaki, ez azukre
alper-alperrik dugu eskutan
hainbeste ur ta bertute
probokatuak nola izaten
diren horrenbeste sute
latza da baina agian greba
egin beharko genuke. (bis)

A. Martin:
Basoa erdi hutsik al dago
hala al zaizu iruditu?
Batzuk lehenago mugitzen dira
ta gu zergatik mugitu?
Sua gorroto dugu izatez
nahiz ta ura oparitu
nahiago nuke su piztaileak
harrapatuko balitu! (bis)

A. Sarriegi:
Ez dakit ba nik greba eginez
zerbait lortu dezakegun
zuk arazoa kokatu eta
esango dizute "Segun"
ta bitartean suak pizturik
daramatza hamar egun
nere kezka da ondorengoei
zer utzi behar diegun. (bis)

A. Sarriegi:
Esan dizut ta ez zaitez jarri
beraiei soilik begira
hemen legea da arazoa
hau duzu horren segida
hemengo lurrak edozein moduz
birkalifikatzen dira
eta atzetik sua itzaltzera
boluntarioak mendira. (bis)

A. Martin:
Gaurkoan horren amorratuta
sentitzen gara gu ezen
barruan su bat, su haundi-haundi bat
ari zaigula erretzen
ondorengoei zer utzi eta
ze zulo hasi betetzen
errautsak utzi nahi nizkieke
Fenix bihurtu daitezen. (bis)

ZORTZIKO TXIKIA

A. Karrika - U. Agirre

Gaia: Aimar, bazkaltzera joan zara Unairen jatetxera. Ekarritakoa ona ez zegoela eta, kexatu egin zara. Unaik arazorik gabe atera dizu beste plater bat. Bazkariko kontua ekarri dizunean, ikusi duzu bi platerak kobratu dizkizula.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Gizona da zoroa*

A. Karrika:
Lehenik pasatu xamar
zen zure txistorra
ta bigarrena ere
ai nahiko gogorra!
Faktura ikusita
ohartu naiz horra
txistorra zinez dela
errepikakorra. (bis)

U. Agirre:
Gazte jende honekin
hamaika endredo
barrua eraman nahi
du etxera bero.
Ni tontua naizenik
ez zak hik espero
"Txarra dago" esan dek
bukatu ta gero. (bis)

U. Agirre:
Hemen txistorrak badik
bere garrantzia
ez dek normala neri
jarri diaken trantzia.
Ez dek gauza berdina
ez izan ahantzia
txarra egotia ta
hiri ez gustatzia. (bis)

A. Karrika:
Abila izatea
deitzen zaio horri
zure fakturak ere
hori du jatorri.
Jatetxea jarriko dut
nik biziki gorri
beste lagunik hona
ez dadin etorri. (bis)

A. Karrika:
Nik edozer jaten dut
gustoz ta gustura
gaur ez dut maitatu ez
hau, ezta ere hura.
Gustoz biziko zara
zu nire kontura
tripen barruan ere
damakit faktura. (bis)

U. Agirre:
Edozein horren gaizki
nik ez dit serbitzen
barkatu baina ez nauk
gaur ondo sentitzen.
Igual dirurik gabe
etorriko hintzen
nahi badek ordaindu zak
platerak garbitzen. (bis)

M. Lujanbio - A. Sarriegi

Gaia: Bizilagunak zarete. Maialen, Aitor egunero etortzen da zure etxera zerbaiten eskean. Orain ere badator, dokumentu bat inprimatu behar duela eta tinta bukatu zaiola esanez.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orioko balearena*

M. Lujanbio:
Beraz orain tonerra
joño ez da broma
bestela gatz, olio
butano bonbona…
Ez zaizu asko gustatzen
zuri Mercadona
hementxe daukazu ta
merkea ta ona! (bis)

M. Lujanbio
Argumentazioan
abila zera zu
eman egingo dizut
baina egin kasu!
Inpresoraren tinta
hementxe daukazu
ta erostekoen lista
inprima ezazu. (bis)

A. Sarriegi:
Lau mesede eskatu
ta kejaka hasi
zure jarrera horrek
ez dit egin grazi
behar dedala soilik
dizut adierazi
zuk baldin badaukazu
zertako erosi? (bis)

A. Sarriegi:
Gaurkoa bakarrik zen
kasualitatea
biok lagunak gera
atean atea
baina kostatzen zaizu
sarri ematea
bizilagunena da
komunitatea. (bis)

M. Lujanbio:
Nik aldegin nahi nuke
gure honetatik
esplikatu beharrik
ez dago zergatik:
aspertu nau badu ta
nahiko traste faltik
ta gainera esnatu
egin nau siestatik! (bis)

A. Sarriegi:
Nun aurkitu ni baino
konpaini hobea?
Nahiz ta sutan jarri den
gure sektorea
ikusten, nik badaukat
nere balorea
ni naizelako zure
despertadorea. (bis)

LEHEN PUNTUA EMANDA

M. Arzallus
Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

Egunkarian bada
albiste ugari
ta gezurra esaten
ari eta ari
iruzur hutsa dela
ez al da nabari?
Kaso asko ez egin
entzundakoari.

Paperean, sarean
bietan eskura
ta ez ditut hartzen nik
benetan gustura
kritikatu behar da
hartutako hura
mundu honek gezurra
merezi al du ba?

Kontatzen digutena
egia ote da?
Horixe da lehen esan
dizudan berbera
nik ez ditut sinisten
kontuak atera
zuzendariei egin
zaiezu galdera.

SEI PUNTUKO MOTZA

A. Karrika - A. Sarriegi

Gaia: Aimar eta Aitor, hirurogeita hamabosna urte dituzue eta aspaldiko lagunak zarete. Urtero-urtero elkarrekin joan izan zarete oporretan. Aimar, Aitorrek esan dizu oraingoan ez dela joango.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Dozena bat bertso berri A*

A. Karrika:
Berdina gendun koadrilla
ta pasata urte mila
biak batera pasa ditugu
txoko eder pila
txapel horren borobila
eta eskutan makila
lagun maitea hil aurretikan
ote zaude hila? (bis)

A. Sarriegi:
Gauza diozun gisara
egiteko aukera laga
bi lagun onak izan daitezke
baina hiru traba
ta ematen dit ikara
zu joateak bertara.
Ezagutu ere ez dezu egingo
neregatik bada. (bis)

A. Sarriegi:
Nahiz ta ez nuen esango
aurkitzen naiz oso ondo
ta egia da lagun hoberik
bat ez da egongo.
Hara hona zenbat txango
ikusi hemen ta hango
baina andre bat ezagutu det
ta ez naiz joango. (bis)

A. Karrika:
Bizi guzia obretan
ez zaude modu pobretan
baina nerekin ez zaite jarri
era gogorretan.
Ez zu tematu horretan
zaude nerekin zorretan
bestela nokin egingo dut nik
bronka oporretan. (bis)

A. Karrika:
Ze albistea la ospera!
Andrea duzu gainera
postizoak izan arren hortz hoiek
hitzetik hortzera.
Goazen Karibe aldera
Kuba aldera hobe ba
neri berdin zait joan gaitezke
hiruak batera. (bis)

A. Sarriegi:
Bronkarako nahiak bero
ikusten dizkizut gero
nahikoa ez al dugu egiten
hemen egunero?
Nahiz eta zuk ez espero
laguna honetan bego
ta egon lasai bidaliko det
postalen bat edo. (bis)

KARTZELAKO LANA

M. Lujanbio
Gaia: Dena ondo zihoan argia piztu den arte.

Neurria: Hamalauko handia
Doinua: *Beste bateko inularretan*

Trago bat eta beste trago bat
gure kaleetan barrena
ta piztea da alkoholak eta
sexu grinak dakarrena.
Zure etxera, nere etxera
betiko gauzak aurrena
zure logelan sartu gera ta
hara hemen ondorena!
Argia zegon itzalita ta
bertan biluztu naiz dena
ta bapatean piztu egin da
argi txiki xumeena
nere gerrira begira zaude
ez naiz uste zenuena. (bis)

Estali arte izan dugunak
nahiko irri nahiko broma
ahorik aho pasa dugunak
gin-tonic barruko horma
bular parea zut neukan eta
zuk eman didazu forma
galtza estuak nebilzkin arren
ez takoi, eta ez gona.
Hau ta hura naiz hartzen ari naiz
zenbait botika, hormona
gizona eta andrea nauzu
ez andrea, ez gizona
nere inon ez egon nahia ote
da zure ezinegona? (bis)

Gizarte honen estereotipo
ta gizarte honen usteen
tranpan zu ari zera erortzen
eta hori ez dizut uzten.
Zuk badakizu nola zizelka
eta marraztu gaituzten
ze inporta du gaur ari banaiz
zure aurrean biluzten
eta neroni ni neu naizena
hori bakarrik gorpuzten
nire gerripe zintzilikako
desira ari da puzten…
Itzali zazu argia eta
utzi azalari ikusten. (bis)

A. Sarriegi
Gaia: Dena ondo zihoan argia piztu den arte.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Irun badaukazu zerbait*

Denbora asko zen juergara
ni ez nintzela atera
izugarrizko gogoa
ta suertatu zait aukera.
Barra ertzean neska bat
bai bera ote da bera?
Aspaldi begia bota
nion ta noan hastera.
Hizketari ekin diot
ta segi dugu aurrera
bapatean bota diot
"Goazen amaren etxera".
Igo eta pasilloan
ia lapurren antzera
elkarri eskutik helduta
gelaraino heldu gera. (bis)

Bapatean baztertu det
planean neukan gaupasa
ta nere baitan pentsatzen
ere hasi naiz nere kasa.
Batzuetan ligatzea
ez da izaten erraza
eta gaurko honek dauka
oso gutxitako traza.
Arropak kendu ditugu
berotu zaigu arnasa
maindirepean sarturik
bizkortu dugu konpasa
pentsatzen ari nintzela
hau izango da demasa
argia piztu dute ta
eten digute jolasa. (bis)

Ta atean noski ama
ezin zen izan bestela!
Ezerezean geratu
zaigu ahalegin ustela.
Horrelakoetan nola
sentitzen den bat txepela
nik uste nuen builaka
bertantxe hasiko zela
ta bapatean esan dit
inoiz entzun ez bezela:
“Gaur sorpresarik ez Aitor
gauzak behar dik horrela”
eta esan dit kondoiak
mesanotxean daudela
“Gazteak zarete eta
gozatu dezazuela!”. (bis)

BUKAERAKO AGURRAK

M. Lujanbio

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz
Doinua: *Betroiarena A*

Guk degu guk suertea
ze publiko handi!
Beti txaloz bero ta
belarriz adi.
Gure ahalegina da
zuentzako sari
nahiz emaitza beti ez den
gertatzen mirari
ari gera, ari
bertso bat eta bi
gozamen-emari
Euskal Herriari
Maulen eta Durangon
eutsi goiari! (bis)

otren

Beñat Gaztelumendi Arandia

Beñat Iguaran Amondarain

Etxahun Lekue Etxebarria

Julio Soto Ezkurdia

Nerea Elustondo Plazaola

Nerea Ibarzabal Salegi

MAULE-LEXTARRE

2017-11-04, LARUNBATA, 17:00
ORORENA JAI-ALAI
FINALAURREKOAK. HIRUGARREN SAIOA

Bertsolariak:
Beñat Gaztelumendi Arandia
Beñat Iguaran Amondarain
Etxahun Lekue Etxebarria
Julio Soto Ezkurdia
Nerea Elustondo Plazaola
Nerea Ibarzabal Salegi

Gai emailea: **Saroi Jauregi Aiestaran**

Epaileak: **Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa, Joakin Arregi Goenaga, Mikel Beaumont Arizaleta, Mikel Fernandez de Arroiabe Idigoras, Mikel Lersundi Ayestaran, Mirari Azula Aurrekoetxea eta Zigor Leunda Eizmendi**

Ororena pilotalekuan da Maule-Lextarreko saioa, hiriburuko kirol guneen erdian. Arratsalde hasierarako hasi da lehen euri tantak botatzen, eta jendea inguratzen hasi denerako dezente ari duenez, sarreran, barrualdetik, pilatzen hasi da jendea. Ez bustitzeagatik eta besteak beste kafe beroa zegoelako atari horretan. Sohütako Eperra ikastolakoak daude bertan eta saio aurretik ere beraiek eman diete ikastolan bazkaria berrehun bat laguni.

Hango lurra bustitzen hasi da eta antolatzaileek berehala alfonbraz estali dute, istripurik izan ez dadin. Jendea barruan, eta pareko errugbi zelaietan haurrak lokatzetan busti-busti eginda jolasean. Saioan zehar euri emana zaparradetan bihurtu da eta zenbait unetan sabaian zarata handia atera du. Honek saioko isiltasunean eragina izan du, entzuleengan, eta, batez ere bertsolariengan. Kontzentrazioa eteteko modukoa izan da askotan.

Saio ona izan da, bertso eta bertsoaldi ederrekin, baina goia jo gabe. Giroa epel antzean. Hemen ere duela lau urte finalean egondakoak, Beñat Gaztelumendik, pilatu ditu puntu gehien.

HASIERAKO AGURRA

B. Gaztelumendi

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz
Doinua: *Gregario edo laguntzaile naiz*

Lau urte neurtu daitezke bere
ahalduntze ta erasotan
lau urte bere alokairutan
ta etxe gabeko auzotan
lau urte bere herri harresi
harrera eta presotan
Ortzaize ta Luhusotan
ta artisauen pausotan. (bis)
Gu hitza gera bakoitzak bere
papera daukanez hontan
kendu ditzagun apaingarriak
ta egin dezagun bertsotan! (bis)

ZORTZIKO HANDIA

B. Gaztelumendi - N. Ibarzabal

Gaia: Bi udal langile zarete. Azaroaren bataren ondoren, hilerria txukuntzera etorri zarete gaur. Ez dago inor.

Neurria: Zortzikoa handia
Doinua: *Ama Birjina Erkudengoa I*

B. Gaztelumendi:
Etorri gera hilerrira ta
urteroko istoria
hango larrosa gorria eta
hango krabelin horia!
Ia ahaztuta utzia dago
maitearen hilobia
egutegiak bezain ahula da
jendearen memoria.

N. Ibarzabal:
Baina zergatik etorri gorpu
hotz baten aldamenera
nahiz ondo jakin hauxe dugula
gu guztion amaiera
egun denetan aurrera egin
ta oroitzea hobe da.
Bizitza ez al zen ba handiena?
Bota ustelak lurpera.

N. Ibarzabal:
Baina nik drama kendu nahi diot
egoerari dena den
pertsona hauek hil ziren baina
benetan ez daude hemen
eta askotan esanda nola
gure bihotzetan dauden
oindik ez dakit azaroan batez
zergatik etortzen garen.

B. Gaztelumendi:
Beraz ustelak bere lurpetik
behar omen du igaro
protokoloak agintzen digu
hori nahiko argi dago.
Heriotzaren aurrean nola
sentitzen naizen arraro
nik errausteko eskatuko det
usteldu baino lehenago.

B. Gaztelumendi:
Ba maiteari nahi zaiolako
maitasuna erakutsi
etortzen dira bai beren lore
beren malko beren untzi
hemen ezin da urtean behingo
data ahazturan utzi
ohitura asko baitauzkagu guk
eta sentimentu gutxi.

N. Ibarzabal:
Heriotzean pentsatzeak on
egin dezake tarteka
imajinatuz zure nitxoak
errautsak edo hileta
baina mugatu bizi gara hemen
ta ez eman hainbeste buelta
erraustuta ere gu berdin-berdin
ahaztuko gaituzte eta.

J. Soto - N. Elustondo

Gaia: Mendiko erreskate talde batean hasi zarete boluntario lanean. Gaur irten zarete lehen aldiz mendizale baten bila.

Neurria: Zortzikoa handia
Doinua: *Goizian goizik jeiki ninduzun I*

J. Soto:
Gaur Orhieta gaur Ibañeta
pasa dugu mendi frango
gure mapa ta gure taktika
biderik bide lau zango
lehen eguna iritsi zedin
gogotan nengon lehenago
baina eguna ailegatu da
ta ikaratuta nago.

N. Elustondo:
Salbatzaileak izango gara
behin egindako promesan
eta ez dakit zer demoniok
hartzen zaituen sorpresan.
Gure denbora galduz gabiltza
gure zalantzatan kexan
ta bere aukerak murriztuz doaz
bizirik jarraitu dezan.

N. Elustondo:
Desagertu bat dago mendian
ta sortu zaigun trantzea
ikastaroak egin ta gero
zaila baita onartzea.
Julio igual zilegi degu
gu biok ikaratzea
baina ez dakit aukera bat den
Patrol hontan geratzea.

J. Soto:
Arrazoi duzu hitza ta putza
hasten gara gehienean.
Beraz lehenbailehen irten gaitezen
geure itxaropenean
bi mila eta hemezortziko
azaroaren lehenean
lore berri bat egon ez dadin
hilobi aldamenean.

J. Soto:
Egongo al da mendebaldean
edo hara da joanen?
Galduko al zen? Goserik al da?
Zerbait ba ote du hemen?
Hainbat galdera dauzkat bueltaka
ikur eta puntu garden
baina bakar bat denen gainetik:
bizirik egongo al den.

N. Elustondo:
Beraz ez dedin mendia izan
beste hilotz baten aldare
joan behar dugu guk zer topatzen
ote degun parez pare.
Holakoetan burua hotza
izan behar da hala’re
bere bizia salba dezagun
gurerikan galdu gabe.

ZORTZIKO TXIKIA

B. Iguaran - B. Gaztelumendi

Gaia: Iguaran, tabernaria zara. Larunbat gaua da, eta besta giroa dago zuen ostatuan. Gaztelumendi bezeroa hurbildu zaizu, hamargarren aldiz, kantu bera jartzeko eskatzera.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Kantatzera nijoa*

B. Iguaran:
Larunbat gauak beti
dakar desgastea
hala’re aurpegiak
zaila da ahaztea.
Berriz ere hemen dator
mutiko trastea
zure helburua al da
buruz ikastea? (bis)

B. Gaztelumendi:
Lehenago ere buruz
banekien jada
Benitoren ahotsa
triliritralara
hamargarrenez jarri
zazu *Zenbat gara*
hamaika izateko
bakarra falta da. (bis)

B. Iguaran:
Gaur azaldu da eta
igual berriz etzi
bakarra falta dela
nun zaituzte hezi?
Ia hamar kalabaza
ta ezin det sinetsi
ze mutil saiatua
oaindik ez du etsi. (bis)

B. Gaztelumendi:
Benga hamargarrena
arren datorrela!
Nere kamareroak
esan dit horrela
kalabaza ugari
etorri direla…
Ni Benitori soilik
natzaio fidela. (bis)

B. Iguaran:
Holakuak moxkortu
hirutatik bitan
baino ez dunez etsi
honek oraindikan
aizu baldin bazabiltz
Beniton irrikan
Orion egongo da
ta joan bisitan. (bis)

B. Gaztelumendi:
Baino Orion ez zidan
tragorik eskeini
Xuberoan ez zaio
jartzen edozeini.
Benga hamargarrenez
Ipini! Ipini!
Soilik geratu arte
Benito eta ni. (bis)

N. Ibarzabal - J. Soto

Gaia: Pisukideak zarete. Nerea, Juliok biziki maite ditu margolanak. Egongela koadroz beteta daukazue, eta beste bat dakar eskuetan gaur.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Nere senarrarekin I*

N. Ibarzabal:
Juliok artearekin
zenbat konpromezu
gaur arte ez naiz izan
inoiz ere kexu.
Oin puntu beltz bat duen
berri bat daukezu
ez zaituztet ulertzen
ez kuadroak ez zu. (bis)

J. Soto:
Eder zaude ikusten
zaitudan aldiro
batzutan poz-pozikan
eta positibo
beste batzutan triste
ez dagola giro
jarri behar ditut hiru
puntu suspentsibo. (bis)

J. Soto:
Puntua da bukatu
ta zerbait hasteko
nere akuarela
ta nere *boceto*
entrenatzen ari naiz
batekoz besteko
egunen batean bat
zuri egiteko. (bis)

N. Ibarzabal:
Ze ni inpresionista
naiz benetan hara
eta denborarekin
ohartuko zara.
Kuadro bat sartu duzu
ia nire gelara
benetan nahi duzuna
ni joatea da. (bis)

N. Ibarzabal:
Beraz retratoekin
zabiltza laguna
mugatu xamarra da
zure etorkizuna
nire irudiarekin
egingo duzuna
ze ertzetatik irteten
zait edertasuna. (bis)

J. Soto:
Hemen nere kuadroez
ta begira aizu!
Itxurakerietan
ni nintzela maisu.
Gero ta kuadro gehio
pintatzen jo ta su
egiaz ohartzea
pixka't kosta zaizu. (bis)

SEI PUNTUKO MOTZA

E. Lekue - N. Ibarzabal

Gaia: Senideak zarete. Zuen gurasoak ia herri osoari lana ematen dion lantegi baten jabeak dira. Etxahun, Nereak esan dizu susmoa duela zuen lagunak interes hutsez egoten direla zuekin.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Aresoarren bandera*

E. Lekue:
Jokin, Miren ta Eneko
dodaz lagun hurbileko
ta zu ostera zagoz eurekaz
haserre antzeko
horren gogor jarduteko
azaldu dana hobeto
ze froga dozu susmo txar horrek
niri berresteko? (bis)

N. Ibarzabal:
Badatoz momentu beltzak
kaleratzeak ta kexak
lagunek beti gurako dute
ondo zaindu ertzak
ta nik hartu diet aintzat
azken urteetan behintzat
beti eskuminak bialtzen dituzte
gure aitarentzat. (bis)

N. Ibarzabal:
Badauzkat nahikoa datu
aberastasunen zaku
gara eurentzat ta eratortzen da
hortik hainbat tratu
beti esaten dute "Hartu"
ez dut nahi gaizki pentsatu
baina oraindik parrandan ez dut
tragorik pagatu. (bis)

E. Lekue :
Aita da euren nagusi
ez deko detaile gutxi
zeure jarrera eskas horreri
ez eiozu eutsi
jaso laztan ta igurtzi
lagunei ordaintzen utzi
ez dan lekuan ez egixula
mamurik ikusi. (bis)

E. Lekue:
Nire arrebaren berban
zeozer sumatzen neban
susmo txar hori ez dakit uste
ustela ete dan?
Dirua dozu karteran
bestek ordaindua edan
zuhurrak gara gu biok geure
gurasoen eran. (bis)

N. Ibarzabal:
Badut *todoterrenoa*
txaletean pianoa
eta batzutan izan ohi dut nik
gaiztoen susmoa
usainduz besteen asmoa
lortu ezinik orgasmoa
enpresario izateko ni
bide onetik noa. (bis)

B. Iguaran - J. Soto

Gaia: Bi aktore zarete. Gaztetan sexu erasoak jasan zenituzten, baina ez zenituzten salatu. Beñat, gaur Juliok esan dizu publikoki salatzeko asmoa duela.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Aresoarren bandera*

B. Iguaran :
Garai bateko problema
garai hartan izan zena
gaur salatzeko hartua dezu
hain bide zuzena.
Nahiz eta sentitu pena
ezin det kontatu dena
berriro ez baitet Soto bizi nahi
bizitu nuena. (bis)

J. Soto:
Gertatu ziren laurdenak
ez esatearren denak
nahiz ez dituen aldatu behar
gure aitorpenak
noski zalantza grisenak
batzutan dakarzki senak
bortxatzaileak ere behar ditu
izen-abizenak. (bis)

J. Soto:
Oroitzapenaren ezten
artean nahiz errex ez den
ahalegindu behar genuke
barrutik abesten.
Eszena eta antzezpen
artean gara babesten
baina ezin dut gehiago segi
gezur hau antzezten. (bis)

B. Iguaran:
Bueno hau da hau pastela!
Det ezinegon itzela.
Ondoan nauzu gaurkuan ere
zer egin bestela?
Kontatuko det honela
pozik zerorrek bezela
baino hori bai putakume hoi
zigor dezatela. (bis)

B. Iguaran:
Kontatzea nahiz den moda
ta bueltatu nahi lehengora
kaka berdinaz ibili nahirik
behera eta gora.
Lehen ere erdi txora
nahiz zuk kontatu gustora
hainbeste urte pasa ondoren
zer aldatuko da? (bis)

J. Soto:
Bai justiziari galde
ez zaio egingo debalde
sar dezatela kartzelan eta
ez beza egin alde!
Ta orain seguru zaude
lanean xuabe-xuabe
makillatuko gaituzte baina
maskararik gabe. (bis)

Gelariako Trakolina

B. Gaztelumendi - N. Elustondo

Gaia: Downen sindromea edo trisomia duen gazte baten gurasoak zarete. Gaur jakinarazi dizue lagunekin bizitzera doala. Beñat, Nereak esan dizu oso pozik dagoela.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Dozena bat bertso berri A*

B. Gaztelumendi:
Adinez denez nagusi
bere lagun eta guzi
bere burua etxetik kanpo
nahi luke ikusi
maitasuna erakutsi
diogu eta ez gutxi
joaten utzi nahi diot baina
ezin diot utzi. (bis)

N. Elustondo:
Barruan dezun dilema
neretzat ez da problema
eta zain nago noiz iritsiko
ote astelehena.
Ez zazula hartu pena
inuxente alaena!
Hark ote dauka zure beharra
ala zuk harena? (bis)

N. Elustondo:
Dugu alaba abila
ta izan zaitez umila
bera laguntzen izango ditu
monitore pila.
Etxetik joan dadila
askatasunaren bila
biok dakigu bere burua
zaintzen badakila. (bis)

B. Gaztelumendi:
Malkoa eta marmarra
daukat nabarmen xamarra
bera ez baita hemen arazo
bat daukan bakarra
eta hara aita zaharra
tristura eta negarra
Nerea hemen denok daukagu
elkarren beharra. (bis)

B. Gaztelumendi:
Nere barruko olatu
hau ezin det kontrolatu
monitoreek eman dituzte
makina bat datu
lasai liteke moldatu
ta dena nahi du aldatu
nola hazi den orain arte ez
nintzen konturatu. (bis)

N. Elustondo:
Arituak ika-mikan
sorpresa baten orbitan
soluziorik ba ote dago
gure kalapitan?
Euritan zein eguzkitan
beharrezko dan guztitan
nahi dezunero joango gara
harena bisitan. (bis)

KARTZELAKO LANA

B. Gaztelumendi

Gaia : Zure ibilbideko unerik onenean zaude. Zure jarduna uztea erabaki duzu.

Neurria: Hamaseiko handia
Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

Bertsolaria naiz ofizioz
maiz pentsatzen det "Zertako?"
saio txar bat ta nere barruan
zenbat ezten ta zartako!
Final bat BECen gero txapel bat
bihurtu nintzen modako
tamalez hori sekula ez da
aski izan neretzako.
Nahiz eta oholtza bihurtu nuen
ibilbide baten marko
eragin ditut hamaika irri
hausnarketa eta malko
hainbeste plaza, bertso afari
ta telebistako plato!
Guzti-guztia uzten dut aita
izatera noalako.

Hemen guztian agintzen baitu
izenak ta abizenak
plaza kopuru, bertso borobil
ta curriculum gizenak.
Oraintxe bertan beste zeozer
eskatzen dit niri senak
alde gehiago badauzkalako
bene-benetan naizenak.
Entzungo ditut kritikak eta
komentario kirtenak
ta igual batzuk minduko ditu
nere ahotik irtenak
une honetan nahiz neregana
datozkidan argi denak
pertsona asko dauzkat ondoan
ikustezinak direnak.

“Beraz bertsotik urruntzen zera”
galdetzen didate “Nora?”.
Hain zuzen ere maite ditudan
eta nautenen ondora
kontziliatzen hastea nahiz ta
omen den egungo moda
norbait etxean beti utzita
ni ez negoke gustora.
Hamar urteko ibilbidea
neretzat da aski froga
utzi dezadan, noan etxera
egin dezadan aproba!
Bai niri ta bai ingurukoei
eman nahi diet denbora
ta ea zenbat argi dagoen
fokoetatik kanpora.

Aitor Mendiluze Gonzalez

Iñaki Apalategi Astigarraga

Jon Maia Soria

Miren Amuriza Plaza

Miren Artetxe Sarasola

Oihana Iguaran Barandiaran

DURANGO

2017-11-12, IGANDEA, 17:00
LANDAKO GUNEA
FINALAURREKOAK. LAUGARREN SAIOA

Bertsolariak:
Aitor Mendiluze Gonzalez
Iñaki Apalategi Astigarraga
Jon Maia Soria
Miren Amuriza Plaza
Miren Artetxe Sarasola
Oihana Iguaran Barandiaran

Gai emailea: **Amaia Ugalde Begoña**

Epaileak: **Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa, Joakin Arregi Goenaga, Mikel Beaumont Arizaleta, Mikel Fernandez de Arroiabe Idigoras, Mikel Lersundi Ayestaran, Mirari Azula Aurrekoetxea eta Zigor Leunda Eizmendi**

Durangoko Landako gunean izango da finalaurrekoetako lehen itzuliari amaiera emango dion saioa. Liburu eta diskoen azoka egiten den lekuan prestatu dute bertsotarako aretoa. Guztiak altuera berean, barruti osoan zabaldu dituzte bi mila aulkitik gora eta horrek handitasun sentsazio itzela ematen du.

Telebistarako zein plaza digitalerako komentarioak egiten dituzten Aitzol Barandiaran eta Uxue Alberdi goialde batean jarri dituzte; eskuzko eskailera baten bidez igo behar izan dute bertara. Handik ikusteko zein pantailan ematen duen itxura ederra da.

Kanpoaldea euritsu dago eta hotz egiten du. Eta barruan, nahiz lekuaren handitasunak besterik pentsarazi, bero egiten du. Gehiago berotuko da goiz samar sartzen hasi diren bertsozaleak barruan daudenean. Sarrerak internetez erosi dituzte eta astebete lehenago salduak ziren guztiak: 2.100.

Gaur sailkapenari begira ere badago jendea eta saio hasi aurretik langak – finalerako borroka estukoak zein kanpoan geratu behar dutenena- non dauden pentsatzen

ari da jendea. Azkenean, eta saio gorabeheratsu baten ostean, seikotetik bostek kantatuko dute finalaurreko hurrengo itzulian, eta Aitor Mendilzuek pauso handia eman du BECeko finalaren bidean.

HASIERAKO AGURRA

M. Artetxe

Neurria: Hamabiko txikia
Doinua: *Inork badakizute*

Sakon arnasa hartuta
berriz fokopera
ta ze poza Landako
goraino bete da
plaza hoberik eska
ote liteke ba?
Horrela ilusioz
nola ez atera
horma garden arteko
eskaparatera
kristalezko sabaian
kax-kax egitera.

ZORTZIKO HANDIA

A. Mendiluze - I. Apalategi

Gaia: Nerabe baten gurasoak zarete. Gaur jakin duzue *youtuberra* dela eta bideoetan bere bizipenetatik abiatuta aholkuak ematen aritzen dela. Jarraitzaile asko ditu.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Menditarra naiz eta gogoan*

A. Mendiluze:
Youtuber hitza zer den haseran
ez det ondo konprenitu
orain badakit baina ez nau gehien
hala izateak harritu.
Aholku ematen gure semea
ez da ba hala aritu?
Berak besteei eman bai baina
zeinengandik jaso ditu?

I. Apalategi:
Hortaz aparte bere bizia
horra mugatzen du Unaik
azken bideoan eduki ditu
milioi bat berrehun mila *like.*
Dependentziak arrisku asko
daukala iruditzen zait
zer pasako da jarraitzaileak
joaten bazaizkio noizbait?

A. Mendiluze:
Heldu gintezke inork jarraitzen
ez duen une batera
jarraitzaileek egin ezkero
beste zerbaiten aukera
ta zuk diozu horrela bada
zer gertatuko ote da?
Ba geu joan behar degula orduan
aholkuak ematera.

I. Apalategi:
Ni ere Aitor horretaraino
ailegatzen naiz akabo!
Baino *go-pro* bat hartzen du eta
itsutzen zaigu zeharo
eta ez dut nahi Unaiek dezan
marra beltz hori igaro
ez ote degu esan beharko
gertatu baino lehenago?

A. Mendiluze:
Eta zer esan behar diogu
gaizki ari ez den bati?
Bere aholku-bideo hauek
izatez onak izaki
berak neurtu beharko luke
eta berak erabaki
baina ez kezkatu Unaik bizitzaz
itxuraz dexente daki.

I. Apalategi:
Egia da bai bideo zerrenda
ez du batere makala
beti zer egin zintzilikatzen
du baina sarri, aibala!
Ustekabeak etortzen dira
ta hari iritsi ahala
besteentzako aholku gehio
zintzilikatu ditzala.

ZORTZIKO TXIKIA

M. Amuriza - A. Mendiluze

Gaia: Pisukideak zarete. Miren, Aitor animatu zenuen tango ikastaro batean izena ematera. Orain, etxean tarte bat duzuen bakoitzean, entseatu nahi duela esaten dizu.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Durangotik gorako*

M. Amuriza:
Nahiz dituzun ritmo ta
pausaje eskasak
egongelan egin nahi
dantzaldi demasak
beti ez dira izaten
zurekin errazak
nire ordez ez al dizu
balio erratzak? (bis)

A. Mendiluze:
Klabelin bat badaukat
eta ez da gutxi
dena egun batean
ezin erakutsi.
Ekar zazu eskua
ta gerritik eutsi
zapaldu nere oinak ta
eramaten utzi. (bis)

A. Mendiluze:
Erratzak balio dun
Miren zure partez
berdin moldatuko naiz
bietako batez
baina zu jardun zinen
noizbait borondatez
ta orain ordainetan zeu
animatu zaitez. (bis)

M. Amuriza:
Zapaltzea nahi duzu
Aitor hau da marka!
Ados, banator egin
ez daizun bakarka
zure gainean nago
baina barka, barka
zer dela ta dauzkazu
belaunak dardarka? (bis)

M. Amuriza:
Animatu zintudan
ta neure kaltean
izan da azkenean
Aitor bat-batean.
Ez dizut lagunduko
bien bitartean
ahoan larrosa bat
ekarri artean. (bis)

A. Mendiluze:
Beldurra izatea
ez al da zilegi?
Hurrengo pausoaren
arrazoia bedi
hanka hanka tartean
sartuidazu neri
altxa takoia baina
ez altxa gehiegi. (bis)

I. Apalategi - J. Maia

Gaia: Bikote hasiberria zarete. Iñaki, erlezaina zara eta gaur Jon, erlauntzera eraman duzu, zure lana erakustera. Biok erlezain arropa janzten hasi zarete. Iñaki, Jon dardarka dago.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orioko balearena*

I. Apalategi:
Erakutsi nahi nizun
erleen kultura
baina guztiek duten
eztenen kontura
dardarka ikusten zaitut
flan baten modura
lasai, erlezaintza da
ez akupuntura. (bis)

J. Maia:
Baina ez zaidazula
jo orain adarrik
prezioak neretzat
ez du ezer txarrik
konturatu naiz eta
ez da esan beharrik
eztitik daukazula
potean bakarrik. (bis)

J. Maia:
Ikusi det eztenak
daraman tamaina
hurbiltzea bakarrik
da kriston *azaña.*
Nik Maia abizena
izango det baina
ez det eztia maite
beste harek aina. (bis)

I. Apalategi:
Onena egoten da
erlauntzan gordeta
baina ez dezu bertan
jarri nahi arreta.
Benga egin korrika
komunera buelta
liztor asiatiko bat
azaldu da eta. (bis)

I. Apalategi:
Eta pasatu dezu
denbora guztia
esanez "Nun da espraia?
Kauen la ostia!".
Laguna badakizu
zergatik eztia
izaten dan dendatan
horren garestia. (bis)

J. Maia :
Ze liztor asiatiko
eta ze matraka!
Buzo txuri honekin
ni ere jantzi nau ta
orain konturatu naiz
baina hau da marka
lehenago ere bazinan
nahiko astronauta! (bis)

LEHEN PUNTUA EMANDA

M. Artetxe

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

Errigora hasi da
saskiak prestatzen.
Beraz hasi zaitezte
launaka eskatzen
taldean eginda ez da
hainbeste kostatzen
eta haiek ze poza
dirua kontatzen!

Herringintzan oinarri
dugu auzolana
herriak herriari
bihotzez emana
Erriberan lanean
pertsona andana
saskiak iristeko
gero guregana.

Jende ameslaria
da gure artean
eta nik sinesten dut
beraien artean
ametsak egitea
ez dugu kaltean
lortu daitezkeelako
halako batean.

A. Mendiluze

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

Telebistan orduro
daukagu futbola
uste det ia beste
ezer ez dagola
ezin baita hartatik
ihes joan inola
ta neri egia esan
hori bost ajola.

Lehia ez ote dugu
sustatzen gehiegi?
Txapelketan galdetzen
al didazu neri?
Ez joan besteengana
geure hontan segi
lehia eraikitzeko
bide izan bedi!

Umeek zer ikusi
huraxe ikasi
orain dena da galdu
edo irabazi
hobe pixka bat hortik
atera arazi
ta eurekin jolasten
gehiagotan hasi.

SEI PUNTUKO MOTZA

M. Artetxe - I. Apalategi

Gaia: Zuzenbide ikasleak zarete. Karrerako azken urtean zaudete. Miren, Iñakik esan dizu zuzenbidearen mundua ez dela berak espero zuena eta karrera utzi gura duela.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Aresoarren bandera.*

M. Artetxe:
Badaukazu ahalmena
soberan duzu kemena
bilakatuko zara abokatu
on ta gozoena.
Nahiz eta kurba den dena
segi bidean barrena
bide egokia sekula ez da
izaten zuzena. (bis)

I. Apalategi:
Baina Auzitegi Gorenak
bihur ditzake krimenak
nahiz zuk eduki zilegitasun
ta asmo onenak
zertarako ebazpenak?
Alperrik gabiltza denak
legeen giltza bakarrik dauka
idazten duenak. (bis)

I. Apalategi:
Baina zenbat ustel usai!
Begiak dauzkat malkoz blai
Katalunian hara bi milioi
boto hor ziren "bai"
ez ziren aldatzeko gai
konstituzio bat etsai
nik lege fartsa baten konplize
ez det bihurtu nahi. (bis)

M. Artetxe:
Bai bada aski pekatu
baina ez zaitez asaldatu
guda hasia daukagu eta
ez zaigu bukatu.
Pentsatu, ondo pentsatu
etsiari ez barkatu
eta giltzarik ez baldin bada
sarraila aldatu. (bis)

M. Artetxe:
Justizia dugu eri
han ere zenbat miseri
Katalunian injustizia
ez al da gehiegi?
Baina zuk bidean segi
jarraitu zaidazu neri
eta batera bihur dezagun
legea zilegi. (bis)

I. Apalategi:
Juez arteko mesedeak
ez direnez dotoreak
uztera noa fakultateko
paperen oreak.
Atera zure loreak
ikasi ondo legeak
ta ea banatzen dituzun noizbait
hiru botereak. (bis)

KARTZELAKO LANA

J. Maia
Gaia: Amaitu da ospakizuna. Dena jasotzen ari zara.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Baserrian jaio nintzan*

Bere urtebetetzea
ahaztu zait eta ze zama!
Bederatzi urtetxokin
nere alaba laztana
beti bezela aitzaki
nere agenda ta lana
bertsolaria naizela
eta badudala fama.
Etxea isilik dago
algara da iragana
nabaritzen da pasatu
dela hemen ume andana
ta orain plater hustuak
biltzen ditut banan-bana
pena beteta zeudela
hemen egon ez izana.

Logelara hurbildu naiz
nere umearen aiduru
baina hor ikusten ditut
bere bi esku ta buru.
Berandu dugu jadanik
ia gauerdia inguru
bizitzan ondo nabilen
ez nago oso seguru
liburutxoak idazten
ta iritziaren guru
kausa inposibleetan
militantzi eta gudu.
Mundu hau salbatzea da
jende askoren helburu
eta horren izenean
pertsonak ahazten ditugu.

Ta bikoteari ia
eman dio atakea
aitzaki denak soberan
pazientzia betea.
Jadanik surik ez dago
ta soilik saltzen dut kea
arimaren barrenean
senti dezaket nekea
baina alaba badoa
hori da gure suertea
erabaki dut gelara
isil-isilik joatea
makurtu egin naiz eta
bistatu izarapea
ta esan diot “Zorionak
ondo lo egin, maitea”.

O. Iguaran
Gaia: Amaitu da ospakizuna. Dena jasotzen ari zara.

Neurria: Hamabiko berdina, 6 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Gaur udaberri bat dabil*

Hirurogei urte dauzkat
ta nahi nuen agertzea
sukalde bete janari
ta denak pozez lehertzea
eta lortu dedanean
gose hori baretzea
joan dira eta gaude
ni eta *malaletxea*
festa nerea zelako
eta nerea etxea
mahaia jasoz bukatzen det
nere urtebetetzea. (bis)

Seme-alabak joan dira
eta atzetik bilobak
baietarekin badauzkat
mahaia garbitzen aprobak
baino bidea alferrik
ez du egiten denborak
ta sarri iristen dira
aldaketa baten frogak:
senarra erratzarekin
dator omen dio modak
eta orain bai badaukat
ospatzeko motibo bat. (bis)

Harrera egitea baita
ni ikasia nagona
ta ahal dela egiten det
harrera txukun ta ona.
Globoz betea utzi det
nere sukaldeko horma
eta pastelari eskuz
eman bihotzaren forma
bilobak irentsi eta
gerturatu arren hona
amak behartuta justu
“Eskerrik asko amona”. (bis)

Beñat Gaztelumendi Arandia

Etxahun Lekue Etxebarria

Jon Maia Soria

Jon Martin Etxebeste

Nerea Ibarzabal Salegi

Sustrai Colina Acordarrementeria

AMURRIO

2017/11/19, IGANDEA, 17:00
BAÑUETA KIROLDEGIA
FINALAURREKOAK. BOSGARREN SAIOA

Bertsolariak:
Beñat Gaztelumendi Arandia
Etxahun Lekue Etxebarria
Jon Maia Soria
Jon Martin Etxebeste
Nerea Ibarzabal Salegi
Sustrai Colina Acordarrementeria

Gai emailea: **Aintzane Irazusta Arzallus**

Epaileak: **Ekaitz Elorriaga Anduaga, Eneko Bidegain Aire, Eneritz Azkue Basurko, Joseba Santxo Uriarte, Karlos Ibarguren Olalde, Mirari Azula Aurrekoetxea eta Nerea Bruño Artazkoz**

Eguzki goxoa lagun izan dugu bertsozaleok Aiaraldeko eskualdean. Finalaurrekoetan gaude oraindik baina bigarren itzuliko lehen saioa da Amurriora ekarri gaituena. Horrek berriro aldaketak dakartza. Epaile aldaketa: denak ez, baina zazpitik sei berriak izango dira buelta honetan, eta bertsolariek egin beharreko lanetan ere bai. Nabarmenena bakarka puntuak erantzuten aritu beharrean binaka puntutan zortziko txikian aritu beharko dutela. Beste aldaketa seiko motza utzi eta berriro hamarreko txikiko saiora itzuli dela txapelketa.

Jendetza bildu da gaur ere. Sarrerako ordenagailuan duten kontagailuak 1.235 txistu jaso ditu eta hainbeste jendek itxura ederra emango dio argi eta dotore dagoen aretoari. Kantxan luze eta zabal jarriko da jende gehiena. Mila lagun inguru sartuko dira bertan eta ezker-eskuin goialdean dauden harmailetan gainerantzekoak.

Jokalekuan oholtza parean, jende guztiaren atzean daude mahai luzeak: epaileena, hedabideena eta haietatik bereizita telebista eta internetez saioa zuzenean emango

dutenena. Haiekin batera setean oholtzari bizkarra emanez komentaristak: Aitzol Barandiaran eta Uxue Alberdi. Saioa hasi aurretik beraiek dira gaur elkarrizketatuak. Edurne Azkarate eseri baita beraiekin *Aulki-Joko*rako, ETBk astelehenean emango duen programarako, egiten ari diren erreportajearen grabaketarako. Bostak eta bost minututan jarri dute txapelketaren sintonia eta berehala hasi da txaloka jendea gai jartzaile eta bertsolariei ongi etorria eginez.

Goi mailakoa saioa joan da. Bertsoaldi beteak eta bertso onak. Puntuak beharbada aurrekotan baino gutxiago -ikusi behar epaile eta lanen aldaketak zer dakarren alde horretatik- eta lehen postuetan Sustrai Colina eta Beñat Gaztelumendi. Biak ondo kokatu dira abenduaren hamazazpiko finalari begira.

ZORTZIKO HANDIA

J. Maia - N. Ibarzabal

Gaia: Adinean gora zoazten bikotea zarete. Gazte garaiko argazki album bati begira zaudete. Zuri, Jon, iruditzen zaizu garai batean iraultzaile zinetenak kontserbadore bilakatu zaretela. Nerea ez dago ados.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

J. Maia:
Begira zure galtza kanpanak
ta begira nere kaiku.
Argazki atzean Che, Fidel, Lenin...
haien esaldi ta aipu
nahiz ta agian lehen bezelaxe
pentsatzen biok jarraitu
mundua aldatu nahi genuen ta
munduak aldatu gaitu!

N. Ibarzabal:
Mundua joan da noizbait geneuzkan
lakartasunak leuntzen
baina orain begiratzen dugu
arazoetarantz zuzen
ta eguneroko erabakitan
gu aldaketak burutzen
iraultza ez da belarritako
aro kopurutan neurtzen!

J. Maia:
Baina arotik pasatu gera
gauza guztitan funtsean
begira ogia erostera
nola zoazen kotxean
tximini baten aurrean gaude
berrehun metroko etxean
kontraesanak ezkutatuaz
gure zimur bakoitzean!

N. Ibarzabal:
Ba hala ere nik erosten dut
beti herriko dendetan
ta ez naiz joaten horren urruti
pultserekin oporretan
ulertu dugu iraultza handirik
ez datorrela benetan
baina aldaketak hortxe daudela
erabaki txikietan!

J. Maia:
Baina izana aldatu zaigu
nahiz ta mantendu izena
gauza txikitan ibiltzen gara
baina lepoa gizena
pentsatu nahi det iraultza dela
gure ondoren datorrena
gure bilobek egingo ahal dute
guk egin ez genuena!

N. Ibarzabal:
Ilobek ez dute aterako
sartu zitzaigun ezpala
ta badakizu hori esatea
nahiko hipokrita dala.
Guk ahal duguna egiten dugu
zimurtu arren azala
orain zu ari zara hizketan
kontserbadoreek bezala!

J. Martin - B. Gaztelumendi

Gaia: Anaiak zarete. Zuen familiaren baserria erortzear dago. Zuk, Jon, berreraiki egin nahi duzu; Beñatek, ordea, ez.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Beti penetan beti penetan*

J. Martin:
Etxea dago erdi ahaztua
orbel jausien antzera
gaur egunean pena dakarkit
joate hutsak etxera!
Oraintxe dugu errautsetatik
guk bizitzeko aukera
iragana ta etorkizuna
konpon ditzagun batera!

B. Gaztelumendi:
Gure burua berreraikitzen
joan nahi dezu urrutira
baserritarren bizitza horren
errexa balitz, sikira!
Diru-laguntzak gutxitu eta
gaur, nork egingo du tira?
Baserri hau ez du inork bota
bera bakarrik jausi da.

B. Gaztelumendi:
Baina izozte edo elurte
ta izurrite abisu
baserria ez da ia edozein
bizitzeko paradisu
iragana ta etorkizuna
elkartu nahian beti zu
zuk baserria nahi dezu baina
atxurrean ba al dakizu?

J. Martin:
Nekazal etxe bat egin leike
edo milaka istori
uste dut biak bertan moldatu
gaitezkeela oso ongi
baina lurpean balego legez
hitz egitea da hori.
Gure eskutan dauka geroa
ez da oraindik erori.

J. Martin:
Zenbat alditan jardungo nintzen?
Agian bi edo hiru
baina ez nago nere oraingo
gaitasunetan gatibu
arrazoi duzu baserri mundu
hontaz asko ez dakigu
gure burua berreraikitzen
ere lagunduko digu!

B. Gaztelumendi:
Baina ni pijo samarra nauzu
eskuak sartzeko lohian
ta asko jota ipiniko det
letxugaren bat balkoian!
Zuk egin zazu baserria ta
segi gogor arrazoian
ta ni bisitan joango natzaizu
uzta biltzeko sasoian!

ZORTZIKO TXIKIA

J. Maia - J. Martin

Gaia: Maia, zure autoaren derrigorrezko azterketa teknikoa egitera joan zara. Martin aztertzaileak ordu-erdi darama begiratu hemen eta begiratu han, oharrak idatzi eta idatzi.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

J. Maia:
Enpeñoan zabiltza
hau jarri, hura ken
ze akats aurkituko
azazkalak jaten!
Kolpe txikitxo bat dut
soilik ate baten
Durangora bidean
bertsotara joaten. (bis)

J. Maia:
Etxetik irten eta
ez kontu, ez orden
bertso txapelketara
azkar joan behar nuen.
Nahiz ta kontraesana
igual dirudien
ze bestela puntuak
galduko nituen! (bis)

J. Martin:
Kostatu behar zaizu
gaur itxarotea
hau gainditzea duzu
kristoren zortea!
Hobe dugu hargatik
ziur egotea
zer dela eta hartu
zenuen kolpea? (bis)

J. Martin:
Rekuentoa nik nahiko
luzea daramat:
erdi hustuta daude
zure gurpil danak
eta balaztak ditu
onenak emanak...
Harritzen nau honaino
iritsi izanak! (bis)

J. Maia:
Baina iritsi naiz ta
jarri zera grabe!
Dena omen dut akats
dena nobedade!
Aber, "Jon Ma" laguna
jarri bare-bare
zu zoaz puztuegi
ta frenorik gabe!(bis)

J. Martin:
Gurpilak laster egin
behar du eztanda
ta alperrikakoa da
zure propaganda.
Zure autoak ez du
pasatuko langa
ta hemen geldituko da
frenoa emanda! (bis)

PUNTUKA

E. Lekue - J. Maia

Gaia: Zerbitzariak zarete. Kongresu baten ondoren, jende artean zabiltzate kanapeak eskaintzen. Sukaldetik atera orduko bukatzen dira guztiak.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Ezagutu zuenak*

E. Lekue: Sukaldetik kanpora
bidaia arinak...
J. Maia: Nik atera nahi ditut
pintxoak gordinak!
E. Lekue: Adituak dira, bai,
baina ez dira finak!
J. Maia: Ja jartzen ari dira
more ta urdinak!

J. Maia: Azkar kentzen didate
neri kanapea!
E. Lekue: Mastikatzeko ez dabe
ez hartzen tartea!
J. Maia: Maionesaz betea
daukat hankapea!
E. Lekue: Hobe zabalik itxi
sukaldeko atea!

E. Lekue: Eta beraiek bila
sartu daitezala
J. Maia: baina horrela ez da
loditzen azala!
E. Lekue: Guzti honen sakea
ez dogu normala
J. Maia: hemen dagon giroa
ez da naturala!

J. Maia: Gainera dentistena
dugu kongresoa...
E. Lekue: Ba konpondu beharko
dabe aho osoa!
J. Maia: Haginetan daukate
kriston *prozesoa*
E. Lekue: antzera jaten dabez
gazi zein gozoa!

E. Lekue: Eta paretsu doa
eurentzat edana!
J. Maia: Edanaren tartean
falta da zer jana!
E. Lekue: Bakotxak hartzen baitau
botilatxo bana
J. Maia: botilarekin dute
kriston harremana!

J. Maia: Ez dute soilik jaten
hortzetako pasta...
E. Lekue: Gu zain eurek noiz esan
"Yasta, lagun, *yasta!"*
J. Maia: Hortz artean daukate
Idiazabal gazta
E. Lekue: beste pintxoek ere
a ze arrakasta!

E. Lekue: Ehun pertsona daude ta
inork dino ezetz
J. Maia: denek kanapeakin
egin nahirik amets
E. Lekue: ta gu estropozuka
gabiz hemen trakets
J. Maia: atera behar dizkiet
pare bat txibi beltz!

J. Maia: Jende honekin ezin
horrela jarraitu
E. Lekue: baten batek igual, geu,
Jon, jan behar gaitu!
J. Maia: Nik anestesiatuta
behar dut amaitu!
E. Lekue: Neu ere aspaldi naz
honekaz gogaitu!

J. Martin - S. Colina

Gaia: Herriko festak dira eta erromeria dago plazan. Dantzan hasteko desiratzen zaudete biok, baina ez duzue lehenak izan nahi.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Mendiko umea naiz*

S. Colina: Dantzatzeko ez al dira gure herriko jaiak?
J. Martin: Ni nabil ezin hemen aguantatu nahiak
S. Colina: eta gure zain daude *Joselu Anayak*
J. Martin: guk ere demostratu beharko dohaiak!

J. Martin: Nik *Despacito* entzun nahi nuen lehenbizi!
S. Colina: Zu *despacito* berez zarelako bizi!
J. Martin: Hainbeste kantu eta hainbeste irrintzi
S. Colina: ta oraindik ez zara plazara iritsi!

S. Colina: Burua muitzea al da dantza egitea?
J. Martin: Nik uste dut horixe dela elitea!
S. Colina: Goazen erdira eta hobe ekitea!
J. Martin: Badaezpada aurretik abitu zaitea!

J. Martin: Nik beldurra dut eta zer esango duten
S. Colina: inork ez du ikusten ta inork entzuten
J. Martin: ez dakit horren geldi zergatik dirauten!
S. Colina: Lasai, mozkorrak ez du hainbeste irauten!

S. Colina: Beraz, eman ezazu
lehenengo pausoa!
J. Martin: Zuri eskatu dizut
ez da erosoa!
S. Colina: Nik erakutsi baietz
repertorio osoa!
J. Martin: Zuk dantzatzeko duzu
modu kuriosoa!

J. Martin: Tente gelditzen zera
makila bezela!
S. Colina: Ahaztuta ote zaude
euskaldun naizela?
J. Martin: Ziur arin-arinak
egina zarela...
S. Colina: Bai, baina ez didate
eman nahi labela!

S. Colina: Estilo propioa
omen daukat eta!
J. Martin: Demostratu egin nahi
zenuke tarteka!
S. Colina: Txikitan egin nitun
dantza ta balleta!
J. Martin: Nik kostata lortzen dut
ordea oreka!

J. Martin: Azken aukera da ta
has gaitezen dantzan
S. Colina: jende gehiago eta
pilatu da plazan
J. Martin: gaude norbait hasiko
denan esperantzan
S. Colina: ixkinatik begira
bilintzi-balantzan!

HAMARREKO TXIKIA

B. Gaztelumendi - J. Maia

Gaia: Kuadrilla bereko bi emakume zarete. Gaur heldu zaizue lehenengo aldiz mamografia egiteko gutuna.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Hamalau heriotzena I*

B. Gaztelumendi:
Karta irakurrita
kafeari trago
ni handik ez naiz eta
sekula igaro!
Barkatu, sentitzen naiz
nahikoa arraro!
Nahiz ta ez jakitea
izan okerrago
aterako denaren
beldurretan nago!

J. Maia:
Ahotsean dardara
duzu salatari
baina ez duzu sintoma
ta ez aurrekari!
Ikututa ez dezu
ezertxo nabari
nahiz ta arra barruan
ari eta ari
hobe aurrea hartu
letorkeenari!

B. Gaztelumendi:
Ez da errexa beti
aurretik joaten
kontsultara joango naiz
azkazalak jaten
biluztasuna ez dut
errez eramaten
bularrak ukitzea
kontsulta hotz baten
zuri horrek ez al dizu
lotsarik ematen?

J. Maia:
Egoera ez zazu
horrela konpara!
Mariasun ere joan zen
beraz, errepara!
Gainera jartzen dute
alboan izara
hobeto dezu lotsa
albo baten laga
ez da lotsagarria
beharrezkoa da!

B. Gaztelumendi:
Guk ziklo bati eman
diogu hasera
maiz joan beharko degu
bai kontsultatzera
baina neretzat une
berri bat hauxe da!
Nahiz ta joango naizen
ni zure antzera
nahiago det nerekin
etortzen bazera!

J. Maia:
Bildurrak badu bere
data, iraungipen...
Nahiz barruan daukazun
orain irakiten
neri ere bildurra
dit hor eragiten
baina utzi izua
ta beste sentipen
sar gaitezen batera
ta batera irten!

KARTZELAKO LANA

N. Ibarzabal
Gaia: Usaina sumatu, eta urduri jarri zara.

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz
Doinua: *Txikitatikan edukia dut*

Hamabi urte dauzkat bakarrik
dena poza ta azaina!
Udalekutan apuntatu naiz
udari hartzeko gaina
lotara sartu ta sentitu dut
izara txuri labaina
baina adinaren ordaina
da ni beldurtzeko aina!
Atzo gauean tripako minak
sentitu nituen baina
orain lehen aldiz usaintzen nabil
hilekoaren usaina. (bis)

Bihar esnatu eta mutilek
barre egin baietz, klaro!
Ta neskek igual begiratuko
didate pixka´ arraro!
Nahiz eta une honetarako
prestatu nauten luzaro,
ezin zen hemen igaro
urtez urte, aroz aro!
“Emakume bat omen naiz orain
ta edozertako prest nago!”
Orduan nola senti naiteke
inoiz baino txikiago? (bis)

Eguna ia argitzear da
berriz dut usaina hartu
ta baietz laster literakoak
apurka-apurka esnatu
agian hobe begiraleena
pixkanaka gerturatu
eta tanpoi bat eskatu
“Mesedez, ez hau kontatu!”.
Begira nago orbanari ta
nahiz ta hauxe dudan patu
iruditzen zait ez daukadala
honetaz zertan lotsatu. (bis)

B. Gaztelumendi
Gaia: Usaina sumatu, eta urduri jarri zara.

Neurria: Hamaseiko handia
Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

Nere oheko izara zuri
nere panpina apaina
kojinez eta jostailuz daukat
bete-bete ohe gaina...
Gaur ikastolan egin ditugu
mila jolas ta azaina
eta gaueko logalea da
jolastearen ordaina.
Aita oraintxe etxeratu da
lodia dauka mingaina
ta aitak ere nola datorren
antzeman dio nik aina.
Oraindik ere nik zazpi urte
juxtu-juxtu dauzkat baina
nik umetatik ezagutzen dut
gorrotoaren usaina!

Bere laneko estresen eta
kezka garaiko boladen
artean justu orain gaudena
igual beteena nola den...
Ni agurtzera dator lehenbizi
begirada ez du garden!
Bera joan da ta panpintxoa
ta ni soilik nola gauden...
Antzematen dut aireak nola
oihuen hotsa dakarren
nahiz ni eukita berez bizitu
beharko luke pozarren
ama gelara sartu zait eta
esan dit “isildu, arren!”
eta nik dena ulertu diot
ezer ulertu ez arren!

Nik maite ditut nere etxea
eta nere ikastola
baina gogortuz eta gogortuz
joan da nire oskola!
Gure aitak biok maitatu arren
gehio maite du alkohola
ta pentsatzen det etorkizunak
ja ez diola axola!
Nik noizbait norbait maite nahi nuke
maitatu bai, baina nola?
Etxean gauak joan baitira
oihuen artean hola...
Nik ere aitaren abizena det
usaina eta odola
eta beldur naiz bera izatera
kondenatuta nagola!

S. Colina
Gaia: Usaina sumatu, eta urduri jarri zara.

Neurria: Hamarrekoa, handiaren moldekoa, 10 puntuz
Doinua: *Izarren hautsa egun batean*

Zergatik ote da hain krudela
egun ta hileen joana?
Zergatik jartzen ditu parean
geroa ta iragana?
Mutil jator bat maitatzen nuen
eta bi seme txiki nituen
nintzen emazte ta ama.
Baina sumatu zaitudanean
berriz pasilloan barna
sudur-zulora ailegatu zait
zuk duzun *Dolce Gabbana*
zu zarelako noizbait tabernan
inguratuta musu bat eman
ta nere bizitza plana
dantzan jarri zenidana.

Zergatik ote daude lotuta
sexua eta zurruta?
Ezezko bati eustea ote
da gure barne burruka?
Agian berant, agian garaiz
baina ni ere sendotzen joan naiz
izanagatik apurka.
Zuk berdin-berdin jarraitzen duzu:
bakero larruzko txupa
ni ikusi orduko irriparre egin
ta begi batez kinuka!
Nahiz zure usaia gustoko dudan
ta berriz jarri nazakeen dudan
ez zaitez hasi musuka
ezetz esango dizut ta!

Gaur pozik nabil seme-alabekin
parkean zehar korritzen
nere iraganak, egin nuenak
ja ez nau lotsagorritzen
zure usaiak pizten duena
ta iraganean joandako dena
nere barrenean hil zen.
Bikote baten errutinak nahiz
asko ez gaitun maitemintzen
detaileekin gozatzen dakit
gaur hau naiz, lehen hura nintzen.
Pizti bezatu batzuk gara gu
baina saiatu beharra daukagu
bizitza erabakitzen
ta erabakiak bizitzen!

Agin Laburu Rezola

Igor Elortza Aranoa

Iñaki Apalategi Astigarraga

Jone Uria Albizuri

Julio Soto Ezkurdia

Maialen Lujanbio Zugasti

DONIBANE LOHIZUNE

2017/11/26, IGANDEA, 17:00
JAI ALAI
FINALAURREKOAK. SEIGARREN SAIOA

Bertsolariak:
Agin Laburu Rezola
Igor Elortza Aranoa
Iñaki Apalategi Astigarraga
Jone Uria Albizuri
Julio Soto Ezkurdia
Maialen Lujanbio Zugasti

Gai-emailea: **Fernando Anbustegi Goñi**

Epaileak: **Ekaitz Elorriaga Anduaga, Eneko Bidegain Aire, Eneritz Azkue Basurko, Joseba Santxo Uriarte, Karlos Ibarguren Olalde, Mirari Azula Aurrekoetxea eta Nerea Bruño Artazkoz**

Oso goiz hasi da gaur ere ilara sortzen Jai-Alai pilotalekuaren kanpoaldean. 15:00etarako jende asko dago zain. Itxaronaldia arintzeko edo egonezina bizitzeko, talo eta xingar usaina dago inguruan. Donibane eta Ziburuko ikastolaren alde sosak biltzeko jarri dute saltokia sarreratik gertu. Ez dirudi oraindik jende asko inguratzen denik, baino saioa bukatutakoan izango da aukera. Bizpahiru aldiz esan du aurkezle ari den Fernando Anbustegik jan eta edanerako aukera dagoela hor.

Eguzkiak goxatzen du bertsozaleen sarrera, baina barruan freskoago dago, eta badirudi, orduak aurrera joan ahala hoztu ere egingo duela. Horrela izan da eta saioan zehar jende gehiena berokia kendu gabe egon da. Berehala joan da saioa, bizi aritu dira bertsolariak eta jendeak gozatu du momentu askotan. Irristada nabarmenik ere izan da tartean, baina ona orokorrean. Maialen Lujanbio matematikoki eta Igor Elortza ia, BECen egongo direnak dira. Baina beste laurak aukerarik gabe edo oso gutxirekin geratu dira.

BERTSOLARI
TXAPELKETA
Alvalle
GAZPACHO
Alvalle
GAZPACHO
www.bertsozale.eus
www.bertsoa.eus

HASIERAKO AGURRA

M. Lujanbio

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Naparruatik ardo karraio A*

Baigorri, Segura, Leitza, Zalla
Zumaian, hantxe zinen fin
Tolosa, Bastida, Irun, Maule
Durangon ta Amurrion berdin.
Hau azkenera iristear da
eta *bon, bon, en fin, en fin…*
laister pentsatu egin beharko da
asteburutan zer egin
Hau azkenera iristear da
eta bon, bon, en fin, en fin…
gure gogoa bide zati hau
bihurtzea ahaztezin.

ZORTZIKO HANDIA

M. Lujanbio – I. Elortza

Gaia: Bi urteko haur baten gurasoak zarete. Zuk, Maialen, haurra aurten eskolatu nahi duzu. Igorrek ez du eskolatu nahi sei urte arte.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Ama Birjina Erkudengoa I*

M. Lujanbio:
Haurra etxeko nahi dezu baina
ez da izango inongo
alternatibak eta eskolak
hippy eta hippy-ondo!
Etxean gozo hezi nahi dezu
ados ta hor arte ondo
baina irtengo da kalera eta
han haurrik ez da egongo.

I. Elortza:
Hain berezi ere ez nuke gura
nahiz lanean egon gertu
neuk ere egingo dut hainbat akats
ta baita zenbait *aziertu.*
Gerora ere ikastolara
harek ahalko du agertu
ta izango du nogaz jolastu
eta zeinekin aspertu.

I. Elortza:
Nirekin berdin ein zuten eta
ez nabil hippy usteko.
Gogoa daukat gure haurrari
maitasunean eusteko
eta prest nago urte hauetan
lanai neronek uzteko
goizetan irten kalera eta
berarekin jolasteko.

M. Lujanbio:
Bi urte eta badu garaia
hark umeak ditu xede.
Han aspertzea txarra al da ba?
Hori ere bere mesede.
Gure eskola publikoa ai
eskatu degu alafede
ta besterentzat eskatu hori
nik nahi dut neuretzat ere.

M. Lujanbio:
Zuk lana utzi zuk zaindu eta
zuk ipini jana mahaian
aita gutxitxo izango zaio
jolaserako garaian.
Eskola egoki askoa degu
baina zuk ez dezu nahi han
haurra rarotu egiten degu
hain berezi egin nahian.

I. Elortza:
Matrikula non egin ere guk
duda dugu azkenean
egoera hau ez da onena
joateko zuzenean.
Oraingoz utzi dezagun arren
neronen aldamenean
berriro berba egingo dugu
hiru urte dituenean.

J. Uria – J. Soto

Gaia: Kuadrillakoak edo lagun-talde berekoak zarete. Lehenengoz, lagun bat ezkontzera doa eta ezkontza handi bat antolatu du. Zu, Jone, desiratzen zaude eguna iristeko. Julio ez da ezkontzara joanen.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Goizian goizik jeiki ninduzun I*

J. Uria:
Imajinatzen ditut udala
ta jatetxea beteta
ta bazkaltzeko menu itzel bat
bixigua ta txuleta
probatu ditut hiru soineko
bi bota ta lau brotxeta…
Diruagatik bada lasai nik
ordainduko dizut eta.

J. Soto:
Esan didazu "Nik ordainduko
dizut menua ta aire!».
Bat traje zuriz, bata korbataz
hango tarta, hango *baile…*
Mahai inguruan nahiz elkartzen den
famili, lagun ta ahaide
barkatu bainan ez dut izan nahi
antzerki horren partaide.

J. Uria:
Zure ustetan antzerkiak du
gidoia eta ordena
lehenik "Bai nahi dut" ondoren festa
ta bukatzeko poema.
Nahiz garrantzitsu izan litezkeen
aurreko ta ondorena
ezkontza bat da maitasunaren
adierazpen gorena.

J. Soto:
Lehen baltsean agertzen dira
sarritan pausu astunak
pentsa adarrak izaten ditu
sarri asko ugaztunak.
Bizitzak beti nolaz ez diren
borobildun eraztunak
ta elkarrekin zer lotura du
ezkontzak ta maitasunak?

J. Uria:
Ezkontza baten azaltzen dira
maitasun, pena eta poz
nahiz harreman bat luzeagoa
izaten den berez hauspoz.
Bale ez etorri nahiz etortzea
nahiagoko nukeen askoz
baina laguntzat ahatz nazakezu
nirera ez baldin bazatoz.

J. Soto:
Horri txantaje esaten zaio
ta lotu nauzu katean
ta zer egingo nukeen pentsatzen
hasi bainaiz bapatean:
zu ezkonduko bazina noizbait
ez joatea kaltean
joango naiz baino eiten baduzu
sagardotegi batean.

ZORTZIKO TXIKIA

M. Lujanbio – J. Uria

Gaia: Maialen, bulego batean egiten duzu lan. Jone garbitzaileak zure gauzak lekuz mugitzen ditu egunero. Gaur lehenago joan zara lanera, eta Jone bertan topatu duzu.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Nere senarrarekin I*

M. Lujanbio:
Hauts bolak agirian
hor bat eta hor bi
zure lantegi honek
ni uzten nau grogi
batetik kendu eta
bestera igorri
zikin-*brillo* esaten
diogu guk horri. (bis)

J. Uria:
Bai esan nahi nizuna
hain justu hori zen
ez dituzu bereizten
izan eta izen
oraindik ez dut lortu
ondo konprenitzen
nolaz zauden zu bertan
eta ni garbitzen. (bis)

J. Uria:
Ez ordenatzen dizut
guztia egoki
berdin dio liburu
bufanda, beroki…
Beraz ez zimurtu orain
bekain ta bekoki
ze dena uzten dizut
alfabetikoki. (bis)

M. Lujanbio:
Zu matematikoa
badakigu jada
ni *jeta* haundikoa
eta hara! hara!
Gauzak ordenatzea
dut nere lan karga
denbora zerbaitetan
pasatu behar da. (bis)

M. Lujanbio:
Ez da hainbeste sartzen
aizazu nor dena
nere gela da nere
bulego gorena
eta orden kontua
bakoitzak onena
alfabetikoa dut
nere desordena. (bis)

J. Uria:
Zu aspertzen zarela
hori ondo dakit
denbora pasa behar zen
ta joan da *tik tak tik*.
Beraz orain banoa
ni ate hortatik.
Zuk segi orain lanean
a ta ez horregatik!*

*Errepikan “Zuk jarraitu lanean a ta ez horregatik!” esan zuen.

I. Elortza – I. Apalategi

Gaia: Zuk, Igor, loradenda batean egiten duzu lan. Hilabete honetan hirugarrenez etorri da Iñaki lore sorta berdina erostera. Hiruretan mezu bera idazteko eskatu dizu, baina pertsona ezberdinei zuzendua.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orioko balearena*

I. Elortza:
Larrosak ta arantzak
nonbait denak kamuts
Iñaki hartua zaude
makina bat zaputz
Miren, Ane ta Amaiak
egin zizuten putz
oraingoan norekin
egin behar dugu huts? (bis)

I. Elortza:
Beraz Arantzazuri
hauek bidaltzeko
berriro ere zatoz
betiko antzeko
nik jarriko dizkizut
polit ta ederto
baina hitzak aldatzea
ez al da hobeto? (bis)

I. Apalategi:
Ba oraingoa deitzen
da ba Arantzazu
jardina arrasatzen
ai zera jo ta su
ja hirugarrengotik
nijoa ta aizu
behingoz lore politak
ipini itzazu. (bis)

I. Apalategi:
Baina zu ez al zera
bada bertsolari?
Ipini nahi dezuna
eta letraz handi
ez dakit mesedeak
zure jardinari
edo Arantzazuko
Ama Birjinari. (bis)

I. Elortza:
Ez dut bertsoik jarriko
nahiz ta hortan jakin
urtean bitan gogor
ohi diogu ekin
Domusantu da noski
eta San Balentin
urte osoko *txolloa*
daukat nik zurekin. (bis)

I. Apalategi:
Nire negozio hau
hasi naiz ulertzen
baino ondo egitea
horren zaila al zen?
Hemen egongo naiz ni
asteak pasatzen
margarita zahar bati
petaloak kentzen. (bis)

PUNTUKA

I. Apalategi - M. Lujanbio

Gaia: Zuen herrian Gazte Eguna antolatu dute, eta bazkarirako txartela erosi duzue. Mahaian jarri zaretelarik, ohartu zarete gainerakoak anitzez gazteagoak direla.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Maritxu nora zoaz I*

I. Apalategi: Arratsalde batean biok zahartu gera
M. Lujanbio: biek *ziento* bat urte gutxi gorabehera
I. Apalategi: ta gazte sentitzeko hauxe da aukera
M. Lujanbio: ez al nazu ikusten ni gaztea, ze ba?

M. Lujanbio: Lastozko txapelakin nago elegante
I. Apalategi: ta gazte dirudizu kentzen dezun arte
M. Lujanbio: badaukat ume hoiek hainbeste aguante
I. Apalategi: baino txapela beharrik hoiek ez daukate.

I. Apalategi: Niki arrastoduna jantzi beharko da
M. Lujanbio: *fallatu* diguna da zure alkandora
I. Apalategi: goitik behera dauzka ta behar dute albora
M. Lujanbio: hori da ja aitondu zeranan aproba.

M. Lujanbio: Gazteek jartzen dute hola kamiseta
I. Apalategi: zu erosteko nahiko xuhurra zaude eta
M. Lujanbio: eta plantxatu gabe buelta eta buelta
I. Apalategi: lasai nik badaukat bat zuretzat gordeta.

I. Apalategi: Bazkariko txartelak erosi ta gero
M. Lujanbio: plastikozko platerik ez nuen espero
I. Apalategi: arroza epel ta ez oilaskorik bero
M. Lujanbio: ta hau oilaskoa da oilaskoa edo.

M. Lujanbio: Desegin egiten da hezurra tirata
I. Apalategi: gazte garaiak bainaiz aspaldi pasata.
M. Lujanbio: Gure gazte jende hau da jende pirata
I. Apalategi: guk'e kinta bereko lagun gehio falta.

I. Apalategi: Patxarana etorriko ote da aguro?
M. Lujanbio: Sagardo gutxi gendun ta mila apuro
I. Apalategi: ondoren txupitoa kafe eta puro
M. Lujanbio: eta biharko goiza pixkana gertugo.

M. Lujanbio: Kuadrillako nikia ere falta degu
I. Apalategi: armairuan fondoan aurkituko degu.
M. Lujanbio: Halere ez gera zahar baizik eta heldu
I. Apalategi: baino Benidorrako hobeak gaude gu.

I. Elortza - J. Soto

Gaia: Anaiak zarete. Zuen gurasoak oporretara joan ziren, eta etxean bakarrik geratu zineten. Astebete pasatu da, eta etxea hankaz gora dago. Gaur itzuliko dira zuen gurasoak.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Ezagutu zuenak*

I. Elortza Komuna, sukaldea
Julio nondik hasi?
J. Soto Begiratzen dut eta
egiten naiz nahasi
I. Elortza neuk ere ikusita
egin dut garrasi
J. Soto honek zabor toki bat
ematen du kasi.

J. Soto Hemengo muki-zapi
ta hango *pan Bimbo*
I. Elortza hori noski ez nuen
neronek egingo
J. Soto horko arroltze zuri
ta horko gorringo
I. Elortza erratza garajean da
ta mesedez igo.

I. Elortza Ta aita ta aman ohean
lo egin zenuen
J. Soto bai eta izugarri
ongi pasa nuen
I. Elortza ta begiratu orain
ze itxura duen
J. Soto postura bereziak
egin genituen.

J. Soto Baino sekretua da
eta Igor *txiton!*
I. Elortza Orduan joan, garbitu
eta lasai egon
J. Soto bi anaia zelebre
gara Pini ta Pon
I. Elortza elkarri ez diogu
antza egiten on.

I. Elortza Hasi beharko dugu egongelarekin
J. Soto ni ez naiz ongi moldatzen baina eskobarekin
I. Elortza ni ausartu ez zure kaltzonzilloekin
J. Soto zu finagoa zara eta *benga* ekin.

J. Soto Nik aginduko dizut nondik eta nola
I. Elortza beti anai nausiak behar du kontrola
J. Soto nagusiak zergatik dauka ba eskola?
I. Elortza Uste dut bere aitari ikusia dagola.

I. Elortza Desinfektatzen ere badaukagu lana!
J. Soto Mahai gainean nork utzi zuen patxarana?
I. Elortza Orain ja ahaztua dut zapatuko plana
J. Soto zapatuan zanpatu zenuen banana.

J. Soto Ta hemen gabiltza gu aurrera ta atzera
I. Elortza baina oraindik geldi lehengo antzera.
J. Soto *Benga* ixo ta goazen lanean hastera!
I. Elortza ondo hitz egitea anaia hoixe da.


etxe
pare

HAMARREKO TXIKIA

J. Soto – M. Lujanbio

Gaia: Duela bortz urte iritsi zineten Euskal Herrira. Orain arte ezin izan duzue zuen egoera erregularizatu. Gaur lortu dituzue paperak.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Hamalau heriotzena I*

J. Soto:
Saharatik alde egin
genuen "*inshala*"
ta hemen falta etxe
maitasun, jornala…
Nintzen iheslaria
nintzen ilegala
orain esperantza dut
zuk duzun bezala
paperak beste dena
emango didala.

M. Lujanbio:
Iheslaria zinen
zu bestek bezela
zurien mundu hontan
ezin da bestela!
Orain paradoxa da
krudela, itzela
nik poz bakarra daukat
lorturik papela
orain etxera lasai
itzul naitekeela.

J. Soto:
Etxera itzultzea
zure erabaki
baldin bada eskuminak
etxekoren bati.
Urte hontan bihurtu
gaituzte bi zati
ze Europan uste da
hitz eta aitzaki
paperik ez duena
ez dela gizaki.

M. Lujanbio:
Europarrek badute
hainbeste hantuste
beren harrokeria
gure buruhauste.
Orain gizaki gera
gizaki ilustre
orain bertako gisa
hartuko al gaituzte?
Azal ilun honekin
ez dut asko uste.

J. Soto:
Etxetik joatea
da aski kastigu
gu bezela badabiltz
hamaika testigu.
Orain gure papertxo
ta gure izkribu
nahiz kolorean menpe
gabiltzan beti gu
berriz ere laguntza
bidaliko digu.

M. Lujanbio:
Gora ez begiratu
burutik Ala ken
zorigaitza besterik
ez du eman aurten.
Europan gu zurien
sorgin gurpil baten
paperik gabe zaila
etxea izaten
ia orain aterpe bat
lortu genezakeen!

A. Laburu – I. Elortza

Gaia: Alderdi bereko zinegotziak zarete. Epe laburrean, zuen alderdiko hirugarren kidea auzipetu dute ustelkeria leporatuta.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Zer da gaur Donostian*

A. Laburu:
Baten auzian eta
bestean demandan
deklaratzera goaz
Igor txandan-txandan.
Ez dakit nik kontua
seguru nola dan
baino hirugarrena
da azken boladan
ta ez dakit eskuak
garbi al dauzkadan. (bis)

I. Elortza:
Gure alderdia da
goi puntaren punta
eta korrupzioa
gauza bat arrunta.
Dudatan omen zaude
ote duzun kulpa
neuk diotsut eskuak
daude zikinduta
sobreak nik neronek
eman nizkizun ta. (bis)

A. Laburu:
Zuk eman zenizkidan
nola ba bestela?
Baino orain jakin det
legala ez dela.
Zure firmarekin gaur
Aginen eskela
sobrea emandakoan
esanez horrela
hain zuzen normalena
hori hartzea zela. (bis)

I. Elortza:
Normalena hoixe zen
ta bai hartu arin
orain bildurtu zara
haragia gordin
ez nizula esan ta
hartzen duzula min…
Oraingo arriskurik
ezin da ekidin
orduan ez zenuen
galderarik egin! (bis)

A. Laburu:
Nik ez nizun galdetu
orduan bale ba
baino orduan ez da gaur
horren seinale da
eta nere zalantzak
argitze aldera
Igor hemen dijoa
Aginen galdera:
esaidazu orduan
ni nola atera? (bis)

I. Elortza:
Irtenbide asko daude
neu nauzu lekuko
lehenik defentsa on bat
ta zenbait indulto
hemen sistema osoa
da Agin korrupto.
Lasai ziegak ez zaitu
asko kaltetuko
berriz kalean zaude
ohartu orduko. (bis)



2017
etxe
pare

Aitor Mendiluze Gonzalez

Aitor Sarriegi Galparsoro

Alaia Martin Etxebeste

Miren Amuriza Plaza

Oihana Iguaran Barandiaran

Unai Agirre Goia

IRUÑEA

2017/12/02, LARUNBATA, 17:00
ANAITASUNA KIROLDEGIA
FINALAURREKOAK. ZAZPIGARREN SAIOA

Bertsolariak:
Aitor Mendiluze Gonzalez
Aitor Sarriegi Galparsoro
Alaia Martin Etxebeste
Miren Amuriza Plaza
Oihana Iguaran Barandiaran
Unai Agirre Goia

Gai-emailea: **Alaitz Rekondo Ferrero**

Epaileak: **Ekaitz Elorriaga Anduaga, Eneko Bidegain Aire, Eneritz Azkue Basurko, Joseba Santxo Uriarte, Karlos Ibarguren Olalde, Mirari Azula Aurrekoetxea eta Nerea Bruño Artazkoz**

Elurraren beldur darama asteburua antolakuntzako taldeak. Ostiralean bideak moztuta eta errepideetan arazo asko egon dira eta jende guztia –bertsolariak, epaileak, teknikariak...– irtsiko ote diren kezketan pasatu du larunbat goiza. Arratsaldean lasaixeago dago eguraldia ere, eta ez da arazo berezirik izan horretan. Guztiak iritsi dira beren orduan.

Haize hotza dago Anaitasuna kiroldegiaren kanpoaldean, baina goxo prestatzen ari da guztia barruan. Lekua oso egokia eta bildua da bertso saiorako eta aretoa beteko duten 2.700 lagunek ederki berotuko dute ondorengo orduetan. Jendea goiz hasi da sartzen lekua hartzera. Eserlekuetan Nafarroako bertso eskoletan izena emateko gonbidapen orriak daude jarrita. Bueltan-bueltan pankarta asko eta taberna irekita dago, baina aurkezleak adierazi du saioan zehar itxita egongo dela.

Saioa hasi eta berehala gertatu da gero pixka bat aztoratuta utziko duen gertakaria. Miren Amuriza zortziko handian lehen bertsoa kantatzen ari zela sudurretik odolez

hasi da. Nola edo hala bertsoaldia bukatu eta oholtzaren atzealdera eraman dute artatua izan dadin. Saioak aurrera jarraitu du, baina zortziko txikikoa berak hasi behar zuelarik, saioa eten egin dute. Hamar bat minutuko geldialdiaren ondoren, Miren jarraitzeko prest agertu da oholtzara.

Gertakizunak pixka bat arrarotu badu ere, saioa bizi eta maila onean joan da. Umoretik izan du dexente eta bukaeran epaileen iritziak bertako hiru izendatu ditu finaleko saiorako. Aurretik aldearekin zetozen Aitor Mendilzue eta Aitor Sarriegi, eta behetik gora egin behar izan duen Unai Agirre. Txalo zaparradak, besarkadak eta animoak ugari izan dira oholtza gainean agurraren aurretik.

ZORTZIKO TXIKIA

M. Amuriza – A. Mendiluze

Gaia: Zu, Miren, magoa zara. Gaur Aitorren herrira iritsi zara. Miren, zure trikimailu guzti-guztiak agerian utzi nahian ari da Aitor.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orioko balearena*

M. Amuriza:
Magoaren bizitza
erraza balitza
errazago entzungo
nuke zure hitza
albotik hau ta hura
mintza eta mintza
desagerrarazteko
eskatzen zabiltza. (bis)

A. Mendiluze:
Amak beti horrela
biltzen al zaizkizu?
Haurrak desagertzeko
prest zaude beti zu
baina hori ondo lortzen
ez badezu aizu
begiren bat kolorez
aldatuko dizu. (bis)

A. Mendiluze:
Kejatu egiten naiz
txarra zeralako
nahiz hainbat trikimailu
izan aukerako
desagerrarazi nahi
saia zaite bapo
hori ere ez zaizu
ondo aterako. (bis)

M. Amuriza:
Laguna zintzo hitz egin
beharko genuke
begiak berdin ditut
magiaren truke
hortzak zorroztu egin
dituzunez zeuk be
untxiarena ederto
egingo zenuke. (bis)

M. Amuriza:
Mutikotxo bat baino
ez zara aibala!
Eta ondoan duzu
zure ama leiala
desagertzen bazaitut
nola nik nahi hala
esan dit berak doble
pagauko didala. (bis)

A.Mendiluze:
Sonbreroa erosi
beharko aurrena
ze mago klase zera
hori ez duena?
Ilusionista izena
omen da honena
ba ilusio izan da
desagertu dena. (bis)

O. Iguaran – U. Agirre

Gaia: Zu, Oihana, artista gaztea zara, eta Unai zure aita. Oihana, gaur inauguratu duzu lehen erakusketa, eta aretoa zure aitaren lagunekin bete da.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Gizona da zoroa*

O. Iguaran:
Sarri ze gogorra den
Oteizaren hutsa
ta zuk noski alaba
nahi zenuen bultza.
Zinez estimatzen det
guztien laguntza
etorriko al ziran
gero ez balitz luntxa? (bis)

U. Agirre:
Egia borobila
hori alajaina
bakoitzak jakin beza
beraren tamaina
artetikan gosea
omen dator baina
lasai emango dizut
zuk jateko aina. (bis)

U. Agirre:
Alaba eman nahi nizun
egun hontan babes
baina ez didazu uzten
gauza oso errez
luntxarena ez zazu
aipatu mesedez!
Ez ziran etorriko
eta neu ere ez. (bis)

O. Iguaran:
Eskerrak zure jana
eta teilatua
umetatik daukadan
neretzat hartua.
Estimatzen det hona
hola ausartua
firmatuko al dizut
zure erretratua? (bis)

O. Iguaran:
Artistak ez du aski
hipsterren posea
juxtu estu sumatzen
hasi naiz kortsea
aita ezetz egin ni
zu ainakoxea
arteak berarekin
badakar gosea. (bis)

U. Agirre:
Agian famatua
eingo da gerora
marra bat ziharrera
ta bestia gora.
Segi zazu alaba
pozik ta gustora
ulertzen dunarentzat
ona izango da. (bis)

PUNTUKA

A. Martin – M. Amuriza

Gaia: Buffeta duen jatetxe batean bazkaldu duzue elkarrekin. Bazkalondoan, mugitu ezinda zaudete.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Mendiko umea naiz*

A. Martin: "*Buf*"eta "*buf*" egiten nabil *buffetean*
M. Amuriza: bufanda jarri behar zeuk´e kopetean
A. Martin: janari asko eta prezio merkean
M. Amuriza: eskerrak heldu garen gu gose betean!

M. Amuriza: Ogi apurrik ere ez duzu laga ta
A. Martin: dijeritu nahi nuke dena pixkanaka
M. Amuriza: kroketak be iruntzi ditugu launaka
A. Martin: eta nik irentsi dut kilo bat patata.

A. Martin: Osasunantzat ona baita almidoia
M. Amuriza: poltsikoarentzat ez hortxe dago goia.
A. Martin: Nik *desataskatzeko* behar dut limoia
M. Amuriza: kontuak egiteko badugu sasoia.

M. Amuriza: Jan biok egin dugu ta ordaindu nola?
A. Martin: Nik uste dut zuretzat egoki dagola.
M. Amuriza: Egia esan gaur ez zait askorik axola
A. Martin: kontuz hortza artean duzu eskarola!

A. Martin: Bai, kendu duzu bueno geratzen da pixka`t
M. Amuriza: nahi al duzu probatu zati hau zuk behintzat?
A. Martin: Postrerako hartuko dut pare bat *KitKat*
M. Amuriza: eskerrak zeunzkadana nik neska mizkintzat!

M. Amuriza: Ondo disimulatzen duzu bai gosea
A. Martin: dena *mitxelina* da ta dena *posea!*
M. Amuriza: Nahiago nuke neuk be izan holakoxea
A. Martin: baina tripan dudana gehiena haizea.

A. Martin: Grua deitzea ere
gaizki ez legoke
M. Amuriza: gu biok altxatzeko
hori gauza ote?
A. Martin: Hemen kokatu zaizkit
hiru eskalope
M. Amuriza: etzanda eramateko
esango nioke.

M. Amuriza: Gabonetako jada
goserik gabe gu
A. Martin: baina aperitibu
bat ein dezakegu.
M. Amuriza: Izango gara beste
guztien eredu
A. Martin: nahiz orain ezin garen
zutikan mantendu.

U. Agirre – A. Mendiluze

Gaia: Binakako parapente batean, elkarrekin egin duzue salto. Kontrola galdu, eta zuhaitz batetik zintzilik gelditu zarete.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Maritxu nora zoaz I*

U. Agirre: Saltoa egiteko
gaur ez zen eguna
A. Mendiluze: bistan da nahiko gaizki
atera zaiguna
U. Agirre: bi metrotatik egin
beharko da hurruna
A. Mendiluze: baina ez det eramango
holako laguna.

A. Mendiluze: Parapente exkaxa
zeu handiegia
U. Agirre: zu´re txikiya ez zera
hori da egia
A. Mendiluze: ta abiatzerako
jausi gera ia
U. Agirre: parapente batentzat
pisu gehiegia.

U. Agirre: Arbola hau ere dago
gaur juxtu-juxtuan
A. Mendiluze: eroriko zaigula
nere apustuan
U. Agirre: Aitor ikusten zaitut
tximuan moduan
A. Mendiluze: begira ze dardara
daukadan eskuan!

A. Mendiluze: Adarra okertu da
ia goitik behera
U. Agirre: zu´re nekin batera
behera joango zera
A. Mendiluze: nun bukatuko degun
badakit sobera
U. Agirre: ba erantzun ezazu
zerorren galdera.

U. Agirre: Nun erori geran nik
ez dakit oraindik
A. Mendiluze: ba ez zazu pentsatu
neuk badakidanik
U. Agirre: behera begiratzeak
bildurra ematen dit
A. Mendiluze: dena urrutiegi
ikusten da hemendik.

A. Mendiluze: Zeinek agintzen zidan
ze nezesidade!
U. Agirre: Neroni ere nago
galderakin grabe
A. Mendiluze: oraindik salbatzeko
aukeran hala’re
U. Agirre: lasaitu zaite Aitor
bizirikan gaude.

U. Agirre: Asko txarragoa´re
izan zitekeen ta
A. Mendiluze: bai baina irtetzea
ez nuen errenta.
U. Agirre: Atera zuk *mobila*
baezpa're zer gerta
A. Mendiluze: ez dakit bateria
dagoen beteta.

A. Mendiluze: Unai onar dezagun
gureak egin du
U. Agirre: hola ibiliko gera
ai Aitor berdin gu!
A. Mendiluze: Ai inoiz konbenzitu
izan ez banindu!
U. Agirre: Hemendik joango gera
azkar, ahalegindu.

2017

2017

A. Sarriegi – O. Iguaran

Gaia: Udaltzainak zarete. Herriko festak dira, eta auto anitz dago gaizki aparkatuta. Garabiarekin autoak eramaten hasi behar duzue.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Ortzian izar ederra*

A. Sarriegi: Hau garbi utzi behar da
entzierrorako
O. Iguaran: ba orduan denboraz
ez daukagu asko
A. Sarriegi: bestela zezen asko
ez dira pasako
O. Iguaran: zezenak gera bitez
bidetikan kanpo.

O. Iguaran: Hemen dauden gehienak
ahaztu egin dira
A. Sarriegi: baten bat egongo da
atzetik begira
O. Iguaran: edo *igual* barrutik
zurrunkan ari da
A. Sarriegi: egia esan dago
kristoren segida.

A. Sarriegi: Horko hori ez al da
alkatearena?
O. Iguaran: Ba hori eramango
nuke nik aurrena
A. Sarriegi: ordenantza berria
sinatu zuena
O. Iguaran: dedikatuta doa
bere multarena.

O. Iguaran: Beldurra ematen dit
zuk firmatu zazu
A. Sarriegi: aizu hemen lanean
gaur gaude ni ta zu!
O. Iguaran: A zuk jefe postua
hortako daukazu
A. Sarriegi: ta jefeari egin
behar zaio kasu.

A. Sarriegi: Beraz sina ezazu
tokatzen zaizuna
O. Iguaran: ba esango det hala
agindu dezuna
A. Sarriegi: gainera alkatea
nik ez det laguna
O. Iguaran: baino zu beretzako
zera ezaguna.

O. Iguaran: Hobe segi ezkero
beste baten bila
A. Sarriegi: hurrengoa ere prest
ipini dadila!
O. Iguaran: Egia esan aukeran
badaukagu pila
A. Sarriegi: segidan daudelako
kontzejal kuadrilla.

A. Sarriegi: Gero multa ez utzi
kajoiren batean
O. Iguaran: ez ordainduko dute
guk jarri artean
A. Sarriegi: ordaindu beharko dute
diruz bapatean
O. Iguaran: eta oroigarri bat
utzita atean.

O. Iguaran: Ea hau bukatzeko
behar da bost egun
A. Sarriegi: eta guztiak orain
multatu ditzagun
O. Iguaran: edo horrela utzi
ondo daude segun...
A. Sarriegi: Ea beste kalean
zer aurkitzen degun.

HAMARREKO TXIKIA

O. Iguaran – M. Amuriza

Gaia: Bikotea zarete. Atzerrira joan zineten lanera duela hamar urte, zuen semea txikia zela. Zuek, orain, itzuli egin nahi duzue, baina berak bertan gelditu nahi du.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Zer da gaur Donostian*

O. Iguaran:
Zenbat aldatu diren
golpetik garaiak!
Alemanira sartu
gintuen dohaiak
ta orain itzultzeko
izan arren nahiak
erabakiz ez dira
soilik gure gaiak
gure semeak hemen
baitauzka sustraiak. (bis)

M. Amuriza:
Hamar urtetxo dauzka
ta dago trantzeko
eskatu digu bioi
ondo pentsatzeko.
Sustraiak hemen dauzka
lagunen antzeko
baina prest nago berriz
aberriratzeko
landare gaztea da
berriz landatzeko. (bis)

O. Iguaran:
Eta loratuko da
hori da ziurra
baina hemen du orain
ezagun apurra
ta hola baztertzea
litzake makurra
berriz txertatzeana
nahiz ez dan gezurra
berak gustokoa du
orain daukan lurra. (bis)

M. Amuriza:
Semea ezagutzen dut
bere poz eta min
eta Euskal Herrira
nahi diot jaregin
han gertatuko zaio
piszinan lez berdin
hasieran ez baitu
izango atsegin
ta gero ez du nahiko
bertatik alde egin. (bis)

O. Iguaran:
Egia da han dauzka
horrenbeste lagun
eta euskeraz ere
noski ondo jardun.
Bueno ba probatzeko
daude hainbat egun
lehenengo oporrekin
probatu dezagun
ta berak esango du
bertan segi nahi dun. (bis)

M. Amuriza:
Oporretan esanda
hasiko da galdez
esaiogun egia
gu aldatu aldez
enpatiza dezagun
guk eginahalez
eta hasi gaitezen
berai nahi ala ez
hona urduri etorri
ginela esanez. (bis)

U. Agirre - A. Sarriegi

Gaia: Zuek biok anorexia izan zenuten nerabezaroan. Garai hartan, elikadura nahasmenduak tratatzeko zentro batean ezagutu zenuten elkar. Hamar urte pasatu dira, eta gaur erosketak egiten egin duzue topo.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Espainian behera*

U. Agirre:
Urte haiek ez ziran
pasatu hain alai
zulotik ertetzeko
biyok ez ginen gai
bainan indartu ginan
Aitor eta Unai
begiratu hutsean
konturatu naiz, ai!
Ni ondo sendatu naiz
baina zu ere bai. (bis)

A. Sarriegi:
Estimatuta dago
milesker laguna
nik ere ahaztu nahi det
hain garai iluna
ta orain sentitzen det
nik askatasuna
begiratu karroan
orain daukaguna
lehen urte osoan
jango ez genduna. (bis)

U. Agirre:
Garai bat izaten da
txoroa, txepela
egon behar nuena
argal ta zimela.
Orain ispilura joan
ta ohartzen naiz bela
gizena ikusten naiz
orduan bezela
baina orain badakit
gezurra ez dela. (bis)

A. Sarriegi:
Bioi begiratuta
gauza nabarmena
gainera ze umore
txoro alaena!
Anorexia joan zen
hori da onena
baina zuk ere majo
bete dezu dena
ez dakit pasa zaizun
transtornoarena. (bis)

U. Agirre:
Neri gizena deitzen
gaur zein eta bera!
Barkatu baina biyok
borobildu gera.
Alai bizi zerala
hartzen det tankera
lehen elkartu ohi ginan
ura edatera
hau ospatu dezagun
goazen bazkaltzera. (bis)

A. Sarriegi:
Egin geranez gure
bizitzaren jabe
jatetxeren batera
egin daigun alde
eta goza dezagun
xuabe-xuabe
ospa dezagun baina
zera ahaztu gabe:
orduan zeuden batzuk
oraindik han daude. (bis)

KARTZELAKO LANA

A. Sarriegi
Gaia: Ezkutatu egin zara ikusi ez zaitzaten.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Irun badaukazu zerbait*

Gustora nintzen kalean
hiru taberna igaro
eta eskuan basoa
hartu ditut zenbait trago
lagunekin berriketan
"Benga beste bat gehiago"
ia ez dakit zenbat baina
joan dira hamar bat ardo
ta bapatean sorpresa
ene nereak akabo!
Nagusia ikusi det
kalean pixka't beherago
berez kaso egitea
besterik ezin itxaro
baina ezin estresagatik
baja hartuta bainago. (bis)

Kalean ikusi eta
pentsatu nire nibela
tabernaraino sartu naiz
oso azkar ahal zela
gauzak nahiago nukeen
irten balira bestela
baina bapatean hara
hor komunaren epela
eta barrura sartu naiz
delikuente bat bezela
tarteka begiratuaz
begiekin keinu bela
ta urduritzen hasi naiz
normala da dena dela
ikusi berri dedanez
komunera datorrela. (bis)

Zuei agian bai baina
neri ez dit egin grazi
aitzaki hobeak jartzen
beharko nuke ikasi.
Ez dakit egoera hau
ia nola iragazi
gauza onik ezin baitut
honetatik irabazi
ta aitzakiak pentsatzen
ere nazkatu naiz kasi.
Begiratu dit ta zuzen
“Aitor ze ari ote haiz hi!”
Gin-tonica bota diot
bere izotz eta guzi
ordaintzen duenerako
ez du besterik merezi! (bis)

A. Martin
Gaia: Ezkutatu egin zara ikusi ez zaitzaten.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Doinu honek izena du*

Mikeli belarritatik
nola egin diodan tira
eskolatik bota naute
behartutakoa *pira.*
Etxera sartu naiz eta
sukaldearen erdira
heldu ta ahots ozen bat
hona iristen ari da
ama eta aita dira
ta beraz alternatiba
ezkutatzea soilik dut
senti dezaten gupida.
Gorde naiz gorde nahiean
nire begien distira
mahai azpian nago eta
karraxika ari dira. (bis)

Oihuak dira aspaldi
etxeko soinuen parte
"Zer zenbiltzan tabernetan
zeure etxetik aparte?"
Ez dago aski sosegu
ez daukagu aski bake
eta mahai azpi hau daukat
beltzaren eskaparate.
Kolpe bat entzun dut eta
gero berriro atake
egin du aitak amatxo
lurrean birrindu arte.
Nahiz haurrei esaten zaien
"Isilikan egon zaite"
aspaldi uste dut aitak
ez duela ama maite. (bis)

Mahai azpi estu hau utzi
dut azkenean ze sala
bihurtu da azkenean
gerragune printzipala.
Dardarka altxatu gara
ni eta gero itzala
badakit ta aspaldian
gertu xamar gabiltzala.
Ama ezkutatu egin da
aspaldian ni bezala
begien urdin haretan
soilik baitauka kresala
baina oraintxe egingo dut
nire agerpen kolosala
ta ausardiarik badu
ni akabatu nazala. (bis)

FINALA

Aitor Mendiluze Gonzalez

Aitor Sarriegi Galparsoro

Amets Arzallus Antia

Beñat Gaztelumendi Arandia

Igor Elortza Aranoa

Maialen Lujanbio Zugasti

Sustrai Colina Acordarrementeria

Unai Agirre Goia

BARAKALDO

2017/12/17, IGANDEA, 11:00
BEC – BIZKAIA ARENA
FINALA

Bertsolariak:
Aitor Mendiluze Gonzalez
Aitor Sarriegi Galparsoro
Amets Arzallus Antia
Beñat Gaztelumendi Arandia
Igor Elortza Aranoa
Maialen Lujanbio Zugasti
Sustrai Colina Acordarrementeria
Unai Agirre Goia

Gai emaileak: **Maite Berriozabal Berrizbeitia (goizean), Saroi Jauregi Aiestaran (arratsaldean)**
Aurkezleak: **Inazio Usarralde Aranzadi (goizean), Joana Itzaina Malharin (arratsaldean)**

Epaileak: **Ekaitz Elorriaga Anduaga, Eneko Bidegain Aire, Eneritz Azkue Basurko, Joseba Santxo Uriarte, Mirari Azula Aurrekoetxea, Nerea Bruño Artazkoz, Zigor Leunda Eizmendi**

Leku handia da BEC. Alderik aldeko korridoreak 30 metroko zabalera du eta kilometro erdiko luzera. Han pilatu dira bertsozaleak Bizkaia Arena aretora sartzeko. Bertako harmailetan ia hamar mila lagunentzat lekua dago eta beheran ia beste bost mila lagunentzat aulkiak jarri dituzte. Guztira hamalau mila eta seiehun lagun hartuko ditu.

Zenbakiekin jarraituta 4.000 autorentzako lekua du bertako aparkalekuak, baina gaurkoan autobusetan zein metroan etorriko direnak asko dira. Antolakuntzak jarritako autobusetan bi mila eta bostehun lagun iritsiko dira, gehi herrietan prestatutakoetan datozenak. Horiek kanpoko aparkalekuetan kokatuko dituzte. Parking taldea arduratuko da horretaz.

Barruan jendearen sarrera gestionatzen beste talde bat, atzerriko gonbidatuei harrera egiten diena, segurtasun taldea, informazio gunekoak, hedabideez arduratzen den komunikazio taldea, soinukoak, ETBko langileak, zuzeneko emanaldia, pantailako errealizazioa… guztira 450 lagun, borondatezko zein profesional ari dira egun osoan, hau ondo joan dadin. Bezperatik guztiaren muntaiarako 100 daude Barakaldon.

Egun handia da gaurkoa eta denak atera behar du ondo. Goizeko bederatzietan irekitzen dira ateak eta zazpi eta erdietarako jendea zain dago eserleku gustukoenak hartzeko. Jendea goiz hasi da eta erritmo onean sartu. Izan ere, ia hamabost mila lagun sartzeko prestatuta dauden 16 lerroetatik minutuko zazpi pertsonak sartu behar dute. Bakoitzari pultsera bana jarri eta bakoitzak hartu du bere esertokia eta toki bakoitzean dagoen aldizkaria. Horri begiradatxo bat emanez edo lagun zaharrekin kontutan, bertsozaleak pozik eta urduritasunez egin du hamaikak bitarteko denbora. Orduan hasi da Inazio Usarralde oharrak eta eskerrak banatzen, eta handik pixka batera jendeak espero zuen lehen leherketa. Pasillotik barrena igo dira zortzi bertsolariak, Maite Berriozabal gidari dutela, oholtzara. Bera izango da goizeko gai emailea, arratsaldean Saroi Jauregi arituko da eta bukaerako aurkezpen eta protokoloak Joana Itzainak egingo ditu.

Saio handia izan da. Lehen ofizioetatik, zortziko handiak zein txikiak, oso maila altua erakutsi dute finalistek eta handik aurrera saioa erraz joan da. Goizean zuten zortzi bertsolariek kartzelako lana egin beharra eta ordurako giroa asko berotzen hasita zegoen. Bizkaia Arena betetzen dutenak olatua egiten hasi dira goizetik, arratsaldean etorri zitekeenaren atariko edo. Hala ere, arratsaldean jai-giroak gora egin badu ere, neurria hartua diote bertsozaleek eta errespetuz hartu dute bertsolarien lana.

Arratsaldean ere goi mailako bertsoaldiak entzun dira. Puntuetakoetan jo du goia saioak eta buruz burukoan Aitor Mendiluzek eta Maialen Lujanbiok ondo eutsi diote edo beharbada koxka bat gorago eraman dute egun osoko kalitatea. Bukaeran dena lehertu da Lujanbio txapeldun izendatzearekin. Oholtza gaineko besarkadak, emozioak eta dagoeneko zutik txalo zaparrada luzeak jotzen dituen entzuleriarenak bat egin dute azken agurra entzun bitartean.

Protokoloa arindu egin da aurtengoan eta bertsolaritzan zein kulturan nabarmendutako pertsonek lagundu dute sari emate lanetan. Agurretan esker emateak, eskaintzak eta

txapelketatik bi despedida behintzat. Aitor Sarriegik eta Igor Elortzak hau beren azken txapelketa dela adierazi nahi izan dute.

Lan handia egindako sentsazioarekin eta egunean bizitako poz eta nekeak pilatuta eman dute bertsolariek eta Bertsozale Elkarteko lehendakaria den Iñaki Muruak ondorengo prentsaurrekoa. Txaloz amaitu da hau ere.

HASIERAKO AGURRAK

I. Elortza

Neurria: Hamahirukoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz
Doinua: *Sentimenduak batzutan sartzen*

Egun on denoi has bedi festa
bertso, txalo ta numero
kaixo BECtarrok, irratizale,
tele-ikusle ta twittero
biba zu bertsozalego
taliban zein sakrilego
atzeko zazpi lagunak ere
agurtu nahi ditut bero.
Onena ematen saiatuko naiz
onena ematen unero
ta zuengandik ere ez dut nik
behin honetara ezkero
gutxiagorik espero.

A. Sarriegi

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Irun badaukazu zerbait*

Egun on bertsozalea
beste behin BEC gure harpe
ea ze atarramentu
ze giro ta ze aldarte!
Egunaz goza dezagun
hitzak direla bitarte
hona guztiek beraien
onen-onena dakarte
kinieletan agian
egonagatik aparte
zortzi lagun gatoz eta
denok hartzen dugu parte
nahiz eta alineatu
behar Jupiter ta Marte
jokua ez da bukatzen
kartak erakutsi arte! (bis)

M. Lujanbio

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Norbere mundu intimo*

Gehiegi izan nahi gabe
eta garenaren jabe
gure ideia ta ahots
kaixo denoi! Hemen gaude.
Hain haundi dirudien hau
hain txiki hormaz bestalde
hemen hizkuntza hain sendo
hor kanpoan hain ahalge
herria trinko egin nahiz
trinko diot ez artalde
gu ere hala baikara
bakarkako eta talde.
Hau borroka neurtu bat da
barkatu apustuzale
gure buruaren kontra
gure munduaren alde. (bis)

U. Agirre

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Amerikatik buelta eginda I*

Zer kantatzen da final haundiko
lehenbiziko agurrian?
Bertsoa gauza soila da baina
hamabost mila aurrian
zer galdurikan ez daukat baina
tentsiyua muturrian
txapela urrun zegola baina
inoiz ez zan hain hurrian
lege zaharrian egun on eta
has gaitezen egurrian!

B. Gaztelumendi

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz
Doinua: *Gregario edo laguntzaile naiz*

Besarkada bat Altsasura ta
egun on Euskal Herrira
ez gara MTV[1] baina berriz BEC
daukagu neurri-neurrira
milaka plaza, bertso eskola
eta petodun begira
ta askoz gehiago dira
gure etxea hori da. (bis)
Dugun onena transmititu nahi
dugu harritik harrira
gure oinarritik tabladura ta
tabladutik oinarrira. (bis)

1 "Emtibi"ahoskatu zuen.

S. Colina

Neurria: Hamabiko ertaina
Doinua: *Gai horrek badu mamia*

Egun txarrik ez da hondartzak
elurrez zuritzeko
oskolak barrutik hautsi
ta azalak zauritzeko
berri on bat sortu nahi dut
notizia hitseko
enbutuei buelta eman
su bat piztu hitzeko
lokaztuak beldurrik ez
baitauka zikintzeko
lau aldiz erori nintzen
bost aldiz zutitzeko. (bis)

A. Arzallus

Neurria: Hamalauko handia
Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*

BECen biltzen den Euskal Herriak
zenbat ertz, zenbat probintzi!
Probintzi hainbat euskalki eta
euskalki hainbat iritzi.
Iritziaren ziega hotzetan
preso daudenei goraintzi.
Bertsoa denen *republika* da
ta askatasun irrintzi
nahiz gezurra den ezin baikara
euskaraz ta libre bizi
gezur txiki hau zabal dezagun
ez dezagun hemen itxi
ta pixkanaka baietz egiak
transformatzera iritsi! (bis)

A. Mendiluze

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Agur eta ohore I*

Egun on! Zer bestela?
Sinplea, sanoa
ni ez bainaiz izarra
soilik humanoa
ez naiz gazte-gaztea
ez beteranoa
ez ertzak dituena
eta ez planoa
hitzetik nator eta
hitzetara noa.

ZORTZIKO HANDIA

I. Elortza - A. Sarriegi

Gaia: Euskara elkarte bateko borondatezko bi kide zarete. Zuk, Igor, uste duzu taldearen jarduna profesionalizatzen hasi beharra dagoela. Aitor ez dago ados.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Uso zuri bat inguratu zait A*

I. Elortza:
Gure haserak gogoratzeko
joan behar da urrutira
garai guztiak ez dira berdin
onartu dezagun tira!
Lehen kalean zebiltzan haiek
etxean daude begira
ta bolondresik ez baldin bada
langileak behar dira.

A. Sarriegi:
Jarri itzazu hiru langile
ekarri gure festara
eta berdin zait ze ekimen den
kasu honetan euskara.
Azken batean itxura baino
gehiago ere ez gara
horrek guztiak ez du balio
borondaterik ez bada.

A. Sarriegi:
Honetaraino ekarri gaitu
bolondresen adioak
ez direlako nahi gisakoak
jendearen jarioak.
Hori eginez galdu litezke
haserako balioak
hiztunak behar ditu euskarak
ez funtzionarioak.

I. Elortza:
Arrazoi duzu pixka't joan zaitez
bolondres hoien peskizan
nahiz ta agian ibili behar
izango duzun zuk ehizan.
Bat edo beste dikotomian
gabiltza ohi dugun gisan
eta ez dakit zer dela eta
ezin duten biak izan.

I. Elortza:
Gure herria beti izan da
"Ekin gogor, gogor ekin!"
baina ez bada bolondresik gaur
ibiliko gara erkin.
Aurrera in behar da teknikari
eta soziolinguistekin
urrutirago ez gara helduko
boluntarismoarekin.

A. Sarriegi:
Ona litzake egia esan
hori burutik kentzea
ez dugulako guk ikusi nahi
hizkuntzaren azkentzea.
Baina langilez bete ezkero
bolondres hauen etxea
gure helburu bihurtuko da
egitura mantentzea.

M. Lujanbio - U. Agirre:

Gaia: Kirolari profesionalak zarete, eta publizitatea egiteko eskaintza asko jasotzen dituzue. Zu, Maialen, edozer iragartzeko prest zaude. Unai, ordea, ez.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Beste bateko inularretan*

M. Lujanbio:
Hemen dirua baita kontua
nola ez esan? Akabo!
Futbol zelaian egiten degu
izerdi eta ur trago
Real Sociedad SAri ta
txinoei salduta nago
ta honezkero zer inporta zait
pixka bat salduxeago. (bis)

U. Agirre:
Barkatu baina hau izango da
segun nun jarri tamaina
ni familia xume batetik
etorri naiz alajaina!
Gure bizitza oso laburra
degu futbolean baina
urtebetean irabazi det
nornahik bizi osoan aina. (bis)

U. Agirre:
Real Sociedad SA jarri
degu zerura bidian
gauza hoiekin larritu xamar
dago Unai aspaldian.
Edozer gauza ein leikela ta
nago beldurrak aidian
diru beharrik izango banu
egingo nuke agian. (bis)

M. Lujanbio:
Nahikoa diru badezu behintzat
hortan ez zera labaintzen
nik hala ere segitu nahi det
banku kontua bikaintzen
ta hor azaltzen naiz kremekin edo
txanpuaz ilea zaintzen
futbolarioi ez digute ta
pentsatzearren ordaintzen. (bis)

M. Lujanbio:
Bederatzia bizkarrean ta
orain oparo zabiltza
promesa eta errealitate
dena aparra, dena bitsa
baina hautsi ezkero belauna edo
zartatu iztarreko mintza
Unai esnatu laburra da ta
futbolarion bizitza. (bis)

U. Agirre:
Berak zipitzik ez du pentsatzen
gogorra izan da gero!
Nere burmuinak kontu honekin
orain daude bero-bero
baina sekula saldu ez naizenik
ere ez zazu espero
sagarduana igual eingo det
Unaik eskatu ezkero. (bis)

B. Gaztelumendi - S. Colina

Gaia: Pisukideak zarete. Duela gutxi jarri zineten elkarrekin bizitzen. Zuri, Beñat, afalostean telebistako eztabaida politikoak ikustea eta komentatzea gustatzen zaizu. Sustrairi, berriz, ez.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Beti penetan beti penetan*

B. Gaztelumendi:
Telebistari begira egin
ditugu hamaika froga
ta politika da engantxatuta
utzi ezin dudan droga.
Gure afari, plater garbitze
komun eta labadora
baina gureak aurrera darrai
gure pisutik kanpora.

S. Colina:
Lokartzeraino geratu aurretik
telebistari begira
mahai ertzean eser gaitezen
ta landu alternatiba:
zaborrak gaika bereizi edo
ta bota eduki-ontzira
gure eskutan dagon debate
politiko bat hori da.

B. Gaztelumendi:
Politikara eraman dezu
zuk hamaika kontu ñaño!
Euskal Herrian azken urtetan
bada mila desengaino.
Gure eztabaidak ordu txikitan
ere luzatzen dira, ño!
Nik nahiago det horiei entzun
zuri entzutea baino.

S. Colina:
Nik debateak hasten dira ta
Beñat apurka-apurka
manta goraino tiratzen dut ta
ia hasten naiz zurrunka.
Nik ez nuke nahi jendarte oso bat
telebistak lelotuta
nahiago ditut norbanakoak
autodeterminatuta.

B. Gaztelumendi:
Ba ni libratzen hasia nago
orain hamarren bat urte
ta zenbat neke hamar orduko
lan gogorren baten truke.
Telebistako debate hoiek
ai Sustrai zenbat bertute!
Lo egiteko infusioek
adina laguntzen dute.

S. Colina:
Joseba Arregi ta Iñaki Soto
hasterakoan ezbaian
armiarma bat ikusi ohi dut
sarea egiten sabaian
nahi eta ere lokartzen bainaiz
berdin teman ala gaian
askoz arazo gutxio zegon
Goenkaleren garaian!

A. Arzallus - A. Mendiluze

Gaia: Arropa-denda bat duzue elkarrekin. Zuk, Amets, jaiegunetan ere denda zabaltzen hasi nahi duzu. Aitorrek ez du ireki nahi.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Menditarra naiz eta gogoan*

A. Arzallus:
Ulertzen ditut lan baldintza ta
mila langilen borroka
baina guk goiko marka klaseei
joa diegu erronka
eta aurrera ibili dadin
geure poltsikoko errota
igandeetan saldu behar da
igandetako erropa.

A. Mendiluze:
Aste osoko lanaldi hori
inondik ez da mejora
orain artean eutsi diogu
horixe bera da froga.
Nik ere nahi det irabazia
kontu korrontea gora
ta astean behin irabazia
erabiltzeko denbora.

A. Mendiluze:
Baina ezin al da lan jardun hori
larunbatean amaitu?
Letorkeenak sei egunetan
aski denbora bai baitu.
Hoiek pasata zazpigarrenez
zertan lanean jarraitu?
Eroslearen kapritxoaren
esklabu egingo gaitu.

A. Arzallus:
Bai baina nik zer esan nahi dudan
Aitor ez zara ohartu
nik ez zaitut nahi esplotazio
kate luze hortan sartu
igandeetan irekitzea
dezagun biok hitzartu
ta igandeetan irekitzeko
langile bat gehio hartu.

A. Arzallus:
Baina denda haundi ta frankiziek
bide horixe dakarte
eta geuk ere merkatu hontan
izateko aski suerte.
Beren borroka-ildo berean
hartu behar dugu parte
bestela hola segiko dute
gu erabat ito arte.

A. Mendiluze:
Beraz jaiean ez zabaltzeak
behar omen gaitu ito
ta langile bat hortan jartzea
zergatik dezu begiko?
Zatozte biak ta igandeko
xoxak zuentzat ta kito
pila bat bada poz hartuko det
baina ez naiz etorriko.

ZORTZIKO TXIKIA

I. Elortza - M. Lujanbio

Gaia: Bizilagunak zarete. Igor, bart gauean birritan esnatu zaitu Maialenek sexu-jolasetan zebilela. Gaur goizean, igogailuan egin duzue topo.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orioko balearena*

I. Elortza:
Egun on, ustez atzo
zenbiltzan ta ongi
ni logureak nago
ta zu berriz *grogi*
hori bai bart gauean
zu zenbiltzan jori
kendu ezazu tonto
irriparre hori! (bis)

M. Lujanbio:
Izan ere zu zaude
hain muker ta erkin
ez dezu ligatuko
jarrera horrekin
baino bart zeure kabuz
al zenuen ekin
gure etxeko efektu
espezialekin? (bis)

M. Lujanbio:
Sexua suertea da
eta ez da luxu
bart gauez dena irrintzi
ta izerdi putzu...
Zuk berriz behakoa
serioa duzu
duzun inbiri horrek
zimeldu zaitu zu! (bis)

I. Elortza:
Logure nintzen baina
belarriak arin
alboan bazen zenbait
sexu joko gordin.
Diozu nik gozatu
nezakeela berdin
ta zeinek esan dizu
ez nuela egin? (bis)

I. Elortza:
Batzuentzat bizitza
bero ta maitasun
besteontzako berriz
sasi eta asun.
Sexua suerte dela
hala dizut entzun
ta antza dena zeuri
tokatu zitzaizun. (bis)

M. Lujanbio:
Zu tristetzeko ez det
hainbeste interes
baino irrifarre bat
egizu mesedez!
Zer-nolatan zabiltzan
bisaia da juez
egin igual ein zendun
baina gozatu ez! (bis)

A. Sarriegi - U. Agirre

Gaia: Aitor semea eta Unai aita zarete. Aitor, aitak uzten ez zizun arren, moda-modako bideokontsola erosi zenuen zure aurrezkiekin. Zuk baino gehiago erabiltzen du berak.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Gizona da zoroa*

A. Sarriegi:
Nahiz ta ez zenuen nahi
ni nendila ari
begiraiozu ondo
zure buruari:
sala erdian jarrita
zaude adi-adi
kea irteten zaio
*Play Station*ari. (bis)

U. Agirre:
Nola hasi zeran gaur
hemen jo ta kian
ez det pasatu baina
zuretzat kaltian:
lehenengo pantailakin
ni utzi pakian
ez dezu erabiliko
hau pasa artian. (bis)

U. Agirre:
Aita batek badauka
babesteko senik
ni hola ikusita
zuk ez hartu penik
ez pentsa buruantzat
hau hain ona denik
zuk ez erabiltzeko
erabiltzen det nik. (bis)

A. Sarriegi:
Ba orduan nik dizut
gaur erakutsiko
horrek bi mando dauzka
diot nerekiko
soluzioa hau da
behin eta betiko:
biok elkarren kontra
jokatu ta kito. (bis)

A. Sarriegi:
Nolako artea ta
nolako abaila!
Bixtan geratu zaigu
aitak daukan maila
beti joku berdina
gainera ez zaila
ta oraindik ez du pasa
lehenengo pantaila. (bis)

U. Agirre:
Aitarekin ibili
nahi luke obretan
joku gutxi ditugu
famili pobretan.
ez nuke ibili nahi
joku gogorretan
lehia gauza txarra da
edade horretan. (bis)

B. Gaztelumendi - A. Arzallus

Gaia: Zu, Beñat, artzaina zara. Ardiak belardi batetik bestera eramaten ari zarela, Amets herritarra ikusi duzu zure ardiak norabide okerretik bidaltzen.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Igaran egun batez*

B. Gaztelumendi:
Neguan egiteko
hotzaren defentsa
iritsi da ardiak
mugitzeko *fetxa*
gaizki pasatu duzu
hesolako ertza.
Hara deskubritu det
nere ardi beltza.

A. Arzallus:
Zu gelditu zaite hor
lasai, trankil ta zut
igual ardi guztiak
hartuko dizkizut.
Nik neuk jetziko ditut
deskantsatzeko zuk
hurrena gazta bueltan
eramango dizut.

A. Arzallus:
Udan bero egiten du
eta neguan hotz
barkatu artzai lana
egiten zait arrotz
barkamena eskatu
nahi nizuke ahoz
bat bakarrik nahi nuen
baina denak datoz.

B. Gaztelumendi:
Hau gizon egoskorra
ez al da? Ospera!
Azkar arrimatua
da nere ospera.
Gazta egiten ez zaitez
zu hasi ostera
azokara etorri
zaitez erostera.

B. Gaztelumendi:
Ta artaldean dauzkat
hirurehun inguru
denak ahal den ondoen
zaindu ohi ditugu.
Hau kalekume bat da
badakit seguru
ardia hartu nahi ta
aharia hartu du.

A. Arzallus:
Ai artzai poetiko
ta artzai abstraktu
zuk beti zazpi bertso ohi
dituzu kantatu.
Hurrena erne ibili
lana ongi hartu
gutxio kantatu ta
gehio begiratu.



S. Colina - A. Mendiluze:

Gaia: Zu, Sustrai, arkeologoa zara. Lanean ari zaren indusketa-gunean topatutako giza hezurrak daramatzazu autoan. Laborategira bidean zoazela, Aitor poliziak geratu zaitu.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Kantatzera nijoa*

S. Colina:
Mugan berriz kontrola
kauenla kauenla!
Nik hezurrak atzean
nola ba bestela?
Ikusiz nere planta
txuri ta zimela
pentsatu ote duzu
nereak zirela? (bis)

A. Mendiluze:
Aizu ni ez nahastu
kolpetik lehenean
ta zentratu gaitezen
orain gaudenean.
Hezurdura bat dezu
kotxe barrenean
hitz egiten al zuen
irten zarenean? (bis)

A. Mendiluze:
Aizu polizia naiz
ta errespetoa?
Maleta izan ohi da
beti atzekoa
bat soinekoa eta
bat aldatzekoa
baina beti txaketa
ez eskeletoa. (bis)

S. Colina:
Indusketak egiten
tematu naiz aurten
hezurrek ez baitute
hain gutxi irauten.
Asko esaten dute
asko di-da baten
zuei buruz ez dute
deus onik esaten. (bis)

S. Colina:
Nik eman nahi nituen
mugako jauziak
baina guardia zibilen
eskutan jausiak
nik garraiatzen ditut
hezur biluziak
hori badaki zer den
zure nagusiak. (bis)

A. Mendiluze:
Neri ez zait ba inporta
ez onik ez txarrik
atxilotuta zatoz
eta ez alperrik
eskuburdinak dauzkat
pare bat bakarrik
zure lagunak ez du
ipini beharrik. (bis)

LEHEN PUNTUA EMANDA

I. Elortza

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

Haurrak hezten ditugu
jostailuz itota
eta gero etxean
hamaika borroka!
Berri bat erosi ta
zaharragoa bota
ja zeinekin dabiltzan
ere ez zaie inporta.

Irudimena lantzen
lagundu ezkero
baina alperrik dira
banu ta balego!
Orri bat ta margoak
eman egunero
eta baietz ikusi
hor lanean bero.

Katalogo askotan
arrosa, urdina
neska ta mutilentzat
itxuraz egina
batzuei baloia ta
besteei panpina
nik alabei baloia
gaur eman jakina.

A. Sarriegi

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orain hasi bihagu*

Justizia berdina
ote da denekin?
Jendeak garbi dauka
nik ere banekin
berdin da zer egin den
berdin zer ez egin
hemen portatzen dira
gaur nahikoa erkin.

Balantzak gehiegitan
galtzen du oreka
juez bat dagoelako
atzean gordeta
gero gezurrak bota
hitz zuriz beteta
justizia gezur bat
bihurtu da eta.

Kantuen letrak izan
litezke delitu
ez juzgatzen duenak
idatzi balitu!
Gero banatzen dira
hamaika meritu
gaur egun justiziak
zulo asko ditu.

M. Lujanbio

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

Bizitzaren aurrean
baikorra al zara?
Ni saiatzen naiz irriz
irteten plazara.
Minek eta tristurek
hamaika pasara
ematen dute baina
pozik bizi gara.

Etorkizunak dakar
hainbeste sorpresa
batzuetan arrosa
besteetan beltza.
Nahiz eta zilegi den
denontzat ametsa
etorkizun txarrena
etorkizun eza.

Unea bizitzea
genuke onena
adibidez gaur eta
hementxe gaudena
gozatu lagunak ta
ahaztu zure pena
gero etorriko da
gero datorrena.

U. Agirre

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orain hasi bihagu*

Hamaika erlijio
badira munduan
bat bakarra pentsatu
behar det gaurkuan.
Errezo gutxi dago
Unairen buruan
nere baitan bizi naiz
modu seguruan.

Fedea ez da beti
denontzat berbera
nik gutxi daukat eta
kontuak atera
dirua da fedea
gora eta behera
eta horrek mogituta
bizitu ohi gera.

Eliza hutsetan zer
egingo zenuke?
Hori pentsatzen pasa
litezke bi urte
pintatu ta gozatu
lau xoxaren truke
eta bertso saio bat
ipiniko nuke.

B. Gaztelumendi

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

Ikasketak amaitu
eta lana falta
oraintxe esan dezu
egia galanta
nahiz nere ikasketak
nituen aparta
oraindik lanik gabe
asko bizi da ta.

Zenbat kosta zitzaizun
lanean hastea?
Bertsotan hasi nintzen
oraindik gaztea
ta nahiz gogorra izan
den azken astea
nik ez nuke espero
dena narrastea.

Zaila dago iristen
jubilaziora
adina doalako
gora eta gora
nik hogeita hamar urte
bada aski froga
oraindik lanerako
badaukat denbora.

S. Colina

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orain hasi bihagu*

Kutsadura airean
nahi baino gehiago
bat'e egongo ez balitz
nik asko nahiago
baina kutsatzen dugu
orain zein lehenago
ta hola segi ezkero
bueltarik ez dago.

Bateko erraustegi
besteko fabrika
gauz bat da teoria
bestea praktika
eta biak nahasten
zaizkigu sarri ta
laister hilko garela
nago igarrita.

Kontuan hartzen al da
gure osasuna?
Ez kontuan hartzen da
diru ondasuna
baina landu beharko
da etorkizuna
pertsona da zinezko
aberastasuna.

A. Arzallus

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

Eguberrietako
argiak piztuta
ta argindar fakturak
etxean eztulka
hola sortzen dituzte
hamaika disputa
gu tranpan jausi eta
beraiek disfruta.

Geratuko bazina
oparirik gabe
ez pentsa nintzakeenik
tristuraren jabe
bizitzan gauza gutxi
ditut nik hala’re
beti sentitu izan naiz
erregeen pare.

Alternatibo izan
nahi genuke baina
gero zazpi opari
turroi ta txanpaina
ta Olentzerorekin
umeak engaina
kontra egitea da
gauza bat bikaina.

A. Mendiluze

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Orain hasi bihagu*

Informatzen al gara
hitz egin aurretik?
Askotan gutxi eta
bide bakarretik
gure iritziak asko
dauka okerretik
ta eztabaidan ez hasi
iritzi txarretik.

Edonori eskatzen
zaio iritzia
baina edonor ez dago
ideiaz jantzia
denok nor izateko
daukagun antsia
erlatibizatzeak
badu garrantzia.

Pentsatzen alfer eta
hitz egiten trebe
denok sentitzen gera
hitzaren errege
mingaina koxkatzea
hobe alafede
tarteka gure hanka
ez sartzeko ere.

HAMARREKO TXIKIA

U. Agirre - I. Elortza

Gaia: Errepideak konpontzen egiten duzue lan. Sarritan ikusten duzue zeuen burua arriskuan. Gaur ere bide bazterrean ari zarete lanean.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Zer da gaur Donostian*

U. Agirre:
Eguzkitan kiskali
ta ebitan blaitu
lantegi hontan ezin
gintezke lasaitu
errepideak txukun
hasi ta amaitu
jendearen bizitzak
hau merezi baitu
ta kotxe ero batek
eramango gaitu. (bis)

I. Elortza:
Oraintxe pasa da bat
zer esango nuke?
Txoferrak justu zeuzkan
hemezortzi urte
BMW haundi bat
aitatxoren truke
abiada bizia
hor eroan dute
ileak orraztuta
utzi dizkigute. (bis)

U. Agirre:
Herri txiki hauetan
hamaika jenio
euskaldun gazte hauekin
ez naiz oso fio.
Ehun ta hogeira badator
gazte bat *dedio!*
Gu bideak konpontzen
serio-serio
honi ez konponduta're
berdin-berdin dio. (bis)

I. Elortza:
Gazteak *rally*etan
beti jo ta hautsi
batek apostua jo
ta besteak eutsi.
Beste bat pasatu da
eginaz igurtzi
belozidade asko
eta garun gutxi
eurak hil daitezela
ta gu lasai utzi. (bis)

U. Agirre:
Ez naiz asko fidatzen
ustea doi-doia
hemen bada euria
harria ta lohia.
Gazte jendeak jo du
autoetan goia
nik luze eduki nahi det
holako sasoia
aurretikan atzera
pasa kamioia. (bis)

I. Elortza:
Baina beste norantza
ere hor hurrean
ta handikoak ere
datoz haserrean
beste zerbaitetara
noa beharrean
ez nukeelako gura
hementxe aurrean
lore sorta bat izan
bide bazterrean. (bis)

A. Sarriegi - M. Lujanbio:

Gaia: Irakasleak zarete. Murrizketak direla-eta, greba egin zenuten atzo ere. Gaur, lanera bueltatu zarete.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Ai gure antzinako*

A. Sarriegi:
Atzo pankarta atzean
denok indarrean (bis)
lagun bat eskubian
ta zu ezkerrean.
Azkenaldi honetan
gaude beharrean
begiratu gaur ere
muturren aurrean
hogeita hamar ikasle
gela bakarrean. (bis)

M. Lujanbio:
Ta hogeita hamarrekin
ez dakit zer egin (bis)
ze erramintarekin
nola ta zerekin
baina greba bihurtu
dugu ia errekin
kostako zaigu lortzen
nahiz joan elkarrekin
hemen ezer berririk
forma hain zaharrekin. (bis)

A. Sarriegi:
Gaur egungo hezkuntzan
horrenbeste hesi (bis)
integraziorako
hamaika gabezi
ta politikariak
gugandik ihesi
ez logopeda eta
ez behar berezi
horrela ezin dugu
gizarterik hezi. (bis)

M. Lujanbio:
Hezkuntzak ez dauka ez
hamaika bertute (bis)
Heziberri ta LOMCE
hortxe dihardute
baina ikasleak datoz
zeozerren truke
Pakistan Marokotik
pentsa ze itute:
guk greba egindakoan
nora joan ez dute. (bis)

A. Sarriegi:
Ta gainera bihurtu
gara puntu-mira (bis)
dianan jarri eta
harriak nork tira?
Hau ez da baldintza ona
egia hori da
eta etorkizunera
jarrita begira
honen ondorioak
antzemango dira. (bis)

M. Lujanbio:
Guk umeak hezi nahi
eta hezi ezin (bis)
nahiz tratatzen ditugun
maiteenak bezin.
Hezkuntza kondizioz
dago nahiko erkin
baina gizarte hontako
panoramarekin
nork enpatizatzen du
funtzionariekin? (bis)

A. Mendiluze - B. Gaztelumendi

Gaia: Gurasoak zarete. Zuen seme-alabak koskortu eta etxetik joan dira. Haien gelak husten hasi zarete.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Lagundurikan danoi II*

A. Mendiluze:
Ezinbestekoa zen
ezin zen saihestu
baina barruan zerbait
sentitzen det estu
jostailuak, trasteak
doaz eskuz esku
kajatan ganbarara
igo eta ahaztu
gure etxe hau ez da
orain arte hustu.

A. Mendiluze:
Ezin daiteke bete
ta onartzen amaitu
joaten den horrek huts bat
beti uzten baitu.
Beraiengatik poztu
joateaz alaitu
heldu behar dute eta
bide bat jarraitu
baina horrek zu eta ni
non kokatzen gaitu?

B. Gaztelumendi:
Gazteak joatea
izaten du arau
dauzkate hogei urte
eta hogeita lau.
Orain bidea ez da
hain errez ta hain lau
beren gelak hustuaz
ari gera ri-rau
ta orain nola beteko
degu hutsune hau?

B. Gaztelumendi:
Bakoitzak bere aulki
ta bere platera
ta orain biak hustu
zaizkigu batera
biak zaizkigulako
etxetik atera
gu halaxe gabiltza
gutxi gorabehera
haiek heldu dira ta
gu umetu gera.

A. Mendiluze:
Benetan ote gaude
umeen neurriko?
Zaharra pentsatzen ari
nintzen nerekiko
nahiz ta ez aldatzea
nahi genuen kito!
Pasatzen dena pasa
egin da betiko
eta juan dena ez da
berriz itzuliko.

B. Gaztelumendi:
Bat erronkosoa da
bestea alperra
baina faltan botatzen
degu lehengo gerra.
Bisitan etortzea
ez denez okerra
lenteja batzuk eta
oilasko izterra
jarriko al diegu
lehenengo taperra?

S. Colina - A. Arzallus

Gaia: Musikariak zarete. Gaur ere, beste askotan bezala, zuen herrian musu-truk jotzeko eskatu dizuete.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Hamalau heriotzena I*

S. Colina:
Bizitza daramagu
abestiak sortzen
alanbrean gainean
zutitu ta erortzen.
Zerbeza jartzen duna
ta ez dena agortzen
baflea jartzen duna
entzun dadin ozen
hoiek ez dira inoiz
debalde etortzen.

S. Colina:
Artista ta langile
ez gara bi bando
nahiz ta mugetan izan
aski kontrabando
jo ondoren hamaika
pieza ta fandango
zein etorriko zaigu
esatera "Ondo"
eskerrik asko ere
ez digute esango.

A. Arzallus:
Nork deitu zigun ere
naiz ni gogoratzen
euskara elkarteko
huraxe bera zen
funtzionario joan
zena bilakatzen.
Nahiz herri ta musika
zaizkigun gustatzen
gu beti debalde ta
horiek kobratzen.

A. Arzallus:
Ez izan hain ezkorra
ai arranopola!
Dena dantzariz bete
baita plaza zola
ta denak irrifartsu
ta gainera nola!
Eskerrak nik pentsatzen
dudala maiz hola
horrelako ordainik
inun ez dagola.

S. Colina:
Bihar iritsiko da
gaur zegona entzuten
plazan topatu baietz
galde-erantzuten!
Joan okindegira
inoizko arrunten
ogia eska zazu
ta ahal bada *sin gluten*
eta ea debalde
ematen dizuten.

A. Arzallus:
Eta berriz hasiko
balirake teman?
Muxu-truk jo dezagun
plazan nahiz tabernan
nere adostasuna
ohi dute antzeman
baina erantzungo diet
gauza bat eskeman
nik erabakiko det
muxu zeinek eman.

KARTZELAKO LANA

I. Elortza
Gaia: Atetik sartu zarenean, isildu egin dira denak.

Neurria: Hamalauko handia
Doinua: *Egunkarian ikusi nuen*

Kalera irten naiz kosta egin zait
ibiltzea hogei metro
arnasaz estu dauzkat birikak
eta nonbait harriz lepo
baina gogoa neukan berriro
neure etxean sartzeko
ta banekien hortxe zeudela
hamaika gure etxeko:
nire andrea, seme-alabak
eta beraien izeko
medikutara joan ginen atzo
bada aski esateko
baina azkar joan naiz hitz egiteko
astirik ez emateko. (bis)

Gaur astebete Galdakaora
ez nintzen joan bakarrik
pentsatu nuen "Bihotzekoak
hementxe eman behar dit"
baina atera ginen probatik
oraindik nago itzarrik
adinez gora nijoa noski
baina ez da hori bakarrik
nire birikek ta nire hankek
kasik ez dute indarrik
atea itxi ta sukaldera
sartu naiz erdi baldarrik
baina zer dudan jakiteko nik
ez neukan proba beharrik. (bis)

Urduri jarri dira guztiak
mahaian aldatuta aldez
haizea moztu egin liteke
tentsioa dago gainez
ta neu sartu naiz guztiei “Kaixo
zer moduz gabiltz?”emanez
nire aulkian jarri naiz gero
lasaitua natorren lez
ta esan diet “Eser gaitezen
gure garbantzuok janez”.
Nahiz ta bakoitzak bere baitara
badaukan nahiko esames
isil-isilik jesarri gara
elkarri dena esanez. (bis)



A. Sarriegi
Gaia: Atetik sartu zarenean, isildu egin dira denak.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Irun badaukazu zerbait*

Apunteak hartu eta
txukundu dut ingurua
ordenadorea itzali
eta hartu liburua
irakasleona baita
hain lanbide segurua
eskilaretan beherantza
minutu ta segundua.
Seguru asko badaukat
nerea zertan ondua
gutxienetik hori da
nik daukadan helburua
baina beste bat da orain
jokatzen dudan gudua:
irakasle gelan sartu
ta isildu da mundua. (bis)

Jendea eserita dago
beren orri eta lapitz
baina isiltasun gordin hau
iruditzen zait hain bortitz.
Badakit nik harremanak
sarri utzi ditut murritz
eta esan didate ere
neri makina bat aldiz
"Aitor hik horrelakorik
ez duk egin behar berriz
askotan gela honetan
erdaraz egiten da hitz"
eta hala esan nien
irrifar aurpegia jarriz:
"Ez litzake hain grabea
ikastola bat ez balitz". (bis)

Ardura handiko lana
da nire ustez daukaguna
irakaslea ez baita
ikaslearen laguna.
Honetara iristeko
nor izan da erruduna
ikastolan falta bada
kontzientzi euskalduna?
Hemen egin behar dugu
geuk egin dezakeguna.
*"Buenos dias"*ka ezin da
hasi guretzat eguna
eta nolakoa izango
da gure etorkizuna
haurrei eskatu ezkero
geuk egiten ez deguna? (bis)

M. Lujanbio
Gaia: Atetik sartu zarenean, isildu egin dira denak.

Neurria: Hamaseiko handia
Doinua: *Kintak jarri ta ondorenian / Kubako gerrarena*

Zuek famili afari hontan
gaur bildurik elkarrena
Gabon gaueko betiko ohitura
mingots honek dakarrena.
Nere aulkirik ez zegon hutsik
ta horixe da txarrena
baina hemen nator alaba ardi beltz
mespretxatua, herrena
aspaldi ikusi ez nauzuena
ez da hori zuen pena
nahiko arazo eman nizuen
esan behar bada dena
ta luzerako alde egin nuen
banun ta aski problema
kasu batzutan ihesa baita
aukera zentzuzkoena. (bis)

Jada ez dira ez larogeiak
baina neri errepara
azala zimel kolore zuri
ai inork ez nau anpara.
Badakizue ze hauts horizta
sartu ohi den zainetara
haren bila ta harekin beti
berdintsu zein eratara
hainbeste oker egin dut hemen
hau jakina ez al da ba?
Burua makur ta lotsaz gorri
jo dut etxeko aldaba
amari hainbeste gauza lapurtu
nizkion lehen eta hara!
Zure pitxirik ez dakart baina
hemen da zure alaba. (bis)

Gaztea nintzen, ederra nintzen
gure herriko erregin
dena lorea behar zuena
bilakatu zen erremin
ta bizioa ta desioa
batzutan bereizi ezin
kontrolatzen dut neuk neurtuko dut
nik neronen baitara zin
baina zorteak bizkarra eman
familiak ere muzin.
Etxera bueltan gaur umil nator
irrifarretsu, atsegin
barkamen eta azalpen beharrik
ez daukazue nerekin
ta neri ere mesedez utzi
isilik geratu nadin. (bis)

U. Agirre
Gaia: Atetik sartu zarenean, isildu egin dira denak.

Neurria: Hamabiko handia
Doinua: *Bazkaltzean gogoa neukan*

Gogoratzen naiz erabaki bat
jarri zidaten aukeran
aurrera egin baina ametsak
pixkana joan ziran hegan.
Geroztikan lan beltz egiten det
badegu galtzak bete lan
kendu ziguten gobernua ta
lagunak ditut kartzelan.
Sartu naiz eta isiltasun hotz
haundi bat sortu da gelan
aldeko aina kontrako haize
tokatzen baita Bruselan. (bis)

Eseri eta aurreko danak
beira-beira daude neri
lau gizaseme etorri dira
lau gizon ta zortzi begi.
Esan beharreko guztia esan
dute aurpegiz aurpegi
ta nik nerean segituko det
lotsatu gabe gehiegi.
Abenduaren hogeita bata
badator ta hala bedi
han jakingo det etxera joan
edota neurean segi. (bis)

Katalunia herri zaharra da
hizkuntza eta jatorri
gure bidea zein izango zan
nik ozen nuen igorri
eta geroztik egin dutena
ez diot opa inorri
Ministeriotik etorri zaizkit
zer egingo zaio horri?
Sartu naiz eta gelditu dira
danak mutu gorri-gorri
hortan seinale ez zaizkigula
negoziatzera etorri. (bis)

B. Gaztelumendi
Gaia: Atetik sartu zarenean, isildu egin dira denak.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Larogeita hamar urte*

Ni Marokotik ninduten
haurra nintzela ekarri
jendea ikus nezake
sarri begira elkarri
ta ni beti lagun baten
edo hitz baten egarri
atzetik begira hainbat
mespretxu eta bizkarri. (bis)
Nahiz umeok ihes egin
gure hamaika liskarri
gelara sartu naiz eta
guztiak aulkitan jarri
ni hemen ate ertzean
ta ez al da adierazgarri?
Isilik dagoen horrek
dena esaten du sarri. (bis)

Azala beltzarana det
urteak dauzkat hamabi
behin bisita egin nien
aitari eta amari
euskaraz ikasi nuen
futbolean ez naiz nagi
diferentea naizela
zuei dizuet nabari. (bis)
Gu soilik umeak gara
gure hezur ta haragi
norbera bere etxekoa
gaur igualak ez gara bi
zuei begira jarrita
badauzkat duda ugari
ez ote zareten zuen
beldurrak gordetzen ari. (bis)

Ikastolako lagunek
beren kromo eta album
guztiak elkarbanatzen
sarri ohi direnez jardun.
Nik soilik izan nahi nuke
klaseko lagunen lagun
nahiz integrazio hitza
maiz ahotan daramagun. (bis)
Ez dakit horrek bakarrik
goitik behera behar dun
ta nola elkarren beharra
hemen guztiok daukagun
denak gara klasekide
ta denak gara ezezagun
jar gaitezen aurrez aurre
eta hitz egin dezagun. (bis)

S. Colina
Gaia: Atetik sartu zarenean, isildu egin dira denak.

Neurria: Hamalauko handia
Doinua: *Pertsonok ez al daramatzagu*

Pertsonok ez al daramatzagu
emozioak zimurrean?
Beti al gabiltz irrifartsu ta
beti pauso ziurrean?
Gaur bazkaria neukan kuadrillan
lagunak beti hurrean
baina lokatza egokitu zait
ez nabil beti urrean
haiek isilik geratu dira
distantzia laburrean
eta ni berriz zurtuta nola
panpintxo bat elurrean
ai euskaldunak ze motzak garen
heriotzaren aurrean!

Bihotzekoaz hil baitzait aita
joan den aste hasieran
eta geroztik bakarrik egon
naiz erdi itota galernan.
Astero gisa kuadrillakoak
juntatu dira tabernan
eta neure zai zeuden guztiak
hiru kroketa plateran
baina begira dauzkat hilotza
neu izango banintz eran
ez daukat garbi irripar egin
edo *San Miguel* bat edan
ez haiek "Aupa Sustrai!" esan ta
hala besarkada eman.

Baina heriotza ez da lehenean
botatzen dugun aingura
nahiz ta batzutan ez den asmatzen
nora jo nola ingura.
Kepa jeiki da ta isiltasuna
muxu batean urtu da
Eneko berriz han ikusten dut
begira bere barrura
bizitzak berdin segitzen baitu
lehengo kezka ta ardura
mina neurea ez da bakarrik
eta denona da muga
baina dolua erakusten du
bakoitzak bere modura.

A. Arzallus
Gaia: Atetik sartu zarenean, isildu egin dira denak.

Neurria: Hamalauko txikia
Doinua: *Hogeigarren urtera*

Atzo gauez Parisen
kriston atakea
ta pantailaz josi da
eskaparatea
edonoren begiek
dakarten tankea
ni bezalakoentzat
pentsa ze kaltea!
Susmagarri izateko
kalamitatea
gaur ere pasa arren
etxeko atea
susmagarri izateko
kalamitatea
itxuraz nahikoa da
moro izatea.

Nolako tentsioa
gure etxebizitzan!
Badakite zein pobre
ta justu gabiltzan
amaren begi hoiek
inork xuka ditzan
aitarenak berdintsu
zerbaiten peskizan
poliziak baletoz
maiz ohi duten gisan
babestu nazazue
sotoko gerizan
poliziak baletoz
maiz ohi duten gisan
esan zaiezue ni
ez naizela izan.

Norbaitek jasoko du
guzti honen ordaina
etxe askotan dabil
zakurren usaina
ta kondena gogor bat
gero alajaina
azkartu zait bihotza
ta puztu zait zaina.
Erruduna nunbaiten
hor dago bai baina
ez dakit nun gorde den
zein duen tamaina
erruduna hor dago
bai gorde da baina
neri korapilatzen
hasi zait mingaina.

A. Mendiluze

Gaia: Atetik sartu zarenean, isildu egin dira denak.

Neurria: Hamaikakoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz.
Doinua: *Hogeita laua Gabon gaua da*

Hogeita laua Gabon gaua da
hala izaten da urtero
zazpi urtetan ez naiz etorri
egina egina bego! (bis)
Aurten ausartu naiz edo
sabela urduri, bero
ta etxean sartu ta gero
anai-arrebak denak isilik
bertan agertu ezkero
konbidapena egin bai baina
ez ninduzuen espero. (bis)

Zazpi urtetan etorri gabe
ez da alperrik igaro
beste behin ere bistan dago bai
ez ninduzuen itxaro. (bis)
Haserretuta lehenago
urrundu nintzen zeharo
ez itzultzeko gehiago
gero errudun sentitzeraino
sentitu ez banintz nahiago
“Nork du errua?” zertan galdetu?
Zuen begietan dago. (bis)

Ez det atea giltzaz ireki
joan naiz atea jotzera
banuen baina ez naiz ausartu
giltza hau erabiltzera. (bis)
Behin sartuko eta zera
hau da gauaren hasera
amaia ere hauxe da:
ez, ez kezkatu segi hizketan
ez bainator geratzera
amari muxu emango diot
eta banoa etxera. (bis)


metro bilbao

BUKAERAKO AGURRA

U. Agirre

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Sortu naiz iparrean II*

Zaharrena ta berria
ni naiz artaldian
hori ez zan pasako
joan dan aspaldian.
On egin eta buelta
lau t'erdik aldian
gosetu gera eta
goazen uraldian
on egin eta buelta
lau t'erdik aldian
BEC lehertu behar degu
gaur arratsaldian.



ARRATSALDEKO SAIOA

HASIERAKO AGURRAK

M. Lujanbio

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Sagutxo batzuekin*

On egin danoi eta
jar zaitezte lasai
gu asko irensteko
ez gera izan gai.
Lehen ondo zeundeten ta
orain hobeto nahi
gure errimategiak
uki gabe darrai
beraz arratsaldean
erkin eta jarrai!

A. Arzallus

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Aita asmo hartu det*

Jan ditut langosta ta
bi kilo lanperna
gero bisigu pixka't
txuleta hurrena
edan Errioxako
ardorik zaharrena.
Pena! Ez nuen hori
bazkari ordena
baina igual hori da
orain datorrena. (bis)

B. Gaztelumendi

Neurria: Zazpi puntuko berezia
Doinua: *Nagusi jauna hauxe da lana A*

Unaik bota du gaztearena
eta bapatean hustu da dena
eta orain bazkaldu ta gero
zintzurra fresko gorputza bero
goizean tira!
Ni ez naiz espabilatzen di-da
onenak orain juango dira.

A. Sarriegi

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 7 puntuz
Doinua: *Aurten mudantza berria*

Gutxi jan eta edanda
pasatu goizeko langa
ta orain bigarren txanda
BECen presio gehiago sartzen
momentu honetan lan da
gure onenak emanda
metxa piztu eta danba!
Egin dezala eztanda! (bis)

U. Agirre

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Aita asmo hartu det*

Irailetikan gabiltz
bertso usainian
odolan partez dauzkat
errimak zainian.
Goizez bota ditugu
etorri ainian
hemen gatoz berriro
hortzak mingainian
azken txanpa ematera
olatu gainian. (bis)

S. Colina

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz
Doinua: *Betroiarena A*

Oraindik al zaudete
emozio eske?
Hesteak urdail eta
urdailak heste
nahiz ta gero geratu
ez su eta ez ke
orain igoko nuke
baita Everest'e!
Zahar, heldu, gazte
gizon ta emazte
zein ez bat ez beste
zatozte, zatozte!
Ta azken trakarako
presta zaitezte. (bis)

I. Elortza

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Hara non dauden*

Aupa, berriz BEC nola
ipintzen ari den
halako giroari
hobe da egin men.
Aupa, Unai, Jon, Abarkas
Beñat, Manu, Miren!
Ea hiru hilabete
eta aste biren
olatuak lehertuta
apar eiten diren!

A. Mendiluze

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 7 puntuz
Doinua: *Ai hori begi ederra A*

Ekiogun kantuari
Unairen olatuari
eman bidea urari.
Nahiz eta egon presio handia
eta baldintza ugari
nik jolasa det gurari
zor diogu munduari
eta geure buruari.

SEI PUNTUKO MOTZA

Igor Elortza - Beñat Gaztelumendi

Gaia: Medikuntza ikasten ari zarete biok. Jakin berri duzue zuen irakasle bat medikuntzarako inhabilitatu dutela eutanasia aplikatzea leporatuta. Igor, haren aldeko sinadurak biltzea proposatu dizu Beñatek.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Aresoarren bandera*

I. Elortza:
Badu mediku nibela
ta kanporatu horrela
eutanasiak neuri ere pixka't
nahastu sabela.
Ekarri duzu papela
haren laguntza bezela
uste al duzu zerbaiterako
balio duela? (bis)

B. Gaztelumendi:
Ikaskide ilustrea
ikasgaiari lustrea
elkartasuna zuretzat al da
gutxi ikustea?
Ez al da etika haustea?
Hori da nere ustea:
ezin bizirik dagoenari
hiltzen ez uztea. (bis)

B. Gaztelumendi:
Medikuaren nibela
ez nuen uste nik bela
irakaslea auziperatu
egingo zutela.
Nahiz ta zerorrek bezela
jakin askorik ez dela
gutxienean jakin dezala
berekin gaudela. (bis)

I. Elortza:
Sufrimentu ta hasperen
hori zilegi ote den
edo hobe den behingoagatik
hartuta atseden
baina sinadurek hemen
ez dute hainbeste helmen
nik berarekin hitz egin nahi dut
ezer baino lehen. (bis)

I. Elortza:
Babesa duela gugan
gaur halako tesituran
ni sendatzeko hasi naiz hemen
orain nago dudan
zegoena heriotz mugan
eroan du abiaduran
ta ez dakit ziur nik ze ikasgai
atera behar dudan. (bis)

B. Gaztelumendi:
Berak ere hala nahi du
zauria ez baita orbaindu
egin dioten kaltea diruz
ezin da ordaindu.
Hasiko gara orain gu
gaixoak zaindu ta zaindu
mundu gaixo hau sendatzen gehio
kosta behar zaigu. (bis)


www.bertsozale.eus
www.bertsoa.eus

A. Sarriegi – S. Colina

Gaia: Nazioartean kontratu garrantzitsuak lortu izan dituen euskal enpresa bateko komertzialak zarete. Negozio ekimen bakoitzean milioi asko jarri ohi dituzue jokoan. Aitor, Sustraik esan dizu ezin duela erantzukizuna gehiago jasan.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Dozena bat bertso berri A*

A. Sarriegi:
Ai, aitzakiak aitzaki
zure hutsen adabaki
ez dakizula zure burua
nun, nola ebaki?
Hartu zenbait erabaki
hobe izan honen zati
lana ekartzen diogulako
herri oso bati. (bis)

A. Sarriegi:
Presio latza zainean
lehenean ta orainean
kontratu asko sinatu ditut
ahal dudan heinean.
Ez fijatu orbainean
estres horren ordainean
guri esker doa ekonomia
gurpilen gainean. (bis)

S. Colina:
Mundu hontan lau ertzeko
sentitzen gara etxeko
trenak saltzen gu gabiltzalako
espabilatzeko.
Ni ez nago prest CAFeko
zamak niregan hartzeko
ta gutxi falta da nere trena
deskarrilatzeko. (bis)

S. Colina:
Krisi internazionala
gugana iritsi ahala
sentitu ginen bikote haundi
eder ta mundiala.
Hago[2] ahituta bezala
beti petxuan puñala
ta iruditzen zait hurrengo trena
ni gabe doala. (bis)

2 "Hago" esan zuen, pentsa daiteke "Nago" esan nahi zuela.

A. Sarriegi:
Ulertzen dut zuk esana
baina hori ez da dana
ez zazu ahaztu guk nola josi
dugun iragana.
Izan arren nahiko zama
heltzeko herriarengana
norbaitek egin behar du beti
sukaldeko lana. (bis)

S. Colina:
Beti jartzear brotxea
urrean ez bada brontzea
ta azkenerako asko estutu
zaigunez korsea
sukaldarien posea
dugunez holakoxea
ez ahaztu gaurko ogia dela
biharko gosea. (bis)

M. Lujanbio – A. Arzallus:

Gaia: Santurtziko portuko zamaketariak zarete. Armaz betetako kontainerrak kargatu behar dituzue atzerrira doan itsasontzi batean. Maialen, uko egitea proposatu dizu Ametsek.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Aresoarren bandera*

M. Lujanbio:
Ai, gerraren gerizpea
ze bizileku tristea!
Hala're zaila dugu gu biok
hori eraistea
txarra dela sinistea
eta liskarra piztea
baino hobea ez ote dugu
begiak ixtea? (bis)

A. Arzallus:
Barku horretan sartzean
ta gero bidaiatzean
deskargatuko dira Riaden
nahiz Qatar ertzean
ta gero noraezean
agian geure etxean
ez dezagula eskurik jaso
Parisen lehertzean! (bis)

M. Lujanbio:
Nahiz gu gera arazi nahi
inkoherentziak hor darrai
eta Parisen gertatzen bada
gu ez gaude lasai
Siria, Arabia, ai!
Han kargamentu honen zai
nik han gerrarik ez dut nahi baina
etxean jana bai. (bis)

A. Arzallus:
Gerra eta gerraondo
itsaso ta itsas hondo
nik gaurko lana ukatzen dut ta
egingo dut tongo
gero Dáesheko frango
hemen baitira izango
eta zuk hil ta gero ez duzu
zer janik emango. (bis)

M. Lujanbio:
Dáesh hainbeste urteko
kontu gordin entzuteko
hori gugana helduko danik
ez dezu usteko?
Ni kapaza naiz eusteko
ta lanari ez uzteko
horma eraikitzen ari dira ta
hau ez ikusteko. (bis)

A. Arzallus:
Ta hola goaz itsutzen
nahiz tantak diren isurtzen
ta nahiz zaila den gure mundua
bi hitzez laburtzen
han zernahi dugu lapurtzen
ta armaz ditugu egurtzen
biktimarena eginez gabiltz
piztia laguntzen. (bis)

U. Agirre – A. Mendiluze

Gaia: Lagunak zarete. Ez zaizue gustatzen zuen kuadrillako bati bikotekideak nola hitz egiten dion. Unai, Aitorrek esan dizu zuen lagunarekin hitz egin behar zenuketela.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Aresoarren bandera*

U. Agirre:
Hau ez da gauza normala!
Horrena ez da kabala!
Bikote tonto horrek darabil
edozer bezala
kalean badabil hala
neurriak hartu ditzala
ta ez dakigun zerbait badago
salatu dezala! (bis)

U. Agirre:
Bikotean propaganda
tokatu zaiona ganga
gauzak garbiro azaldu behar
egia esanda
nola lagunak geran ba
joan ta esan daiogun, danba!
Bioi ez digu kaso egingo
bakarrikan joanda. (bis)

A. Mendiluze:
Entzun bertatik bertara
ta sortzen zait hotzikara
bikote baten hitz egiteko
era hau al da ba?
Dena araua ta traba
Miren bere oinetara
bai maitasuna itsua omen da
itsuegia da. (bis)

A. Mendiluze:
Ia ari naiz zapuzten
ezinegon bat gorpuzten
bola bat dabil nere barruan
puzten eta puzten
ai, zer esango nituzkeen!
Asko kostatzen zait eusten
baina zer egin berak ez badu
berdina ikusten? (bis)

U. Agirre:
Badaukat kezka ugari
egurra bota suari
odola daukat borborka eta
ez al da nabari?
Miren ez badago adi
hizketan zergatik ari?
Agian zerbait esan behar zaio
bere mutilari. (bis)

A. Mendiluze:
Bera zeru, Miren zoru
gero ze hizketa modu
kale edo bale egigun zerbait
ez galdu bi ordu.
Banaka ez gera joango gu
biok esango diogu
ta erabaki behar duenak
erabakiko du. (bis)

PUNTUKA

B. Gaztelumendi – A. Sarriegi

Gaia: Bigarren eskuko gauzen enkante batean egin duzue topo. Eskaintzak hastera doaz.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Mendiko umea naiz*

B. Gaztelumendi: Enkantera etorrita
hau da gauza pila!
A. Sarriegi: Eta ez dakit ziur
zer gauzaren bila
B. Gaztelumendi: nik propio nahi nuke
neretzat mobila
A. Sarriegi: ba ni hori erostetik
libratu nadila!

A. Sarriegi: Artelanen bat nahi det
nere salarako
B. Gaztelumendi: hortarako gehiago
pagatu beharko
A. Sarriegi: txapelketako hura
zatarra zalako
B. Gaztelumendi: nere gelan badaude
horrelako pranko.

B. Gaztelumendi: Baina gaurko artea
ez det entenditzen
A. Sarriegi: ni ere lehen antzera
ibili ohi nintzen
B. Gaztelumendi: besteen begiradek
gaituzte ta mintzen
A. Sarriegi: gauzak merke daudenik
ez zait iruditzen.

A. Sarriegi: Niki hori ere al da
hemen erosia?
B. Gaztelumendi: Honekin bete det nik
aurtengo dosia
A. Sarriegi: estragoak egiten
ari da krisia
B. Gaztelumendi: aurreztea, horixe
da nere bizia!

B. Gaztelumendi: Azkenaldian ez det
soldata altua
A. Sarriegi: ta horregatik egin
behar hemen tratua
B. Gaztelumendi: denok behar baitegu
gaur zer aldatua
A. Sarriegi biok gaudela hemen
hori da datua.

A. Sarriegi Bilatu nahiko nuke
bizitzako ganga
B. Gaztelumendi: hori zaila daukazu
egia esanda
A. Sarriegi : merkea eta ona
beti hala izan da
B. Gaztelumendi: Lourdesen egin behar
zenuke demanda.

B. Gaztelumendi: Mirariak han soilik gertatzen dira ta
A. Sarriegi: baina halere zerbait beti zaigu falta
B. Gaztelumendi: lanpara harengatik hasi naiz tiraka
A. Sarriegi: ta horkoak txapelaren itxura ez al dauka?
A. Sarriegi: Zeinek ekarri du ba txapel beltza hona?
B. Gaztelumendi: Ganga hori ziur dala merkea ta ona.
A. Sarriegi: Hona ekarri beharra ez da gero broma
B. Gaztelumendi: hobe litzake izango bagenu biona.

S. Colina - I. Elortza

Gaia: Bikote hasiberria zarete Sustrai eta Igor. Jatetxe batera joan zarete, erdi ezkutuan, inork ikus ez zaitzaten. Ezaguna besterik ez dago.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Ezagutu zuenak*

S. Colina: Jo, hoiek dira zure
aita eta ama!
I. Elortza: Bisigua irensten
badaukat bai lana!
S. Colina: Ta haiekin dagona
ez al da amama?
I. Elortza: Laister telebistan da
gure harremana.

I. Elortza: Ta hiru bikote ohi
ere badauzkat hor
S. Colina: hain ligoia zinenik
ez nekien Igor!
I. Elortza: Uste al zendun ez zela
zure aurretik inor?
S. Colina: Lasai *ex*-en kuadrilla
oraintxe baitator.

S. Colina: Eta agian dauzkat
zuk baino gehiago
I. Elortza: zu jeloskor zaude ta
ni zalantzan nago.
S. Colina: Orduan ardoari
hobe eman bi trago
I. Elortza: eta ateratzea
beste hiru ardo.

I. Elortza: Kontxo, zerbitzaria
hau ere nire *ex*a!
S. Colina: Horrexegatik dauka
zerbitzeko presa
I. Elortza: oraindik izango da
hamaika sorpresa!
S. Colina: Hortatik libratzea
ez dago erreza.

S. Colina: Jo, ta nere kuadrilla sartu da atetik!
I. Elortza: Zeuk esango zenien harrotzeagatik
S. Colina: zuk erakutsi nahia neukala badakit
I. Elortza: sorpresa hartuko dute bai gaurkoagatik.

I. Elortza: Hainbeste ezagunekin nago urduritzen
S. Colina: baina segitzen duzu mundua txunditzen
I. Elortza: beste zereko zera hasi zait larritzen
S. Colina: gaur egingo dugunik ez zait iruditzen.

S. Colina: Agian kumunera joan behar genuke
I. Elortza: jontxo, hori esateko zai kasik bi urte!
S. Colina: Han norbait zai dugula badakizu zuk´e
I. Elortza: ea berotzen garen larrialdion truke.

I. Elortza: Ta barruan geratu atea itxita
S. Colina: gauza onik ez baita hona iritsita
I. Elortza: bihar kontatzeko ere da kontu polita
S. Colina: hurrengoan etxean jar dezagun zita!

A. Mendiluze - M. Lujanbio

Gaia: Segurtasun lanetarako kontratatu zaituztete. Herriko plazan jarri duten jaiotza erraldoia zaindu behar duzue gauez.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Maritxu nora zoaz I*

A. Mendiluze: Maialen hau lana da
edo ez da lana?
M. Lujanbio: Jaiotza bat zaintzea
ze-nolako plana!
A. Mendiluze: Ordu luzea bertan
beraz iragana
M. Lujanbio: Jesusek bi mila urte
holaxe darama.

M. Lujanbio: Ta hori honezkero
ez da mugituko
A. Mendiluze: utzita ere ez du
inork lapurtuko
M. Lujanbio: astoa eta behia
biziak gertuko
A. Mendiluze: zenbait lan nik ez ditut
inoiz ulertuko.

A. Mendiluze: Zeinek ikusten du ba
honen arriskua?
M. Lujanbio: Gabonetan jaiotzan
argia piztua
A. Mendiluze: zertan deitu gaituzten
ezin sinistua
M. Lujanbio: San Jose ere dago
dena berriztua.

M. Lujanbio: Gaur arte argitara
ez zuten atera
A. Mendiluze: gaur atera dute ba
idiaz batera
M. Lujanbio: Espiritu Santuaz
lotsatua bera
A. Mendiluze: hori dator milagro
batzuk egitera.

A. Mendiluze: Eta San Josek gaizki begiratzen dio
M. Lujanbio: amantetzat besteek ez dute balio
A. Mendiluze: ume hori jaio zen hau dela medio
M. Lujanbio: Ama Birjina isilik ze erremedio!

M. Lujanbio: Hori lehen hala zen ta orain ere hala
A. Mendiluze: uste al dezu benetan hau birjina dala?
M. Lujanbio: Sexu harremana izan zen espirituala
A. Mendiluze: horren santua bada aitortu dezala!

A. Mendiluze: Horrelaxe ikasi genuen dotrina
M. Lujanbio: ahaztu ere halaxe ein zaigu jakina
A. Mendiluze: onartu behar omen da aurretik egina
M. Lujanbio: erne! Mugitzen ari da Ama Birjina!

M. Lujanbio: Ta bera mugitu ta gu guazen hemendik!
A. Mendiluze: Baina beste lau ordu dauzkagu oraindik
M. Lujanbio: ta beste ixkinatik ardiak irten dit
A. Mendiluze: gu inork ikusteko zai gaudela lehendik.

A. Arzallus – U. Agirre

Gaia: Telebistako makilatzaileak zarete. Gaur ere lan eta lan ari zarete.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Mendiko umea naiz*

A. Arzallus: Hauxe da lan polita
eta aproposa
U. Agirre: pintura ederrekin
behar degu goza
A. Arzallus: berriz ere hor dator
Joxean Tolosa
U. Agirre: ezin jarriko diyot
lazo bat arrosa!

U. Agirre: Arpegi haundiya du
krema bota lasai
A. Arzallus: ta Euzkitze berriz
ate ondoan zai
U. Agirre: horrek ere nahiko du
potinge pixka't, ai!
A. Arzallus: Hoiek egun bat lana
eta sei egun jai!

A. Arzallus: Gero bertsolariak
datoz atzetikan
U. Agirre: hoiei zerbait ematen
saia gogotikan!
A. Arzallus: Egañak brilloa du
begi gainetikan
U. Agirre: gaizki emanda ere
ez dit inportikan.

U. Agirre: Brillodunak badaude
askosaz gehiago
A. Arzallus: egia da badira
hemen zenbait *kalbo*
U. Agirre: bat Mendiluze eta
Amets hortxe dago
A. Arzallus: ba hori apaintzeko
desiatzen nago.

A. Arzallus: Zeren azala dauka
oso xuabea
U. Agirre: sekula kremarikan
probatu gabea
A. Arzallus: apaintzeko hori da
kalamidadea
U. Agirre: bizar hori moztea
ez al du hobea?

U. Agirre: Unai Agirre dator
mutil borobila
A. Arzallus: sagardotegi baten
jaio zan mutila
U. Agirre: ezin politu eta
milagruan bila
A. Arzallus: sartu den bezelaxe
atera dadila!

A. Arzallus: Eta orain Maialen
dator alegia
U. Agirre: honena zaila degu
hori da egia
A. Arzallus: nola konpondu honen
mar-mar aurpegia?
U. Agirre: Kopeta zimurra ta
beltza du begia.

U. Agirre: Seriyo xamar dago
aulkitik begira
A. Arzallus: horrek ilunduta ere
badauka distira!
U. Agirre: Amets saia gaiten
buelta eta jira
A. Arzallus: bai zeren ta bertso bat
pentsatzen ari da.

Bizkaia

BAKARKA GAIA EMANDA

M. Lujanbio

Gaia: Ama izan zara. Denek diote pozik egon behar zenukeela, baina ez zara hala sentitzen.

Neurria: Hamalauko handia
Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*

Gizartearen joera batek
ote nindun hona bultza?
Nere bizitzan egiteraino
horrenbesteko doikuntza
ama bakarra izan nahi nuen
eta jaso dut laguntza
tratamentutan nekea eta
osasuna ta dirutza
ta azkenean zabaldu da ba
nire ametsaren kutxa:
ume txiki bat bilakatu dut
nere bizitzaren funtsa
lehen ezaren hutsa nuen ta
gaur izan ondoko hutsa. (bis)

Hain pozgarria behar zuena
izan zitekeenik hitsa
bera negarrez, bera oihuka
berak ezpainetan bitsa
eta nik nola ondo ez dakidan
nola den ama langintza
umearekin nabil nolabait
ezin aurkiturik giltza.
Nere lagunek ta medikuek
ai ze aholkularitza!
Ia lau urte eta erditan
tratamentuan gabiltza
nik ez dakit ze puntutara arte
behartu behar den bizitza. (bis)

Ez dut esango ume txikiak
egiterik enbarazu
baina batzutan erotzen nau bai
negar egiten du gartsu.
Nola liteke izan hain txiki
hain haundi ta hain ahaltsu?
Egunen baten haziko zara
ta egingo didazu kasu
triste ta pozik, pozik ta triste
mila sentipen jo ta su...
Xiringa baten genea baina
nere aurpegia daukazu
ta luze gabe adiskide izan
beharko gara ni ta zu. (bis)

A. Arzallus

Gaia: Hamar urteko haur bat duzu harreran. Gaur du asteroko bisita familia biologikoarekin. Noiz itzuliko zain zaude.

Neurria: Hamabiko handia
Doinua: *Oso polita zara izatez*

Laguntza behar duen haur tropa
hain da luze ta zabala!
Jakin nuen ta nere eskua
luzatu nun berehala.
Laguntzaile huts nahiz eta naizen
ta ideia razionala
ezin dudala berekin sortu
harreman bat pasionala
ja nahiz ta ia egin ditudan
mamia eta azala
ez dut nahi baina senti nezake
nerea balitz bezala. (bis)

Arratsalde bat pasatuko da
ta ikusiko ditut beltzak
muxu eman nahi irri egin nahi
ta sentitu nahi neretzat
bospasei ordu joango zaizkit
gorputzeko hutsunetzat
gauza hauek sortu ditzakeelako
norberaren haurrik ezak
ta pentsa horko orduek neri
hala igurtzirik ertzak
ez dut jakin nahi ze izango den
bere guraso batentzat! (bis)

Bere guraso gizagaixoek
ze sufrimen ta kaltea!
Itxuraz hezi ezin zutenez
eten zieten katea
ta horregatik egokitu zen
haurra neri ematea
baina egun baten itzuliko da
zabalduko dut atea
ta urtetarako izan liteke
gaur bost ordu den tartea.
Zaila zait baina desio dizut
zoriontsu izatea. (bis)



B. Gaztelumendi

Gaia: Lanpostu berrian hasi zarenetik, etxera iristen zarenean, familia osoa lo egoten da.

Neurria: Hamaseiko handia
Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

Mundu honetan egongo dira
hamaika ni bezalako
ostalaritzan lan egiten dut
eta ez nabil galako
bai jateko ta bai edateko
dena ipintzen det bapo
alkandora beltz bat ipinita
lanera joaten naiz guapo.
Semeak hiru urtetxo ditu
ta barruan kezka franko
ta bikoteak ere tarteka
ze duda eta ze malko...
Haiek etxean dabiltzanean
ni nabil etxetik kanpo
ta haiek etxetik joaten dira
esnatzen naizenerako.

Nik lan honetan urtebete bat
egin det dagoeneko
eguerdiz irten ohi naiz etxetik
ustez umore oneko.
Orain bueltatu ta goizaldeko
ordu biak emateko
hilabetean mila ta berrehun
euro umore tristeko.
Semeak badu gogo pixka bat
bizikletan ibiltzeko
badu gogoa etxekoekin
tertulian aritzeko
bere irriak bateko eta
bere negarrak besteko
nik zenbat gauza galtzen ditudan
soldata irabazteko!

Eta ohera sartu naiz bueltan
sartzeko zenbat apuru
hanka punttetan atetik hona
hamabost pauso inguru
gure logela bere armairu
ispilu eta liburu
nik bikotea iratzarri ta
jarri gera buruz buru
nik esan diot nahiz ta soldata
lortzea izan helburu
elkar ikusi ezin badugu
ze kristotan dihardugu?
Lana utziko det etorkizuna
nahiz ez ikusi seguru
guk daukaguna galdu aurretik
zerbait asmatuko dugu.

A. Sarriegi

Gaia: Urteetan egin duzu lana adineko pertsonak zaintzen. Geroz eta hurbilago ikusten duzu zeuk zaintza beharko duzun unea.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *ETAren su-etenetik*

Urtetan adinekoei
horrenbeste errespeto
lagunduaz jeikitzeko
edo argia pizteko
gauzak betetzeko edo
betebeharrak husteko
ez neuzkan alde batera
besterik gabe uzteko
eta hel zekidakeenik
nahiz ta ez nuen usteko
nahiz eta gutxi falta den
nere zikloa ixteko
ez dakit ba prest nagoen
horretara iristeko. (bis)

Orain arte bai sasoia
orain arte indarrean
adinekoak bakarrik
neuzkala nere aurrean
baina begiak ipini
ditut nik lehen txarrean
bizitza bizi liteke
gaztean eta zaharrean
denok gabiltza kulunkan
bizitzaren dantzarrean
baina badaukat beldur bat
nago esan beharrean:
ez dut bakarrik egon nahi
bizitzaren hondarrean. (bis)

Soiltzen ari zait burua
eta zimurtzen azala
beraiek dakuskit nigan
hemen ohean natzala.
Bizitza ez da bakarrik
argia eta itzala
ni saiatu naiz izaten
bai zaintzaile zerbitzala
eta azken urteetan
pentsatu nahi dut, oxala!
Nik lehen egin dudan lana
alperrekoa ez zala
eta zaindu nazatela
zaindu ditudan bezala. (bis)

U. Agirre

Gaia: Gerra kazetari baten aita zara. Gaur ere albistegian ikusi duzu hango berri ematen.

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz
Doinua: *Baneza eta banitu*

Barruan ez det indarrik
oihu egiteko garrik
badet buila ta marmarrik
nago nekatu xamarrik.
Semeak lana hautatu zuen
horrek ez du ezer txarrik
nahiz aldatzeko esaten niyon
lau aldiz baino alperrik
telebistaren aurrean nago
ta ez det ikusi beharrik
bonba artean ari da hizketan
peto batekin bakarrik. (bis)

Bera beltz ta ni zurbila
mundua da borobila
arren lasaitu nadila
oraindik ez dago hila
bainan aita naiz ta ez naiz jarriko
mutua edo isila
noizbehinka hartzera ausartzen da ta
hartu behar det mobila
esango diot "Adi zak, Aitor
ni ez niak hire bila!"
baina aita gaizki jarri aurretik
etxera etorri dadila. (bis)

Horko hiriya Alepo:
lau etxe zutik kaleko
hildakuak ere lepo
edozein berri baleko
egunero da nahigaberen bat
munduari esateko.
Semea dago egoskorkeian
nere antzeko da tarteko
hori zergatik egin behar du
bizitzeko ta jateko?
Gogoa daukat abioia hartu
ta bere bila joateko. (bis)

www.bertsozale.eus
www.bertsoa.eus

S. Colina

Gaia: Umetan iseka edo trufa egiten zizuten eskolan. Urteak igaro dira geroztik, eta gaur ikaskide ohien afarira joateko gonbidapena bidali dizute.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Tabuak min direnean*

Nahiz amaigabea izan
duda ta kezken ilada
papera hartu eta bota
ditut ezdeusen pilara.
Ikasle txarra nintzela
joan dira lau hamarkada
ta munduan aldatzea
zilegi da, kamarada!
Nahiz lehen denek parre egin
sartu orduko gelara
ta denek esan "Iñigo
ipurdi gizen bat zara!"
nahiz ta oraindik mintzatzen
naizen makinen gisara
klaseko tontoa zena
orain lehendakaria da.

Erruak ta barkamenak
zenbat daukate kulpatik?
Zahartu ahala bota ditut
konpleju denak popatik.
Iritsi naizen tokira
iritsi naiz horregatik
ta inbiditan daudela
nik ezin hobeto dakit.
Afarian ez zen falta
Mikelik eta Beñatik
ahoa bete diete
ez dakit zenbat aitzakik
bi aldiz lotsatu dira:
behin burla egiteagatik
eta bi bizitzan zehar
bihurtu direnagatik.

Iritsi ta haien artean
nahiz ta sentitu sasiko
gaur inorrek ez dit deitu
tonto edo parasito
neure lekuan jarri naiz
beti bezala klasiko
ta eztabaida luzatu dut
nahiz ta izan hitz gutxiko
seriotasun bat antzeman
diet bazkari guziko
itxuraz aurrerantzean
ez dira lasai biziko
nahiz ta bengantza txiki hau
izan den nere graziko
seguruenik ez nuen
boturik irabaziko.

I. Elortza

Gaia: Lotsa dela eta gauza asko utzi dituzu egin gabe bizitzan. Clown ikastaro batean eman duzu izena.

Neurria: Hamabiko ertaina
Doinua: *Gai horrek badu mamia*

Umetan zein gaztaroan
zer suma ta zer gerta
lanean seriedadea
ta etxean oreka
lagun arteko liskarrik
balitz elkarrizketa
antiojuek ipinia
serio etiketa.
Clown ikastarora egin
gura nuen nik buelta
aspergarria izaten
aspertu nintzen eta! (bis)

Eta ni nintzelakoan
berez, neurez, goibela
sudurtxo bat ipinita
grazioso itzela
bizitza osoak buelta
emango du horrela
ze barru-barruan neukan
pailazoan papela.
Abisatu egingo diet
Igor badatorrela
etxean eta lanean
prepara daitezela! (bis)

Nahiz ta hasieran lotsa
neukan hara joateko
irri-terapi horrekin
gero askoz hobeto
beste hainbat seriorekin
jarririk bekoz beko
kasik barrez lehertu gara
orduan bai ederto
sudur gorri bat ipini
behar izan dut tarteko
sudur puntan jartzen zaidan
guztia egiteko. (bis)

A. Mendiluze

Gaia: Gaztetan ez zenuen ikasteko aukerarik izan. Urteetan aurrera zoaz eta orain ikasten hastea erabaki duzu.

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz
Doinua: *Kas pote batzuk, txarroko ura*

Etxean zuten diru murritza
ojala gehio izan balitza!
Garbitzailetzat hartu langintza
eta geroztik hortan gabiltza
baina damutik eta penatik
besterik ezin naiz mintza
hortik irtengo nintzela noizbait
eman nuen nere hitza
ia berdin zait mekanikoa
edota sukaldaritza
bizitza hontan hastera doa
nere bigarren bizitza. (bis)

Denon bizitza ez baita bera
nik hori lehendik dakit sobera
ze eskasia, ze egoera
orain egingo al du hobera?
Jarraituko det garbitzen baina
liburuekin batera
ahaleginduko naiz ikasten ta
titulo hori atera.
Aurrera noan, animoz nago
indartsu eta topera!
Alperrik galtzen ez det utzi nahi
nere azkeneko aukera. (bis)

Lehen aukerarik ez zen bereizten
eta ez nuen jakin ikasten
ez aritzea norbera hezten
ez dakit sarri kezka hutsa ez den.
Orain denetik entzun dezaket
denetik dabiltz irizten
batzuk animoz eta besteak
alarma gorriak pizten
baina ez du noski inork sinisten
neuk ez badet hau sinisten
eta iristen saiatzen ez dena
ez da inora iristen. (bis)

www.bertsozale.eus
www.bertsoa.eus

BURUZ BURUKOA

ZORTZIKO HANDIA

M. Lujanbio – A. Mendiluze

Gaia: Bake artisauak zarete. Lehengo larunbatean, lanean aritu zineten Parisen. Astebete pasatu da, eta etorkizunari begira jarri zarete.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Oraindik hango oihartzun hots bat / Naiari*

A. Mendiluze:
Oraindik hango oihartzun hots bat
besterik ez det aditzen
herriak zerbait behar zuela
lehengo astean argi zen
eta nahiz eta saiatu geran
gu bide hori argitzen
bidea ez zen Parisen hasi
ta ez da amaitzen Parisen.

M. Lujanbio:
Parisekoa bakarrik baitzen
abiapuntu, pretestu
alderdi danek onartu dute
alderdi danek babestu
baina ez dakit Hegoaldean
dauden hontarako prestu
desarmea eskuz egin genuen
ta bakea eskuz esku.

A. Mendiluze:
Bidea horrek izan behar du
gure aldetik argi da
beste aldearen joera berriz
atera arren argira
berriz baldintzak, berriz legeak
beti ateratzen dira
baina ez gera eurentzat ari
baizik barrura begira.

M. Lujanbio:
Baina barruan ere guztiak
ez dira gure hitzeko
jendea dugu hemen kolore
ta iritzi anitzeko
“ezinezko da” saltzen digute
guk ezer ez ukitzeko
laborariak gai izan gara
bi gobernu mugitzeko.

A. Mendiluze:
Pakea baita gure helburu
eta ahalegina arau
bai gobernu bat ta bai bestea
lehengoak lehengoan dirau
baina jendeak konprenitzeko
momentu polita da hau
gu ez gerala, ilusioak
egiten gaitu artisau.

M. Lujanbio:
Konpon ditzagun lehengo biktima
ta lehengo bonba zartada
ekar ditzagun behingoz presoak
herrira, euren etxeetara
eta goazen bada pakerantz
ortzemuga den hartara
pakea ez da inoiz helduko
pakea joatea da.

euskaltel

ZORTZIKO TXIKIA

M. Lujanbio – A. Mendiluze

Gaia: Zu, Maialen, Aitor sei urteko umearen lagun imajinarioa zara. Gaur esan dizu dagoeneko ez duela zure beharrik.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Maritxu nora zoaz I*

M. Lujanbio:
Adin hontara heldu
ta hau da pikea!
Kostatu zait nor nintzen
ere jakitea!
Uste al dezu zurea
dela agintea?
Orain kostako zaizu
ni desegitea!

M. Lujanbio:
Pixka bat heldu da ta
harrotu da dena!
Erabat juan zaio
umearen sena.
Aizu, helduaroa da
denik ta tristeena!
Gero´re beharko dezu
zuk irudimena.

A. Mendiluze:
Baina ez da alperrik
pasatzen denbora
ia ez zaitut behar ta
ez zaude gustora
sortu zinen begiak
itxi ta gerora
ta berriz zabaltzea
aski izango da.

A. Mendiluze:
Beti babes aurkitu
ohi da lagunean
baina sobran da adin
gehio degunean
ez naiz bakarra izango
zure jardunean
zenbatgarrena nintzen
curriculumean?

M. Lujanbio:
Zu lehenengoa zinen
sinistu benetan
ni fidelena bainaiz
aizu fideletan!
Ez baldin banauzu nahi
zure ondoan, bertan
azalduko natzaizu
amesgaiztoetan.

A. Mendiluze:
Lehenago ere ez zaude
gutxi eraginda
ta aurrerantzean ez
gehio eragin ba!
Agurtu behar zenuke
gauza bat jakinda:
ez da zure erruz baina
bukatu egin da.

M. Lujanbio:
Gero ez zazula ba
malkorikan xuka!
Gero ez zazula izan
lehengoan gomuta!
Pena da bukatzea
eta nola buka
behin horrelako gauza
ederra sortuta!

A. Mendiluze:
Pena dela zenion
penaz al zaude zu?
Aurrera begiratuz
asma dezakezu
denei berdin eskeintzen
baldin badiezu
lasai, beste lagun bat
aurkituko dezu!

KARTZELAKO LANA, HITZA GAITZAT EMANDA

A. Mendiluze
Hitza: Izerdia

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz
Doinua: *Horra sei bertso kale I*

"Izerdia, ze izerdi?"
Askoren galdera
lehenengo begiratu
besape aldera
ni konturatu gabe
umeldu ote da?
Horko batzuenak bai
dexente gainera!
Baina hemen norbera
ta ze egoera
kezka da sobera
ta izerditzen gera
baina denonak ez du
balio bera. (bis)

KARTZELAKO LANA, GAIA EMANDA

A. Mendiluze
Gaia: Bada ordu-erdi auto bera atzetik duzula.

Neurria: Hamaikakoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz
Doinua: *Itsaso hori dago zatarra*

Etxetik ezin lasai atera
ezin lasai joan lagun artera
ez lanera ta ez umeekin
arratsaldean parkera (bis)
beti gertu nor ote da?
Nor da gurekin batera?
Hara berriz auto bera!
Noiznahi gelditu, noiznahi miatu
maleteroa, papera
bat ohitu ere egin daiteke
susmagarri izatera. (bis)

Garai batean ETA zen etsai
orain ordea hortatik lasai
baina besteek jarraitzen dute
erbia noiz altxako zai. (bis)
Lanak lan, garaiak garai
pakeak bidean darrai
ta ez dira ulertzeko gai
herrigintzatik eraikitzeko
ahaleginean nabil bai!
Agian hori da arazoa
ez dute eraikitzerik nahi. (bis)

Zenbat iritzi ta zenbat froga
ta zenbat gezur batzuk ahora
baina aldatzen hasteko unea
ere ez al da izango ba? (bis)
Hara, hona, behera, gora
zer zatoz nere ondora?
Ez galdu zure denbora.
Edo bai galdu zu hor ikusiz
parre egingo det gustora:
ni ez baldin banaiz mugitzen dena
beste norbait izango da. (bis)

KARTZELAKO LANA, HITZA GAITZAT EMANDA

M. Lujanbio
Hitza: Izerdia

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz
Doinua: *Betroiarena A*

Izerdiak lehenago
fama ona zekarren
pixka bat moteldu da
urteetan barren
lehen lana ta izerdia
zen balore aurren
gaur egunera arte
lagunak elkarren
izerdia zer den
zail da esaten zeren
jai eta astelehen
hartuta atseden
besterenetik asko
bizi da hemen. (bis)

KARTZELAKO LANA, GAIA EMANDA

M. Lujanbio
Gaia: Bada ordu-erdi auto bera atzetik duzula.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Norbere mundu intimo*

Esan ziguten hau zala
pagotxaren erresuma
baina gaueko lanean
hemen gabiltza ze suma
negu hotzean jantzi gutxiz
dijoa gure jarduna
lanerako da gaua ta
lanerako da eguna
nolabait salbatzen degu
gure presente zurruna
biharra, etorkizuna
guretzat beti lurruna.
Gizon bat dijoa txofer
nigatik ordaindu duna
ez dakit bera ala ni
hemen nor den erruduna. (bis)

Miribillako rotondan
errekarriz errekarri
bezelaxe egin ditut
mila buelta errukarri.
Geratzen dira kotxeak
ta gu begira elkarri
beraiek "Etorri!" esan
ta guk "Dirua ekarri!".
Nahi bezelako bezero
atseginik ez da sarri
ta askotan gisan orain
autoan estu ta larri.
Ertzain auto bat atzetik
eta sirenak aldarri
baietz bera libre utzi
ta neri isuna jarri! (bis)

Nerbioi ertza, San Frantzisko
Mercedetik ta Somera
hor doa gure ihesa
ta ihesaren errobera.
Nere animoak dabiltz
orain gora, gero behera
nere ezkerreko jaunak
ez dirudi oso onbera
ta ertzainak harrapatzen
ez bagaitu ere zera
pentsa zenbaterakoa
izango dudan plazera!
Horrelakotxea baita
gu prostituton papera
irabazten dugula ere
galtzen ateratzen gera. (bis)

BUKAERAKO AGURRAK:

U. Agirre

Neurria: Hamaikakoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz
Doinua: *Baneza eta banitu*

Etxekoeri laztana
Hernani, Errezili bana
Juanjo Uriari andana
Maialen ta Aitorri dana.
Bertso eskolan behin esan nuen
azken txapelketa zana
baina aintzakotzat ez da hartu behar
beroaldiyan esana.
Beraz entzule beste bat arte
ta arindu deigun zama
zure kulpa da garbi neukana
zalantzan jarri izana. (bis)

B. Gaztelumendi

Neurria: Hamaseiko handia
Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

Izugarria zera Maialen
ni gainditu nau bihotzak
motz egin zaizkit neurri luzeak
eta luze neurri motzak.
Hala´re gora jai herrikoitan
zabiltzaten giza-hontzak
Lekornen jartzen dituzuenak
barrak, karpak eta oholtzak
bertso eskoletan erratzarekin
jan dituzuenak lotsak
gaztetxeetan zabiltzatenak
mundu hau jo gabe ontzat.
Gaurko eguna astinaldi bat
izan dadila denontzat
herri hau beste era batera
eraiki nahi dugunontzat.

A. Sarriegi

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Irun badaukazu zerbait*

Bejondeizula Maialen!
Mototsa berriz haizetan
tokaioa ere firme
ta gainera ze klasetan!
Baina ederra da lasai
esnatzea jai goizetan
ta hau det azken txapelketa
hogeita bi urte luzetan.
Udaberrian eskian
udan nunahiko haitzetan
udazkenean Iratin
neguan elur hezetan
aurkitu ahalko nauzue
maite ditudan gauzetan
eta horien artean
Euskal Herriko plazetan. (bis)

I. Elortza

Neurria: Hamabostekoa, txikiaren moldekoa, 8 puntuz
Doinua: *Agur, nik ere agur*

Agur, nik ere agur
gaur txapelketari!
Zorionak Maialen
handietan handi!
Gorazarre maisuei
kideei, zaleari
amai ta Olatz, Leire
Garazi ta Maddi.
Munduan leku bat nahi
badira ugari
ta nik bertsolari
beti eskertuko diet
gauei ta egunari
euskaldun bizitzea
euskaldun kantari.

A. Arzallus

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Norbere mundu intimo*

Zorionak Maialen maite
lehen ere juxtuna hau zan!
Gaurkoa ta gero horra
nere burmuinak nun dautzan!
Nahiz pixka't indarberritu
naizen eguerdiko pausan
ezin liteke osatu
dozenarik sei arrautzan.
Presoak eta herri honek
ez etzateko harlauzan
nik euskaratik sakondu
nahiko nuke subirautzan
ta Luhusok erakutsi
zuen txikien iraultzan
denek parte hartu behar dugu
bakearen artisautzan. (bis)

S. Colina

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Baserrian jaio nintzan*

Gora ta gora Maialen
bide bat errebeldian!
Zaharretxeko langile
ikasle euskaltegian
Altsasun senide edo
txiolari presondegian
ez zaretenak kabitzen
etiketen, trajedian
ni Urruñan sortu nintzen
Larrungo itsas-hegian
orain Iruñan bizi naiz
oin bat Ezkaba mendian.
Euskal Herria gelditu
ez dadin euskal erdian
bila ditzagun arnas ta
ardatzak periferian.

A. Mendiluze

Neurria: Hamahirukoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz
Doinua: *Bizkorra ez naiz baina badaukat*

Etxekoei ta Jon eta Arkaitz
zuei denen izenean
ta bide hontan zoazten denoi
eskutik aldamenean
bihar-etziko bertsolariei
segi hazten orainean
ta zuri Juanjo zurekin hasi
baitzen hau iraganean
galtza motxak neuzkanean (bis)
bihar goizean esnatu eta
aparra pasa denean
berriz sinisten segi dezagun
eguneroko lanean. (bis)

SARI EMAILEAREN AGURRA*

S. Lizaso

Neurria: Hamabiko handia
Doinua: *Bazkaltzean gogoa neukan*

Lizasotarren zubi izaten
ahalegindu naiz, benetan!
Bi ertzekoak gogoan ditut
momentu eder honetan
bertsolaritza eta magia
gauz bera diren unetan
Maialen zu zinaden gaurkoan
onena bai onenetan
txapelarekin goza ezazu
ondorengo urteetan
txapelak ere gozatu dezan
buru ahaltsu horretan! (bis)

* Sebastian Lizasok jantzi zion txapela irabazleari eta ondoren bertsoa kantatu zuen.

M. Lujanbio

Neurria: Hamalauko handia
Doinua: *Beste bateko inularretan*

Herri hau herri egin al dugu?
Ze eman du bizikidetzak?
Zenbat eman du euskalduntzeak?
Ez behar beste guretzat.
Berrogei urte ta garaia da
egurasteko ametsak
akaso hortan bertsolaritza
ona da adibidetzat:
beti ez du goitik behera egiten
transmisioaren trentzak
guk behetik gora ikasi dugu
ta zabaldu muga ertzak
lehengoekin ta gaurkoengandik
txapel hau gerokoentzat! (bis)

IRITZIAK

Atal honetako artikuluak Mintzola Ahozko Lantegiarekin elkarlanean bideratu ditugu.
Artikuluak txapelketako webgunean (www.bertsozale.eus) argitaratu dira eta bertan daude irakurgai.
Egileen azpian webgunean argitaratu ziren egunak agertzen dira.

DARWIN ETA GU

UXUE ALBERDI ESTIBARIZ
BERTSOLARIA ETA IDAZLEA
2017-09-05

Txapelketa Nagusietan Darwin bertsolaritzaren eboluzioari begira jartzen da eta espezie honen bilakaerak norantz egingo duen aurresaten saiatzen da. Tximeleta beltzak seinalatzen ditu zurien artean eta esaten du: "Hortik, hortik joango da". Denboran lehenagokorik apenas dakidan, baina Darwinek Xabier Amurizarekin paseotxo bat eman omen zuen Donostiako Balda pilotalekuaren ingurumarietan. Biak ala biak dotore jantzita zihoazen; errimaz, bertso-eskola sortu berriez, euskara batuaz eta Proustez aritu ziren sagardoa edaten zuten bitartean. "Bihur bekizkit hesteak harri hori ez bada horrela" erantzun omen zion Etxanokoak Darwinek hautespen naturalaz idatzitakoari.

Bizardunak –Amuriza bizargabea zen 80an– zita jarri omen zuen handik igaro zen zaparro zarauztar batekin handik urte gutxira malekoian osteratxo bat egiteko. Eite intelektualarekin laketu ziren Munoatik Iñurritzara, Charlesek azkure egiten zuen kokotsean Andonik Ducadosak erretzen zituen bitartean. Sarasuarekin hartu omen zuten kafea eta Joxerra Gartziarekin kopa. Xebastianek uko egin zion Darwinekin zitatzeari. Bertsozale Elkartearen funtzioaz, erretorikaz, doinu ar eta emeez eta futbolaz aritu ziren, eta politikaz poxi bat. Gitarra jo zuen Sarasuak. Egañak hondarretan utzitako oinatzak aztertu zituen Darwinek atzekoz aurrera, lagin batzuk gorde, artxibatu. Hondarretan, maskor hautsien artean, zirimolak, ardagaiak eta *leoncastilloak*.

Gazte kuadrilla bat begiz jo zuen Darwinek, punk kontzertu batetik bueltan zetozela zirudien. Kasu egin zioten Andoniri. Patilladunari erreparatu zion, motots horailekoari, ile-kizkurrari, txikiari, flakoari, serioari. Hurrego hitzordua haiei zor ziela ohartarazi zion Egañak. Bilbon egin zuten parranda bat eta Gasteizen beste bat. Arteaz eztabaidatu zuten Someran, bertsolaritzaren funtzio politiko-sozialaz eta rockaz Kutxin, gaztetxean hartu zuten azkena eta okupaturiko etxeko zoruan etzan zenean, auskalo zein sustantziaren eraginpean baina ekibokatzeko beldur handirik gabe, ziur bota omen zuen Charlesek: "Hortik, hortik joango da".

Mihi-gaiztoek diote berandu iritsi zela Darwin Lujanbiorekin Hernanin 2009an jarritako zitara, teoria berri bat gogoetatzen entretenitu omen zen zientzilaria. Barkamena eskatu ondoren elkarrekin abiatu ziren Onddi aldera, bizi-bizi. Gobara erantzi eta garondoko izerdia lehortu zion Maialenek Charlesi. Estiloa edertzeaz eta idortzeaz jardun ziren, deskribapenaz, narrazioaz eta tximeletarena egiteaz galdegin zion Darwinek, baina errekako ur berriari begira gelditu zen Lujanbio: "Nire helburua litzateke esatea. Gure inguruko gauzei buruz hitz egitea. Hutsaren gainean dantzan ez ibiltzea". Isilik egin zuten itzulerakoa.

Hendaiako hondartza. Hankapetik igaro zaio Darwini baloia, zahartuta dago. Intxaurrondo baten itzalera erretiratu dira lasai solastera. Dotore mintzo da Amets, erraz, polit: plazer du Charlesek hari aditzea. Minaz aritu dira, munduarena den gure minaz eta gurea ere baden munduarenaz, mugez, nazioarteko politikaz, *Odolaren mintzoaz*, lanketa ideologikoaz, imitazioaz eta desimitazioaz, norbere haria bilatzeaz. Betaurrekoak erantzi ditu, lurrundu, garbitu, berriro jantzi. "Eta hiri zer irudizen zaik, Charles?"

Tximeleta bat igaro da pinpilin-pausa. Hendaian bizi den idazle batek diosal egin die urrutitik. Txikia da, bizia, badator. Solasean hasi dira, eta idazleak esan die liburuetako pertsonaiei eskatzen dien gauza bera galdatzen diela bertsolariei: sinesgarriak izatea –"bizitzen ari dira, ez gidoi bat jokatzen!"–; adierazkortasuna; esateko zerbait izatea; gogoan geratzea; intentzioa –esatekoa, kontatzekoa, izatekoa, jolastekoa, eragitekoa–; esaten ez dutena, iradokitzea; ikusten ez duguna ikusaraztea, gure baitan oihartzunak sortzea eta... pertsonaiei beraiei buruz gehiago jakiteko gogoz uztea irakurlea, beraz, entzulea. "Gorroto dut bertsolariak ikustea azterketa bateko ariketak ebazten, ariketak ebazten badakitela demostratzen, hori aurresuposatu egiten diet!"

Pentsakor gelditu da Darwin, gazte batzuk ikusi ditu auto baten barruan, zurbila, txikia, luzea, ilehoria, kaskamotz ezpain-gorria... Besoa jasota agurtu ditu Ametsek. "Nora doaz?", galdetu dio Darwinek. "Ez naiz ziur", erantzun du bertsolariak, "baina segiezu, badaezpada".

Eta bitartean, ehunka ale ari dira mugitzen, bizitzen, eragiten, ugaltzen, mutatzen... Bertsolaritzaren eboluzioa definitzen.

KANTUZ SORTUAK

AINHOA AIZPURUA INSAUSTI
IKERTZAILEA
2017-09-21

Begiak ixteko eskatuko nizueke. Baina orduan ezingo zenukete ondorengo lerroetan bildutakoa jaso. Bestela litzateke idatziz beharrean ahoz kontatuko banitu esan beharrekoak. Eta zer esanik ez, kantatuko banitu. Eta bat-batean egingo banu, silabak –eta hitzak?– neurtuz eta errimatuz. Doinu aukeraketak ere eragingo luke, noski, esan nahi nukeen horren transmisioan, eta baita giroak ere. Eta…

Begiak irekita bada ere, gogoan hartutako bat-bateko bertso bat memoriaren zokoren batetik berreskuratzeko eskatu nahiko nizueke:

Nola kantatu zuen bertsoa, kantatu zuen bertsolari hark, testuinguru jakin hartan…?

Kantaera, edo hitzak hotsez nola jantzi

> *"It is not the words or the music; […] it is the way the words are put to the music."*
> (Kontua ez da hitzak ala musika; […] hitzak musikan nola txertatzen diren baizik)
> Patricia Donegan eta David Stampe, 1978

Ez da erraza *kantaera* definitzea. Bide horretan, Itziar Navarrok proposamen aski interesgarria egin zigun abuztuan *Bertsolarien kantaera eta sormena* ikastaroan, ezaugarri konkretuekin osaturiko definizioa aurkeztuta. Ezaugarri horien artean ziren, besteak beste, azentua, intonazioa eta artikulazioa. Musikarenak bezainbeste hizkuntzarenak diren ezaugarriak. Edo "hizkuntzaren musika"-renak (Oñederra 2004: 128) esan beharko ote nuke?

Hizkuntzalaritzaren alorrean *prosodia* izenez ezagutzen dugu "kontsonante eta bokalekin batera ahoskera osatzen duen guztia" (Oñederra 2004: 129). Hizkuntza egoera mentaletik egoera fisikora igarotzean –hitzak hots bilakatzean– gauzatzen ditugun silabak, azentu-ereduak, intonazio-ereduak, *tempo*a, etenak, intentsitate aldaketak…

Gogora ekartzeko eskatu dizuedan bertso horretan, nola ahoskatzen eta multzokatzen ditu bertsolari horrek silabak, hitzak, esaldiak bertsoan zehar? Zer txertatzen du erritmikoki edo melodikoki azentuduna den doinuaren (g)unean? Edo patroi nagusia(k) hautsiz, zer nabarmentzen azentu adierazkorraz iraupen, melodia, intentsitate edo eten bitartez? Nola kudeatzen du *tempo*a? Bertsoa botatzeko aukeratutako doinuak zein konnotazio ematen dio esandakoari? Zein egitura diskurtsoari? Zergatik? Zer transmititzen du? Zer sentiarazten?

Orain arte aztertu ahal izan dudanaren arabera, esan nezake bertsolarien kantaera oso loturik dagoela, hasteko, euskararekin eta adierazkortasunarekin. Kantaera ez da alferrik, nire interpretazio librean behintzat, "(norbaitek) (hitzak) kantatzeko era", "norbaitek (euskarazko) hitzak musikan txertatzeko era". Hitzak musikan. Euskara dantzan.

Kantaerari dagokion azken hitza –edo azken aurrekoa?– bertsolariarena da, edonola ere. Aukeren zurrunbiloan orekan dabil bertsolaria, modu kontziente edo inkontzientean. Une bakoitzean musika jakin batez, ezaugarri jakin batzuez, gauzatzen du esan nahi duen hori. Eta hitzaren esanahi hertsiaz gain, beste gauza asko ere adierazten ditu bertsolariak kantaeraren bitartez.

Zergatik hartu ote zenuten gogoan gogoratzeko eskatu dizuedan bertso hura?

Kantaeraren aldakortasunaz

Hiztun gisa kantaera gure ahozkotasunaren funtsezko osagaia da. Baina denok ez dugu ahots bera, eta ez dugu beti berdin hitz egiten. Bertsolariaren, testuinguruaren arabera kantaera aldatu egiten da. Euskarak, bat-bateko jardunak eta hautatutako doinu eta neurriak baldintzatzen duenaz gain, bertsoa kantatzeko modua ez da berbera bertsolari batetik bestera (nahiz eta askotan antzekotasunak topa ditzakegun, edo joera jakinak), eta bertsolari beraren baitan ere aldakortasuna aurki dezakegu (kasuan kasu, handiagoa edo txikiagoa).

Aukeratu nahi duzuen bertsolaria txapelketan. Eta entzun bere bertsoak zortziko handian, txikian, puntuka eta kartzelakoan. Kontu umoretsu edo serio batez ari denean. Transmititu nahi duena euforia edo larritasuna denean. Festa giroko saio batean eta txapelketako finalaurrekoetan. Beti berberak al dira kantaeraren

ezaugarriak? Bertsolariak beti gauza bera adierazten duela iruditzen al zaigu? Beti berdin bizi al dugu?

Hona hemen kantaeraren eta testuinguruaren arteko lotura. Testuingurua ahal den modurik zabal eta konplexuenean ulertuta. "Begiak irekita *bada ere*" bertsoa gogora ekartzeko eskatu dizuet lehen, baina "*bada ere*" hori beharrean, "begiak irekita" hutsa egokiagoa delakoan nago. Bertsoa begiak ongi irekita entzun beharko genuke. Eta ez begiak bakarrik. Kantaerak testuinguruarekin duen lotura konplexua dela ukaezina da, ez dago lerro zuzen eta aldagaitzik. Zerbait dinamikoa da. Asko dugu oraindik ikertzeko, ulertzeko, bizitzeko. Baina kantaera (ere) bere testuinguruari lotuta ulertzea, bizitzea funtsezkoa dela aldarrikatu nahiko nuke, kantaeraren beraren garrantziarekin batera.

Kantuz sortuak entzunez

Ahotsen aldakortasunarekin jarraituz, aurreko urtean *Europa bat-batean* ekimenaren bueltan eginiko mahai-inguruan Maialen Lujanbiori entzuna da ahots guztiak ez direla berdin entzuten. Eta aurten, *Bertsolarien kantaera eta sormena* ikastaroan esan zuen ahots guztiak apreziatzen jakin beharko genukeela, ez autoritate inpresioa eragiten diguten grabeenak soilik.

Bertsolari bakoitzak du bere ahotsa, gauzak adierazteko kode propioa. Ezin ditugu guztiak bakar baten moldean entzun. Bakoitzaren kantaeraren lengoaia ulertu eta sentitzen ahalegindu behar dugu, bertsoaz gozatuko badugu.

Entzule gisa ere badugu, beraz, zer landua, deseraikia, eraikia, deseraikia, landua…: gauzak nola kantatu bezain garrantzitsua baita nola entzuten ditugun ere.

Kantu-kantari

Esaten dugun hori nola kantatzen eta entzuten dugun inportantea da. Esandakoa hobeto ulertzen lagun lezake zenbaitetan: askotan bertsolariek hitzak multzokatzen dituzte hitz lauz esango genituzkeen moduan. Beste batzuetan, diskurtsoko hitz, ideia, ateraldi bat nabarmen lezakete modu askotara, eta ñabardura askorekin. Era berean, bertsolariaren eta unean-unean irudikatzen ari den pertsonaiaren intentzioa eta jarrera agertu. Emozioak. Baita erregistroa eta tonua ere. Horiek guztiak dira, beste batzuen artean, prosodiaren eremuak. Kantaerarenak. Eta ez dezagun

ahaztu bertsoaren erdigunean komunikazioa dagoela. Asko esan liteke kantaeraren bitartez "bakarrik". Eta testuinguru jakin batean, bat-batean, bertsolari jakin batengan gorpuztutako kantaera, neurtu eta errimatutako hitzekin eta edukiarekin elkarreraginean (erraz esaten da!)… horra bertsoa!

Kantuz sortuak kantua du funtsezko eta ezinbesteko oinarri. Eta kantatuta jasotzen dugu. Kantuz erantzun. Txapelketa hau, beraz, bizi dezagun kantutik eta kantari ere!

Erreferentziak:

Donegan, Patricia eta David Stampe. 1978. "The syllable in phonological and prosodic structure". In *Syllables and Segments* (Symposium on Segment organization and the syllable, Boulder, Colorado, urriak 21-23, 1977), Alan Bell eta John Bybee Hooper (arg). Amsterdam: North-Holland Publishing Company, 25-34.

Lujanbio, Maialen, Miren Amuriza, Rebeca Limón, Karen Owen, Lourdes Yunet Lopez, Maria Isabel Servera eta Ainhoa Agirreazaldegi (moderatzaile). 2016. "Nazioarteko emakume inprobisatzaileak" mahai-ingurua, *Europa bat-batean* (Donostia, 2016-07-13), EHUren Uda Ikastaroak.

Lujanbio, Maialen. 2017. "Zer da doinua, zer da kantaera bertsolariarentzat?", *Bertsolarien kantaera eta sormena* (Donostia, 2017-08-24), EHUren Uda Ikastaroak.

Lujanbio, Maialen, Itziar Navarro, Ainhoa Aizpurua eta Karlos Aizpurua (moderatzaile). 2017. "Bertsolarien kantaera" mahai-ingurua, *Bertsolarien kantaera eta sormena* (Donostia, 2017-08-24), EHUren Uda Ikastaroak.

Navarro, Itziar. 2017. "Bertsolarien kantaeraren bilakaera denboran zehar. Oiartzungo kasua", *Bertsolarien kantaera eta sormena* (Donostia, 2017-08-24), EHUren Uda Ikastaroak.

Oñederra, Miren Lourdes. 2004. "Prosodia", *Fonetika fonologia hitzez hitz*. Bilbo: EHU

L´ESPRIT DE L´ESCALIER

ARANTXA URRETABIZKAIA BEJARANO
IDAZLEA
2017-09-28

Horrela esaten diote frantziarrek sufritzen dudan gaixotasunari. Eskailerako asmamena, aurkikuntza, oholtzatik behera zoazenean bururatzen zaizun erantzun asmotsua, beranduegi denean gogora datorkizun ihardespen zorrotza, behin-betikoa izango litzatekeena. Diderotek niretzat propio duela bi mende eta erdi asmatutako esaera da.

Horregatik ere utzi dut bertsolari izateko ametsa hurrengo berraragitzerako, errimak, doinuak eta gainerakoak ikasi arren bertsolaririk motelena izango nintzakeelako. Bat-batean jarduteko bizkortasuna ez da, ordea, bertsolariengan miresten dudan gaitasun bakarra. Iruditzen zait bertsoaren munduak asko duela irakasteko gizarte osoari, haiengandik asko ikas daitekeela kulturaren beste esparrutan nahiz politikagintzan. Bertsolariengandik, noski, baina baita gai-jartzaile, antolatzaile, ikertzaile eta gainerako eragileengandik. Bertsogintzarengandik oro har.

Irakatsi digute, adibidez, iragana ezinbesteko abiapuntu dela, zer irakatsi ugari duela, baina ez dela helmuga ez bizileku. Ez dela zakarrontzira bota behar, ezta itsuan jarraitu behar ere. Palanka dela, ez berrikuntzen kartzela. Inspirazioa, ez betebeharreko legea. Eredua, ez agindua.

Ez dugu aise topatuko, gizartearen beste edozein ataletan, tradizioaren eta gaurkotasunaren arteko lotura osasuntsuagorik. Ez dago adankeria aztarnarik bertsogintzan, eskoletan hasi eta Txapelketa Nagusian buka, edozein bertsolarik hartzen du tradizioa zimentarritzat, baina ez da hor gelditzen, ez du tradizioa muga gisa hartzen, zubi gisa baizik.

Gizonek osatutako unibertsoan emakumeen jarduna nola uztartu erabakitzerakoan ere, asmatzen ari dira bertsolariak. Are gehiago, hastapenetako harridura, zalantza eta duda-mudek laster bilakatu zuten bidezidorra autopista. Ez dut aitzindari haiek eta ondorengoek egindako lana gutxietsi nahi, ondo asko baitakit zein neketsu eta luzea izan ohi den berdintasunerako bidea, ze garesti ordaindu behar izaten den

borroka hori. Baina miresgarria da bertsolarien eta bertsozaleek esparru honetan egin duten bidea.

Bai, bertsolari askori ihes egiten dio subkontzienteak dotrinaren zirrikituetatik, baina kasu horietan ere asmo zintzo bat antzeman daiteke, berdintasunaren aldeko borondatea. Bertsolaritza tabernetatik oholtzetara pasa zenean bezala, entzuleek ohitu egin behar izan dute itxura desberdinetara, emetasuna lotsarik gabe azaltzen duten emakumeetara, haien ahots finetara. Lujanbiok txapela irabazi zuen hartan ikusi genuen emakumeak ez direla kasualitatea, ezta bizitza laburreko lorea ere. Orduan hasi zen urtzen hainbaten gurasokeria.

Bertsogintzan jarduten duten emakumeak, oholtza gainean zein ezkutuan, ausartu dira, ahalegindu dira eta onartuak izan dira, beste edozein kultur arlotan baino azkarrago eta modu sendoagoan.

Eta hainbeste onuraren artean akatsik ez? Gutxienez kale zehatz bat aipatzen ez duen laudorioa sinesgarri ez delakoan, esango dut gaur egungo bertsogintzan aurkitzen dudan hutsunea mamiari dagokiola, agian ez dudalako nahikoa prestakuntza beste ezertan jarduteko. Iruditzen zait gai-jartzaileak bide bakarra seinalatzen ez duenean ere, gaiak erantzuna zabal uzten duenean ere, bertsolari gehienek bide bera aukeratzen dutela. Entzuten dut gaia edo puntua eta askotan asmatzen dut nondik joko duen bertsolariak.

Badira, noski, ustekabeko bertsoak botatzen dituzten bertsolariak, gizon nahiz emakume, baina sarritan bertsolari guztiek aukeratzen dute bide bera, agian entzuleak hori espero duela pentsatzen dutelako, agian arriskatu nahi ez dutelako. Sormenaren kaltetan, originaltasunaren kaltetan.

Entzulea harritzea, espero ez zuen zerbaiten aurrean jartzea ez da izango, seguru aski, bertsolarien aginduetako bat, baina iruditzen zait aberatsagoa izango litzatekeela ikuskizuna oholtzaren gainekoek zein gaiak jartzen ari direnek arrisku hori hartuko balute.

Orduan bai, orduan bertso saio bat, edozein plazatan nahiz txapelketetan, zeruaren atari litzateke niretzat.

INDAR BAT DABIL

LOREA AGIRRE DORRONSORO
KAZETARIA
2017-10-09

Txapela eta zapia. Orain zortzi urte jokatu zen Euskal Herriko Bertso Finalean, txapela eta zapia adiskidetu egin ziren, Maialen Lujanbiori, adats beltz zapiz bilduaren gainean, txapela jantzi zionean Joxe Agirrek. Elkar hartu zuten, bakea sinatu, armistizioa irudikatu. Gerrarik izan al da bada, galde lezake inork. Gerra zehatzik ez dakit, gerra orokorra bai. Emakumeak eta bertsolaritza, plazan bederen, bortxaz eta debekuz bizkar emanda egonarazi direla azken bost mendeetan gauza jakina da. Gauza jakina da baita ere, emakume bertsolariak ordura arte izan bazirela, bertsotan egitea debekatzen zitzaien 1452ko bi foru-arau direla medio. Paradoxa da gero debekatuak izateagatik bazirela jakitea.

Txapela eta zapiaren arteko *armistizioan* garrantzitsuena iruditeria berri batek gorputz hartu zuela da. Begietan dugun argazki indartsu hori. Eta horren adierazgarri da, final haren ondorengo egunetan esan eta idatzi zen guztiaz gainera, Anerrek –lau urteko mutikoak– eman zuen testigantza, galtzerdia buruan jarrita: "Ama, ama, begira: Maialen bezala. Ni Maialen naiz". Haurrek markatzen digute etorkizuna. Bi gertaerak, bata BEC-en 14.000 lagunen aurrean gertatutakoa, eta bestea, lagunaren sukaldean jazotakoa, lotuta daude. Txapel janzte hark diskurtsoan ate bat ireki zuen, iruditeriaren harresia zulatu, garenaren markoa urratu eta irudi eta praktika berri bat indarrean jarri. Horrela joan ohi dira kulturak, identitateak eta kolektiboak egurasten eta biziberritzen.

Orain, gure iruditerian eta praktikan, aise samar izan zaitezke emakume eta bertsolari. Eta, are bertsolari onena, txapelduna zapidun. Berria bide egiten ari da. Baina zaharra ez da oraindik joan. Geure haurtzaroan, bertsolaria gizona zen, heldua, zuria, heterosexuala, euskalduna. Pieza bateko gizona. Gi-zo-na. Ez genuen besterik irudikatzen ahal. Oraindik ere, hori ere bada bertsolaritza. Euskalduna, euskaldun petoa esan ohi den hori. Zer den peto hori. Hori da kontua. Euskaldun izateko nolakoa izan behar du gizon batek galdera oso zilegi eta beharrezkoa da. Erantzunak asko izango dira, jakina. Baina badira, oinordekotzan jasota, oraindik errepikatzen eta gorpuzten ditugun ereduak. Hona, adibidez, hurbilketa batek

berriki atera duen argazkia: herri txiki euskaldunetan, gizonezkoek euskaldun izatea langile, indartsu, oldarkor, ausart izatearekin lotzen dute, eta, horretaz gainera –eta hau da larria– aldez edo moldez emakumeekiko praktika menperatzaile eta erasokorrak izatearekin nahiz eta eurek hori egiten dutenaren kontzientziarik ez agertu. Bi aldiz pentsatuta ez zaigu oso argazki ezezaguna. Baina bai latza. Oraindik ere, zer-nola hari garen hezten –bereziki mutilak–, zer ari garen erreproduzitzen. Hauxe bera alegia, gizonezko horien euskalduntasunaren eraikuntza maskulinitate maskulinoenetik pasatzen dela gaur egun ere. Inork esan lezake baskotasunaren eraikuntza ere hortik pasatzen dela eta konforme geratu. Ados, horretan ere ez gara oso diferenteak izango. Ziur ez dela euskalduntasunaren *pribilegioa* soilik, baina hori gu gara. Hori gara gu. Eta gu horretan jokatzen da geure komunitatea, eta, geure buruaren inguruan partekatu nahi dugun iruditeria kolektibo hori berdin zalea, irekia, integratzailea eta justua izatea, edo ez izatea.

Euskalduntasunak, identitate gisa, ze ezaugarri dituen bertsolaritzak ere markatzen du. Eta bertsolaritzak ere aldarazten du. Eta badugu horretarako beharra. Euskaldun izateko bestelako ereduak behar ditugu. Bestela ere izan gaitezkeela euskaldun frogatu. Genero indarkeriarik gabe, esate batera. Eta horretan bertsolaritzak bere alea jar lezake. Jarri du, ari da jartzen, emakume bertsolarien eta bertsolari feministen lan eskergari esker bereziki. Emakume izanda eta taulan leku hartuta, emakume ez-feminizatu –menperatu– eta gizon ez-maskulino –menperatzaile– agertuz. Gorputzak, gorpuzkerak, janzkerak, gaitegiak, hiztegiak, hizkerak, pentsaerak, umorea, epailetzak, bertsokerak aldatzen doaz. Eta aldatu egin behar dira, eredu berriak –azal, jatorri, klase, genero, ideologia– taula gainean gero eta gehiago zabaldu eta indartzeko.

Nork nor aldatzen duen. Bertsolaritzaren eta gizartearen arteko harremana dialektikoa da ziurrenik. Baina bertsolaritzan aldatzen, mudatzen, hobetzen den guztiak eragina du euskal deitzen dugun geure mundu horretan. Gizartea eta bertsolaritza ez doaz aparte. Eta aparte ez doazelako da hain garrantzitsua bertsolaritzak kanta, esan eta irudikatu lezakeen guztia geure iruditeria, posible eta haizu denaren neurria, zabaltzen, aldatzen eta berritzen laguntzea. Justuago egiten, berdin zaleago, bizigarriago. Bertsolaritzak bide horretan indar egin dezakeela badakigu, eta egiten duela, indar bat dabilela hor. Eta, baita ere, badakigu ze indar ematen dion bertsolaritzari indar hori egiteak.

UZTIA ETA *EGUZKIA*

EÑAUT AGIRRE GOIA
BERTSOLARIA ETA IKERTZAILEA
2017-10-11

Zenbaitek esan lezake kontradikzioan daudela jardun librea eta txapelketa. Neurri batean, ez du arrazoi faltarik. Argazkirik ederrena aukeratzea bezain zaila baita bertsoa epaitzea. Lagun batek esaten zidan, bertso-txapelketa dela, pilotan, *bi-paretarik* ederrena aukeratzea bezala: azkarra eta azpi-azpitik, Urrutikoetxearena; edo (erremontean bezala) altua eta botea eginda sareetan sartzen dena, Urrizarena? Efektuduna, Barriolaren garai oparoetakoa; edo klasikoa, Altunak berriz modan jarri duena? Eta Retegik Titini egindako hura, lehenengo frontisa joz?

Beti defendatu izan dut bertso-txapelketa, bertsoaren espektakulu ederrenetakoa delako. Bertsozaleak elkartzen gaituelako. Elkarteak irabazten duelako. Bertsolariek euren lan-erremintak zorrotzenean hor jartzen dituztelako. Miresten dut epaileen lan esker txarrekoa; hor ari dira haiek ere itzaleko lanean, erremintak zorrotz-zorrotz eginda. Ez dut gogoan epai-irizpiderik. Nahiago horrela. Hori ere libre xamarra dela pentsatu nahi dut.

Beti izaten dira zuzmurrak hainbat gairen bueltan. Lehengoan bertso-munduko kide batek esan zidan, gure bertso-eskolakoengatik: «Zuek ikusi, baño *uztia* eta *eguzkia* errimatze badittuzue, epailliak zigortu egingo dute». Ez dakit zer erantzun nion; «desastre» iruditzen zitzaidala, edo horrelako zerbait. Gero pentsatu nuen, bertsoa epaitzeko kontua ezin ezberdinago ikusten dugula zenbaitek. Retegiri esatea bezala, Titini egin zion tanto hura gaizki egindakoa zela, *bi-paretekoak* lehenengo ezker-pareta jo behar duelako. Amets Arzallusek, txapelketa batean, kartzelako lanean, bere burua irudikatu zuen potoa egitera zihoan bertsolariaren lekuan. Ixturaren gainean zihoala zirudien, hesolatik hesolara jauzi eginez, beste aldera, potora, noiz eroriko. Zoragarria. Maisu-lana. Bertso hark, nire ustez, 9,5koa merezi zuen; poto egitea falta, 10ekorako. Ez dakit, poto egin izan balu, nola puntuatuko zioten.

Autore batzuk esana daukate *Frantzes euskaldunaren* bertsoetan «errima errazteko hartzen diren libertate» direla honakoak: «aldegin zun emendika» edo «kontzientziyan zorrika». Esan beharrik ez dago, Txirrita jaio zenetik 10 kilometrora horrela hitz

egiten dela oraindik, *-tik* eta *–tikan* bitarteko formulak erabiliz, alegia, *-tika*. Baina egia da ereñotzuarrak nahi duenean *–tikan* esaten duela, nahi duenean *–tika* eta nahi duenean *-tik*. Nahi duenean *jarri* eta nahi duenean *ipiñi*. Gaurkoek ere horixe egiten dute. Nahi dutenean *ote da*, eta nahi dutenean *ote'a*. Nahi dutenean *dakartza* eta nahi dutenean *dakarzki*. Nahi dutenean *darama* eta nahi dutenean *daroa*. Bertsolaria beti ibili da zubi-lanean, hizkera estandar-antzekoaren eta dialektoen artean. Beti zubi-lanean, lehenaren eta orainaren artean. Beti izan da tradizioaren almazen bizi eta gaur egungoaren kronikari zorrotz, aldi berean. Ez da koherentzia falta. Ahozko poesiaren ezaugarri bat da. Bertsoa bertso egiten duena, eder egiten duena.

Umberto Eco-ri irakurri nion: «Erraldoiak baino urrutiago ikusi nahi baduzu, igo zaitez erraldoiaren buru gainera». Goazen ba gu ere, erraldoiaren gainera. Antzinako adibide bat jarri nahi dugu, eta beraz, jo dezagun zaharrenera, antzinakoenera. Homero. Homero da, dudarik gabe, ahozko poeta zaharrena, eta aipatuena, K.a. VIII. mende ingurukoa. Zenbat mila orrialde idatzi ote dira Homeroren lanez! Poeta guztiak txoratuak zituen Homerok, *Odisea* eta *Iliada*, *Odisea* eta *Iliada*! Ulises eta Itakarako bidea... fantasia berdin ezinezkoa. Haren sekretuaren bila ibili ziren, mendeetan. «Deskolokatu» egiten zituen Homerok. Haren poesia hainbat gauzetan inkoherentea zen, ilogikoa. Eta nola zen hori posible? Hitz bat lau modu ezberdinetan esana, aditz bat hiru forma ezberdinetan... justifikatu gabeko errepikapenak, zilarrezko armak eta brontzezko armak nahasian, Agamenonen lurrak omen direnak Tirinto eta Argosenak bezala azaltzea tarte batean... Zenbat inkoherentzia. Filologoak izan ziren gogorrenetakoak. Hizkera hura ez omen, koherentea: «dialektoak nahasian», hitz arkaikoak eta forma berriak testu berean. Azkenerako, Homero bazenik ere zalantzan jarri zuten. Esaten zuten hura zela poeta bat baino gehiagoren lana, garai ezberdinetan idatzia. XX. mendea jo zuen arte, inork ez zuen deskubritu sekretua. Milman Parry izan zen deskubritu zuena. Erantzuna, oso sinplea: Homero ahozko poeta zen, eta hark egiten zituenak ahozko poesiaren beti-betiko ezaugarriak. Ahozko poesia, ordura arte baztertuta zegoena, estimazioa irabazten hasi zen. Europako estrukturalistak isiltzen hasi ziren poliki, poliki, poliki, poliki...

Hara hor, Homero: Antzinako Greziako bertsolaria. Guk ere baditugu Homeroak. Gureak oraintxe ari dira tabladuetan. Nire ustez, bertsoa den jardun libreak, jardun informalak, ez luke formaldu behar; ez nuke nahi. Bertsolaria bertsolari da, eta

hautsi egin izan ditu logika gramatiko, filologiko, historiko, narratibo koherenteak; txorrotx, txuxen, eta ixturaz beteak. Ahozko jardun artistikoak bere logika dauka, «ederraren logika». Zuretzat ederra bada, aurrera! Batzuek horri «bertsoaren logika» esaten diote; Manuel Lekuonak, «logika intimoa».

Aurtengo txapelketan ere, espero dut, ahozko ezaugarri artistikoek, «bertsoaren logika intimoak» izango duela bere lekua. Zergatikan ere, Homero zalantzan jarri izan da mila arrazoi direla medio, baina inoiz, inor ez da ausartu esaten hark egiten duen poesia zoragarria ez denik, berezia ez denik, bakarra ez denik.

FINALAURDENETAKO BERTSOGINTZAZ

XABIER SUKIA ETXEBERRIA
BERTSOLARIA ETA KAZETARIA
2017-10-15

“TOLOSAN BEHAR ZALA GAUZA ERABAKI”
Eta hantxe erabaki dira finalerdietarako postuak. Tolosan.

Txapelketatan koadernoa askotan aipatzen da. Motxila ere esaten zaio. Aldea dago ordea koadernotik koadernora. Bertsotik bertsora. Laritik larira eta keratik kerara. Nolako bertsolaria, halako koadernoa. Badira laukiak eta laukidunak. Badira bi marradunak, hortik irten gabe zuzen aritzeko. Orri zuriak dituztenak ere badira, non hasiko eta non bukatuko duten tankerik hartzen ez zaienak.

Baigorritik Tolosara sei saio jokatu dira. 36 bertsolarik abestu dute. 72 agur eta 540 bertso puntuagarri. Saio denetara koadernoarekin joaterik ez, eta gehienbat Baigorri, Leitza eta Zumaiako zenbait bertso eta bertsoaldi aletu ditzagun jarraian. Bertsogintzan bertsolariek erabiltzen dituzten ohiko zenbait baliabidez jabetzea da idatzi honen helburua. Sortze prozesuan normalean nahita, eta inoiz nahi gabe ere, egiten diren jokaldiak.

AHOTSAREN INDARRA
Transmititzeko tresna nagusia da ahotsa. Hitzei indarra emateko. Bertsolariek kontzienteki menderatzen dute:

- Indarra, tonua, bolumena: Miren Amuriza, Zalla. Kartzela. *Jendea harri eta zur utziko lukeen argazkia atera berri duzu. Zalantzan zaude gorde ala zabaldu.*
Bere buruari argazkia atera zion eskuko telefonoarekin. Doinu berria zekarren, azken aurreko puntuan errepikarekin. Horrek azken puntuari indarra emateko prestatzen du bertsolaria eta entzulea.
“…ta ez dut nahi esan dezaten nintzela andre legala (bis)
baizik oroitu nazaten amona ausart bezala”
https://bertsoa.eus/saioak/2017-10-07-zalla

- Erritmoa, isiluneen kudeaketa: Alaia Martin, Baigorri. Kartzela. *Komisaldegitik deitu dizute agertu dela esanez.*
Alabaren zain dagoen amaren paperean lasai eta gozo abestuz. Eta amaieran ziurtasunez:
"…bortxatuta hil dutela pentsatu izan dut halare
neskok beti beldurrera kondenatuta al gaude?"
https://bertsoa.eus/bertsoak/14649-kartzela-alaia-martin

- Berezko indarra eta presentzia duten ahotsak: Unai Agirre, Agin Laburu, Aimar Karrika, Maddalen Arzallus, Miren Amuriza… audio grabazio uhinetan nabarmen ikusten da, bertso-kideek baino ozenago abesten dute beti.

- Autore sinadura dutenak: Jon Maia, Jon Martin… Betiko doinuak ere desberdin kantatzeko joera dute. Beraien galbahetik pasata. Doinuak ere inprobisatuko balituzte bezala. Oso belarri oneko kantari dotoreak eta finak dira.
https://bertsoa.eus/bertsoak/14679-bukaerako-agurra-jon-martin

TESTUINGURUA
Bertso saio bakoitza oholtzan gertatzen da. Inprobisazioa taula gainean gauzatzen da. Ez da ordea zerotik hasten. Zozketa egiten den egunean ere hasten da zerbait. Aurretik dakizu non kantatuko duzun, norekin eta ze egunetan. Datu horiei esker ere lana egin dezake bertsolariak etxean. Egunean bertako testuingurua errepika ezina izaki horrek eskaintzen dio bertsolariari orijinala izateko aukera. Aurtengo adibide garbi bat: Irailak 30, Segura eta urriak 1, Leitza. Erreferenduma Katalunian.

- Jon Martin, Segura. Agurra. Lluis Llach abeslariaren kantu ezaguna, *Agure zahar batek zion* doinuan. Konektatzeko ahalegina.
"…Zenbakiak, zenbaki
Seikoak bertsotan daki
ta haien bidez nahi genuke nor garen erabaki"
https://bertsoa.eus/bertsoak/14668-hasierako-agurra-jon-martin

- Felix Zubia, Segura. Kartzela. *Prentsaurrekoa ematen ari zara. Galderen tartean, azken galdera bat egin dizute. Erantzun gabe alde egin duzu.* Puigdemont-en larrutik kantatu zuen:

"Carles da nire izena
Puigdemont daukat abizen…
…galdera aditu eta kanpora nijoa zuzen
ezin liteke galdetu kartzelara noiz goazen"
https://bertsoa.eus/bertsoak/14677-kartzela-felix-zubia

- Unai Agirre, Leitza. Agurra. Espainiako poliziaren oldarraldia mundu osoak ikusia zuen arratsalderako. Hasierako agurrean:
"… hau ikusita ez du merezi gu hemen urduritzeak"

- Aimar Karrika, Baigorri. Agurra. Etxamendi eta Larralderen kantu eta doinu ezaguna, "Agur jende maitia" izenekoa. Doinuaren jatorria "Eperra" kantuan dago. Erabilitako hitzak: "Iparla, Iparra, Nafarroa, Xalbador… eta Baigorri"
https://bertsoa.eus/bertsoak/14663-hasierako-agurra-aimar-karrika

DOINUAK BERRI

Bakarkako ariketatan doinu berriak plazaratzeko joera ez da berria, baina areagotzen ari dela dirudi. Orain lau urteko txapelketan Maialen Lujanbiok saio bakarra egin zuen, finalekoa. "Elgeta" trikiti piezan oinarritutako doinua plazaratu zuen. Geroztik ez omen du sekulan doinu hori erabili. Pentsa zenbatek erabili duten lau urteotan. Amets Arzallusek ere plazaratu zuen berea aurreko txapelketan. Final-laurdenotan ere doinuak berri izan dira:

- Aimar Karrika, Baigorri. Agurrean ez ezik kartzelako ariketan ere Etxamendi eta Larralderen beste doinu bat moldatu zuen bertsotarako. "Allenderena" izeneko kantutik dator.
http://www.eitb.tv/eu/irratia/euskadi-irratia/hitza-jolas/5049915/5100349/hitza-jolas-irailak-24-baigorrin-hasi-da-txapelketa-nagusia/

- Oihana Iguaran, Leitza. Ismael Serrano kantariaren "*Papa cuentame otra vez*" kantuan oinarritutako doinua bertso moldera ekarria.
https://bertsoa.eus/bertsoak/14690-kartzela-Oihana-iguaran

- Agin Laburu, Leitza. Imanol Kamio musikariak egindako doinua.
https://bertsoa.eus/bertsoak/14692-kartzela-agin-laburu

- Julio Soto, Leitza. Nerea Urbizu musikariak egindakoa doinua.
https://bertsoa.eus/bertsoak/14691-kartzela-julio-soto

- Iñaki Apalategi, Leitza. Berak sortutako doinua.
https://bertsoa.eus/bertsoak/14697-kartzela-inaki-apalategi

- Miren Amuriza, Zalla. Jorge Negreteren "Mexico lindo y querido" kantu ezaguna bertso moldera ekarria.
https://bertsoa.eus/saioak/2017-10-07-zalla

- Nahikari Gabilondo, Zumaia. Beste kantu baten hasierako entzunda berak sortutako doinua.
https://bertsoa.eus/bertsoak/14736-kartzela-nahikari-gabilondo

Autore bertsolaritzaren isla ote? Bakoitzak bere bidea egin nahia marka sortuz, hitz berriak ez ezik doinu propioak plazaratuz.

Ofizioetako ariketatan ere ahalegin berezia sumatu da doinuen erabilerari dagokionez. Kasu honetan doinu berriak ez baina bertsotan gutxi erabilita daudenak argitara ateratzean dago gakoa. Ausardia behar da. Ofizioa biren arteko kontua da eta arriskua partekatua da. Batek akaso oso ondo menderatu dezake doinu hori baina besteak ez. Gertatzen da bertso eskola bereko kideak izatea eta lehendik ere doinu horretan aritu izana elkarrekin. Leitzakoa aurten San Poto eta San Doinu eguna izan da. Publikoaren belarrientzat zorioneko hiru momentu:

- Unai Agirre eta Iñaki Apalategi, Leitza. Zortziko Handia.
https://bertsoa.eus/bertsoak/14683-zortziko-handia-xx2

- Oihana Bartra eta Unai Agirre, Leitza. Zortziko txikia.
https://bertsoa.eus/bertsoak/14694-zortziko-txikia-oihana-bartra-eta-unai-agirre

- Julio Soto eta Agin Laburu, Leitza. Zortziko Txikia.
https://bertsoa.eus/bertsoak/14684-zortziko-txikia-xx1

BAKARKAKO GAIAK

Gaiak ez dira erabat irekiak izan baina diskurtsoaren premia zuten. Ipuin bat asmatu behar zen. Pertsonaiak zehaztu.

Baigorri, kartzelako gaia: *Komisaldegitik deitu dizute agertu dela esanez.*

Minutu batean hartu beharreko erabakiak: Zergatik deitu didate? Zer agertu da? Zer edo nor galdu da ba?

- Beñat Ugartetxea, Baigorri. Ohikoa duen bere barre eginarazteko estiloan:

"… herrian festa eguna
pozik ni eta laguna
badaezpada poltsikoan gorde
nuen ezkon **eraztuna**"

Beraz bagenekien zer galduko zuen. Eraztuna. Eta hau baino modu politagorik eta ikusgarriagorik hori esateko? Argazki bat da azken puntu hau:

"… eta etxera itzuli nintzen
prakak belarriak bistan"

http://www.eitb.tv/eu/irratia/euskadi-irratia/hitza-jolas/5049915/5100349/hitza-jolas-irailak-24-baigorrin-hasi-da-txapelketa-nagusia/

ERRIMA

Bertsoak ibili behar badu oinak behar ditu. Errima-arrazoi deitzen diegu gaiari oso lotuta dauden oinei. Momentuan sortutakoak dira askotan. Egokitasunak ematen die indarra.

- Beñat Ugartetxea eta Alaia Martin, Baigorri.

Lagunak dira. Bestan dabiltzala, hauen lagun bat borrokan hasi da ondokoekin. Tartean sartuta, borroka baretzea lortu dute. Ez da lagunak horrelako zerbait egiten duen lehen aldia.

Taberna giroko gaia, taberna giroko oinak Alaia Martinek:

"… Laguntasuna ez du ekartzen soilik tabernako **barrak**
batera edan behar ditugu **trago onak eta txarrak**"

http://www.eitb.tv/eu/irratia/euskadi-irratia/hitza-jolas/5049915/5100349/hitza-jolas-irailak-24-baigorrin-hasi-da-txapelketa-nagusia/

Tabernako barratik beste barra batera.
- Aimar Karrika eta Xabi Maia, Baigorri.
Aimar adineko baserritarra da. Xabik ogi banaketan egiten du lan, eta urteak dira egunero pasatzen dela Aimarren baserritik. Gaur, Xabik Aimarri erran dio okindegiak banaketa zerbitzua kenduko duela.
Karrikak gaiari lotuta oin batekin amaituz:
"… Nire bi hankak badira
ia bi ogi **barra**"

Maiak mamiarekin erantzuten dio:
"… nahiz eta azaletik baduen gehiago
negozio honetan **mamirik** ez dago"
https://bertsoa.eus/bertsoak/14652-hamarreko-txikia-aimar-karrika-eta-xabi-maia

- Jon Martin, Segura. Puntua:
Fandango, arin arin, regetoi ta rocka
"… nik hanketan egurra, gerrian **arroka**"
https://bertsoa.eus/bertsoak/14671-puntu-erantzunak-jon-martin

- Mikel Artola, Baigorri. Puntua:
Modan jarrita dago ekologikoa:
"… nik hola betetzen dut **frigorifikoa"**
http://www.eitb.tv/eu/irratia/euskadi-irratia/hitza-jolas/5049915/5100349/hitza-jolas-irailak-24-baigorrin-hasi-da-txapelketa-nagusia/

- Beñat Ugartetxea, Baigorri. Puntua:
Denon eskubidea da etxebizitza
"baina denok ez dugu etxe baten **giltza**…"
http://www.eitb.tv/eu/irratia/euskadi-irratia/hitza-jolas/5049915/5100349/hitza-jolas-irailak-24-baigorrin-hasi-da-txapelketa-nagusia/

ERREJISTROA
Gaiarekin lotura zuzena duten izenak eta elementuak sartzeak sinesgarritasuna ematen dio bertsoari, bertsoaldiari, diskurtsoari. Dendaria bazara, hitz egin dendari batek bezala. Umea bazara, izan ume.

- Nahikari Gabilondo eta Nerea Ibarzabal, Zumaia.
Nahikari gozoki-denda bateko langilea. Nerea bezeroak denbora luzea darama dendan bueltaka. Nahikari laguntza eskaintzera joan denean, ahoa beteta daukala harrapatu du Nerea. Dendaria hasita.
"…Ahoa hemen hustea ez ezazu pentsa
baina utzi patrikan duzun ***Palotes-a***"

Ibarzabalek bere lehen bertsoan bere buruaren aurkezpena egiten du. Bederatzi urte dituela esan eta erregistroa zaintzen du amaierara arte. Ume bat aritu zen bertsotan.
"*Palotes* hori gero probatu nahi nuke
bakarrik dauzkat eta **bederatzi urte**
ta **ipuinek** horrenbeste **fantasi**a dute
sorginek gozokiak pozoitzen dituzte"

Bertsoaldi honetan Ibarzabalek **gorputz espresioa** erabili zuen bigarren bertsoan. Umearen paper jolastiari eutsiz, bi begiak itxi zituen bere bi eskuekin, dendariak bera lapurretan ikus ez zezan. Ume baten okurrentzia. Kasu honetan keinua horrek mezuari indarra eman zion publikoarekin feedback-a sortuz.

"… harrapatu egin nauzu gozokiak biltzen
ikusten ez bazaitut ez zara existitzen" (eskuekin bi begiak estalita)
Dendariak zuzen eta dotore eutsi zion bere erregistro pipertuari eta umeak azken bertsoan adarjotzeari heldu zion hitz pertinente batekin:
"… ta umore txar horri emaiozu buelta
pika-pika gehiegi jan dituzu eta"
https://bertsoa.eus/bertsoak/14727-zortziko-txikia-nahikari-gabilondo-eta-nerea-ibarzabal

SORTZE PARTEKATUA
Askotan bertsoaldiaren norabidea alda dezake bertso kidearen hitz bakarrak. Bertso bateko detaileak diskurtsoaren ibilia baldintzatu dezake. Bertsoaldi honen hasieran "zapatilak" aipatzen dira eta gero etorri zen gainontzekoa … Gora Zapata!

- Aimar Karrika eta Beñat Ugartetxea, Baigorri.

*Aimarrek arropa denda bat du. Be*ñat Aimarren dendara etorri den bakoitzean, arropa andana probatu eta deus erosi gabe atera da.
"… **zapatila** politak dituzu gainera
Ai! Etxean ahaztu zait berriro **kartera**"

"… **karteraren** bila joan etxera jakina
ez baduzu probatu nahi nire **espartina**"

"etxera joango naiz bai lagun korrika
Baina joan al naiteke **zapatak** jantzita?"

"Maiteminduta nago **zapata** horiekin …"
https://bertsoa.eus/bertsoak/14662-zortziko-txikia-aimar-karrika-eta-benat-ugartetxea

IDEIEN ANTOLAKETA
Bakarkako ariketatan gai bati hiru bertso kantatu behar zaizkio. Denbora ondo kudeatuz komeni da kantari hasi aurretik bertso bakoitzean zer esan ondo antolatzea. Hori gutxienez. Gehienek hala egiten dute. Edo denek. Lehenbiziko bertsoak ondorengo bietan kontatu beharrekoa baldintzatu dezake.

- Asier Otamendi, Zumaia. Kartzela
Zaborretara botatzera joan zara, baina gorde egin duzu azkenean.
Otamendik, itxuraz, lehen bertsoan, arrazoi arin bat bota zuen. Zer gorde zuen?

"… hamalau urte nituenean lapurtu nuen *Play Boy*-a"

Bertso hori entzutean pentsa zitekeen, zer esan behar du honek datozen bi bertsoetan? Ba amaiera "arin" batetik ur sakonetara egin zuen jauzi. "*Play Boy*" batetik "sexu heziketara".

"… rebista hontara mugatu baitzen gure sexu heziketa"

"… gaur heziketa izan dezaten zabala eta anitza"
https://bertsoa.eus/bertsoak/14738-kartzela-asier-otamendi

BESTE ZENBAIT BALIABIDE

Gauza bakoitzari bere izena jartzeak komunikazioa errazten du. Esandakoa entzuten ez ezik ikusi ere egiten da batzuetan. Ez da gauza bera "neska" edo "Eider" esan. "Semea" edo "Jokin". "Kotxea" edo "Opel Corsa". "Presidentea" edo "Puigdemont" esan. Fase honetan zehaztutako zenbait adibide:

- Xabier Maia, Baigorri. Elkarte baten izena esan behar eta Baigorriko **"Basaizea elkartea"** eta **"Nafarroaren eguna"** aipatu zituen.
- Beñat Ugartetxea, Baigorri. ***"Play Boy* errebistan, pelaje ziklistan, Kubatak listan…"**
- Felix Zubia, Segura. **Katalanez** esandako hitzak Puigdemonten larruan.
- Alaia Martin, Baigorri. Irrati esatariak bere zuzendariari:

"**Izaro**, **Esne Beltzak** ta bi **kuña** zatik
betetezen nau **Laboa**n hainbeste esaldik
Mila esker **hegoak** ez mozteagatik"

Hiperboleak, esajerazioak, handitzeak eta puzteak esan-indarra areagotzeko. Mezua urrunago iristeko. Grazia egiteko.

- Agin Laburu, Leitza. Erizainak pazienteari:

"… **besoak baina orratz lodiagoakin**"
https://bertsoa.eus/bertsoak/14684-zortziko-txikia-xx1

HITZAK JOLAS

Bertsotan egitearen oinarrian hitzaren jolasa dago. Hitza jolas bihurtzen denean gozatzen du gehien bertsolariak eta entzuleak. Bertsoaren erdiko puntuetan egiten diren hitz jokoak arraunean poparean olatua hartzea bezala dira. Kontrasteak, elipsiak, anaforak, errepikapenak, esamoldeak… Zenbait adibide hizkuntzaren aberastasunaren seinale:

- Alaia Martin, Baigorri. "**Gaizki ikasia** zara eta **ongi hezia**"
- Arkaitz Oiartzabal, Zumaia. Bizilagunari:

"**bizia** zara baina ez zara **laguna**"
- Xabi Maia, Baigorri. "**gaur** egin daitekeena ez utzi **biharko**"
- Alaia Martin, Baigorri. "Hotzikara bat sartu nahi nuke **mamiaren azalean**"

- Beñat Ugartetxea, Baigorri. “**arratoi txakurra**”, “**neurriko zapata**”
- Ander Lizarralde, Baigorri. “**usoa** eta **pajaroa**”

Jarraitu begiak eta belarriak tente. Finalerdietan ere izango dira airean harrapatu beharreko euliak. Izango dira doinu berriak eta bertso berriak. Eta koaderno berriak. Amaitzeko datutxo bat: orain lau urte finalerdietara pasa zen azken bertsolariak 631,5 puntu behar izan zituen. Aurten 651’5. Bertsolari hobeak al dira aurtengoak?

TXAPELKETAREN BARREGRAFIA (POSIBLE) BAT

ANE LABAKA MAYOZ
BERTSOLARIA ETA IKERTZAILEA
2017-11-03

Bertsolari Txapelketa Nagusiko umoreari buruz idazteko eskatu zidaten. Eskaera umorez (beraz, serio) hartzea erabaki dut, batez ere goizetan erdi lo nagoenean komuneko zorura eroritako lentilla topatzea bezain zaila egin zaidalako txapelketan umorearekin lotuko nituzkeen bertsoaldiak topatzea .

Zenbaitzuk bertsolari batzuk merezimendu osoz lortutako puntuazio altuen susmagarritasuna aipatzen duten garaiotan, nik ez dut umorearen ausentziaren erruduntasunari buruz jardun nahi. Hala ere, txapelketaz kanpoko ohiko plazetan duen nagusitasunarekin alderatuta, zer hausnartua eman dit txapelketako markoan umoreak izandako presentzia urriak.

Esango nuke eskema zurrunegi bat eraiki dela gai-jartzaile taldeak eskatutakoaren, entzuleak espero duenaren, eta ondorioz, bertsolariak egin dezakeela sentitzen duenaren artean. Kaiola txikiegi eta kortse estuegi bat. Eta hor ez da umorea kabitzen. Salbuespenak salbuespen, zortziko txikiko ariketara mugatu da umorea egiteko aukera edo zuzenago esanda, ariketa horretan nahitaezko bilakatu da umoreari leku egitea. Inguruko zenbait sasi-adituri entzun diedan bezala, ni ere ados nago bizitasunarekin eta grazia egin beharrarekin lotutako ariketa honetan irudi *grazioso* bat aurkezten ziguten zenbait gai hutsal samar jarri direla onartzerakoan. Bi txakur jabe bagara eta txakur txikiena handienari zaunkaka hasi zaiola aipatzean gaiaren absurdotasunagatik entzulea dagoeneko barrez hasten bada, hortik aurrera zein garapen izan lezake gaiak?

Nire ustez, gainera, ariketa bakoitzaren aurrean eskatzen zaion kokapenak bertsolari guztien gorputzaldia aurrez modu homogeneo samarrean zehaztea dakar berarekin, doinuen aukeraketatik bertatik hasita. Seguran zortziko txikirako baliatutako gai bat aipatuko dut honen erakusgarritzat. Gai-jartzaileak nagusiaren eta menpeko langilearen paperan jarri zituen bi bertsolari, ostiral arratsaldea zen eta nagusiak etxera joan aurretik lan gehiago agindu zion langileari. Lan baldintzei buruzko gai

bera hitzez hitz hartu eta hurrengo ariketan proposatu izan balitzaie (hamarreko txikikoan) umoreari leku egiteko beharra sentituko al lukete bertsolariek?

Ezezkoan nago ni, eta, hain zuzen ere ezezkoan nagoelako, iruditzen zait ohiko plazetan askoz mementokoagoa dela gaiak iradoki dienaren arabera bertsolariek hartu nahi duten enfokearen, sortu nahi duten emozioaren edo bertso moduaren aukeraketa, askoz askatasun gehiago sentitzen duela bertsolariak eta askatasun horrek umorearen alde egiten duela sarritan.

Izan ere, umorea askatzea da. Umorea askatzea da batzuetan, besteetan lotzea edo zapaltzea den bezalaxe. Are gehiago, esango nuke une jakin bateko umorea aldi berean izan daitekeela batzuentzat askatasun eta besteentzat zapalkuntza. Hain justu, hor dago, nire ustez, umorea ulertzeko gakoa; nork-nori ekuazio horretan.

Badakit gertatu dela dagoeneko, lerro hauek irakurri ahala irudi bat etorri zaizuela burura; kamiseta arrosa bat, agian? Barkatuko didazue berriro gai berari heltzea baina aitortu behar dizuet Bastidan bertso hori entzun orduko bi pentsamendu izan nituela elkarren oso jarraian. Lehena, "espero dut telebistako kamerak ez zuela nire une honetako aurpegia grabatuko". Bigarrena, "umoreari buruzko artikuluan zukutzeko moduko adibide bat oparitu didazue, eskerrik asko". Eta "didazue" diot entzulearen erreakzioak larritu ninduelako beste ezerk baino gehiago.

Saio ostean "Jesus neska! Umorea zen … ez da hainbesterako!" bota zidana aste osoa haserre pasa duen lagun homosexual batekin jarriko nuke hizketan zuzenean. Aurrez aipatu dugun ekuazio horren baitan kasu honetan ere argi dagoelako nor den nork eta nor nori. Eta nork-en botere posizioan eroso gaudenean ez delako erraza nori zapaldu horren lekuan jartzea.

"Fikzioa baino ez zen…" esanez ere defenditu dira batzuk. Eta oxala diot nik. Oxala fikzioa balitz benetan eta Bastidako entzuleetako askok ez balute antzekorik pentsatu gizonezko bertsolari bat kamiseta harekin oholtzaratu zen unean. Oxala.

Ni pozik nago. Pozik nago aste osoa igaro dudalako gai honi buruzko eztabaida mamitsuetan murgilduta. Bastidan algaraka aritu ziren entzuleak sumatu ditudalako minduta, ustezko bertso-mundu "aurrerakoiari" homofobia bezalako hitz kaltegarriak

egotzi zaizkiolako. Egia da denok daukagula matxista txiki (edo ez hain txiki) bat barruan, homofobo bat, gutxien uste dugunean ateratzen dena, hor zegoenik ere ez genekiena. Bat-batean ari garenean (entzuleak ere bat-batean txalotzen du entzundakoa) inertziek leku gehiago dute, gainera, eta umoreak berarekin dakarren dibertsioaren baitan ez dago filtroa pasatzeko tarterik.

Eskerrak, beraz, goiz horretan bere armairuko kamiseten artean arrosa hura aukeratu zuenari, gure barruko armairuetan ikusi nahi ez genituenak ikusarazteko aukera eman zigulako. Izan ere, Nerea Ibarzabalek Zumaian begiak eskuekin estaliz kantatu zuen bezala: “Ez bazaitut ikusten, ez zara existitzen”.

ONURAGARRIA IZAN LITEKE TXAPELKETAREN FORMATUA HERRIALDE KATALANETARA ERAMATEA?

MATEU MATAS *XURÍ*
GLOSADOREA
2017-11-08

Galderari erantzun aurretik, Herrialde Katalanetan kantu inprobisatuak izan duen historia eta testuingurua labur azaltzeko baimena eskatuko dizuet. Ezadostasun batzuk egon badira ere, nabarmendu behar da azken urteotan katalanezko *glosa*, *glosar* eta *glosador* hitzak onartu dituztela generiko gisa Herrialde Katalanetan *bertso* eta *bertsolari* kontzeptuak definitzeko. Kontuan izan behar da hitz hauek Mallorcan eta Menorcan bakarrik erabiltzen zirela hasiera batean. Tradizio honek behera egin du etengabe XX. mendean eta, ondorioz, funtzionaltasuna eta garrantzi soziala galdu ditu baina, hala ere, aipatutako bi uharteetan oraindik tradizioa ez da inoiz gelditu. 80 eta 90eko hamarkadetan glosa berreskuratzeko lehen ahaleginak egin zituzten eta, mende berriarekin batera, belaunaldi-erreleboa, elkartegintza eta mundu osoan erabilitako beste inprobisazio mota batzuk ere ezagutu genituen. Eragile hauek erabakigarriak dira Balear Uharteetan glosak izan duen goieneko unea ulertzeko. Beste alde batetik, Valentziako Erkidegoan garapena linealagoa izan da. Kantu inprobisatuaren ezaugarri bereizgarriak garrantzitsuak dira. Munduko leku gutxitan gertatzen den moduan, hemen kantua bertsoa baino garrantzitsua da; hori dela eta, glosatzaileak batzuetan glosak diktatzen dizkio abeslariari belarrian. Funtsean, ez dago eztabaidarik. Hirugarrenez, Katalunia Printzerrian izandako gertakari bat azpimarratu behar da: Ebroko lurraldetan jotak mantendu zituzten baina, lurralde horiek eta Empordà eskualdea alde batera utzita, desagertuta zegoen ia-ia kantu inprobisatua. Tradizioarekin jarraitu baino, esan daiteke Printzerrian tradizioa berriro asmatu dutela.

Gauzak horrela, glosaren errealitate sozial eta kulturala ezberdinak dira, baita funtzionaltasuna eta transbertsalitatea ere. Hau da geure buruari egin diogun galderari erantzuteko aurkituko dugun lehengo oztopoa. Hala ere, urteak pasa ahala, homogeneizatu egin da glosaren tradizioa Herrialde Katalanetan. Lurraldeen artean egiten diren trukeek, batez ere Katalunia eta uharteen arteko trukeek, glosatzaileen moldaerraztasuna indartzen dute. Urtero antolatzen diren *12 hores de glosa* bezalako proiektu ibiltariek tradizioa sustatzen dute.

*Artikulu hau jatorriz katalanez idatzia da. Euskarazko bertsioaren amaieran jatorrizkoa aurkituko duzu.

Bertsolaritzak eta txapelketek glosan izan duten eragina agerikoa da. Datu hau frogatzeko, 2003an lehiaketaren formatua hartu zuen lehen topaketa antolatu zuten Espollan. Urtero, lehiaketa horren irabazlea *nyacra* abestien erregea izango da, eta jakin badakigu lehiatzeak mendekotasuna sortzen duela. Kantu inprobisatua lurraldean indarberritu ahala, ospetsuagoa egiten zen Espollako topaketa. Gehiegi sakondu edo hausnartu gabe, esan daiteke Espollako topaketa txapelketara gehien hurbiltzen den ekimena dela. Agian inflexio-puntua da hau. Bi aukera ditugu: Espollako topaketa egitura dezakegu, edo denborarekin gara dadin utz dezakegu.

Menorcan, duela 4 urte, lehen *Migjorn* glosa-txapelketa antolatu zuten. Egun osoa luzatzen da eta, azken probetan, txapelketaren irabazle izendatzen dute. Hala ere, garrantzitsuena giro ona eta guztion gozamena da, lehiaketa baino gehiago. Mallorcan ere, glosa-txapelketa batzuk eman zituzten telebistan duela urte batzuk, baina emateari utzi zioten.

Nire ustez, une erabakigarria bizitzen ari gara lurralde guztietan: batzuek beste batzuk kutsatzen dituzte, elkarrengandik ikasten dugu, elkarrekin huts egiten dugu, elkarrekin egiten dugu aurrera eta elkarrekin egiten diegu aurre etorkizuneko erronka guztiei. Glosa berpizteko unean, Kataluniak, Menorcak, Valentziako Erkidegoak eta Mallorcak behar ezberdinak dituzte eta, ondorioz, partekatzen eta lotzen gaituen guztiaz baliatu behar dugu finkatzeko, gero eta gauza gehiago baitira. Txapelketaren formatua lagungarria izan daiteke glosa zabaltzeko eta ospetsua egiteko unean, baina, nire ustez, glosatzaileen eta publikoaren dimentsio soziala handitu behar dugu, kantitateari zein kalitateari dagokionez. Gaur egun, ez dut uste gure inprobisazioak Herrialde Katalanetan txapelketa bat antolatzeko eta horrek dakartzan zailtasunei eta arriskuei aurre egiteko heldutasunik duenik. Bertsolaritzak egindako bideari erreparatzea lagungarria izango da gure bidea sumatzeko. Utz diezaiogun etorkizunari gu glosak egiten harrapatzen, gatazkak konpontzeko biderik onena baita.

Seria positiu extrapolar el format de la Txapelketa als Països Catalans?
Mateu Matas, *Xurí*

Abans de contestar la pregunta, m'haureu de permetre una mica d'història i contextualització de la cançó improvisada arreu dels Països Catalans. És pertinent remarcar que en els darrers anys s'han adoptat, tot i algunes veus discrepants, els termes 'glosa', 'glosar' i 'glosador' com a genèrics per a definir el 'bertso' i el 'bertsolari' dels Països Catalans, tot i que originàriament només s'utilitzassin a Mallorca i a Menorca. En les dues illes s'ha matingut la tradició de forma ininterrompuda, tot i la decadència continuada durant el segle XX i la conseqüent pèrdua de funcionalitat i de pes social. A la dècada dels anys 80 i 90 es produeixen els primers intents de recuperació de la glosa, però no serà fins al canvi de segle que trobarem el relleu generacional, l'associacionisme i el contacte amb altre formes d'improvisació d'arreu del món. Aquests factors són determinants per entendre l'auge de la glosa a les Illes Balears. Per altra banda, el País Valencià es manté més lineal en la seva evolució. Hem de tenir en compte les carecterístiques diferencials que hi defineixen la cançó improvisada. És de les poques en el món on el cant té més importància que el vers, i és per això que tenen la figura del versador que dicta els versos al cantador a cau d'orella. Bàsicament no hi existeix la controvèrsia. En tercer lloc és necessari parlar del fenomen que s'ha produït al Principat de Catalunya, on gairebé havia desaparegut la cançó improvisada, tret d'un reducte a les terres de l'Ebre on mantenien les jotes i a la zona de l'Empordà. Podem dir que al Principat s'ha reinventat, més que no seguit, la tradició.

Parlam doncs, pel que fa a la glosa, de realitats socials i culturals diverses; de funcionalitats i transversalitats diferents. Aquest és el primer obstacle que ens trobam per respondre la pregunta que ens hem formulat. No obstant això, a mesura que passen els anys, podem dir que la glosa als Països Catalans s'homogeneïtza. Els intercanvis d'un lloc a l'altre, sobretot entre les illes i Catalunya, potencialitza la versatilitat dels glosadors. Projectes com les 12 hores de glosa, que s'organitzen anualment i de forma itinerant entre els territoris, ho afavoreixen.

La influència a la glosa del bertsolarisme i, especialment, del campionat és palesa. La prova és que l'any 2003 es fa la primera trobada d'Espolla en format concurs, del qual en surt any rere any el rei de les nyacres. Ja sabem que competir enganxa. Així

com reneix la cançó improvisada arreu del territori, creix la trobada d'Espolla. És, avui per avui, el més semblant a un campionat, sense gaires fonaments ni haver-hi reflexionat molt. Tal vegada som en el punt d'inflexió: o dotam Espolla d'estructura o deixam que es desenvolupi a mercè del temps.

A Menorca, des de fa quatre anys, organitzen el torneig de glosa de Migjorn, que dura tot lo dia amb unes eliminatòries i unes proves finals que acaben amb un guanyador o guanyadora del torneig. Hi pesa molt més el bon ambient i el gaudi col·lectiu que la competició. També a Mallorca es varen fer fa anys uns concursos de glosa per televisió, tot i que no tengueren continuïtat.

Personalment pens que som en un moment interessantíssim en tots els territoris, uns ens contagiam dels altres, aprenem mútuament, ens equivocam junts, avançam col·lectivament i encaram tots els reptes de futur. Catalunya, Menorca, País Valencià i Mallorca tenen necessitats diferents en la revitalització de la glosa i, per tant, s'han de consolidar amb tots els lligams que podem compartir i que compartim cada vegada més. Tot i reconèixer que el campionat és un format que ens pot ajudar a la difusió i repercussió de l'activitat glosada, crec que hem de fer créixer la dimensió social en quantitat i en qualitat, tant dels glosadors com del públic. Ara mateix pos en dubte que siguem una improvisació madura que ens puguem enfrontar als perills i dificultats que implicaria, a parer meu, la posada en marxa d'una Txapelketa als Països Catalans. Observar el camí fet pel bertsolarisme ens permet intuir el propi. Deixem que el futur ens agafi glosant, car és la millor expressió que podem fer servir per solucionar els conflictes.

GAI HORREK BADU HARIA

JOSU GOIKOETXEA GEZURAGA
GAI JARTZAILEA
2017-11-09

Norbait gai-jartzaileen patroi jarri behar bagenu, agian Juan Ignazio *Iñaki* Uranga bizargin idazlea jarri behar genuke gai-jartzaileok aldarean. Hura izan zen, idatzizko erreferentziek dioskunez, lehen gai-jartzailea edo «zirikatzailea». Horrelaxe dator jasota Oihana Aranburu gure dokumentalista bikainak estraperloan pasatutako *Bertsolari guduak (1935-1936)* dokumentuan. 1936ko kronika honetan, Joseba Zubimendi olerkariak gaur ere sarri aipatzen diren 35. eta 36. urteetako Bertsolari Txapelketen kontakizuna ematen digu, zeinak Basarrik eta Txirritak irabazi baitzituzten, hurrenez hurren. Sarreran, baina, egiten du Zubimendik bertso gudu haien aurrekari baten aipamena, 1930an eta Donostian baita ere, Centro Católicon egin zen sariketa batena, gerora famatuko zirenen aurrekari lez. Antolatzen Euskaltzaleak elkartea zebilen, Lizardi eta Labaien tarteko. Hala dio Zubimendik:

«Donosti zarrean aiton bizargille bati bertsolari guduak, antziñako erara taiutzen trebe zala igarri genion. 'Consistorio de los Juegos Florales' zalako aietan epaille bezela ibilia bait-zan Uranga-tar Iñaki.

Altzaga-tar Toribi yaunaren omenez 'Centro Católico' antzokian 1930-garren urtean Euskaltzaleak lenengoz eratu zuen Bertsolari-gudua onetxek zuzendu zigun. Txirrita, Lujanbio, Telaetxipi, Zabaleta, Agirre eta Bitoria zanak, lege zarrera gudu arrigarria egin ziguten. Trebe asko eta zorrotz Uranga olerkari aitonduak bertsolariak zirikatu zituan. Txapeldun, ao batez, Bitoria aukeratu genduan».

Beraz, Uranga lehen gai-jartzailea, baina testuak iradokitzen digu Lore Jokoetan ere jardun berean ibilia zela eta, ziurrenik, bera bezala beste batzuk. Patri Urkizuk jasotzen duen bezala 1869ko Lore Jokoei buruz ari dela: «Vinsonek kontatzen digu ere bapateko bertsoak izan zirela […] Ibarra izeneko Jatsuko zapatagina eta Azkaingo Maria Luisa Osorioren artean izan zela eztabaida, gaia ezkontza eskea izan zelarik».

Adanismoa da azkenaldian ikasi dudan kontzeptuetako bat eta egoki txerta daiteke gai-jartzailetzarren historian. Gure gaien ondoan, hasiera hartako gaiei halako

primitibotasun bat egozten diegu. Zer beste dira, bestela, 35-36etako gudu haietan gaiak bertsoz emateko ohitura (ez oso emankorra lehen begi kolpean) edo gaiak ofizio gisa ematea (bai, hortik dator oraindik darabilgun terminoa), hala nola, artzaina eta nekazaria, arotza eta aizkolaria, nagusia eta morroia bikoak.

Baina tematzen zara eta gehiago irakurtzen duzu, eta iristen zara 1936ko Elizondoko kanporaketara, eta hasten zara gauza sofistikatuagoak ematen zirela ikusten: «Ardua aupatu naiean Ibarra Joan yarri zan eta bere anai Pedro, uraren edertasunak goraltzen […] Harriet Joanes-ek ezkonduen alde yokatzen zuan eta Iriarte gazteak ezkongaiak gora naiean. Batak ezkontza ederra zala, besteak, azke, libre obeto bizitzen zala» [Zubimendi, *Bertsolari guduak (1935-1936)*].

Bo, esango dit baten batek, «oraindik gai-ernamuinak dira horiek» eta agian arrazoia du, baina egin dezagun aurrera 25 urte eta jo dezagun 62ko txapelketara. Gogoan izan dezagun gerra ostean nekez garatu izango zela gai-jartzailetza, baina hara Alfontso Irigoienen ahotan zer irakur dezakegun: «Azpillaga izango da Donostiako guardia bat, kale-kantoi batean geldi dagoena, eta Mitxelena Gipuzkoako erri txiki bateko baserritarra. Ain zuzen ere baserritarra guardia dagoen inguruko kale-ertz batetik bestera asi da pasatzen, ta guardiak, señaleak kolore gorria markatzen duelako, 'alto' ematen dio».

Edo beste hau (utzi albora une batez ideologia): «Zure auzoan Maritxu izena duen neskatxa gazte eta eder bat bizi zan. Orain urte batzuek dirala, Donostiara neskame etorri zan, ta gaur egunean emakume galdua da, esaten dutenez. Neskame izatetikan atera zan eta gaur egunean ez dauka lan ezagunik. Gaur eguardian Avenida kaletik barrena ikusi dezu automobil batean dotore paseatzen pintatuta eta apain-apain. Iru bertso kantatu bear dizkiozu emakume orri». Tira, gai horretan badago «ofiziotik» harago doan lanketa bat. Eta gero kantatuko zioten, bai, beldurrari, edo amari, edo euskal ohitura zaharrari, gordin.

Zer esan nahi dudan honekin? Bada, sarritan uste dugula historia, kasu honetan gai-jartzailetzaren historia, loditzen doan soka bat dela; 35eko haritxo hura gaur eguneko txikot sendo bihurtu dela. Eta bada hala neurri batean, baina uste dut ikerketa sakon batek erakutsiko ligukeela hari-soka horretan hainbat korapilo daudela, azpi-hari solteak ere bai, soka etenak, matazak eta beste.

Gai-jartzaile eskola eratu genuenean ni neu arestian aipatutako adanismoan erori nintzen, eta iraganari kasu handirik egin gabe ekin genion lanketari. Gerora, gai-jartzailearen eskuliburu estimagarria berrirakurtzean konturatu naiz zenbat zor diegun gutxi-asko gabiltzan gai-jartzaileok egin diren halako lan apurrei. Irakurri ezazue eskuliburua, hainbat gauzatan zaharkitu bada ere, merezi du eta: http://bdb.bertsozale.eus/uploads/edukiak/liburutegia/xdz4_ld_000051.pdf

Beraz, ederra litzateke norbaitek ikerketa sakona egingo balu gai-jartzailetzaren joan-etorriei buruz, formari eta edukiari buruz, gaietan txertatzen dugun ideologiari buruz eta abar.

Amaitzeko, eta inork ez dezan esan gaiari muzin egiten diodanik, hona nire iritzia egungo txapelketako gaiei buruz: susmoa dut *impasse* egoeran gaudela, txapelketa bera hala dagoelako. Aldaketa handiak izan ditu txapelketako gaitegiak urteetan zehar: nazionalismo sabindarra ezartzetik, gatazka politiko-armatua «xalo» agertzera; 90ko «barrokismo» puntutik, gaur egungo «heroismo» sozialera. Uste dut, indarraren indarrez, txapelketak hipertrofia moduko bat daukala giharretan eta horrek gaiei eta bertsolariei erasan diela. Sumatzen ditut hainbat bertsolari beldur moduko batekin gaiei aurre egiteko, haietan zirrikiturik aurkituko ez balute bezala beren ahotsa agertzeko. Eta gaiak bide eman behar du, bai, baina zirrikitua ere bai, bertsolariak inpentsadan bertsozalearen gogoan arrakalak sor ditzan.

Halako batean aldatuko da txapelketa, aurkituko dira formula berriak, eta seguru nago gai-jartzaileek asmatuko dutela beharrizan berrietara egokitzen.

HILEKOAREN MINTZOA

EIDER RODRIGUEZ MARTIN
IDAZLEA
2017-11-23

“Emakume txikiak atsegin du, nahiago du hori harreman heterosexuala baino. Gizenak, emakumearen gorputzean dagoen leku sekretu bat eman dit aditzera, plazer iturri berri bat, niretzat ezezaguna, ez bada pasaeran soilik, eta horrelakoetan inoiz ere ez modu definituan; leku hori emakumearen beheko ezpainak zabaltzen direneko puntutxoa da, justuki gizonak aintzat hartzen ez duen puntutxo hori bera”. Gerora erotismoaren jainko izendatuko zuten Anais Ninek idatzi zuen 1930 urte inguruan *Henry and June* egunorokoan, klitoriaren ahalak ezagutu berritan. Eta idatzi zuen argitara ekartzeko ilunpean zegoena, idatzi aurretik haragizko zena oraindik eta haragizkoago bihurtuz. Idazle beltzek literaturaren ispiluan beren buruari begiratu ziotenean ere gorputza idatzi zuten: azalaren kolorea ez ezik, usaina ere zehaztu zuten, zuri mota ugari daudela dakigun bezala beltzaren ñabardura guztiak ekarriz.

Aspaldi honetan bertso munduan duela gutxira arte isilduta egon diren gorputzak ari dira azaleratzen: emakumeak, gizon-ez-gizonak, ubeldutakoak, homosexualak, haurdunak, itsuak, down sindromedunak, zaintzaileak, zaharrak, harrerako haurrak, minbizidunak, etorkinak, ezinduak, hil hurren daudenak, erekzioa galdu dutenak, Frida Kahloak eta Mohamedak... gaietan hala bultzatuta ez ezik, bertsolariak ere ari dira euren kabuz oholtza gainekoez haragoko gorputzei kantatzen, eta haiek kantatzean, haietatik kantatzean, gurera ekartzen, dituzte.

Baina nago, azkenaldian badagoela gorputz horiek izendatu eta inbentariatzeaz gain, gorputz horiek ikusgarri bilakatzeko ahalegin bat, eta ahalegin hori, batez ere, emakumezko bertsolariei zor zaie. Ez da kasualitatea: haiek badakite zer den horrelako gorputz bat habitatzea.

Miren Amurizak ikusarazi zigun argazki hau: azal ximurra, bular eroriak, alu soildua, barizeek zeharkatutako izterrak dituen 82 urteko amona bat, bere burua ausart eta edertzat daukana. Bertso munduko amona total eta oriñaldunetik urrun, gorputzari heldu zion Amurizak amona erreal bat sortzeko.

Maddalen Arzallusek, argia piztu zenean lotsarazi zuen gorputz biluzi eta maitatzen zailari kantatu zion, sexua trabatzeraino konplexu eragingarri, izter eta sabel ezegokiko gorputz-kartzelari. Alaia Martinek, larrutaldiaren erdian, argia piztearekin batera haragitutako gorputzari kantatu zion: porotsua, izerditua, estriek ebakia, inperfektua. Bestearen begiradapean eta norberaren baitan ilun bilakatzen diren gorputzak, biak ala biak.

Maialen Lujanbiok bularrez gain zakila ere baduen gorputza ikusarazi zigun: andre eta gizon den gorputz hibridoa, hormonatua, inon egon nahi ez izanagatik besteari ezinegona sortzen dion gorputz sentsual eta harroa, azala aldarrikatzen duen, desio duen, bero dagoen gorputz erabat normala.

Odolaren mintzora ohituta geunden arren, bestelakoa da hilekoaren usaina: mutilen barreen eta nesken begiraden beldur, maindire zuriaren gaineko orbana orbain intimo bilakatua, emakume izendatutako gorputzetik kantatu zuen Nerea Ibarzabalek, gorputz berri eta besteen begietara zikin horretatik, baladarik, banderarik, poema epikorik edertu ez duen odolari.

Adibideak baino ez dira. Dagoeneko, bertsoa ez da gorputz astun eta zurrun bati ihes egindako intziria bakarrik. Bertsolari hauek orain arte diskurtsoan ageri ziren gorputzak ikusgarri bilakatu dituzte, bolumena eman diete, bigarren dimentsioko jarduna hiru dimentsioko bihurtu dute, eta hala, bertsoen corpusa gizentzeaz gain, bertsolaritzan hain aipatua den gu delakoa jendez bete dute, ukigarriak, ikusgarriak eta usaingarriak diren pertsonez, estereotipotik aparte, inoiz baino haragitsuago eta libreago. Eta haiei esker, une batez sikiera, ikusi egingo dugu nork osatua den hainbeste famatzen den gu-a, bertsoak irauten duen lipar horretan sikiera, ikusi egingo dugu nork osatua nahi genukeen folklore bihurtze bidean zegoen gu-a: bertsolariaren gorputzari erantsita geldituko dira kantatutako gorputzak, kasik gure artean.

Gu ez baikara abstrakzio gramatikal hutsal eta demodea. Guk ere gorputz bat osatzen dugu: bertsoak ez baitira hitzak bakarrik, hitzok esaten dituen gorputza ere bada, hitzok entzuten dituen gorputza, hitzok marrazten duten gorputza, eta bertsoz bertso gizenduz doan corpusa, gu-aren DNA.



AUTOFIKZIOA ETA MALTZURKERIA

HARKAITZ CANO JAUREGI
IDAZLEA
2017-11-27

Ipuin tradizionaletako pertsonaiak sailkatzeko hiru arketipo aipatu ohi dira: 1) *izan badena*, 2) *jakin badakiena*, 3) *egiten duena*. Izana, jakintza, egintza. Hiru kategoria hauetako bakoitzak beste biak ukatzen ditu. Adibide bat? Ipuinetako erregea *da* (baina ez daki eta ez du ezer egiten), aztiak *daki* (baina ez du ezer egiten eta ez da inor aztikeria hezurmamituaz haraindi) eta heroiak *egin* egiten du (baina ez da inor, ezpada ekintzak egiten dituena, eta jakin ez daki oso ondo nola egiten dituen ere... harik eta bideak edo bidean topatutako aztiak erakusten dion arte). Hiru kategoria hauetako zein baliatzen du nagusiki betsolariak? Esango nuke "dakienarena" jokatzen duela batez ere. Bide ertzean dagoen aztia da bertsolaria. Badu bere logika: denbora tarte oso laburrean gaiari lotutako guztiak antolatu eta tolestu behar ditu, eta errazagoa da hori teoria bat sortuz egitea, teoria hori praktikara eramatea baino. Oro har, zortziko txikian eta puntuka "ekintzaileago" sumatzen ditut bertsolariak edo haiek garatutako rol-ak ("pertsonaiak" deitzea gehiegi da, agian). Neurria zenbat eta exigenteago eta gaia zenbat eta serioago, orduan eta abstrakziora edo deskribapenera emanago.

Badago "pertsonaia" bat beste inor(k) baino hobeto ezagutzen duguna: norbere burua. Hortxe sentitzen gara garaiezin. Besterik da, zenbateraino gauden prest geure buruaren indusketan sakondu eta topatu duguna jendaurrean erabiltzeko, eraldatzeko, jolasgai bihurtzeko... Ustiatzen dugun barne meategiaren zaina beti berbera izateak ekar diezagukeen higaduraz eta higadura horrek entzulearen baitan sor dezakeen asperduraz ez mintzatzearren. Pudoreak pudore, segundo gutxitan pertsonaia/narratzaile koherente bat lortzeko modurik seguruena dirudi norbere larrutik ahalik eta gertuen abesteak. Elika gaitezke memoriatik, ausartu gaitezke gaurko gure kezken konfesioarekin edo erabil genezake antizipazioa. Hirurak dira, aldez edo moldez, bertsogintza *konfesionala*. Mailegatutako *aitorpenak* ere izan daitezke, jakina, herentzian jasoak, erdi imajinatuak edo ikasiak. Irakurleak nobela baten narratzailea ia automatikoki idazlearekin lotzeko joera badu, zer esanik ez bertsolari baten kasuan; ahotsa eta presentzia fisikoa ditu entzuleak identifikazio horren berme. Bertsogintzan pertsonaiak sortzeari buruz ari garenean, honenbestez,

norbere pertsonaia sortzeaz ari gara neurri handi batean, "ni mutante" autofikzional bat. Autobiografian ez bezala, egiatik urruntzea zilegi baita autofikzioan, eta areago, lanketa hori estimatzen dugu entzuleok. Bertsozaleak ez soilik dauka bertsolari bakoitzaren kantaera, estilo, doinu kuttun eta gestikulazioaren berri, haren bizitzari buruzko zertzelada asko ere badakizki. Aurreiritzi horiekin prozesatzen du bertsoa entzuleak, eta aurreiritzion maneiuan trebe den bertsolariak egina du jada sedukzio lanen erdia.

Jakina da fikziozko pertsonaietan zein garrantzitsuak diren izenak. Bertsolariak, ordea, jarri neurozientzialariaren paperean edo borreroarenean, nekez galtzen du berea. Horrek indartu egiten du entzulearen baitan ni konfesional baten aurrean dagoen sentipen kilikagarri, ia morbosoa. Ofiziotan aritzen direnean ere, benetako izenetik interpelatzen dute elkar gehienetan, pertsonaia zitalegi baten larruan sartzea zailduz. "Sutan da basoa eta basozainak zarete". Arrisku handiko bertsoaldia ote litzateke basozain piromanoa naizela aitortu eta suarekiko nire maitasuna azaltzea, edota azken bertsoan delituaren froga den txiskeroa lagun errugabearen laneko takilan uztea? Gutxitan entzuten da plazatan halakorik, non eta ez den umore erredentorez maskaraturik.

Konfesionalaz haraindi, badaude pertsonaiak lantzeko beste bide batzuk. Usurpazioa izan daiteke bat, entzulegoaren imajinarioan aski erroturik dagoen norbait suplantatzea, alegia. Demagun gai hau: "Unerik onenean zaude eta uztera zoaz". Zergatik ez sartu Andoni Egañaren larruan eta lehen pertsonan abestu, 2050. urtean kokatuz nire ukoa? Ia laurogeita hamar urteko Egaña bat, bere unerik onenean dagoela aldarrikatzen duena. Antizipazio ariketa bat, umorez eta usurpazioz jantzia.

Arantzatsua da pertsonaiak sortzeko orduan bakoitzari legokiokeen hizkuntza erregistroa ere, bereziki hizkera horrek jantziegia izan ezin duenean. Alzheimerra lukeen norbaiten larrutik abestuta bertsolariak poto egingo balu, ez duelako azken oinera iristerako lehena berbera erabili duenik oroitzen, zein argumentu luke epaimahaiak penalizaziorako?

Bertsolari gehienei –berdin zinegileei eta idazleei– gehiago kostatzen zaie ekintzen bidez pertsonaiak marraztea. Estanpa hunkigarriak deskribatzen gaitasun miresgarria dutenek ere, zailtasunak izaten dituzte ideien mundutik ekintzen mundura

etortzean, pertsonaiak mugi daitezen, euren izaera egiten dutenaren bitartez defini dezaten. Askoz ere errazagoa baita dakienaren talaiatik deskribatu eta epaitzea. Hori da agian, hain bilakaera interesgarria izaten ari den bertsogintzaren erronketako bat: hainbat dakienetik hainbat egiten duenera igaro eta, lantzean behin, entzuleak maltzurkeriarekin ere enpatiza dezan lortzea.

INFOXIKAZIOA, SUBTESTUA, ERTZAK ETA BESTE. Finalerdiei begirada bat

AINHOA AGIRREAZALDEGI REKONDO
BERTSOLARIA
2017-12-05

Bastidatik Iruñera arteko bertsoak aztertu eta bertsoaldiz bertsoaldiko ekarpenak aipatu dituzten aski euskarri eta aski jende izan dugu. Txapelketaren hurbileko jarraipena ikusi dugu egunkarietan, aldizkarietan, bertso-irratsaioetan, telebistako hainbat saiotan, sareko telebista-saio berezietan… Eta gehitu horri sare-sozialetako iritzi, hausnarketa eta dardo guztiak. Honenbestez, bertso zehatzen xehetasunetan sartu gabe, finalerdiek eragindako zenbait gogoeta partekatu nahi nituzke zuekin.

Infoxikazioak asko baldintzatutako txapelketa izaten ari dela esango nuke aurtengoa. Bi ezaugarri azpimarratuko nituzke kontestu horretatik. Batetik, gizartearen eremu aktibistenetan eta, beraz, bertsolaritzaren ingurumarian mugitzen den jendearen artean aberatsa, sakona, ertz askokoa eta begi zorrotzekoa da eguneroko gertaera sozio-politikoen gaineko gogoeta. Bigarrenik, eta bigarren honetan dago beharbada 2013ko Txapelketa Nagusiarekiko alde handiena, sare sozialen bidez gaur egun iristen zaigun informazio- eta iritzi-oldea ikaragarria ez ezik, exigentea ere bada. Eta horrek nolabaiteko baldintza baten pean jarri du bertsolaria: bertsotarako abiapuntu izan ditzaken gaien gaineko ikuspegia ondo landuta izatea eskatzen zaio. Honenbestez, **bertsoa pentsamendu sendo batetik abiatuta eraikitzea kanpo-eskakizun bihurtzen ari zaio, gero eta gehiago, bertsolariari**.

Ez da nolanahiko baldintza. Ertz asko ditu bizitza errealak eta gai asko egon dira bizitza errealari lotuak finalerdietan ere. Egoera irrigarri batetik abiatutako zortziko txikiko (geroago hitz egingo dugu ariketa horren gainean) eta puntutako saioetan salbu, beste guztietan, eguneroko bizitzako gaiak izan dira nagusi. Jarrera hori benetan eskertu diot gai-jartzaile taldeari. Eguneroko bizitza baino politikoagorik ba al dago ezer? Politika-gairik apenas egon dela ere esan izan den arren, **txapelketa hau inoiz baino politikoagoa eta ideologikoagoa izaten ari da**. Hitz larriz idazten den Politika baino dezentez konplexuagoa da, gainera, eguneroko bizitza beti politikoa. Ataka horretan bertsolariak batzuetan sekula baino estuago sentituko ziren, baina lanketa-bide interesgarriak ere ikusiko zituzten hainbatek.

Kontestu horretan **ariketarik zailenetakoa, beharbada, lehen itzulian zortziko nagusian egin beharrekoa izan da**. Gai-jartzailearen hitzek egoera bat ematen zutelako, eta bertsolariak erabaki bat baino gehiago hartu behar zituelako: egoera horren azpian egon zite(z)keen gaia(k) ikusi, gai horren inguruko zein kokapen ideologiko aterako zuen erabaki eta ondoren bertsoa(k) pentsatzen hasi. Baina hori guztia, bere ondoan eta paraleloan ariketa berbera egiten ari zen bertsolariarekin deus kontrastatu gabe. Horregatik, hainbat bertso oso on entzun baditugu ere, zailagoa izan da bertsoaldiak osorik hartuta borobilak izatea. Barne-borroka asko izan direla esango nuke: azkar, ondo eta modu konpenetratuan ebazteko, gehiegi. Asmatu dutenean, "orain eta hemen" premisari jarraiki, egiazko elkarrizketa terrenalek funtzionatu dutela ongien esango nuke. Norbere ikuspegi deontologikoa maila diskurtsiboan adierazia ez baizik pertsonaien hitzen atzean sumatu izan denetan.

Zentzu horretan, zortziko nagusiko ariketan bertsoaldi borobilagoak entzun ditugu bigarren itzulian, ez kasualitatez. Pertsonaiaren posizio ideologikoa gaiak berak markatuta, bertsolariari beldur handi bat aurrezten zaio: bere kokapena entzuleak ongi ulertu eta ongi hartuko duen. Eta bi bertsolariek, hasieratik, norbera eta bestea nondik abiatzen diren jakitea lan asko aurreztea da. Behin zama horiek kenduta, ertzak hobeto marraztu dituzte bertsolariek, onkeriaren mugatik aldenduago ikusi ditugu, eta testu aberatsagoak entzun.

Honen guztiaren harira, antzerki munduak egiten duen bereizketa bat ekarri nahi nuke bertsogintzaren azterketara. **Testua, kontestua eta subtestua bereizten dira antzerki obrak aztertzen direnean**. Kontestua, testuan ageri diren ekintzak inguratzen dituzten zirkunstantziek osatzen dute, istorioa garatzen deneko uneak eta inguruneak. Horrek emango die zentzua –edo ez– pertsonaien hitz eta ekintzei. Subtestua, berriz, testuaren azpian inplizituki gordeta dauden ideia eta emozioak dira. Subtestuak eragingo du testuaren zati bat hutsala izatea edo erreala eta zentzuz betea. Subtestua lantzeko, gisa honetako galderak erantzuten saiatzen dira antzerkian: Zer gatazka dago/daude eszenan? Nola sentitzen da pertsonaia? Zerk darama pertsonaia modu horretan jokatu eta erantzutera? Zer helburu lortu nahi du? Eta abar. Subtestuak egiten ditu, beraz, pertsonaiak konplexuago eta argumentuak eta istorioak interesgarriago. Pertsonaiak ez dira hitzekin bakarrik mintzo, hitzen intentzionalitatearekin ere mintzo dira. Esaten dutenak esaten ez dutenak adinako garrantzia izan dezake. Subtestua da iceberg-aren alde ezkutua,

eta testua guztion bistara dagoena. Subtestua da pertsonaiaren eta bera inguratzen duten zirkunstantzien barne-mundua. Eta hor kokatzen dira emozioak, ironia eta borroka gordeak, besteak beste. Subtestua elikatzen artistak (izan) dira, bereziki, Sustrai Colina eta Maialen Lujanbio.

Iceberg-aren alde ezkutuan kokatzen bada ironia, umorera bideratutako zortziko txikiko gaiek iceberg-aren traza izan beharko dute. –Bidenabar, esan dezagun bilatu beharko dugula noizbait moduren bat, bertsolariengandik ariketa bakoitzean tonu jakin bat espero ez izateko manera, oso mugatzailea eta bertsolarien intentzioa asko pobretu dezakeen joera baita hori.– Hau esanda, iruditu zait gai-jartzaileek ez dutela asmatu zortziko txikiko gaiekin. Areago, iraultza-tresna handienetako bat umorea dela azpimarratzen den garaiotan, bizitza errealean esanguratsuak diren egoerek izan behar luketela abiapuntu, besterik gabe irrigarriak diren egoerak izan beharrean. Pertsonaien arteko benetako gatazka bat (edo gehiago) inplizituki azaleratzen duen gaia litzateke, nire ustez, iceberg-a bere osotasunean plazaratzeko modua. Bizitzari buruz pertsonaiek duten ikuspegia, dituzten harrotasun, harrokeria, min, zauri, inbidia, poz eta abarrak bizi-bizi adierazteko. Jone Uriak bulego-garbitzailearen roletik *oraindik ez dut lortu ondo konprenitzen / nolaz zauden zu bertan eta ni garbitzen* borobil haren antzeko gehiago entzuteko aukera izan dezagun.

Bakarkako gaietan, ez dakit ziur zer premisaren gainean ezarri dituzten gaiak gai-jartzaileek. Halako **tonu intimo bat eta emozio bat partekatzen dute gai guztiek**. A priori oso pertsonalak dirudite, baina asmatu egin behar pertsonalari dimentsio sozio-politikoa ere ematen. Ez zaie beti erraza egin bertsolariei gaiak aipatzen zuen emozio hori zein iceberg-etan kokatuko zuten erabakitzea. Une batzuetan pertsonaiak gatazka tragikoetan kokatu dituzte, publikoarengana iristeko bestelako biderik ez zutelakoan, seguruenera. Beste batzuetan, ni-tik hurbilegi sentitu ditut, eta uste dut finalerdietan ni-tik haragoko istorioak eraikitzeko determinazioa izan behar luketela bertsolariek, baldin eta ni hori oso pertinentea ez bada bederen. Istorio pertsonala istorio politiko edo istorio unibertsal bilakatzen asmatu dutenak izan dira, nire ustez, interesgarrienak.

Amaitzen hasteko, **denboraren perspektiba** aipatu nahi nuke, gutxiegitan izaten baitugu kontuan txapelketetako bertsoak aztertzen ditugunean. Eta ez da marko txarra, arlo batzuetan izan dugun garapenaz ohartzeko. Iruñeko zortziko txikiko

"barazki biltegian atera ezinik geratu zirenek" gogora ekarri zizkidaten, duela zortzi urte, Donostian "saunan atera ezinik geratu zirenak". Gaia entzutean, esan nahi dut. Baina ez gaude orain zortzi urteko leku berean, eta bertsolariek erakutsi zuten hori. Bestalde, Amurrion "mamografia egitera joan ziren bi emakumeek" ez zuten gehiegi asmatu egoera hori bizi duten emakumeek sentitzen dutena islatzen. Baina gaia bera, nola bertsolariek hala entzuleek, egokitzat jotze hutsa aurrerapausoa da denboraren perspektibatik. Ez beharbada hainbeste epaileen ikuspegitik, baina bai entzulearenetik. Hasierara itzuliz, infoxikazioaren eta eskakizun ideologiko orotarikoen garaiotan, zama guztia bertsolariengan ezartzen baita. Eta publikoaren erreakzioarekin exigenteagoak izaten hasteko garaia ere bada, beharbada.

Azkenik, eta ez naiz ni epaileen puntuazioei begiratu zalea, baina **ez diot itzuri egin nahi zenbait bertsoren hizkuntzazko akatsek puntuazioan izan duten eragin eskasari**. Eta ez nabil Lujanbioren bertso gogoangarri haietan mamuak ikusten ari zen haren bide beretik. Bertsoak une batzuetan behar duen malgutasuna onartuta, doinu, neurri eta errimarekin batera, testuaren euskara-mailak ere gutxieneko baldintzen artean egon behar lukeela esango nuke. Erabiltzen den hizkuntzak berebiziko garrantzia du bertsoan eta hori puntuazioan islatzea eta potoak bezala, zenbakitan izango duen eragina finkatzea, beharbada luzera emankorra litzaiguke.

Aldian-aldian exigenteagoak dira txapelketak eta, denborak erakusten du, unean-unean aipatutako bainak baina, asko izaten direla txapelketa bakoitzak utzitako maila bikaineko bertsoak. Finalerdi hauetan ere, uneko exigentziei erantzunez izugarrizko lana egiten ikusi ditut bertsolariak. Denboraren perspektibatik are gehiago baloratuko ditugunak, seguruenera ere.

ANOMALIA

MANEX AGIRRE ARRIOLABENGOA
BERTSOLARIA
2017-12-21

Testu honetan zera egingo dut: txapelketak gaur egungo euskal kultura-sisteman duen lekua ulertzeko saiakera bat. Eta, gero, saiakera horrek ez duela balio esango dut.

Bektore bakar baten bidez irudikatu beharko bagenu euskararen kultura-hezurdura (jakinda bektore bakarrak ez duela balio, gehiago daudelako, eta, beraz, jakinda gaizki esplikatzen hasi garela. Baina ez dezadan bukaera aurreratu), bektorearen alde batean jarriko genuke hizkuntza gutxituaren estatus berezia, hemendik aurrera "ez normala" deituko duguna, eta beste aldean hizkuntza normalizatu baten estatus arrunta, hemendik aurrera "normala" deituko duguna.

Ikuspegi hau adibide batzuekin ilustratze aldera: "ez normalaren" aldean kokatuko lirateke hizkuntza gutxitu batean presentzia noranahikoa duten faktore soziolinguistikoak, eta faktore horiek hizkuntza horren kultura-sisteman duten eragin estrukturala. Beste aldean, "normalarenean", kokatuko genituzke faktore kultural hutsak, inolako interferentzia soziolinguistikorik ez luketenak.

Hizkuntza gutxitu bateko kultura-sistemaren parte bazara, parte zaren sistema horri zilegitasuna, balioa eta aitortza ematen botako duzu izerdia (hala bota dugu guk, eta botatzen dugu egunero). Hau da, antzezgai, kantagai, idazgai duzun ardatz hori bektorean "ez normaletik" "normalerako" bidean mugitzen saiatuko zara.

Txapelketa zer den, eta bertso-mugimenduaren barruan zein pisu izan behar duen jendeari esplikatzen pedagogia-intentzio sanoa izan dugu bertso-munduaren jiran gabiltzanok (erlatibizatzen zenbat ahalegin, bertsozale-zonbi saldoaren beldur edo) baina, egia esan, gero norberak aukeratzen du beretzat zer den eta zer ez. Elur-bola bera bakarrik hazten da. Beraz, eta ondorioz, bakoitzak aukeratzen du "ez normal – normal" bektorearen zein koordenadatan kokatu txapelketa.

Nire ustez, aurtengoak bektorearen erpin normalera apur bat gehiago gerturatu garela erakusten duten inoiz baino adierazle gehiago izan ditu. Zerrenda luzea izan daiteke: sare sozialetako *hater*-ak, kritika espezializatuaren zorroztasun eta pisu gero eta handiagoa, bertsolari batzuek konbentzioei eta *politness* kulturalari (komunitateari) ihes egiteko erakutsitako grina esplizitua, zenbaiten aldetik masa-kulturaren onarpen-mailara (kultura gutxitu batean halakorik egon daitekeela bai baitakigu, askok kontrakoa uste arren) gerturatu ahal izan diren mezu eta diskurtsoak detektatzeko gogoa, e.a.

Ez normalaren erpinera ainguratzen gaituzten adierazleak hor diraute, ordea: txapelketako saioen banaketa geografikoan egindako apustua, euskal instituzio eta hedabideek hizkuntza-arrazoi bistakoengatik eman dioten garrantzia; txapelketan aurrera egin ahala saioek, jende kopurua igotzeaz bat, beti hartzen duten komunio eta liturgia kutsua, "zer garen" erakustekoa (aukeratu egun bat, txapelketa urteko abenduan, Durangoko Azokaren eta BECeko finalaren arteko egunetan baino euskaldunago sentitzen zarena), sare sozialetako hainbat iritziren eta hainbat kritika espezializaturen aurreko komunitate-defentsa lotsagarri samarra.

Beraz, horra hipotesia: bektorean gero eta eskuinerago goaz. Gero eta normalagoak gara.

Baina hipotesi hori gezurra da. Hemen esandako guztiak ez du ezertarako balio, total, txapelketa anomalia bat baita, eta anomaliaren erpina baita BEC. Bektorea kurbatua da, ez zuzena. Gaizki goaz ez badugu gogoratzen (harrokeria eta lotsarik gabe, hala delako eta listo) bertsolaritza, espresio-bide bezala eta gizartean duen artikulazioa kontuan hartuta, bakana dela (oh!), eta bakanago egiten duela hizkuntza bakar batekin (gure kasuan, badakizue, euskararekin) siames lotura izateak. Eta hizkuntza bakar hori gutxitua bada, ezinezkoa da "ez normal" erpineko faktore soziolinguistikoak ahaztu eta bektorearen alde "normaleraino", besterik gabe, lerratzea.

Erremediorik gabeko distantziakidetasunera garamatza horrek. Eta batzuetan min ematen digu. Posible da liturgia-kutsurik gabeko txapelketako saiorik? Ez. Txapelketako saioak euskal komunitatearen hezurmamitze eta festa hutsa dira? Gaur egun ez, eta ez dira inoiz izan (bertsozale kritikoak onberatasun gutxi izan

du tradizionalki, beste gauza bat da tabernan jardun duela batik bat). Posible da txapelketako saio bat zer garen ahaztuta ikustea? Oraindik ez (egongo dira aitzindariren batzuk igual, salbuespen ondradu paperean), eta ez dut esango inoiz ez denik izango: profetei utziko diet lan hori.

Beraz, norberak koka dezala bere posizioa bektorean, baina ibili zuhur: kurbatik jausten denak min hartzen du. Nik, aitor dut, e(u)skizofreniko ibili naiz, marra okerraren gainean atzera eta aurrera, aurtengo irailetik abendura: sormenaren kritika estetiko hutsak dakarren gozamenean batzuetan, eta gutxituaren poz arraro horretan kulunkan besteetan.

GURE BURUAREN KONTRA, GURE MUNDUAREN ALDE. Finaleko bertsogintzaz gogoeta bat

IÑAKI AURREKOETXEA ARKOTXA
EPAILEA
2018-01-08

Joan dira egun batzuk egun magikotik. Finalaren zurrunbilotik urruntzen hasi gara, baina orduko irudi batzuek burrunba egiten digute oraindik; ez zaizkigu berehalakoan ahaztuko. Jon Maiak biharamunean idatzia da BEC erresonantzia kutxa dela, eta irudi polita da, aproposa erabat, han entzun zirenek gure memorian hartzen duten oihartzuna berezia baita, berezia eta iraunkorra.

Lan honetan kutxa hartan kantatutakoa aletzen ahaleginduko naiz, bertsogintzari finalak ekarri zionaz zertzelada batzuk ematen, mamia mamurtuz. Baina utz iezadazue mamiari azaletik heltzen. Testuak asko baitu inguru-testutik. Eta hasierako agurretako asmoen aitorpen eta kokatze-saioetan, 9 ordu geroago txapela jantziko zuenak ezin modu bakan-beteagoan adierazi zuen nor garen, non garen eta zein duen egitekoa bertsolariak:

Gehiegi izan nahi gabe
eta garenaren jabe
gure ideia ta ahots
kaixo denoi hemen gaude
hain haundi dirudien hau
hain txiki hormaz bestalde
hemen hizkuntza hain sendo
hor kanpoan hain ahalge
herria trinko egin nahiz
trinko diot ez artalde
gu ere hala baikara
bakarkako eta talde
hau borroka neurtu bat da
barkatu apustuzale
gure buruaren kontra
gure munduaren alde. (bis)

Gure munduaren alde, beste munduek ikus gaitzaten. Eta gure buruaren kontra, izan ere bertsolariaren burua baita bere arerio bakar bertsotan ari dela. Bikain prestatua joan da finalera bertsolaria, urduri bezain gogotsu dago erakusteko eta egingo du buruak laguntzen badio, orain eta hemen. Zazpi buru ahaltsu lan eta lan eta, azkenean, gehiago, sarriago asmatu duenaren gainean txapela.

Goizean erkinetik erpinera, bide gorabeheratsuak

Ofiziotako lanean arrazoiak kateatuz bertsoaldia garatzeko bidea hartu behar du bertsolariak, nahiz batzuetan, zortziko nagusiko lanean bezala, gaiak oposizio markatuan jartzen dituen. Lau bertsoaldietan ikusi nuen erritmo oso ona eta elkarrekin bidea egiteko konpromisoa.

Elkarrekin bidea egiten ondoen asmatu zutenak Lujanbio eta Agirre izan ziren. Lujanbiok bizi ekin zion finalari, hasieratik arrazoiak xehetasunekin lotzeko intentzio garbia zuela erakutsiz: "Real Sociedad SA-ri ta / txinoei salduta nago / ta honezkero ze inporta zait / pixka bat salduxeago". Agirre eusten ari zen: "diru beharrik izango banu / egingo nuke agian". Ez zen gairik erosoena izango Lujanbiorentzat futbolariaren azalean garatu beharrekoa, baina gustura aritu zen, eta elastikoa ikusi genion parekoari, zuzenean aipatu barik. Arrazoia sinesgarriagoa baita detaile txiki horiei esker: bederatzia bizkarrean. Eta lesio hitza erabili gabe, "baina hautsi ezkero belauna edo / zartatu iztarreko mintza / Unai, esnatu laburra da ta / futbolarion bizitza". Azken arrazoiari indarra ematen dioten aukera txikiak. Maialenek finaleko lan guztietan asmatu zuen xehetasunen langintzan. Ertzen bilaketan. Bertsoaldia amaitzeko ere, Unaik urtebetean nornahik bizi osoan adina irabazten zuela gogoratu ondoren, berdin:

> Nahikoa diru badezu behintzat
> hortan ez zera labaintzen
> nik hala ere segitu nahi det
> banku kontua bikaintzen
> ta hor azaltzen naiz kremekin edo
> txanpuaz ilea zaintzen
> futbolarioi ez digute ta
> pentsatzearren ordaintzen.

Azken honen errima ere bada aipagai. Lau oinak aditzak izanik, hoskidetasunean sakontzen du, pobreegi ez dadin gelditu. Burua fresko ekin zion, deskuiduei tarterik

utzi gabe. Tourmaleten gora Indurainek nola, erritmo bizia jarri hasieratik eta gora, datorrela atzetik ahal duena.

Lehendabiziko lan honetan Mendiluzeren lana ere aipatzekoa da, honek ere asmatu baitzuen bertsoak zentzuz eta koherentziaz kargatzen. Gainerakoen lana gorabeheratsuagoa izanda, egokitutako rolari zukua atera ezinda bezala, arrazoi ederrak entzun ziren tarteka, Sustrairena esaterako: "nik ez nuke nahi jendarte oso bat / telebistak lelotuta / nahiago ditut norbanakoak / autodeterminatuta". Oso ona iruditu zitzaidan ere Elortzaren amaiera, euskara elkartea profesionalizatu ala boluntarioen esku segitu eztabaidan zela Sarriegirekin: "bat edo beste dikotomian / gabiltza ohi dugun gisan / eta ez dakit zer dela eta / ezin duten biak izan. Esaten ez dena esaten denaren osagarri. Zer da ba Bertsozale Elkartea bera?

Zortziko txikian lan borobilagoak entzun genituen. Lautik hiru bai. Elortzak eta Lujanbiok elkarrizketa bizia eta aberatsa josi zuten igogailuan, lehenak bigarrenaren sexu-jolasen hotsak ederki aditu ostean gauean. Hona azken puntu edo puntu pareak jarraian, Elortza hasita, erantzun-mailaren erakusgarri: "kendu ezazu tonto / irriparre hori"; "zuk berriz behakoa / serioa duzu / duzun inbiri horrek / zimeldu zaitu zu"; "sexua suerte dela / hala dizut entzun / ta antza dena zeuri / tokatu zitzaizun"; "baina bart zure kabuz / al zenuen ekin / gure etxeko efektu / espezialekin?" ; "ta zeinek esan dizu / ez nuela egin?"; "zer nolatan zabiltzan / bisaia da juez / egin igual ein zendun / baina gozatu ez". Maialenek erpin berria jo zuen, Igorren hasierako behakoa eta azken galdera lotuz.

Agirre eta Sarriegi aita-semeak gailu elektronikoarekin erantzunak erantzunari josiz aritu ziren. Sarriegiren "ta oraindik ez du pasa lehenengo pantaila" bigarren bukaerak joko polita eman zuen bertsoaldian. Colina eta Mendiluze ere bikain, autoan giza-hezurrak zeramatzanaren eta poliziaren paperean. Colina hobeto bidea irekitzen betelanean baino, eta Mendiluze oso dotore betelanean zein amaieretan. Gaztelumendik eta Arzallusek, ostera, ez zuten asmatu artaldearen gaian, hasieratik deseroso moduan. Arzallusen oinek ere ezintasun hori azaleratzen ote zuten.

Puntuei erantzuten ez ziren bikain ibili bertsolariak. Nire ustez, Lujanbiori ez beste guztiei erori zitzaien hirutik bat gutxienez. Arzallusen kasuan, gustatu zitzaidan "ta argindar fakturak / etxean eztulka". Ez ordea amaiera: "gu tranpan jausi eta / beraiek disfruta". Aditzaren infinitiboa batzuetan jan egiten da nahieran, eta Arzallusek

birritan egin zuen lan horretan. Sarriegik lehenengoan bota zuen bere *erkin*, goizeko hirugarrena harrezkero; aurretik Elortzak eta Lujanbiok erabili ondoren, Sarriegirena oso behartua: "hemen portatzen dira / gaur nahikoa erkin".

Goizeko azken ofizioan, hamarreko txikian, gura baino beheragotik jarraitu zuten bertsolariek, erkin antzean. Sarriegi ez, baina. Greba ondorengo egunean irakaslearen azalean kantatzea egokitu zitzaion Lujanbiorekin, eta berez irakasle denak ondo asmatu zuen hezkuntzako murrizketen berri ematen eta ondorioez ohartarazten. Lujanbiok atzetik eutsi zion, erori gabe, baina pisua Sarriegiri utzita bezala, atseden hartzen balego legez, bere bigarren *erkin* botata, zuzen, hirugarren erpinera bidean.

Beste bertsoaldien artean Colinaren eta Arzallusena nabarmendu nahi nuke. Ez zitzaidan bat ere gustatu. Musutruk jotzeko eskatu dieten musikariak ziren, eta hasieratik hartu zuten biek ala biek borondatezko lana eurena baino ez balitz bezala: zerbeza jartzen duena, baflea jartzen duena (Colina) eta euskara elkarteko funtzionarioa (Arzallus), denak kobratzen eta musikariak debalde. Ados? Ez. Ez da sinesgarria. Ezta justua ere. Nire iritzia da, noski. Eta ideia horretatik abiatuta josi zuten bertsoaldi osoa. Ekarpenetik oso urrun ikusi nuen lan hori. Alegia, bestelako azterketa teknikoetan sartu gabe, arrazoiketan ez zutela bat ere asmatu.

Kartzelako lanean ere gorabeherak. *Atetik sartu zarenean, isildu egin dira denak*. Lujanbiok maistra lan berri bat oparitu zigun, Gabon gaueko afarira agertu den alaba ardi beltzaren azalean. Lekurik ez daukat lantxo honetan bertsoaldi horren bertuteak aletzeko. Oso azkar osatu zuen xehetasunez betetako istorio borobila. Berriz entzun eta gozatzeko gomendioa baino ez dut emango. Antzekoa Mendiluzeren lanari buruz. Doinu berri baten, erdiko esaldi errimatuak bikain lotuta gainera, hau ere Gabon gaueko afarira zazpi urteren buruan agertu den semea. Etxekoen harrera isila bezain hotza ikusita, amari musu eman eta alde egingo duena. Bikain. Mendiluzek Tourmalet gaina harrapatua zuen, Lujanbio zain zeukan, eta gainerakoak azken kilometroko pankartapean oraindik.

Lan oso onak izan ziren ere Sarriegi, Gaztelumendi eta Colinarenak ere. Sarriegik, beste behin irakasle azal ezagunean sartuta, kritika zuzena egin zien irakasle-gelan gazteleraz mintzo ziren kideei, sinesgarri, erdiko bertsoan oinak behartuegi bezala baina ondo borobilduta. Gaztelumendik ere sinesgarri eta ondo borobilduta kontatu zituen ikasgelan sartu berri zen gaztetxo marokoarrarenak, bigarren bertsoan zehar

perlaren bat utzita: “diferentea naizela / zuei dizuet nabari”. Colinaren testua bikaina zen, bigarren bertsoaren amaierako irristadatxoa kenduta, eta ederto kontatu zuen bere doluaren aurrean lagunek, pertsonek oro har, nola desberdin erreakzionatzen duten, dugun. Ez dut uste, baina, aukeratutako doinuak mesede egin zionik. *Itzaltzuko bardoa*ren egokitzapena zen eta gora egin beharrekoetan oso behartuta sentitu genuen. Doinu egokiarekin gehiago luzituko zuelakoan nago.

Doinuaren nota gorenetan behartuta sumatu genuen Agirre ere. Eta Kataluniako gaia hartuta, lehen bertsoko errima progresiboa azpimarratuko nuke: aukeran, hegan, bete lan, kartzelan, gelan, Bruselan. Konparaziorako, txistukariak (x, s, z, ts, tz, tx) nahieran nahastuta baino askoz gozoago sartzen zaizkit.

Elortza eta Arzallusen lanak zezaketenetik urrun geratu ziren. Elortzaren medikutarako joan-etorri eta etxeko sartu-irtenekin despistatu egin ginen eta ideien kohesio falta nabaritu zitzaion. Horrez gain, ez dut uste Igorri ere doinu hark on egin zionik, hau ere goiko notetan behartuta sumatu nuelako. Arzallusen kantaera, aldiz, bikaina izan zen, doinu zahar tragiko eta luzatuari ederto zegokiona. Neurri txikian ere bakarkako lana luzitu daitekeenaren froga. Pena honek ere ez zuela asmatu gaiaren sinesgarritasunean. Ez genuen ulertu etxekoak zergatik geratu ziren isilik, *moro* izateak gizartearen aurrean bihurtzen bazuen susmagarri, eta ez zuen lana borobildu. Azken bukaeran are gehiago despistatu gintuen, “neri korapilatzen / hasi zait mingaina” amaitu zuenean, justu errepikatu beharreko azkenaurreko puntuan hitzen ordena aldatu ondoren. Ez zen gustura aritu Arzallus goizeko saioan, azken horrek irudikatu zuen gisan.

Arratsaldean olatua hartu nahian

Ez da erosoena izango bertsolarientzat finaleko bazkalordua. Atseden hartu beharra, baina tentsioa puntuan mantenduz, eta hori guztia antzeko zereginean daudenekin konpartitu; eskerrak lagun-taldea diren. Batzuk eguerdi lasaiagoa izango zuten, besteren batek jan ere ez zuen egingo, eta pasilloan buruari adina buelta emango zionik ez zen faltako. Baina baloratzekoa eta benetan eskertzekoa da nolako jarrerarekin oholtzaratu ziren arratsaldean. Hori da hori BECeko entzulearekin enpatizatzea! Jendeak gehiago nahi zuen, eta bertsolarien agurretan bi ziren kontzeptu nagusiak: etortzekoa zen eztanda eta olatuaren aparrean murgiltzeko desioa. Finala gozatu beharraren kontzientzia ere bazuten zortzi artistek. Saio laburragoa da arratsaldekoa. Buruz burura orduko hiru ariketa baino ez daude, eta

goizean baino zailagoa da puntuetan tartea egitea edo jatea. Oraingoan, epaileen puntuazioari erreparatuta, arratsaldeko saioko lehenak zortzigarrenari ateratako aldea goizeko lehenak bigarrenari ateratakoa baino txikiagoa izan zen.

Seiko motzeko ofizioan ekin zioten lanari berriro. Ariketa honetako gaien ezaugarria da ez dituztela bertsolariak oposizio markatuan jartzen, ezta abiapuntu bereko elkarrizketa hutsean ere. Elkarrizketa abiapuntu bera dirudien egoera baten planteatzen zaie, baina batek besteari zerbait proposatu edo iradoki izan dion testuinguruan. Hor bertsolarien esku dago proposamena onartuz osatzea elkarrizketa, edo kontra egin eta oposizioa markatu hasieratik.

Lau bertsoaldietatik hirutan, bigarren aukera hartu zuten bertsoaldia abiatu zuten bertsolariek (Elortza, Sarriegi, Lujanbio) eta pareko posizioan aritu ziren bestean (Agirre eta Mendiluze). Badirudi oposizioan jardutea errazago zaiela bertsolariei. Lau ofizioetan planteamenduetan asmatu zutela esango nuke, nahiz emaitzak desberdinak izan. Osoena, agian, Sarriegik eta Colinak osatu zutena. Erantzukizuna jasan ezin duten komertzialak izaki, Colinak bere lehen bertsoan CAF enpresa aipatuta “ta gutxi falta da nire trena / deskarrilatzeko” metaforarekin hasteak mesede egin zion bertsoaldiari, gai lehorra samurtzen asmatu zutelako elkarrekin. Gainera, azkenean Sarriegik sukaldeko lana aipatuta Colinak ederki borobildu zuen, gaurko ogia biharko gosea dela gogoraraziz.

Elortzak zalantzaren bidea hartu zuen Gaztelumendik eutanasiagatik inhabilitatutako medikuaren aldeko sinadura eskatuta, baina azkenean ez zuen asmatu jarrera horretan bertsoaldia errematatzen. Gaztelumendik lan dotorea osatu zuen, bigarren bertso bikain batekin. Lujanbiok ere, portuko zamaketariak zirela, zalantzaren eta ezezkoaren bidea aukeratu zuen Arzallusek armaz betetako kontainerrak kargatzeari uko egitea proposatuta. Ez ikusiarena egiteaz gogoetatu zuen, azkenean eraikitzen ari diren hormarekin lotuz. Ez zuen lan erreza eta horrenbestean atera zuen. Arzallusek ondo ekin zion, armak gero Parisen (geure etxean?) lehertu zitezkeela ohartaraziz, baina nire ustez ez zuen ondo bideratu gero, Maialeni hil eta gero zer janik ez zuela izango erantzunda, ezta “biktimarena eginez gabiltz / piztia laguntzen” amaitu zuenean. Nik ez nuen Lujanbio biktima paperean ikusi.

Agirre eta Mendiluze koadrilakoak ziren; lagun bati haren bikoteak nola hitz egiten zion kezkatuta, Aitorrek harekin hitz egin behar zutela proposatu zion. Arriskua

bazuen gaiak, bi gizonezko izanda gaia nola enfokatu. Ondo Mendiluze, hasieratik izena (eta generoa) jarrita lagunari (Miren). Eta paternalismotik urrunduta, bide egokia hartzen asmatu zuen, neskak berak ikusi behar zuela lehenik eta, azkenean, erabakia harena zela. Agirre ondo hasieran, baina bigarren bertsoa ez zuen luzitu eta honi bai, paternalismo kutsua atera zitzaion azkenerako: "agian zerbait esan behar zaio / bere mutilari".

Ditxosozko puntukako saioa gero. Ez dut uste gustukoena denik bertsolarientzat txapelketa baten, eta epaileontzat puntuatzen zailena da, askogatik. Entzuleari begira oso erakargarria denik ere ez dut ukatuko, eta horregatik irauten duela gehituko nuke. Launa bertso osatuta, hiru bertsoren pisua hartzen du puntuetan (beste ariketen pisu bera izan dezan), eta ariketak eskatzen duen erritmo azkarrak zaildu egiten du gure lana. Bertsolarientzat ere badu arriskua. Zaila da kolpe onez bete eta betelan hutsik gabe amaitzea eta errazegia hanka-sartzeren bat egitea erritmo azkarrak behartuta.

Niretzako lan politena Elortzak osatu zuen, Colinaren laguntzarekin. Bikote hasiberria ziren ezagunez betetako jatetxean. Harro plantak eginda ederto ekin zion, puntu gehienetan ekarpena eginez, eta Colinak ere bide beretik eutsi zion, gero komunera buelta proposatuta eta, borobiltzeko, hurrengo zita etxean egitea hobe zutela esanda. *Baina* bakarra. Elortzaren kolpe baten ostean entzulea txaloka hasi eta Colinak ez zuen berehala jarraitu. 4-5 segundo horiek lartxo iruditu zitzaizkidan eta kontutan hartu beharrekoak. Antzekoa gertatu zitzaion Arzallusi, eta tartea laburragoa izan bazen ere, geldialdi nabarmena izan zuen bertsoaldiak; gainera, amaiera ere baldintzatu zion, lanak amaituta jarraitzear zegoelako. Agirrek ere ez zuen asmatu amaieran, biak makillatzaile izanda eta aurretik aurkezleak eta bertsolariak (eurak biak barne) aipatuta zituztenean, Ametsi zuzenean bota ziolako azken puntua.

Bakarka kantatuz amaitu zuten lehen fasea. Bakoitzak gai bati kantatu behar zion, eta halakoetan aldea izaten da gaietan. Dramatikoegiak ote ziren irakurri izan dut, baina ez nago ados. Baziren umorerako tartea eskaintzen zutenak. Bizitza errealarekin lotutako ertzeko egoerak aukeratu ziren eta, izatekotan, egindako doinuen aukerak baldintzatu zezakeen gaiak seriotik eramatea gehiago. Ez baita lanik errazena neurri luzean umorea garatzea. Colinaren gaia zen umorerako tarte zabalena uzten zuena eta eskertzekoa izan zen urruñarraren lana zentzu horretan, Lehendakariarena eginez behinola zirikatzen zuten klasekide ohien afarian. Tamalez, doinua aukeratzen ez zen fin ibili oraingoan ere, nire ustez, eta tarteka sufritu ere

egin genuen bera entzuten, goiko notetara iritsi ezinda. Hirugarren bertsoko betelan traketsagoak ere penalizatu zuen.

Lan onak edo oso onak izan ziren denak, baina borobil-borobilik ez aukeran. Lujanbiorena hurreratu zen gehien. Pozik ez den amaren gaia egokitu zitzaion –emakume bakarrari, kasualitatez– eta ederto irudikatu zuen bere burua trantze horretan, ahoz gorako gogoetan eta elementuak elementuei lotuz kontakizunean. Xalbadorren doinuetako bat luzatuz berrasmatzea ere eskertzekoa erabat. Akatsen bat izatekotan, momentu baten lau urte eta erdiko harremana aipatu izana umearekin; sinesgaitzagoa egin zitzaidan neuri behintzat, norbere haurrarekin tarte horren luzean mantentzea berak hain ongi irudikatu zuen pozik-triste dikotomia hura.

Gaztelumendiren lana asko gustatu zitzaidan. Eskarmentua badu finalista gazteenak bakarkakoetan, eta bikain egituratu zuen lan berria aurkitu eta familia apenas ikusten duenaren rolean: etxera sartu/irten kontrastean deskribatuz egoera lehenik, etxekoen bizitza galdu/soldata irabazi kontrastea gero eta aurrera egiteko, bikoteari lana utziko duela esaten gogoeta sinesgarria eginez. Mendiluzek lan ederra osatu zuen teknikoki, lehen lau lerro errimatuekin eta hizkuntza bihurritzen teknika bikainaz, nahiz faltan bota nuen azkenean zer ikasi deliberatu zuen jakitea. Agirrek lan polita osatu zuen goizean baino doinu egokiagoa aukeratuta, besteak beste. Arzallusen lanak onetik asko zuen. Hamar urteko umea harreran duenaren paperean enpatia polita erakutsi zuen gurasoekiko, hizkuntza trebe erabilita. Azken bertsoan hirugarren pertsonatik bigarrenerako jauzia behartua iruditu zitzaidan, azken puntuan egin baitzuen; hori eta umeari izena jarri ez izana falta zitzaion lana borobiltzeko.

Sarriegik eta Elortzak txapelketako azken lanak zituzten. Txukun beste behin beasaindarra, eta ondo zain dezatela opa diogu bizitzaren *dantzarrean*. Elortzari gairik zailena egokitu ote zitzaion. Clown ikastaroan izena eman duenaren azalean, horrenbestean aritu zen, betelanean karga gutxiago eskatzen zuen neurrian, kolpe politak botaz. Beti erakutsi du dotorezia txapelketetan eta badu baimena "sudur puntan jartzen zaidan / guztia egiteko".

Buruz-buru azken olatu zoragarrian

Ikaragarri ona izan zen azken txanpa. Txapelerako emoziorik ez izan arren, Lujanbiok eta Mendiluzek biak emozionatu gintuzten. Zortziko handian bakearen artisauak ziren. Doinu berri eta ederra plazaratu zuten bertso-eskola kideek. Euskal gatazkaz

ordurako gutxi entzun bazen ere, asetu zuten entzulea, beste ezein politikari edo eragilek inprobisatu barik ere nekez emango lituzketen titularrak eskainiz: “bidea ez zen Parisen hasi / ta ez da amaitzen Parisen” eta “gu ez garela, ilusioak / egiten gaitu artisau” Mendiluzek; “desarmea eskuz egin genuen / ta bakea eskuz esku”, “laborariak gai izan gara / bi gobernu mugitzeko” eta “pakea ez da inoiz helduko / pakea joatea da” Lujanbiok. Hori guztiori elkarrizketa eta betelan txukunean.

Bide beretik zortziko txikian ere, Lujanbio Mendiluze sei urteko umearen lagun imajinarioa zela. Bide batez, sarritan gehiegi eskatzen ote diogun bertsolari bati, bakarkakoetan umearen ahotik propio ari dela haren mundu-hizkera-pentsakerara lerratu beharraz. Gero eta argiago dut ez dela hiperkoherentziarik eskatu behar, bertsolaria umearen ahotik bezainbeste ari dela beretik kantatzen, eta aski dela erreferentziazko elementuak agertzen baditu bertsoaldiaren sinesgarritasunerako. Gai-jartzaile taldeak umearen lagun imajinarioarena plazaratzen duenean, intentzio horrekin egiten duelakoan. Kontua da oraingoan umeak dagoeneko haren beharrik ez duela esan diola lagun imajinarioari. Erraz aritu ziren, elkarrizketa bizian. Sorgin Maialen, “gero ere beharko dezu / zuk irudimena” edo “azalduko natzaizu / amets gaiztoetan”; ederki eutsi zion Mendiluzek, “ez da zure erruz baina / bukatu egin da” eta “lasai, beste lagun bat / aurkituko dezu” sententziarekin.

Azken kartzelakoan *izerdia* hitza gaitzat emanda osatu behar zuten bertso bat bederatziko txikian. Bertso bat nahikoa ote den bien bertsokera bereiztu eta biekin gozatzeko. Azken ideia antzekoa zutela, Mendiluzek ez du akats txikiena ere egiten, zuzentasuna du ardatz, baina bada keinurik, lotsati baina jostari, eta umorea, eta arrazoi borobila. Norbere besapetik entzuleenetara, eta azkenean “baina denonak ez du / balio bera”. Lujanbio bihurriago aritu zalea da. Hizkuntza bihurritzen du sarri zuzentasun pistetatik kanpo, esaldiak berrasmatzen bezala, baina errimaren gutxieneko progresioa zaindu du eta azken zati antologikoa dakarkigu: “izerdia zer den / zail da esaten zeren / jai eta astelehen / hartuta atseden / besterenetik asko / bizi da hemen”.

Hiru bertsotarako gaia: *Bada ordu erdi auto-bera atzetik duzula*. Bikain Mendiluze, herrigintzan kokatu zen, boterearen begietan susmagarri, teknikan eta arrazoian aberats, zortzi puntuko neurrian ezer soberan ez zuela. Duela lau urteko arratsaldeko Mendiluze berragertu zen, koska bat gora egiteko helburuarekin. Txapela kentzeko moduko txapeldunordea dugu. Txapelak Lujanbioren burua zuelako zain. Eta

hura, burua, azken bertsometraia lantzen ari zen, bat-bateko gidoigile, irudien sekuentzia zinematografikoa ehuntzen. Pastelari ginda nola, azken perla jarri zigun belarrietan. Bezeroaren autoan doa emakumea, erruduntasunari buruz galdezka, eta hara sartu aurretiko Miribillako bueltak deskribatu ostean, autora itzuli eta atzeko ertzainengandik ihesi doa, Bilboko auzo ezagunetatik barrena. Sententzia gisa amaiera zoriontsurik ez, baina gordina, bizitza bezala: "Horrelakoxea baita / gu prostituton papera / irabazten dugula ere / galtzen ateratzen gera". Eta zinema aretoa zutik, txaloka. Beste behin lanok entzun eta gozatu besterik ez zaigu geratzen.

Ez naiz gehiago luzatuko. Azken oharra baino ez. Txapelketan epaile gisa aritu naiz, baina ez nuen finala bera epaitu. Eta neure iritzia ematera mugatu naiz, kritika arrazoitu bat osatu asmoz. Askotan emango zuen epaileen puntuazioarekin kontraesanean aritu naizela. Batetik, kontuan izan haiek bat-batean epaitzen dutela, eta nik orduko ohar eta sentsazioak ardatz izanda ere, denbora izan dudala iritzia osatzeko, sendotzeko bezala egokitzeko. Bestetik, taldean ere balorazio desberdinak direla, bertsoak subjektibotasunetik daukana asko baita, eta guk puntuen batuketa baino ez dugula ikusten. Eta horrela behar du.

Zorionak hemendik finalean epaitu zuten taldekideei, ikaragarri lan ona egin zutelako. Bide batez, baita gai-jartzaileei ere, lan handia baitago aurretik eta emaitza aberatsa izan delako. Eta nola ez, bertsolariei. Txapelketa osoan erakutsi duzuen maila itzela izan da, eta zuen buruei exijitzen diozuen besteko miresmena zor zaizue. Gaizki esandakoak ondo hartu, eta ondo esandakorik balego, gaizki ere ez. Ni ere gure buruaren kontra, gure munduaren alde.

ODOLIK GABE: IZERDIA ETA BERTSOAK

ENDIKA GUTIÉRREZ, *INVERT*
***FREESTYLE* RAPEROA**
2018-01-11

Han bizi izandako zirrara ezingo nuke inoiz zehatz-mehatz definitu. Finalean ikusle gisa bizi izan nuena inoiz ez dut parte-hartzaile gisa sentitu, ezta nazioarteko txapelketa batean parte hartu dudanean ere.

Ekitaldian jendeak erakusten duen errespetua liluragarria da: bertaratutako guztiak eserita daude, batek ere ez du hitz egiten, mugikorren soinurik ere ez... Inprobisazioa jaun eta jabe da, inprobisazioak ezartzen ditu arauak egun osoan, eta publikoak arau horiek onartu egiten ditu, bertsorik onenek beteko duten egunaz gozatzeko, lau urte barru arte ez baita errepikatuko ikuskizuna.

Nire lana *freestyle* edo rap inprobisatua da. Bertsolaritzarekin alderatuta, hizkuntza berbera partekatzen dugu, hau da, gai baten inguruan bat-batean inprobisatzeko gaitasuna. Funtsari helduz, bertsolariek ahotsa besterik ez dute eta 30 segundo dituzte pentsatzeko. Geuk, berriz, raparen erritmoa dugu laguntzeko (90 pultsazio minutuko), baina ez dugu pentsatzeko astirik.

Ez hobea, ez txarragoa; desberdina da. Rap-kantariek dugun egoa eta neurtzeko makila alde batera utzita, agerikoa da asko ikas dezakegula elkarrengandik. Esaldiak osatzeko unean, kalitateak izugarri harritu ninduen: mamitsua zen dena, ideiak maisutasunez lotzen zituzten, ez zuten makulu-hitzik erabiltzen, hizkuntza dotorea zen eta historia ezin hobeak asmatzen zituzten, gaiari helduz eta sarrera, garapena eta amaiera garatuz. Hunkigarria.

Hasiera batean, inbidia on hori sentitu nuen: izugarri gustatuko litzaidake horrelako batean parte hartzea. Nire arloan, inprobisatzen dugunean, beste gauza batzuk hartzen ditugu kontuan, hala nola *punchline* deitzen duguna; bertsolaritzan, *punchline* elementuaren analogoa estrofa ixteko erabiltzen duten azken efektu magiko hori izango litzateke.

Guk ez ditugu zaintzen bertsolariek oinarritzat jotzen dituzten alderdi batzuk eta,

*Artikulu hau jatorriz gaztelaniaz idatzia da. Euskarazko bertsioaren amaieran jatorrizkoa aurkituko duzu.

hori dela eta, asko ikasi nuen finalean, ordu gutxitan. Ikasitakoa oso lagungarria izango zait lanbiderako, baina baita pertsonalki ere, izan ere, Maialen Lujanbiok, agertokitik jaisten denean ere, Maialen Lujanbio izaten jarraitzen baitu; nire kasuan, berriz, Invert agertokitik jaisten denean, Endika bihurtzen da.

Geuk, raperook, ahozko guduei ekiten diegu agertokian eta lehiakidea makurrarazten saiatzen gara; edozertaz baliatzen gara gure lehiakideak izan dezakeen ospe ona zikintzeko. Egia esan, batzuetan gordinegi jokatu ohi dugu eta lehiakideari min egin izan diogu. Baina bertsolariek ez dute horrelakorik egiten: izaera ez da batere aldatzen, aurpegia bera dute, ez diote lehiakideari irainik egiten eta ez dute lehiakidearen izena zikintzen. Bertsolariek beren armarik onenak erabiltzen dituzte, hau da, erretorika, estilo-baliabideak eta hizkuntzarik politena eta sakonena. Helburua, bat-bateko bertso hori betiko bihurtzea eta bat-bateko une horretatik haratago eramatea da, haizeak eraman ez dezan, *freestyle*an gertatzen den moduan.

Finalean, zur eta lur utzi ninduen azken uneak: irabazle izendatu zuten Maialen eta haren aurpegiera ez zen kasik aldatu. Pozik zegoen, baina ozta-ozta ospatu zuen; aurpegierak bere horretan jarraitzen zuen, dotore eta serio, aldi berean. Ezin nuen sinetsi. Gure kasuan, lehiaketa irabaziz gero, erraldoia da zirrara eta pozarren egiten dugu jauzi. Neuk neure burua lurrera bota nuen eta, zirrararen eraginez, negar eta guzti egin nuen, baina bertsolariak lasai daude eta neurriz jokatzen dute, aldartea askatzeko keinurik ere egin gabe. Ondo ezagutzen dut neuk sentsazio hori. Une horietan duzun presioa neurtezina da: urte osoa ematen dugu lehiaketa prestatzen eta emaitza egun horren mende dago. Irabaziz gero, lehertu egiten gara zirrararen eraginez.

Izugarri poztu ninduen *freestyle* arloan orain arte ikusi ez dudana ikusteak: emakume batek irabazi zuen. Gure arloan neska gutxi animatzen dira lehiaketetan parte hartzera eta, hori dela eta, izugarri poztu ninduen neska bat irabazlea atera izanak. Espero dut rap arloan ere hori laster ikusi ahal izatea.

Bertaratutakoen kopuruak ere aho bete hortz utzi ninduen. Harrigarria da, eta horregatik egin nahi dut konparaketa. Ozen esan behar da: 15.000 LAGUN INGURU joan ziren! Kontuan izan behar da EUSKAL HERRIAZ ari garela eta hizkuntzaren egoerak asko baldintzatzen duela ekitaldira hurbilduko den publikoa. Harrigarria da

tradizio honek bere horretan jarraitzea, eta halako oihartzuna eta profesionaltasuna izaten jarraitzea. Konpara dezagun ekitaldi hau *freestyle* arloko 2014ko finalarekin, hots, neuk irabazi nuenarekin: 23.000 lagun bildu ziren. Iberiar penintsula osoko jendea joan zela kontuan hartuta, kopuru hutsala da. Proportzioari erreparatzen badiogu, rap-kantariek gol askogatik galtzen dugu.

Ikusleen zein parte-hartzaileen batez besteko adina ere azpimarratzeko modukoa da. Bertsozaleen batez besteko adina gure oilar-borrokak ikustera etortzen direnen batez besteko adina baino altuagoa da. Niri, adibidez, *El abuelo* edo *aitona* ezizena jarri izan didate, eta 33 urte besterik ez ditut. Oso polita izan da jende nagusia ikustea lehiakideen eta ikusleen artean, bertsoen egituraz eta edukiaz gozatzen ari zirela, itsuskeriarik gabe.

Ez dut hip hop mundua gutxietsi nahi. Lehiaketari dagokionez, gauza batzuk aldatu nahi ditugu, beste gauza batzuei garrantzia emateko, batez ere, kontu garrantzitsuenari: nahiz eta inprobisatua izan, egindakoak luzaroan iraun behar du. Gure aiton-amonak ikusleen artean gu animatzen ikusten ditugunean, gauzak ondo egiten ari garen seinaletzat hartuko dugu. Gaur egun, batez ere, nerabeak etortzen dira gu ikustera, baita haien gurasoak ere, baina azken hauek seme-alabek beren kabuz etortzeko beharrezkoa den adina ez dutelako etortzen dira askotan. Ondo baino hobeto legoke familia osoa gurera ere etortzea.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet zortzi parte-hartzaileei, joan den igandean egin zutena artelan inprobisatu bat izan zelako. Eskerrik asko, berriz ere, aukera profesional asko zabaldu dizkidatelako rap arloan, etorkizunari begira. Eta, nola ez, eskerrik asko hizkuntzaren aldeko zirrara sustatzeagatik eta euskaltegira itzultzeko gogoa berpizteagatik. Neure buruari ezarri nion baina bidean utzi nuen jomuga horri berriro heldu nahi diot, hots, euskaraz ere inprobisatzeari.

Bertsolariak, lau urte barru elkar ikusiko dugu!

Sin sangre: sudor y bertsos
Endika Gutierrez *Invert*

La emoción que pude experimentar no podría terminar de definirla nunca, ya que todo lo que viví en la final como espectador es lo que no he podido sentir ni siendo participante en un campeonato internacional.

El respeto que se muestra durante el evento es majestuoso: todo el mundo sentado, nadie habla, no se escucha ningún móvil... La improvisación es la que manda, la que pone las normas durante todo el día, y el público las acata disfrutando de una velada de los mejores bertsos que no se volverá a presenciar hasta dentro de 4 años. Si quisiera hacer la comparativa en cuanto a mi entorno que es el Freestyle (rap improvisado), debería decir que partimos de un idioma común que es la improvisación con temáticas al momento, en la cual la diferencia principal es que los bertsolaris lo hacen a capela y con unos 30 segundos para pensar, mientras que nosotros lo hacemos sobre un ritmo de rap a unos 90 BPM (beats por minuto) de media y no tenemos tiempo para pensar nada.

Ni mejor, ni peor; distinto. Bajándome de los egos de rapero y de la manera que tenemos a la hora de medirnos pude apreciar que ambos podemos aprender mucho mutuamente. Lo que me sorprendió para bien es la calidad en cuanto a la construcción de las frases: todo con sentido, conectando las ideas a la perfección, sin muletillas, con un lenguaje muy elegante y creando la historia perfecta, ciñéndose a la temática con su introducción, nudo y desenlace... Impresionante.

A priori, tuve una envidia muy sana, me hubiera encantado poder formar parte de algo así ya que en mi mundo, la improvisación, se valoran otras cosas, entre ellas lo que nosotros llamamos el *punchline*, que en el bertso sería el golpe de gracia final con el que se cierra la estrofa.

Nosotros descuidamos muchos aspectos que para el bertsolari son básicos, por lo que en la pasada final aprendí muchísimo en unas horas. En lo que a lo profesionalmente respecta lo que aprendí me va a servir de mucha ayuda, y no sólo en ese aspecto, también en lo personal, ya que Maialen Lujanbio sigue siendo Maialen Lujanbio cuando baja del escenario; en cambio cuando *Invert* baja del escenario se convierte en Endika.

Nosotros, los raperos, una vez subimos al escenario empezamos una guerra verbal tratando de humillar al otro, utilizando para ello cualquier tipo de recurso tratando de desacreditar al contrincante. Y la verdad es que a veces nos hemos pasado de mordaces llegando a hacer daño. Pero el/la bertsolari no; su persona sigue intacta, su cara no cambia, no insulta al compañero/a ni saca trapos sucios. El/la bertsolari utiliza el arma más fuerte que es su propia retórica, sus recursos estilísticos y el lenguaje más bello y profundo para hacer que ese bertso improvisado sea algo que trascienda y vaya a algo más que ese momento improvisado que se lleva el viento con el paso del tiempo como ocurre en el Freestyle.

Un momento de la final que me dejo de piedra fue el ver que al dar a Maialen el título de campeona su gesto seguía entero, alegre, pero sin celebrarlo apenas; intacto, elegante y serio a la vez... No podía ni creerlo. En nuestro caso, cada vez que ganamos una competición, la emoción es tan fuerte que saltamos de alegría. En mi caso me tiré al suelo, y termine llorando de la emoción, pero el/la bertsolari sigue estando sereno/a, manteniendo la compostura sin hacer un gesto de liberación mental. Eso lo digo porque lo sé de buena fé; la presión a la que estás sometido en esos momentos es incalculable: todo un año de preparación depende de cómo te despiertes ese día, y al nombrarte ganador, nosotros al menos, explotamos de emoción.

Me supuso una grata alegría ser testigo de algo que no he podido ver en el Freestyle: ver ganar a una mujer. En nuestro género no son tantas las chicas que se animan a competir y por eso mismo me gustó mucho poder ver ganar a una voz femenina. Ojalá llegue pronto ese día al rap.

Otra cosa que me apasionó fue ver la cantidad de gente que fue al evento. Por ello quiero hacer la comparativa porque me parece increíble. Es para decirlo en alto: FUERON UNAS 15.000 personas! Una cifra relevante si tenemos en cuenta que hablamos de EUSKADI, donde la situación lingüística condiciona el seguimiento del evento. Es increíble que una tradición siga así, con ese nivel de repercusión y profesionalidad. Comparémosla con la final de Freestyle que yo gané en 2014, a la que acudieron 23.000 personas. 23.000 es una cifra insignificante si tenemos en cuenta que abarca a toda la península ibérica; si hacemos la comparación en proporciones los raperos perdemos por goleada.

También he de destacar la edad media tanto de los participantes como de los asistentes. Me asombró mucho ya que está por encima de la de las batallas de gallos. Y eso lo digo partiendo del principio de que a mí me llaman "El abuelo" aunque solo tenga 33 años. Me ha encantado ver tanto a los competidores como a un público más maduro apreciando una estructura bien hecha con un contenido y sin un golpe bajo. No quiero hacer de menos al mundo del hip hop, porque en este sentido estamos tratando de generar un cambio en cuanto a la competición y que se empiecen a valorar otras cosas y dar importancia a lo importante: el cómo hacer que algo perdure aunque sea improvisado. Creo que los raperos sabremos que todo va bien cuando en el público tengamos a nuestros abuelos animando. Actualmente copamos edades adolescentes a las que se juntan papas y mamas, pero muchas veces se debe a que el asistente no tiene la edad mínima; seria genial hacer que toda una familia asistiera también a lo nuestro.

Solo me resta dar las gracias a los ocho competidores porque lo que hicieron el pasado domingo fue una obra de arte improvisada. Darles las gracias de nuevo porque me han abierto un abanico de opciones para mi futuro profesional como rapero. Y volver a dar otra vez las gracias por despertar ese entusiasmo hacia el idioma y las ganas de volver a retomar el Euskaltegi para seguir con algo que me propuse y lo deje en el camino: improvisar en euskara.

¡Bertsolaris, nos vemos en 4 años!

BERTSOLARI TXAPELKETAREN FINALA

KARIN BARBER
ANTROPOLOGOA
2018-01-11

Abenduaren 17an, igandearekin, inoiz ikusitako ekitaldirik liluragarriena bizi izan nuen. Hain zuzen ere, bertsolari txapelketaren finalean egon nintzen. Goizeko bederatziak ziren. Bi ordu falta ziren txapelketa hasteko, baina milaka lagun zeuden Bilbao Exhibition Centre eraikinerako bidean, areto erraldoian eserlekurik onenak eskuratu nahian. Hamaiketarako jendez beteta zegoen aretoa; eserleku librerik ez. Hara hurbildutakoek adi-adi entzun zieten zortzi finalistei egun osoan eta barre egin zuten bertsolarien hitz-trukaketa burutsu eta irrigarrien eraginez; era berean, batzuek negar ere egin zuten bertso sakonek hala eskatu zutenean.

Aspalditik gustatzen zait bertsolaritza. Banekien bertsoak bat-batean kantatzeko herri-tradizioak erro sakonak zituela. Baina, egun horretan ohartu nintzen, lehen aldiz, zein trebeak izan behar duten bertsolariek: metrika, erritmo, forma eta gai zehatz batzuk bete behar dituzten bertso horiek ezin azkarrago osatzen dituzte. Nazio-txapelketa honen helburua gaitasun horiek noraino edo zein muturretaraino iritsi daitezkeen neurtzea da. Atal batzuetan, bi bertsolarik elkarri erantzun behar zioten. Gai bat garatzen zuten edo emandako gai baten inguruko ikuspegiak partekatzen zituzten elkarrekin. Ariketa dibertigarri bat osatuz, lerro batetik bestera bertsolarien txanda aldatzen zen eta ondo-ondotik jaurtitako hitzei erantzun behar zieten ziztu bizian. Beste atal batzuetan, bertsolariak bakarka aritzen ziren, eta emandako gai bati buruzko bertso zail eta sakon batzuk sortu behar izan zituzten. Ariketa horiei aurre egiteko izugarrizko ahozkotasuna edukitzeaz gain, beste baten larruazalean jartzeko gaitasuna ere izan behar dute bertsolariek, ariketetan emandako rol desberdinak betetzeko: batean, adibidez, aita-semeek bideo-kontsolaren jabe izan nahi dute edo, beste batean, bikote lotsati batek beren lehen hitzorduan senide eta lagun guztiekin egiten dute topo jatetxean. Beste ariketa batzuetan, berriz, agertokia eta rola asmatu behar dituzte emandako gako-esaldi batera egokitzeko, besteak beste: *gelan sartu nintzenean, isil-isilik geratu ziren denak* edo *bada 30 minutu auto bat nire atzetik dabilela*...

Txapelketan parte hartu zuten zortzi bertsolariek bide luze eta gogorra egin dute

*Artikulu hau jatorriz ingelesez idatzia da. Euskarazko bertsioaren amaieran jatorrizkoa aurkituko duzu.

finalera ailegatzeko, hilabeteetan tokiko eta eskualdeko txapelketetan parte hartuz. Finala azken gailurra zen eta, ziur aski, bertsolariek dantzan izango zituzten nerbio guztiak. Baina, hala ere, zintzo baino zintzoago jokatu zuten elkarrekin eta hori izan zen, hain zuzen ere, gehien harritu ninduena. Binaka aritu zirenean, elkarlana nabariagoa izan zen lehia baino eta bertsolariek behar besteko informazioa eman zioten elkarri. Elkarren artean moldaketak egiteko eta erantzuteko gaitasunak bidea eman zioten ekitaldiari.

Nola egin zuten? Bada, gaur egun, bertsolariak adituak eta ele-ederrak dira, bertsolaritzaren arteari dagokionez. Trebakuntza, prestakuntza, teknika eta bertso-saioetan jarraitzen dituzten prozesuak xehetasunez azal ditzakete. Hala ere, egiten dutena miresgarria dirudi, ia-ia. Antza, txapelketak berekin dakartzan norgehiagoka, erronka eta baldintza artifizial horiek guztiek, ikuskizuna mugatu beharrean, ikuskizuna sustatzen dute. Sormena eragotzi beharrean, sormena muturreraino sustatzen dute erronka hauek, zeren eta, bertsolariek sortutako poesia ederra, originala, gogoangarria, sotila eta iradokitzailea izan baitzen. Bikainak dira zortzi lehiatzaileak, bakoitza bere estiloarekin. Irabazleak, Maialen Lujanbiok, sakontasun, dramatismo eta indar handiko hainbat agertoki asmatu zituen: drogazale bat, bihozminez eta tristuraz beteriko urte asko pasatu ondoren, familiaren etxera itzuliko da, baina familiak ez dio ongi etorririk emango; prostituta batek ez daki erruduna nor den, bera ala bezeroa, baina jakin badaki bera izango dela galtzaile bakarra. Harrigarria bada ere, Maialenek minutu erdi bat besterik ez zuen izan agindutako gaiaren inguruko hausnarketa egiteko eta, horrekin, egoera osoa, pertsonaia, istorioa eta gaiaren inguruko hausnarketa filosofikoa asmatu zituen. Elementu horiek guztiak, gainera, maisutasunez osatutako eta akatsik gabeko bertso delikatuen bidez eskaini zizkigun.

Aldibereko itzulpengintza-zerbitzua bikaina izan zen eta, horri esker, ekitaldi bikain honen zirrara sentitu ahal izan nuen, nahiz eta euskara ez jakin. Are indartsuagoa izango zen sentimendua metaforak, anbiguotasunak, zorroztasunak eta hitz-jokoak harrapatzeko gai izan banintz, aretoan zeuden milaka euskaldunek egin zuten bezala, esan baitidate elementu horiek Maialenen lanaren ezaugarriak direla, baita bertsolaritzaren berezko ezaugarriak ere.

Zuzeneko inprobisazioa zazpi ordu edo gehiagoz luzatu zen eta egun bizi eta luze hori

amaitu ondoren, argi baino argiago zegoen: bai bertara hurbilduek eta bai lehiakideek ere euskara maitatzen dute. Bertsolarien arteak hizkuntza biziarekiko maitasunean du sorburua eta, aldi berean, maitasun horrek artea goraipatzen du. Ikastetxeetan, borondatezko ikastaroetan, ikerkuntzan, hedabideetan eta antolatutako bestelako ekimenetan (lau urtean behin egindako txapelketa hau barne) landutako sustapena, hau da, hizkuntza honen ahozko artearen sustapena, arrakasta paregabea izan da. Euskaldunek bizirik maite dituzte beren hizkuntza eta beren kultura eta maitasun hori gabe, pentsaezina izango zen hau guztia.

Mila esker Mintzola Ahozko Lantegiari, ikuskizun liluragarri hau bizitzera gonbidatzeagatik.

The bertsolari championship final
Karin Barber

On Sunday 17 December I witnessed one of the most amazing events in my life. The final of the bertsolari championship was taking place. Already at 9.00am, two hours before the competition was due to start, thousands of people were streaming into the Bilbao Exhibition Centre, hoping to secure good seats in the vast auditorium. By 11 am the place was packed: not a seat was left. Throughout the day, the audience listened to the eight finalists' performances with rapt attention, laughing at humorous and witty exchanges, and visibly moved to the point of tears when the verses plunged into emotional depths.

I have long been interested in bertsolaritza. I knew that this was a very popular folk tradition of improvised verse. But until this day, I had not realised how extraordinary the bertsolaris' skills are, or with what incredible rapidity they can create a verse that conforms to stringent requirements of metre, rhyme, verse-form, and topic. The national championship is designed to test these skills to the limit. In some exercises, two bertsolari had to respond to each other, developing an argument or sharing views on a prescribed topic – in one thrilling exercise, they had to alternate on every line, sparking off hilarious quick-fire exchanges. In others, each bertsolari performed solo, rising to the challenge of creating several complex and coherent stanzas on a prescribed theme. These performances involved not only verbal creativity of an

exceptional order, but also the ability to imagine oneself in different situations, for many of the exercises involved playing a prescribed role (as a parent and child competing for control of the games console; as a shy couple on their first date who find the restaurant they have chosen is full of their family and friends…) or inventing a scenario and role to fit a prescribed key phrase ("When I entered the room, everyone fell silent"; "I realise a car has been following me for the last half hour").

The eight competing bertsolari had been through a long and intense journey to reach that stage, through months of local and regional competitions. This was the culmination, and their nerves must have been stretched to breaking point: yet what was most impressive, to me, was that they showed nothing but good will to each other. In the exercises involving pairs, cooperation was more evident than competition, as each bertsolari gave the other clues, and their mutual attunement and responsiveness was what made the whole performance work.

How did they do it? Bertsolari today are often highly educated and articulate about their art, and can explain in detail their method of training, their preparation, their technique and their thought processes during performance. Nonetheless, what they do seems almost miraculous. It is as if all the artificial tests, challenges, and requirements of the competition, instead of constraining the performance, actually inspire it. Instead of impeding creativity, they seem rather to stimulate it all the more strongly. For what the bertsolari were producing was beautiful, original, memorable, subtle and evocative poetry. All the eight competitors were brilliant; each had his or her own style. The eventual winner, Maialen Lujanbio, was remarkable for the depth and dramatic power of the scenarios she evoked: a drug addict who returns to the family home after years of absence, shame and sorrow, only to find she is not welcome; a prostitute who wonders whether the blame lies with the client or with herself, even though she knows that she will be the ultimate loser. It was extraordinary to think that Maialen took only half a minute to reflect on the prescribed topic before she devised an entire situation, a character, a narrative, and a philosophical reflection on the theme, and delivered it in faultlessly smooth and well-integrated verses.

Thanks to the superb simultaneous translation service, I could get an impression of this extraordinary artistry even without knowing Basque – and how much more

powerful it would have been if I could have caught, like the thousands of Basque-speakers present, the metaphors, ambiguities, subtleties and word-play that I am told characterise Maialen's style in particular, and the bertsolari's art in general.

What became very clear during the long and intense day - seven or more hours of live improvisation – was that performers and audience alike love the Basque language. The art of the bertsolari arises from that love of the living language, and also reinforces it. The revitalisation of Basque verbal art - through school programmes, voluntary classes, scholarship and research, media coverage, and organised activities including the four-yearly championship – has been an unparalleled success. None of this could have succeeded without the Basque people's deep love of their language and culture.

I am deeply grateful to the Mintzola oral workshop for having invited me to this wonderful occasion.

DOINUTEGIA

2017KO TXAPELKETA NAGUSIAN ERABILITAKO DOINUAK

Txapelketan bertsolariek erabili dituzten doinuak multzokatu ditugu, lanen arabera. Doinu horietako gehienak, bertsotan bat-batean erabiltzeko modukoak direnak, http://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia webgunean aurkituko dituzu, eta txapelketa honetan plazaratu diren doinu berrien (zerrendan lodiz eta etzanean daudenak)partiturak lan honen amaieran jaso ditugu.

DOINUEN ZERRENDA LANEN ARABERA

ZORTZIKO HANDIA	
Ama Birjina Erkudengoa I	**6**
Beste bateko inularretan	**6**
Beti penetan, beti penetan	**6**
Menditarra naiz eta gogoan	**5**
Goizian goizik jeiki ninduzun I	**4**
Uso zuri bat inguratu zait A	**4**
Haurtxo txikia negarrez dago I	**3**
Egun lanerat abiatu zait	**2**
Manuel Narruk atzo esan dit C	**2**
Garai bateko baserritarrak	**1**
Ilun ikarak azken argia	**1**
Kantore berri xarmant batzuek	**1**
Ludi bizitza abesti gozoz	**1**
Oraindik hango oihartzun hots bat	**1**
Zeru altuan zegoen Jaunak	**1**
ZORTZIKO TXIKIA	
Orioko balearena	**9**
Kantatzera nijoa	**9**
Nere senarrarekin I	**7**
Dama gazte xarmant bat	**6**
Gizona da zoroa	**3**
Igaran egun batez	**2**
Durangotik gorako	**2**

Maritxu nora zoaz I	**1**
Azienda bat dago	**1**
Behin batean Loiolan III	**1**
Gazteak Lizargatez	**1**
Sarasua da gure	**1**
Zeruari begira	**1**

PUNTUA EMANDA (ZORTZIKO TXIKIA)

Haizeak bidali du *(Behartuta)*	*
Orain hasi bihagu *(Behartuta)*	*

PUNTUTAN (ZORTZIKO TXIKIA)

Mendiko umea naiz	**4**
Ezagutu zuenak	**3**
Maritxu nora zoaz I	**3**
Igaran egun batez	**1**
Lurralde dena dabil I	**1**
Ortzian izar ederra	**1**

HAMARREKO TXIKIA

Espainian behera	**7**
Hamalau heriotzena I	**7**
Antton eta Maria I	**4**
Lagundurikan danoi II	**4**
Zer da gaur Donostian	**4**
Lagundurikan danoi I	**3**
Agur sagar beltzeran	**1**
Ai gure antzinako	**1**

SEIKO MOTZA

Aresoarren bandera	**11**
Dozena bat bertso berri A	**5**

BAKARKA

ETAren su-etenetik	**8**
Oso polita zara izatez	**7**
Bazkaltzean gogoa neukan	**4**
Bizkorra ez naiz baina badaukat	**4**
Haizea dator ifarraldetik	**4**
Itsaso hori dago zatarra	**4**
Gaur udaberri bat dabil	**3**
Irun badaukazu zerbait	**3**
Kas pote batzuk, txarroko ura	**3**
Norbere mundu intimo	**3**
Ze ederra ta ze polita	**3**
Apirilaren hamalaua zen	**2**
Baneza eta banitu	**2**
Baserrian jaio nintzan	**2**
Egunkarian ikusi nuen	**2**
Eguzkiak urtzen du han goian B	**2**
Garai hau noizbait helduko zala	**2**
Goizean altxatu eta	**2**
Gure herri ttiki hau da	**2**
Hogei urte baino gehiago	**2**
Laurogei ta hamar urte	**2**
Lurraren pean sar nindaiteke	**2**
Tabuak min direnean	**2**
Albizturtikan Bidaniraino	**1**
Alegeraz kantatzen	**1**
Arratsalde on eta muxu bat	**1**
Atmosferatik atera eta	**1**
Badaukat neska-lagun bat	**1**
Berez ez nekien eta	**1**
Beste bateko inularretan	**1**
Doinu honek izena du	**1**
Esateko ez naiz lotsa	**1**
Etxe bat da leku goxo	**1**
Gai horrek badu mamia	**1**

Gogoan daukat ez du aspaldi	**1**
Gregario edo laguntzaile naiz	**1**
Haur bat izateko nahia	**1**
Hogeigarren urtera III	**1**
Hogeitalaua Gabon gaua da	**1**
Pertsonok ez al daramatzagu	**1**
Izarren hautsa egun batean	**1**
Joan nintzen Irakera	**1**
Kintak jarrita ondorenian	**1**
Kirolarion bizitza	**1**
Lau urtez behin txapelketa	**1**
Munduan libre bizi izateko	**1**
Munduko ilunabarra	**1**
Nehoiz ez da senditzen	**1**
Txikitatikan edukia dut	**1**

BEDERATZIKO MOTZA

Horra sei bertso kale	**1**
Betroiarena A	**1**

AGURRAK

Haizea dator ifarraldetik	**9**
Zer da gaur Donostian	**7**
Betroiarena I	**6**
Inork badakizute	**5**
ETAren su-etenetik	**5**
Nehoiz ez da senditzen	**4**
Kantuz sortu naiz eta II	**4**
Irun badaukazu zerbait	**4**
Amerikatik buelta eginda I	**4**
Txikitatikan edukia dut	**3**
Misiolari baten moduan	**3**
Ikusten duzu goizean	**3**
Gregario edo laguntzaile naiz	**3**
Gizona da zoroa	**3**

Gai honek badu mamia	**3**
Bazkaltzean gogoa neukan	**3**
Baserrian jaio nintzan	**3**
Aita asmo hartu det	**3**
Sortu naiz iparrean II	**2**
Sentimentu asko dauzkat nerekin	**2**
Sagutxo batzuekin	**2**
Norbere mundu intimo	**2**
Naparruatik ardo karraio A	**2**
Nagusi jauna hauxe da lana A	**2**
Mutil koxkor bat itsuaurreko	**2**
Mundu hau uzten bazun	**2**
Motibo bat nigana	**2**
Lagundurikan danoi I	**2**
Konfesatuta hau esateko	**2**
Iparragirre abila dela	**2**
Igo aurretik lasai	**2**
Horra sei bertso kale	**2**
Hil da Canovas fuera Canovas	**2**
Goizean altxatu eta	**2**
Gogoratuko zara	**2**
Gaur udaberri bat dabil	**2**
Dozena bat bertso berri A	**2**
Beste bateko inularretan	**2**
Ama Birjina Erkudengoa I	**2**
Agur Jesusen ama I	**2**
Agur eta ohore I	**2**
Zazpi senideko famili batetan	**1**
Urzapal bat badugu	**1**
Udaletxean badut	**1**
Trumoi ortzi beltzean hoska	**1**
Sorlekua utziz gero	**1**
Sentimentua sartu zitzaidan	**1**
Saltarina da txepetxa eta	**1**
Oso polita zara izatez	**1**

Nahiz zoriontsu oroitzen dedan	**1**
Moteil guk ere garai batean	**1**
Mendi gainetik ekia zaiku	**1**
Manuel Narruk atzo esan dit C	**1**
Lurraren pean sar nindaiteke	**1**
Lo hadi ainguria	**1**
Laurogeita hamar urte	**1**
Lau urtez behin txapelketa	**1**
Agur Zuberoa	**1**
Izarren hautsa egun batean	**1**
Itziarren semea	**1**
Pertsonok ez al daramatzagu	**1**
Itxaspe aldian egin bazan hau	**1**
Hirurogeita beatzi urte	**1**
Hiru urteko pasadizuak	**1**
Hara non dauden	**2**
Hamalau heriotzena I	**1**
Haize hegoak hurbiltzen ditu	**1**
Gure munduko bizimodua	**1**
Gogoan daukat ez du aspaldi	**1**
Geldirik ezin naizela egon	**1**
Ez nau izutzen negu hurbilak III	**1**
Euskal Herriko lur maite hartan	**1**
Euskal Herrian nintzen	**1**
Esateko ez naiz lotsa	**1**
Eperrak baditizu	**1**
Sentimenduak batzutan sartzen	**1**
Agur nik ere agur	**1**
Elizan sartu ziradenian A	**1**
Eguzkiak urtzen du han goian B	**1**
Egunsenti batean	**1**
Egunaren izena I	**1**
Duela hogei urte	**1**
Dozena bat bertso berri B	**1**
Doraemonen kantua	**1**

Doinu honen izena da	**1**
Caballo prieto azabache	**1**
Bizkorra ez naiz baina badaukat	**1**
Bi mila urte pasatu ziran	**1**
Berez ez nekien eta	**1**
Baneza eta banitu	**1**
Azken tragotxo hori hartu	**1**
Aurten mudantza berria	**1**
Arratsaldeon ta aupa zuek	**1**
Arratsaldeon eta muxu bat	**1**
Antton eta Maria	**1**
Anderea gorarik	**1**
Anai zaharren lur gazte	**1**
Aita izena kanta beharrak	**1**
Ai hori begi ederra A	**1**
Ai gure antzinako	**1**
Agure zahar batek zion	**1**

GAUR UDABERRI BAT DABIL

MARTIN ARAMENDI ARANA

Izen hori du 2017ko Txapelketa Nagusian plazaratu den lehenbiziko doinu berriak. Oihana Iguaranek ekarri du bertso mundura. Urriaren 1ean erabili zuen lehen aldiz, Leitzako saioan, hasierako agurrean, eta esaldi horrekin hasi zuen bertsoa, Kataluniako erreferendumari aipamena eginez.

Txapelketa honetan erabili diren doinuei gagozkiela, esan daiteke benetako udaberria, loraldia, bizi izan dugula udazkenean. Oparoa izan da oso bertsolarien ekarria, bai doinu berrietan bai hautatutakoetan. Kopuruei erreparatzen badiegu, txapelketa batean behin ere ez da horrenbeste doinu erabili, eta ez da behin ere horrenbeste doinu berri plazaratu. Ugaritasunean ez ezik, nolakotasunean ere oso aberatsa izan da, eta ekarpen horiek guztiak biltzen eta sailkatzen ahaleginduko naiz lan honetan.

Doinuak zenbakitan

Kontu jakina da garai batean askoz ere doinu gutxiago erabiltzen zituztela; hain gutxi, bertsolariaren izenez ezagutzen baititugu doinu haietako zenbait: Zepairena, Saibururena… Bakoitzak bere doinua zuen. Ez zuten doinu berriak plazaratzeko premiarik izango; zeukatena aski zuten esan nahi zutena esateko, edo zeukatenarekin moldatzen ziren behintzat.

Atzera begira jarrita, aro zaharreko azken txapelketan (1967), 20 doinu erabili zituzten guztira; 1980an, aldiz, 38 eta 1982an 73. Erabilitako doinu kopuruak nabarmen egin zuen gora 1986ko txapelketan: 136; 1989an jo zuen goia, 156 doinurekin. Aipatu behar da 80ko eta 90eko hamarkadetako txapelketetan sari bat ematen zitzaiola doinu gehien erabiltzen zuen bertsolariari lehenbizi, eta gerora doinu berri gehien ekartzen zituenari; horrek ere izango zuen, noski, eragina gorako joera horretan. Hurrengo txapelketetan doinu gutxiago erabili ziren: 1993an 109, 1997an 105, 2001ean 103, 2005ean 110, 2009an 105, 2013an 118 eta 2017an 161.

Beraz, aurtengo txapelketan inoiz baino doinu gehiago erabili dituzte bertsolariek, eta doinu berriak ere inoiz baino gehiago izan dira, guztira 23. Konparazio batera,

duela lau urteko txapelketan sei doinu berri plazaratu ziren, eta horietako hiru —*Oso polita zara izatez, Bizkorra ez naiz baina badaukat eta Norbere mundu intimo*— askotan entzun ditugu eta entzungo ditugu oraindik; 2009ko txapelketan, aldiz, 16 doinu atera ziren, eta erdiak baino gehiago (9) soilik agurretan erabili ziren.

Aire eta asmo berriak

Lau urtetan halako jauzia zerk eragin duen jakitea ez da erraza. Zenbaiti ulergaitza egiten zaio doinutegian hiru mila doinutik gora izanda doinu berriak sortzen eta enkargatzen ibiltzea, baina bertsolariak horretara jo badu, zerbaitegatik izango da: esan nahi duen hori esateko neurri-neurriko doinua nahi duelako, desberdin sortu nahi duelako —bertsolariek eurek esaten dute doinuak eragina duela pentsamenduan, testuan—, sortzen dituen testuei zigilu partikularra erantsi nahi dielako, besterik gabe ekarpen bat egin nahi duelako edo bestelako asmoren bat darabilelako.

Motiboak motibo eta asmoak asmo, kontua da 2017ko Txapelketa Nagusian 23 doinu berri plazaratu dituztela, eta azpimarratzekoa da horietatik gehienak (19) bertsotan, ariketa puntuagarrietan, erabili dituztela. Buruz burukoan, zortziko handiko ariketan erabili zuten doinua izan ezik, beste guztiak bakarkako lanean erabili dituzte. Neurriari dagokionez, aipatzekoa da gehienak berdinen moldekoak direla; hau da, puntu guztiak silaba kopuru berekoak dituztenak. Oraindik orain neurri horretako bi doinu —*Baserrian jaio nintzen/Habanera eta Larogeita hamar urte*— besterik ez zen erabiltzen; orain dozenatik gora dauzkagu.

Jatorriaren arabera, hiru multzotan sailka daitezke doinutegian jaso ditugun doinu edo aire berriak; esan nahi baita txapelketa honetan plazaratu eta bertsotan erabiltzeko modukoak direnak:

1.- Musikari batek bertsolariarentzat berariaz sortutako doinuak.

Zortzi doinu bildu ditugu sail honetan. Logikoa denez, guztiak dira kontakizunezkoak, eta neurri berdinekoak dira gehienak, puntu guztiak zortzi silabakoak dituztenak. Imanol Kamio musikari ereñotzuarrak A. Labururi, U. Agirreri eta A. Mendiluzeri egindako doinuak dira salbuespen; horiek puntu laburrak dauzkate hasieran edo tartean.

- *Ze ederra ze polita.* Nerea Urbizu musikariak egina. J. Sotok plazaratu zuen Leitzan,

kartzelako lanean. Neurri erregularra du, berdinen moldekoa da: hamaseikoa, 8 puntuz eta 8 silabaz.

- *Garai hau noizbait helduko zala*. Imanol Kamio musikariak berariaz sortua. A. Laburuk plazaratu zuen Leitzan, kartzelako lanean. Neurriari dagokionez, 1980ko hamarkadaren amaieran eta 1990eko hamarkadaren hasieran kaleratu ziren doinuen sailekoa da, neurri handikoa eta tartean puntu laburrak dituena: hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz.

- *Berez ez nekien eta*. Pello Ramirez musikariak sortua J. Maiarentzat. Tolosan erabili zuen lehen aldiz, hasierako agurra kantatzeko, eta, ondoren, kartzelako lanean. Neurri berdinekoen sailekoa da: hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz.

- *Tabuak min direnean*. Joxemari Ostolazak egindako doinua, Eltzegor taldearen argitaratu gabeko kopla doinu batetik abiatuta. S. Colinak plazaratu zuen, Bastidan, kartzelako lanean. Hau ere neurri berdinekoen multzokoa da: hamaseikoa, 8 puntuz eta 8 silabaz.

- *Baneza eta banitu*. Imanol Kamiok sortutako doinua. U. Agirrek Irunen erabili zuen aurreneko aldiz, kartzelako lanean. Neurriari dagokionez, badu berezitasun bat: lau puntu motz ditu hasieran, eta segidan zortziko handi bat: hamabikoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz.

- *Doinu honen izena da*. Mikel Markez kantari eta musikariak A. Martinentzat egindako doinua. Irungo saioan atera zuen, bukaerako agurrean. Doinu berria zela aditzera eman zuen bertsoaren lehenbiziko puntuan: “Doinu honen izena da/ oraintxe esan dudana”. Musikariek txapelketa honetarako berariaz egin dituzten doinurik gehienen antzera, berdinen sailekoa da hau ere: hamaseikoa, 8 puntuz eta 8 silabaz.

- *Kas pote batzuk, txarroko ura*. Imanol Kamiok sortutako doinua A. Mendiluzerentzat. Durangoko finalaurrekoan atera zuen, kartzelako lanean. Neurri aldetik *Baneza eta banitu* doinuaren atzekoa da; alde bakarra da haren hasierako 4 puntu motzak 8 silabakoak izatea eta honenak 10 silabakoak: hamabikoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz.

- *Hogeitalaua gabon gaua da.* Hau ere Imanol Kamiok egindako doinua. Finalean atera zuen A. Mendiluzek, kartzelako lanean. Metrikari dagokionez, 1990eko hamarkadaren hasieran kaleratu ziren doinuen multzokoa dela esan genezake; zortziko handi bat da, tartean hiru puntu motz sartuta: hamaikakoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz.

2.- Kantariren baten doinua, bertsolariak moldatua edo egokitua

Kantari baten doinua hartu, moldatu eta bertsotara ekartzea ez da joera berria. Doinutegian begiratzen badugu, adibide asko aurkituko ditugu, gure kantu tradizional asko eta asko bertso neurrikoak dira eta. Atzerriko kantarien doinuak ekartzea, ordea, joera berriagoa da. Azken bi hamarkadetan era honetako doinu ugari entzun ditugu, eta horietako batzuk plazan dabiltza oraindik.

Txapelketa Nagusi batean kanpoko kantari baten doinua erabiltzen lehena Jon Maia izan zen, 1997an; Pata Negra taldearen *Camarón* kantua baliatu zuen arratsaldeko saioari hasiera emateko. Igor Elortzak, 2001eko txapelketan, Manu Chaoren *El Desaparecido* ekarri zuen moldatuta (G*ure lurrean hedatua da*) eta X. Silveirak, 2005ean, Bebe abeslariaren *Razones* egokitu eta *Gure herri ttiki hau da* izeneko doinua utzi zigun. Orobat oso ezagunak dira Jon Maiak berak, 2006an, Azpeitiko gaztetxean egin zen saio batean plazaratu zuen Bod Marley-ren *Redemption Song* doinuaren moldaketa, *Azken tragotxo hori hartu* izenez jaso zena hiru urte geroago; edo Bob Dylanen *Blowin in the wind* abestian oinarritutako *Geldirik ezin naizela egon* doinua. Azken hori Xabi Payak ekarri zuen 2009ko Txapelketa Nagusian, baina ordurako Ander Oleaga bermeotarrak erabilia omen zuen Bizkaiko txapelketaren batean.

2017ko Txapelketa Nagusian era honetako zazpi doinu bildu ditugu; horietatik bost atzerriko kantarienak dira, eta bi euskal kantarienak. Doinu berri guztiak bakarkako lanetan edo agurretan erabili dituzte, A. Mendiluzek eta M. Lujanbiok buruz burukoan atera zutena izan ezik:

- *Gaur udaberri bat dabil*. Ismael Serrano kantautore madrildarraren *Papa cuéntame otra vez* kantua moldatu eta Leitzan plazaratu zuen O. Iguaranek, hasierako agurrean. Bakarkako lanetan erabili du harrezkero. Metrikari dagokionez, azken boladako doinu berri gehienen joerari jarraitzen dio, neurri berdinekoa baita: hamabiko berdina, 6 puntuz eta 8 silabaz.

- *Egunkarian ikusi nuen.* Jaques Brel kantautore belgikarraren *Ne me quitte pas* abestia moldatu eta Bastidako saioan plazaratu zuen I. Elortzak, kartzelako lanean. Finalean ere doinu hau erabili zuen kartzelako lana egiteko. Metrika erregularra du: hamalauko handia. Hainbat doinu ekarri ditu I. Elortzak bertsogintzara, eta orain artekoak neurri laburragokoak izan dira.

- *Irun badaukazu zerbait*. Andres Calamaro musikari eta kantari argentinarraren *Paloma* izeneko kantuan oinarritutako doinua da. Aitor Furundarena musikariak lagundu zion Sarriegiri moldaketak egiten, eta Irunen kantatu zuen lehen aldiz, hasierako agurrean. Saio berean, kartzelako lanean, erabili zuen, baita Iruñean eta Barakaldon ere. Metrika erregularra du, doinu berri gehienen ildo berekoa: hamaseikoa, 8 puntuz eta 8 silabaz.

- *Kirolarion bizitza dugu*. Rosa Zaragoza kantari kataluniarraren *La Voz* izeneko kanta moldatu zuen N. Elustondok ahizparen laguntzarekin, eta Maulen plazaratu zuen, kartzelako lanean. Neurriari dagokionez, berdinen sailekoa da: hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz.

- *Haur bat izateko nahia*. Luz Casal Coruñako kantariaren *Negras sombras* kantua egokitu zuen J. Martinek, eta Amurrion atera zuen, kartzelako lanean. Neurri berdinekoa da hau ere: hamaseikoa, 8 puntuz eta 8 silabaz.

- *Pertsonok ez al daramatzagu.* Benito Lertxundiren *Itzaltzuko Bardoa* izeneko kantua bertso moldera egokitu, hamalauko handira, hain zuzen ere, eta Barakaldon atera zuen S. Colinak, kartzelako lanean. Aurrez, Iruñeko finalaurrekoan, O. Iguaranek kantatu zuen, bukaerako agurrean; molde bihurriagoa erabili zuen, ordea: neurri luzeagoa eta errima askokoa. Horregatik jaso dugu Sustrairen moldea, bertsotan erabiltzeko errazagoa delakoan.

- *Oraindik hango oihartzun hots bat*. Imanol Larzabal kantariaren *Naiari* izeneko kantua da. Bertsotan oraindik erabili gabea zen zortziko handiko doinu hau. A. Mendiluzek eta M. Lujanbiok kantatu zuten, buruz buruko lehen ariketan.

Atal hau amaitzeko, aipatzekoa da Igor Elortzak txapelketari agur esateko erabili zuen doinua. Weezer talde estatubatuarraren *Butterfly* kanta moldatu zuen Igorrek

berak, eta zortzi puntuko bertsoa osatu zuen, molde txikian. Aurrez 2012ko Bizkaiko Txapelketan erabili zuen doinu bera.

3.-Bertsolariak berak sortua edo moldatua

Bertsolariak berak nahi edo behar duen neurriko doinua egitea ere ez da joera berria. Xalbador, X. Amuriza, X. Silveira, A. Mendiluze… Hainbat bertsolarik plazaratu izan dituzte doinuak, eta doinu horietako batzuk erruz erabili izan dira, eta erabiltzen dira oraindik ere. Badira bertsolariak —eta ez gutxi— doinua kantatzen duten aldiro aldatzen edo berritzen dutenak; eta zer ez ote dute egingo beren buruarekin bertsotan ari direnean, txapelketarako edo plazarako prestatzen? Auskalo zenbat doinu pasatzen dituzten buruan, eta batek daki zenbat buelta ematen dizkioten, plazara ateratzeko egokia dela iritzi arte.

Txapelketa honetan bertsolariek eurek sortuta ekarri dituzten lau doinu hauek beste doinu batzuen gainean edo haietatik abiatuta sortuak direla esango nuke; niri behintzat, puntu batzuetan, beste doinu batzuk ekartzen dizkidate gogora:

- *Etxe bat da leku goxo.* I. Apalategik berak moldatu eta Leitzan plazararaturiko doinua, kartzelako lanean. Lehenbiziko puntuek *Gai honek badu mamia* doinuaren antz handia dute, eta neurria ere antzekoa du, Apalategiren hau luzeagoa izatea: hamaseiko ertaina.

- *Joan nintzen Irakera*. O. Barrosok berak egin eta Zallako saioan atera zuen doinua. Oinarrian doinu zahar bat baino gehiago dituela ematen du. Neurri txikiko doinuak erabili zalea da Odei, eta neurri txikiko doinua ekarri digu: hamalauko txikia.

- *Apirilaren hamalaua zen*. N. Gabilondok moldatu eta Zumaian atera zuen, kartzelako lanean. Hamabiko handia da, eta hasieran *Txikitatikan edukia dut* doinuaren antza du.

- *Lau urtez behin txapelketa*. I. Apalategik moldatu eta Durangon plazaratu zuen, hasierako agurrean. Gero, saio berean, kartzelako lanean ere erabili zuen. Doinu berri gehienak bezala, berdinen multzokoa da: hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz.

Doinu berri horiek guztiak doinutegian jasota daude dagoeneko, bakoitza bere

pentagrama, midi eta fitxarekin. Aurrerantzean hor egongo dira, nork hautatuko eta nork aterako plazara. Denborak esango digu zer ibilbide egiten duten, baina pentsatzekoa da, beste hainbat doinurekin gertatu den antzera, batzuk nekez entzungo ditugula berriro, eta beste batzuk, aldiz, bertsolari askoren ahotan ibiliko direla, bere horretan edo eraberrituta.

Zaharrak berritzen

Asko hitz egin da txapelketa honetan doinu berriei buruz, ahalegin eta ekarpen handiak egin baitira, baina ez da txikiagoa izan bertsolari batzuek doinutegiari eman dioten astindua. Isilean zeuden doinu zahar zenbait entzuteko aukera izan dugu, eta *belarri-zapore* ederra utzi digute. Bereziki aipatu nahi nuke Leitzako saioa, han hasi zen-eta gerora bizi izan dugun loraldia, nola doinu berriei hala zaharrei dagokienez. Badakigu zailagoa dela binakako lanean doinu berri bat ateratzea edo zahar bat berreskuratzea; horretarako, bi bertsolariek egon behar dute ados, eta biek ondo jakin behar dute doinua. Urriaren 1ean planeta guztiak alineatu ziren, eta gozatu ikaragarria hartu genuen, agurretatik beretik hasita. *Gure munduko bizimodua, Itxaspe aldian egin bazan hau, Konfesatuta hau esateko, Menditarra naiz eta gogoan, Azienda bat dago, Gizona da zoroa…*

Azken doinu hori —beste batzuk ere bai seguru asko, baina ez dut eskura hori egiaztatzeko daturik — lehen aldiz erabili da Txapelketa Nagusi batean. Zortziko txikiko doinua da izatez, eta J. Sotok hamarreko txikira luzatu zuen Leitzan, amaierako agurra kantatzeko. Xalbadorrek *Odolaren Mintzoa*n jasotako doinua da, *Ene errekontrua* izeneko bertso sortarekin, eta haren emazte Leonik kantatzen du, liburuarekin batera argitaraturiko kasetean. Leitzako saioaren ondoren, hiru aldiz erabili dute zortziko txikiko ariketan, eta hiruretan U. Agirre zegoen tartean: Durangon A. Karrika lagun zuela, Iruñean O. Iguaranekin batera eta Barakaldon A. Sarriegirekin.

Doinu zahar berreskuratu edo gutxi entzunen artean aipatzeko modukoak dira beste hauek ere: *Ameriketatik buelta eginda I, Agur eta ohore I, Nehoiz ez da senditzen* eta *Zeruari begira*. Azken hori M. Artetxek eta O. Iguaranek erabili zuten Durangon, zortziko txikiko ariketan. Txapelketa batean lehen aldiz erabili da; izan ere, nahiko doinu berria da; Iruñeko Bertso Aroko saio batean erabili zuten lehen aldiz J. Maiak eta M. Lujanbiok, saio hartan gaiak jarri zituen Ainhoa Aranbururen ekimenez. *Dues princeses barbudes* talde katalanak sortutakoa da, eta *Gaueko Entziklopedia Koxkorra*

diskoan argitaratua. Doinutegia den itsaso zabal horretan hain dira ezezagunak batzuk, berriak iruditzen baitzaizkigu inork plazara ekartzen dituenean.

Bestalde, azken txapelketetan hainbat bertsolarik erabili izan dituzte doinu zaharrak, bakarkako lanean, beren komenentziara luzatuta edo moldatuta. *Mutil koxkor bat itsuaurreko*, *Haizea dator ifarraldetik*, *Ez nau izuten negu hurbilak III*, *Beste bateko inularretan* — M. Lujanbiok hiru aldiz erabili du aurten; duela zenbait urte O. Pereak erabili zuen—, *Eguzkiak urtzen du han goian, Lurraren pean sar nindaiteke…* Zerrenda luzea da, eta gehiago luzatu behar dugu, beste bi doinu zaharberritu zituzten-eta finalean:

- *Kintak jarrita ondorenian / Kubako gerrarena*. Txirritaren bertsoz ezagutzen dugun zortziko handiko doinu hau hamaseiko handi bihurtu zuen M. Lujanbiok Barakaldon, goizeko saioan, kartzelako lanean.

- *Hogeigarren urtera III*. Zortziko txikiko doinu tragikoa, hamalauko txikira luzatu zuen A. Arzallusek Barakaldon, kartzelako lanean. Mikel Laboaren *Lore sortu orduko* kantua da, eta Joan Batista Elizanbururen hitzak ditu.

Bide interesgarria eta polita da, zalantzarik gabe, doinu zaharrak berreskuratzea eta nahierara moldatzea. Bertsoaldi gogoangarriak utzi dizkigute azken txapelketetan, 2001ekoan M. Lujanbiok *Haizea dator ifarraldetik* doinuan sortutakoetatik hasi, eta aurten sortu dituenetara, *Beste bateko inularretan, Lurraren pean sar nindaiteke* edo *Kintak jarrita ondorenian* doinuak berrituta. Normalean, gainera, doinu berriek baino harrera hobea izaten dute entzuleen aldetik; erraz iristen dira, berehala identifikatzen dira eta lehenengo entzunalditik jasotzen dute entzuleen onespena. Bide emankorra eta zabala da, baina bide guztiek eskatzen dutena eskatzen du honek ere: ibiltzea, aurrera ez ezik alboetara ere begiratzea, eta ezer gustukorik aurkituz gero, probatzea.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet doinuak biltzen, sailkatzen, izendatzen, partiturak sortzen eta beste hainbat eginkizunetan lagun izan ditudanei; hauen laguntza nahitaezkoa izan baita lan hau gauzatzeko: Joanito Dorronsoro, Felix Irazustabarrena, Itsaso Noya, Miren Izagirre eta Oihana Aranburu. Eskerrik asko eta bejondeizuela!

BERTSO DOINU BERRIAK TXAPELKETAN

GAUR UDABERRI BAT DABIL





Gaur udaberri bat dabil

Ismael Serrano kantautore madrildarraren *Papa cuéntame otra vez* kantua moldatu eta Leitzan plazaratu zuen Oihana Iguaranek, hasierako agurrean. Bakarkako lanetan erabili du harrezkero. Neurria: Hamabiko berdina, 6 puntuz eta 8 silabaz.

ZE EDERRA TA ZE POLITA



Ze ederra ze polita

Nerea Urbizu musikariak egina. Julio Sotok plazaratu zuen Leitzan, kartzelako lanean. Neurria: hamaseikoa, 8 puntuz eta 8 silabaz.

GARAI HAU NOIZBAIT HELDUKO ZALA





Garai hau noizbait helduko zala

Imanol Kamio musikariak berariaz sortua. Agin Laburuk plazaratu zuen Leitzan, kartzelako lanean. Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz.

ETXE BAT DA LEKU GOXO



Etxe bat da leku goxo

Iñaki Apalategik berak moldatu eta Leitzan plazaraturiko doinua, kartzelako lanean. Neurria: Hamaseiko ertaina.

JOAN NINTZEN IRAKERA



Joan nintzen Irakera

Odei Barrosok berak egin eta Zallako saioan atera zuen doinua. Neurria: Hamalauko txikia.

APIRILAREN HAMALAUA ZEN



Apirilaren hamalaua zen

Nahikari Gabilondok moldatu eta Zumaian atera zuen, kartzelako lanean. Neurria: Hamabiko handia.

BEREZ EZ NEKIEN ETA



Berez ez nekien eta

Pello Ramirez musikariak sortua Jon Maiarentzat. Tolosan erabili zuen lehen aldiz, hasierako agurra kantatzeko, eta, ondoren, kartzelako lanean. Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz.

EGUNKARIAN IKUSI NUEN





Egunkarian ikusi nuen

Jaques Brel kantautore belgikarraren *Ne me quitte pas* abestia moldatu eta Bastidako saioan plazaratu zuen I. Elortzak, kartzelako lanean. Finalean ere doinu hau erabili zuen kartzelako lana egiteko. Neurria: Hamalauko handia.

TABUAK MIN DIRENEAN



Tabuak min direnean

Joxemari Ostolazak egindako doinua, Eltzegor taldearen argitaratu gabeko kopla doinu batetik abiatuta. Sustrai Colinak plazaratu zuen, Bastidan, kartzelako lanean. Neurria: Hamaseikoa, 8 puntuz eta 8 silabaz.

IRUN BADAUKAZU ZERBAIT
2.- Paloma




9
E - der zau - de Ar - ta - le - ku
10
e - de - rra da i - kus - mi - ra
11
az - ke - ne - an i - ri - tsi da
12
tre - na be - re gel - to - ki - ra
13
bai - na sai - o hau - ek mu - gak
14
ahaz - tu - ta e - gin behar di - ra
15
bi al - de - ak on - do zain - duz
16
e - ta au - rre - ra be - gi - ra



Irun badaukazu zerbait

Andres Calamaro musikari eta kantari argentinarraren *Paloma* izeneko kantuan oinarritutako doinua da. Irunen kantatu zuen lehen aldiz Aitor Sarriegik, hasierako agurrean. Saio berean, kartzelako lanean, erabili zuen, baita Iruñean eta Barakaldon ere. Neurria: Hamaseikoa, 8 puntuz eta 8 silabaz.

BANEZA ETA BANITU





Baneza eta banitu

Imanol Kamiok sortutako doinua. Unai Agirrek Irunen erabili zuen aurreneko aldiz, kartzelako lanean. Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz.

DOINU HONEN IZENA DA





Doinu honen izena da

Mikel Markez kantari eta musikariak Alaia Martinentzat egindako doinua. Irungo saioan atera zuen, bukaerako agurrean. Neurria: Hamaseikoa, 8 puntuz eta 8 silabaz.

KIROLARION BIZITZA



Kirolarion bizitza dugu

Rosa Zaragoza kantari kataluniarraren *La Voz* kantua moldatu zuen Nerea Elustondok ahizparen laguntzarekin, eta Maulen plazaratu zuen, kartzelako lanean. Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz.

LAU URTEZ BEHIN TXAPELKETA





Lau urtez behin txapelketa

Iñaki Apalategik moldatu eta Durangon plazaratu zuen, hasierako agurrean. Gero, saio berean, kartzelako lanean ere erabili zuen. Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz.

KAS POTE BATZUK TXARROKO URA



Kas pote batzuk, txarroko ura.
Imanol Kamiok sortutako doinua Aitor Mendiluzerentzat. Durangoko finalaurrekoan atera zuen, kartzelako lanean. Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz.

HAUR BAT IZATEKO NAHIAK





Haur bat izateko nahia

Luz Casal A Coruñako kantariaren *Negras sombras* kantua egokitu zuen Jon Martinek, eta Amurrion atera zuen, kartzelako lanean. Neurria: Hamaseikoa, 8 puntuz eta 8 silabaz.

PERTSONOK EZ AL DARAMATZAGU
2.- Itzaltzuko bardoa





Pertsonok ez al daramatzagu

Benito Lertxundiren *Itzaltzuko Bardoa* izeneko kantua bertso moldera egokitu, eta Barakaldon atera zuen Sustrai Colinak, kartzelako lanean. Neurria: Hamalauko handia.

HOGEITA LAUA GABON GAUA DA





Hogeita laua gabon gaua da

Imanol Kamiok egindako doinua. Finalean atera zuen Aitor Mendiluzek, kartzelako lanean. Neurria: Hamaikakoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz.

ORAINDIK HANGO OIHARTZUN HOTS BAT



Oraindik hango oihartzun hots bat

Imanol Larzabal kantariaren *Naiari* izeneko kantua da. Aitor Mendiluzek eta Maialen Lujanbiok erabili zuten buruz burukoan. Neurria: Zortziko handia.

ERANSKINAK

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIAREN HISTORIA

1935-01-20 Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedi Elkarteek antolatu zuten. Donostiako Poxpolin antzokian jokatu zen eta Basarrik eskuratu zuen txapela.

1936-01-19 Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedi Elkarteak antolatuta, Donostiako Victoria Eugenia antzokian jokatu zen. Txirrita izan zen Txapeldun.

1960-12-18 Lehen aldiz Euskaltzaindiak antolatu zuen. Finaleko ekitaldia Donostiako Victoria Eugenia antzokian jokatu zen eta Basarrik jantzi zuen txapela.

1962-12-30 Euskaltzaindiak antolatu zuen. Uztapide izan zen txapeldun Donostiako Astorian jokatu zen finalean.

1965-01-01 Euskaltzaindiak antolaturik, Donostiako Anoeta pilotalekuan burutu zen finaleko ekitaldia eta bigarren aldiz Uztapide izan zen txapeldun.

1967-06-11 Euskaltzaindiak antolatu zuen eta Donostiako Anoeta pilotalekuan eman zitzaion amaiera txapelketari, hirugarren aldiz Uztapidek irabazi zuen.

1980-01-06 Euskaltzaindiak antolatu zuen laugarrena, Donostiako Balda pilotalekuan egin zen finala eta Xabier Amurizak eskuratu zuen txapela.

1982-12-20 Euskaltzaindiak antolatuta, Donostiako Balda pilotalekuan jokatu zen azken ekitaldia eta Xabier Amuriza izan zen txapeldun.

1986-03-23 Lehen aldiz Bertsolari Elkarteak antolaturik, Donostiako belodromoan egin zen finala eta Xebastian Lizaso izan zen txapeldun.

1989-12-17 Bertsolari Elkarteak antolatu zuen eta Donostiako Anoeta Belodromoan Jon Lopategik eskuratu zuen txapela.

1993-12-19 Bertsozale Elkarteak antolatu zuen eta Donostiako Anoeta Belodromoan eman zitzaion amaiera txapelketari. Andoni Egañak irabazi zuen.

1997-12-14 Bertsozale Elkarteak antolatu zuen eta Donostiako Anoeta Belodromoan Andoni Egaña izan zen txapeldun, bigarrenez.

2001-12-16 Bertsozale Elkarteak antolatutako bosgarren finala, Andoni Egaña izan zen irabazle Donostiako Anoeta belodromoan jokatu zen finalean.

2005-12-18 Bertsozale Elkarteak antolatu zuen eta lehen aldiz Barakaldon izan zen finala, Bilbao Exhibition Centren. Laugarren aldiz Andoni Egaña izan zen txapeldun.

2009-12-13 Bertsozale Elkarteak antolatuta, Barakaldoko Bilbao Exhibition Centren izan zen finala. Maialen Lujanbio izan zen irabazle.

2013-12-15 Bertsozale Elkarteak antolatu zuen eta hirugarrengoz finala Bilbao Centren egin zen, Barakaldon. Amets Arzallusek irabazi zuen txapela.

TXAPELKETAREN EGITURA

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko sustapen sailak proposatu eta Zuzendaritza Batzordeak onartu zituen Bertsolari Txapelketa Nagusia 2017 egitasmoaren talde antolatzailea eta talde teknikoak.

TALDE ANTOLATZAILEA ETA TALDE TEKNIKOAK

Talde antolatzailea: Jon Agirresarobe Lopetegi, Gontzal Agote Los Santos, Jokin Castaños Gonzalez, Xabino San Sebastian Murua, Goizalde Atxutegi Rodriguez, Beñat Vidal Gurrutxaga, Iker Iriarte Iribar, Julen Zelaieta Iriarte, Oier Suarez Hernando, Asier Lafuente Ruiz de Sabando, Ione Narbaiza Gallastegi, Edurne Soraluze Urretabizkaia, Ander Perez Argote, Xabi Torres Letona, Aritz Zerain Miner, Estibalitz Esteibar Iriondo, Amaia Goikoetxea Azpeitia eta Eneritz Urkola Agirrezabala.

Komunikazio taldea: Estibalitz Esteibar Iriondo, Amaia Goikoetxea Azpeitia, Eneritz Urkola Agirrezabala, Oihana Aranburu Balerdi, Eneko Salaberria Gonzalez, Gontzal Agote Los Santos, Maddi Ibaibarriaga Zubikarai eta Ander Perez Argote.

Aurkezle eta gai jartzaile taldea: Maite Berriozabal Berrizbeitia, Amaia Ugalde Begoña, Idoia Anzorandia Kareaga, Oier Suarez Hernando, Aintzane Irazusta Arzallus, Marta Ugarte Abasolo, Alaitz Rekondo Ferrero, Fernando Anbustegi Goñi, Elisa Almandoz Irigoien, Maider Ansa Zugarramurdi, Ion Zaldua Brit, Iker Iriarte Iribar, Inaxio Usarralde Arantzadi, Saroi Jauregi Aiestaran, Joana Itzaina Malharin, Amaiur Lujanbio Agirre, Pantxika Solorzano Azarete eta Amaia Castorene Luro.

Epaile taldea: Ekaitz Elorriaga Anduaga, Ainhoa Aizpurua Insausti, Aitor Jimenez Tolosana, Mikel Fernandez de Arroiabe Idigoras, Mirari Azula Aurrekoetxea, Joseba Santxo Uriarte, Joakin Arregi Goenaga, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Asier Ibaibarriaga Apoita, Martin Aramendi Arana, Eneritz Azkue Basurko, Zigor Leunda Eizmendi, Karlos Ibarguren Olalde, Mikel Lersundi Ayestaran, Maite Sukia Olano, Nerea Bruño Artazkoz, Jon Abril Olaetxea, Mikel Beaumont Arizaleta eta Eneko Bidegain Aire.

Idazkari taldea: Nerea Goñi Begiristain, Joxe Mari Altuna Berridi, Miren Itziar Basterretxea Olarreaga, Gorka Segurola Dorronsoro, Ane Errazkin Aranburu eta Esti Zengotitabengoa Gutierrez.

BERTSOLARIEN LANAK

Final laurdenak (15 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.
Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.
Binaka, gaia emanda, hamarreko txikian hiruna bertso.
Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Finalaurrekoak

Lehen itzulia (15 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.
Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean[1].
Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Bigarren itzulia (16 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.
Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte.
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.
Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Finala

Goiza (15 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.
Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.
Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

1: *Bertso-estrofak izendatzeko irizpideak* lanaren arabera, "Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz" deitzen zaio seiko motzari Hegoaldean, eta "Sei puntukoa, berdinaren moldekoa" Iparraldean.

Arratsaldea **(10 bertso puntuagarri)**

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean.
Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte.
Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

Buruz burukoa **(11 bertso puntuagarri)**

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean.
Binaka, gaia emanda, launa bertso zortziko txikian.
Kartzelako lana:
Banaka, hitza gaitzat emanda, bertso bat bederatziko txikian[2].
Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

2: *Bertso-estrofak izendatzeko irizpideak* lanaren arabera, "Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz" deitzen zaio bederatziko txikiari Hegoaldean, eta "Bederatzi puntukoa, txikiaren moldekoa" Iparraldean.

EGUTEGIA

Final laurdenak

Irailak 23, larunbata, Baigorri	Ezker pareta
Irailak 30, larunbata, Segura	Baratze pilotalekua
Urriak 1, igandea, Leitza	Udal kiroldegia
Urriak 7, larunbata, Zalla	Mimetiz pilotalekua
Urriak 8, igandea, Zumaia	Aitzuri pilotalekua
Urriak 14, larunbata, Tolosa	Beotibar pilotalekua

Finalaurrekoak

Urriak 28, larunbata, Bastida	Udal kiroldegia
Azaroak 1, asteazkena, Irun	Artaleku kiroldegia
Azaroak 4, larunbata, Maule	Ororena jai alai
Azaroak 12, igandea, Durango	Landako gunea
Azaroak 19, igandea, Amurrio	Bañueta kiroldegia
Azaroak 26, igandea, Donibane Lohizune	Jai-Alai
Abenduak 2, larunbata, Iruñea	Anaitasuna kiroldegia

Finala

Abenduak 17, igandea	Barakaldo	BEC

TXAPELKETA OSOAN ZEHAR PARTE HARTU DUTEN BERTSOLARIAK

Bertsolari Txapelketa Nagusiak herrialdeetako txapelketetan du abiapuntu. Zerrenda honetan Bertsolari Txapelketa Nagusia 2017 egitasmoan parte hartu duten bertsolari guztiak daude. Beltzez nabarmenduta daude txapelketarako txartela lortu dutenak, 2013ko txapelketako finalista legez edo herrialdeetako txapelketetan sailkatzea lortuta.

ARABA

Asier Otamendi Alkorta
Ander Solozabal Kortabarria
Andere Arriolabengoa Bengoa
Asier Rubio Hidalgo
Felipe Zelaieta Txurruka
Iker Agirre Uribarren
Iñaki Viñaspre Simon
Irati Ruiz de Pinedo
Izar Mendiguren Cosgaya
Jagoba Apaolaza Castro
Jon Ruiz de Pinedo Lekuona
Jon Sanchez Alonso
Maddalen Arrausi
Manex Agirre Arriolabengoa
Oier Arbina Vadillo
Oihane Perea Perez de Mendiola
Paula Amilburu Izargarai
Peru Abarrategi Sarrionaindia
Rikardo Gonzalez de Durana Alzola
Serapio Lopez Ortueta
Unai Bengoetxea Mujika
Unai Gomez Garde
Xabi Igoa Eriz
Xabi Rico Iturriotz
Xabier Antia Zuaznabar
Zigor Enbeita Zugadi

BIZKAIA

Aissa Intxausti Aburruza
Aitor Bizkarra Ruiz
Aitor Arrutia Azkueta
Aitor Ruiz Urizar
Aitor Esteban Etxebarria
Ander Elortegi Garatea
Ander Aldazabal Olabarri
Arkaitz Zipitria Mendizabal
Arrate Illaro Etxebarria
Asier Galarza Garay
Axier Goñi Arsuaga
Beñat Romero Maguregi
Beñat Vidal Gurrutxaga
Beñat Ugartetxea Ostolaza
Bikain Urkidi Etxebarria
Dani de Miguel Avecilla
Ekaitz Larrazabal Gutierrez “Katxo”
Eneko Arrate Sololuze
Eneko Abasolo Txabarri ‘Abarkas’
Etxahun Lekue Etxebarria
Galder Bilbao Martínez “Txapi”
Garikoitz Sarriugarte Onaindia
Gurutz Uruburu Ibarguengoitia
Ibon Larrazabal Landa “Larra”

Ibon Ajuriagojeaskoa Garmendia
Igor Galarza Intxausti
Igor Elortza Aranoa
Igor Menika Bengoetxea
Iker Garitagoitia Astigarraga
Illart Gumuzio Larrazabal
Imanol Arrutia Azkueta
Imanol Uria Albizuri
Inazio Vidal Gurrutxaga
Iñaki Iturriotz Zuluaga
Iñaki Lersundi Arrizabalaga
Ion Barrocal Besga
Itxaso Paia Ruiz
Joanes Igeregi Santamaria
Jon Larrabide Fuldain
Jone Larrinaga Dañobeitia
Jone Uria Albizuri
Joseba Barandiaran Andueza
Joseba Artza Zubillaga
Josu Landeta Egurrola
Julen Erezuma Arzanegi
Julen Ibarguengoitia Ordorika
Koldo Gezuraga Seijido
Lander Ibarluzea Bikandi
Malen Amenabar Larrañaga
Mikel Retolaza Etxebarria
Mikel Galarza Idirin
Mikel Goiriena Larrazabal
Miren Amuriza Plaza
Nerea Ibarzabal Salegi
Nuria Cortada Ibañez
Oihana Bartra Arenas
Onintza Enbeita Maguregi
Paule Ixiar Loizaga Legarra
Peio Azkarate Elejabarrieta
Peio Arondo Barandiaran
Peio Ormazabal Villanueva
Peru Vidal Gurrutxaga
Txaber Altube Sarrionandia
Txaber Ormazabal Villanueva
Unai Mendiburu Valor
Xabat Galletebeitia Abaroa
Xabier Irakulis Agirre

GIPUZKOA

Adur Gorostidi Urkia
Agin Laburu Rezola
Aitor Irastorza Fadrique
Aitor Salegi Martija
Aitor Urbieta Aizpurua
Aitor Mendiluze Gonzalez
Aitor Sarriegi Galparsoro
Aitzol Iturbe Beristain
Alaia Martin Etxebeste
Amaia Iturriotz Etxaniz
Ander Lizarralde Jimeno
Andoni Goitia Etxezarreta
Ane Labaka Mayoz
Ane Zuazubiskar Iñarra
Antton Fernandez Lasa
Aratz Igartzabal Bidegain
Arkaitz Oiartzabal Agirre
Arnaitz Lasarte Santa Kruz
Asier Azpiroz Iztueta
Asier Sasieta Barrenetxea
Beñat Jauregi Etxeberria
Beñat Torres Lete
Beñat Iguaran Amondarain
Beñat Gaztelumendi Arandia
Beñat Lizaso Alberdi
Danel Olano Eizagirre

Egoitz Eizagirre Aduriz
Egoitz Aizpuru Sanz
Eli Pagola Apezetxea
Endika Igarzabal Murua
Eneko Araiztegi Agirre
Eneritz Artetxe Eizagirre
Eñaut Martikorena Lizaso
Felix Zubia Olaskoaga
German Urteaga Garmendia
Gorka Azkarate Torner
Gorka Etxeberria Casquero
Gorka Maiz Alustiza
Haritz Mujika Lasa
Haritz Garmendia Iturria
Haritz Casabal Pikabea
Hodei Iruretagoiena Albizu
Ibai Esoain Arruti
Iban Urdangarin Lardizabal
Iker Osa Zelaia
Imanol Irazustabarrena Garmendia
Imanol Lizarazu Illarramendi
Iñaki Zelaia Irazusta
Iñaki Gurrutxaga Zubimendi
Iñaki Apalategi Astigarraga
Iñigo Gorostarzu Etxebeste
Iñigo Mantzizidor Larrañaga
Iñigo Ibañez Aramendi
Izarne Zelaia Arratibel
Jexux Mari Irazu Muñoa
Jokin Bergara Eguren
Jokin Uranga Isuskiza
Jon Gurrutxaga Urbieta
Jon Iturrioz Nazabal
Jon Maia Soria
Jon Martin Etxebeste
Joritz Bastarrika Albisu
Joseba Lasagabaster Madinabeitia
Josu Oiartzabal Iturzaeta
Josu Oiartzabal Zapirain
Julen Agirre Agirrezabal
Maddi Gallastegi Osa
Maialen Akizu Bidegain
Maialen Lujanbio Zugasti
Maider Arregi Markuleta
Manex Mujika Amunarriz
Manex Astigarraga Bergara
Manu Goiogana Bengoetxea
Mikel Tapia Aierbe
Mikel Iturriotz Etxaniz
Mikel Artola Izagirre
Nahikari Gabilondo Mendizabal
Nerea Elustondo Plazaola
Odei Lopez Larrauri
Oier Aizpurua Olaizola
Oier Iurramendi Etxeberria
Oier Etxeberria Zubimendi
Oihana Iguaran Barandiaran
Txomin Azpiroz De Pedro
Unai Gaztelumendi Arandia
Unai Mendizabal Jauregi
Unai Muñoa Amundarain
Unai Agirre Goia
Urko Egaña Calderón
Xabier Sukia Etxeberria

NAFARROA

Aimar Karrika Iribarren
Ainara Ieregi Aranburu
Aitor Irastortza Arrizurieta
Alazne Untxalo Erregerena
Amaia Elizagoien Varela
Ander Baiano
Ander Fuentes Mujika 'Itturri'
Egoitz Gorosterrazu Elizagoien
Ekaitz Astiz Martinez
Eneko Fernandez Martitxalar
Eneko Lazkoz Martinez
Iban Garro Alzuri
Iker Gorosterrazu Elizagoien
Iñigo Olaetxea Alzugarai
Ioar Tainta Noble
Irati Majuelo Itoiz
Joana Ziganda Olano
Joanes Illarregi Marzol
Josu Sanjurjo Alzuri
Julen Zelaieta Iriarte
Julio Soto Ezkurdia
Kotte Plaza Etxenike
Luis Mari Larreta Amundarain
Mikel Lasarte Cia
Mintxo Astiz Goñi
Oier Lakuntza Irigoien
Oskar Estanga Ezkurdia
Oskar Sanz de Acedo Pollan
Patxi Castillo Graciarena
Saats Karasatorre Martinez
Sahats Aleman Sadaba
Saioa Alkaiza Guallar
Sarai Robles Vitas
Xabi Maia Etxeberria
Xabier Terreros Gartzia

XILABA

Aitor Servier Etchechuri
Amets Arzallus Antia
Battitt Crouspeyre
Egoitz Zelaia Perez
Eneritz Zabaleta Apaolaza
Kerman Diaz Franco
Maddalen Arzallus Antia
Maddi Sarasua Laskarai
Miren Artetxe Sarasola
Nahia Sasco Etxeberri
Odei Barroso Gomila
Ortzi Idoate
Ramuntxo Christy Bizcay
Sustrai Colina Acordarrementeria
Xumai Murua Berra

		Finala	Finalaurrekoak	Final laurdenak
1	Maialen Lujanbio Zugasti	1756.00	1457.50	Zuzenean sailkatuta
2	Aitor Mendiluze Gonzalez	1680.50	1437.00	Zuzenean sailkatuta
3	Sustrai Colina Acordarrementeria	1137.50	1406.50	Zuzenean sailkatuta
4	Amets Arzallus Antia	1136.00	Zuzenean sailkatuta	Zuzenean sailkatuta
5	Igor Elortza Aranoa	1124.00	1413.00	Zuzenean sailkatuta
6	Aitor Sarriegi Galparsoro	1107.50	1403.50	Zuzenean sailkatuta
7	Beñat Gaztelumendi Arandia	1076.50	1389.00	Zuzenean sailkatuta
8	Unai Agirre Goia	1072.50	1363.50	674.50
9	Jon Maia Soria		1356.50	662.50
10	Jon Martin Etxebeste		1339.50	673.50
11	Julio Soto Ezkurdia		1339.50	678.50
12	Nerea Ibarzabal Salegi		1338.50	698.50
13	Jone Uria Albizuri		1337.50	662.00
14	Miren Amuriza Plaza		1330.50	700.50
15	Agin Laburu Rezola		1324.50	686.00
16	Oihana Iguaran Barandiaran		1317.00	714.00
17	Alaia Martin Etxebeste		1300.50	712.00
18	Iñaki Apalategi Astigarraga		1281.50	685.00
19	Etxahun Lekue Etxabarria		1271.50	673.00
20	Miren Artetxe Sarasola		639.00	661.50
21	Nerea Elustondo Plazaola		637.50	665.50
22	Maddalen Arzallus Antia		634.50	670.00
23	Aimar Karrika Iribarren		605.00	651.50
24	Beñat Iguaran Amondarain		604.00	655.50
25	Nahikari Gabilondo Mendizabal		600.00	661.50
26	Odei Barroso Gomila			650.00
27	Beñat Lizaso Alberdi			646.50
28	Onintza Enbeita Maguregi			640.50
29	Xabat Galletebeitia Abaroa			636.00
30	Beñat Ugartetxea Ostolaza			631.50
31	Ander Fuentes Mujika "Itturri"			629.50
32	Arkaitz Oiartzabal Agirre "Xamoa"			627.50
33	Ander Lizarralde Jimeno			627.00
34	Mikel Artola Izagirre			620.00
35	Unai Gaztelumendi Arandia			620.00
36	Oihana Bartra Arenas			619.50
37	Asier Otamendi Alkorta			617.50
38	Ibon Ajuariagojeaskoa Garmendia			616.00
39	Eneko Abasolo Txabarri "Abarkas"			615.50
40	Eneko Lazkoz Martinez			607.00
41	Xabi Maia Etxeberria			598.50
42	Felix Zubia Olaskoaga			594.00
43	Oihane Perea Perez de Mendiola			591.50